

## HONELA MINTZATU ZEN ZARATUSTRA FRIEDRICH NIETZSCHE

Honela mintzatu zen Zaratustra-ren sorrera

Honela mintzatu zen Zaratustra-ren sorrera hirukoitza –afektiboa, kontzeptuala eta figuratiboa-- hedatuki aditzera eman du bere egileak gutun eta apunte partikular-sorta batean, baina era berezian Ecce Homo-n, obra honi eskainiriko sailean. Autoazalpen hain gartsu eta argikuslea aipatu beharra dago oinarritzkoa dena nabarmen jarri nahi bada. Baina Nietzscheren autobiografia hori, bizipenak erakusterakoan hain aberatsa dena, kanpotiko ikuspen bat, bere barnetik halako pentsamenduak zerabiltzan figuraren begizko behaketa bat lortzeko aukera emango liguketen kanpo-osagaiei buruzko aipamenetan oso urria da. Zertzelada horietako batzuk ondoren emanak datoz.

1880ko azaroaren erdi-aldera Nietzsche Genoan kokatzen da, non egonaldi luze bat egingo duen. Zenbatu ezinezko eta mota guztietako zailtasunekin borrokan Egunsentia bere liburu berria eratuko duen materiala ordenatzea lortzen du. Negu gogorra da; “ez daukat estufarik”, dio bere adiskide Peter Gasti gutun batean. Nola ematen ditu egunak eta gauak Nietzschek? Stefan Zweigen orrialde ospetsu eta distiratsu batera joko dugu, zeina Nietzscheren bizitzako beste denboraldi batzuei aplikagarri bazaie ere, badirudi 1880tik 1881era bitarteko genoar neguan begiak era berezian ezarrita zeuzkala idatzia dela. “Gizonaren irudia” izendatzen du egileak, eta honela dio:

“Egunean sei frankotako ostatu bateko jantoki ziztrina, Alpeetako hotel batean edo Liguriako kostaldearen inguruan. Ostalari axolagabeak, gehienetan andre zahar batzuk small talk eginez, hau da, berriketan. Ezkilak dagoeneko otordurako deia egina du. Bizkar abailduriko, silueta zehaztugabeko gizon bat sartzen da; pausoa koloka du, zeren Nietzsche, “itsutik sei zazpien dituen” ia haztamuka baitabil, haitzulo batetik irtena bezala. Trajea iluna eta arretaz txukundua du, aurpegia ere iluna du, eta ile gaztaintara tximatsua darabil, olatuek asaldua bezala; begiak ere ilunak ditu, kristal lodi batzuetatik, izugarri lodietatik ageri direnak. Emeki, ia lotsati, hurbiltzen da; inguruan isiltasun anormala nabari zaio. Ilunpetan bizi den gizona dirudi, gizarteaz haraindi, elkarriketaz haraindi eta zarata edo soinu den edozeren beti beldur dagoena; kortesia eta adeitasunez agurtzen ditu beste ostalariak eta, kortesiaz itzultzen diote diosala. Miopearen pauso kolokaz hurbiltzen da mahaira, urdailetik gaixo dagoenak ohi duen arretaz dastatzen ditu janariak, zeren gerta bailiteke jakiren bat ongarrituegi egotea edo tea sendoegia, izan ere horietako edozerk gaitzituko bailioke bere sabel delikatu, eta hau gaixotzen bada, nerbioak trumilka asaldutzen zaizkio. Baso ardorik ez, ezta baso garagardorik, alkoholik batere ez, kaferik batere ez, pururik ez, zigarrorik ez; estimulagarriarik ezer ez; otordu gartxu bat bakarrik eta kortesiazko elkarriketa bat ahots apalean, mahaikidearekin (hizketarako ohitura galdu eta gehiegi galde diezaioten beldur den batek hitz egingo lukeenez). Gero bere gela ziztrin, pobre, hotzera doa. Mahaia paper, ohar, idatzi, frogaz mukuru dago; baina ez lorerik, ez apaindurarik; libururen bat eta doi-doi, eta oso bakanetan, gutunen bat. Han zoko batean zurezko kutxa astun bat, bere fortuna guztia: bi alkandora, traje bat, liburuak eta eskuizkribuak. Apal baten gainean, botilatxo, flasko eta sendagai ugari, ordu luzetan zoraturik edukitzen duten buruko minei erasotzeko, urdaileko karranpen, goralarren kontra borroka egiteko, bere heste-nagitasuna garaitzeko eta, batez ere, kloral eta veronalez bere loezin ikaragarriari aurka egiteko. Pozoi eta drogateria izugarria, horixe baita gela

atzerritar bateko hustasunean aurki lezakeen laguntza bakarra, non ezin baitu beste atsedetik aurkitu loaldi labur, arin, bortxatu batek eman ezik. Kapa eta artilezko tapakian bildurik (zeren tximiniak kea atera bai baina ez baitu berorik ematen), atzamarrak izoztuak, lente lodiak ia papera ukituz, bizkor idazten du, ordu luzetan, gero bere begiek ere dezifratu ezin dituzten hitzak. Ordu luzetan dago han eserita idazten, begiak erretze eta malkoa dariola jartzen zaizkion arte; bere bizitzako zorion bakanetako bat du, norbaitek errukiturik, denboraldi batean idazteko, laguntzeko bere burua eskaintzea. Egun ona egiten badu, betiko bakartia paseatzera irteten da, beti bere pentsamenduekin bakarrik. Ez dio inork agurrik egiten, ez du inork geldiarazten. Eguraldi txarrak, elurak, euriak, berak hainbeste gorroto duen horrek guztiak preso dauka bere gelan; ez du inoiz gela uzten besteen konpainia bilatzeko, beste pertsona batzuk bilatzeko. Gauean, pasteltxo-pare bat, kikarakada bat te arin eta berriz ere berehala betiko bakardadera bere pentsamenduekin. Ordu luzeak iratzarrik ematen ditu kriseilu ilaun eta ke-jarioaren ondoan bere nerbioek, beti tenkaturik daudenek, nekez laxatu gabe. Gero kloralari edo beste edozein lo-eragileri heltzen dio, eta horrela, derrigorrean, loak hartzen du, beste pertsonak bezala loak hartzen du, pentsatzen ez duten eta deabruak pertsegitzen ez dituzten pertsonak bezala”.

1881eko urtarrilaren 25ean Nietzschek Egunsentia-ren zirriborroa bidaltzen dio Gasti, garbian kopia bat egin dezan. Eta azkenik, martxoaren erdi-aldera bien artean eskuizkribua prest edukitzea lortzen dute inprimategirako. Une honetan Nietzschek atsedendaldi bat hartzea erabakitzen du, eta Gersdorff aspaldiko adiskideari galdetzen dio ea prest egongo al litzatekeen berarekin Tunisiara joateko eta bertan urte bat edo bi pasatzeko. Handik gutxira, hala ere, frantziar eta tunisiarren arteko gatazkak ezinezko bihurtzen du proiektu hori betetzea, eta Nietzsche, maiatzaren 1ean, Peter Gast adiskidearekin aste batzuk ematera doa Vizentzatik hurbil dagoen Recoaroko bainuetxera.

Reacoaron gertatzen da Honela mintzatu zen Zaratustra izango denaren lehen auresusmoa. Auresusmo lausoa da, ez kontzeptuala eta ez figuratiboa, gero aipatuko ditugun biak bezalakoa. “Zeinu aitzindari” bat besterik ez da, nire gustuaren bat-bateko aldaketa bat da, eta sakonenean, erabakigarria, musikari dagokionean batik bat.” Nietzschek hitzek aldaketa hori aipatzen dute enigmatikoki: “Mendiko herrixoa termal batean, Vizentzatik hurbil, Recoaron, non igaro bainuen 1881eko udaberria, aurkitu nuen neure maisu eta adiskide dudana Peter Gastekin batera, bera ere “birjaioa” baita, Fenix Musika hegaz pasatzen ari zela gure albotik inoiz ordura arte erakutsi gabe zeukana baino lumaje arinago eta argitsuagoarekin (Ecce homo, 93-94 or.). Besterik ez. Fenix Musikaren ikuspen honetan kokatzen da Honela mintzatu zen Zaratustra-ren sorrera afektiboa.

“Nola esan hitz bakar batean norantz jotzen duten neure baitan dauzkadan indar guztiek? Eta hitz hori baneki, ez nuke esango”, idazten dio Nietzschek arrebari Reacoarotik Suitzara, uda emango duen tokira, abiatu baino lehentxeago. Eta bertan gertatuko da hemen “sorrera kontzeptuala” izendatzen dugun gertakari hura.

Orain Zaratustraren historia kontatzera noa. Obraren oinarritzko kontzeptua, betiko itzuleraren pentsamendua, absolutuki irits daitekeen baieztapen-formula goren hori, 1881. urteko abuztuko da: orri batean ezarrita ageri da eta amaieran hau dago idatzirik: “6.000 oinetara gizonaz eta denboraz haraindi.” Egun hartan Silvaplanako lakuaren hegitik nenbilen basoetan zehar; Surleitik hurbil piramide erara ageri den harkaitz

eskerga baten ondoan, gelditu egin nintzen. Orduan etorri zitzaidan pentsamendu hori (Ecce homo, 93. or.).

Zer zioen orri hark? Zorionez iraun egin du, eta bere testu osoa honako hau da:

Berberaren itzulera  
Zirrimarra

1. Oinarrizko errakuntzen asimilazioa.
2. Grinen asimilazioa.
3. Jakitearen asimilazioa, uko egiten duen jakitearena ere bai. (Ezagutzaren grina)
4. Errugabea. Banakoa esperimendu gisa. Bizitzaren arintzea, beheratzea, ahultzea-iragaitza.
5. Grabitate-zentro berria: berberaren betiko itzulera. Gure jakitearen, gure erratzearen, gure ohituren eta bizimoduaren garrantzi amaigabea etortzeko den guztirako. Zer egiten dugu geure bizitzaren gainerakoarekin –guk, bere parterik handiena ezjakintasunik funtsezkoenean eman dugunok? Doktrina hau irakasten arituko gara –guk geuk asimilatzeke bitartekorik eraginkorra da. Gure zoriontasun-gisakoa doktrinarik handienaren maisu gisa.

1881eko abuztuaren lehenetan Sils-Marian, 6.000 oinetara itsas nibelaz gainetik eta askoz garaiago oraindik giza gauza guztien gainetik.

Betiko itzuleraren pentsamendua, une horretara arte Nietzschek era kanpokoan bakarrik ezagutzen zuena, ezin zenbatu ahala iturri ekialdetar eta grekotan jadanik adierazpidea izan zuen gizadiaren hipotesi zahar gisa, haragitu egiten da beragan. “Orduan pentsamendu hori etorri zitzaidan”. Baina pentsamendua besterik ez da, eta aho duina behar da azaltzeko. Oraingoz Nietzschek aurkitu ere ez du egiten. Eta hilabete askok pasatu beharko dute, hemezortzi zehatz esateko (“zenbaki horrek iradoki lezake, budisten artean behintzat, ni barrenean elefante eme bat naizelakoa”), Recoaroko sorrera afektibotik, Sils-Marian sorrera kontzeptual honetatik igaroz, harik eta 1883ko urtarrilean Nietzschek Rapallon Zaratustraren tipoaren ikuspena izan arte, hau da, obraren sorrera figuratiboa deitu dioguna. Orduan izango dira prest hiru osagaiak, eta lehen partea erupzio gisa erneko da “hamar egunetan”.

Sils-Mariako agerkundearen eta Rapalloko azalpenaren artean doan denboraldia elementu konbultsiozkoz beterik dago Nietzscheren bizitzan. Sils-Mariako udaldia amaiturik Nietzsche Genoara itzultzen da eta bertan ematen du negu osoa; 1882ko apirilean Mesinarako itsasontzia hartzen du, eta handik gutxira Erromara doa, non Lou von Salome ezagutzen duen; emakume honi birritan ezkontzeko eskatuko dio baina alferrik, zeren bietan uko egiten baitio. Berarekin gero iparraldera abiatzen da; Nietzschek ekaina Naumburgen ematen du, bere familiarekin, eta Zientzia alaia-n lan egiten du. Uztailean Tautenburgen aurkitzen da, Lou von Salome noiz helduko zain, denboraldi batez berarekin biziko dela agindu baitio. Zientzia alaia amaiturik dago eta inprimategira bidaltzen dute: bere azken orrialdeetako batean jadanik Zaratustraren irudi ageri da, gero oso-osorik Honela mintzatu zen Zaratustra-ra pasatuko den paragrafo batean. Abuztuaren hasieran Lou von Salome Tauten Naumburgera iristen da. Ez da hori egokia abentura bitxi haren berri emateko, zeinak baitarama Nietzsche tragikomediaren muturreraino.

Urte mordoska bat geroago Lou von Salomek F. Nietzsche bere obretan (Viena, 1894) titulaturiko liburu bat argitaratuko du. Bada bertan transkribatzea interesatzen zaigun orrialde bat, zeren Nietzscheren kanpo-irudia, 1882ko uda hartan hain emakume harrigarriaren begiek ikusitakoa begiesteko aukera eskaintzen baitu. Nietzsche ernari dago ia iratotzen duen pentsamendu batez. Eta gizon hark, bere obra gailurraren lehen atala idatzi baino hilabete gutxi batzuk lehenago, itxura hau ageri du: “Iraizeko begiesleari ez zitzaion xehetasun deigarriarik ageri. Kaizu ertaineko gizaseme hura, oso era sotilean jantzia, baina baita arretatsuan ere, bere aurpegiera patxadazkoa eta ile gaztainakara besterik gabe atzealdera orraztuarekin patxadazkoa eta ile gaztainakara besterik gabe atzealdera orraztuarekin, erraz pasa zitekeen oharkabe. Ahoko lerro fin eta harrigarriro adierazkorrak ia erabat estalirik geratzen ziren aurrerantz jausitako bibote baten pean; barre biguna zuen, hitz egiteko era baratxa eta ibiltzeko era begiratu eta pentsakorra, sorbaldak zertxobait aurrera makurtuz; zaila zen irudi hura jendetza baten erdian irudikatzea –apartetasunaren, bakardadearen zigilua zeukan. Paregabeki ederrak eta bikain eratuak, zeinak uste baitzuen bere espiritua salatzen ziotela.--Antzeko garrantzia ematen zien belarriei, oso txikiak eta fineziaz modelatuak zirenei, zeinez esaten baitzuen egiazko “belarriak zirela entzungabeko gauzetarako belarri”. –Bere begiek ere mintzaira benetan salatzailez hitz egiten zuten. Erdi-itsuak izaki, ez zuten, hala ere, miope askorenengan zelatan egote horren, betazalei eragite horren nahigabeko mutirikeria horretatik, ezertxo ere; aitzitik, altxor propioen, sekretu mutuen zaindari eta gordetzailer zituditen, ezein begirada gomitatu gabek ukitu behar ez zituztenak. Ikusmen-eskasiak bere aurpegierari oso xarma-mota berezia ematen zion, zeren kanpotiko inpresio aldakorrak islatu beharrean, bere barrenetik pasatzen zena bakarrik birsortzen baitzuen. Zen bezala agertzen zenean, kitzikatzen zuen biren arteko elkarriketa bateko liluran, orduan argitasun hunkigarri bat ager eta desager zekiokkeen begietan: baina aldarte goibela zuenena, orduan bakardadeak era ilun ia mehatxuzkoz hitz egiten zuen beraietan, sakonera kezkarrietatik bailetarren...”

“Idilio” hura amaiturik, aurreratzean Nietzscheri hainbesteko mina sortuko diona, Leipzigera abiatzen da eta, Basileatik igarota, berriro Genoara heltzen; azaroaren erdi-aldera. Hil bereko 23an Rapallora aldatzen da lekuz. “Hurrengo negua Rapalloko badia polit eta lasaian bizi izan nintzen, Genoatik hurbil, Chiavari eta Portofinoko lur-adarraren tartean kokatuan. Osasuna ez nuen oso ona; negua, hotza eta izugarri euritsua; albergo (ostatu) txiki bat itsasoaren aurrez aurre kokatua, gauez olatuek lo egitea ezinezko bihurtzen zutelarik, ia denean nahigarria zenaz bestelakoa eskaintzen zuten. Hala eta guztiz ere, eta erabakigarria den guztia “zailtasunak gorabehera” sortzen delako neure tesia egiaztatzeko, nire Zaratustra negu honetan jaio zen eta kontrako inguruabar hauetan. Goizean hegoalderako noranzkoan igotzen nintzen, gailurreraino, Zoaglira doan errepide bikainetik, pinuen albotik igaroz eta begiradaz itsasoa menperatuz; arratsaldean, osasunak uzten zidan guztietan, Santa Margheritako badiari inguru egiten nion, Portofino atzera heldu arte. Toki hau eta paisaia hau oraindik hurbilago bihurtu zaizkio nire bihotzari Federiko III alemaniar enperadore ahaztezinak zien maitasun handiarengatik; ni berriro, halabeharrez, kostalde honetan aurkitzen nintzen 1886ko udazkenean, berak zoriontasunezko mundutxo ahaztu honi azkeneko aldiz bisita egin zionean. –Bi bide hauetan bururatu zitzaidan lehen Zaratustra osoa, batez ere Zaratustra bera tipo gisa: zehatzago esateko, berau oldartu egin zitzaidan...” (Ecce homo, 95. or)

Hemen Rapallon, segur aski 1883ko urtarilaren azkenetan, gertatzen da liburu honen “sorrera figuratiboa” deitu duguna. Nietzschek dioenez: “Batez ere Zaratustra bera tipo gisa... oldartu egin zitzaidan...”. Zaratustraren agerpen hura, berberaren betiko

itzulerazko pentsamendua adierazteko ahoa duina, Nietzschek poema labur batean deskribatzen du eta bere titulua hau da:

### Portofino

Hemen nengoen ni, itxaroten, itxaroten-hutsari,  
Ongiaz eta gaizkiaz haraindi, gozatzen  
orain argiaz, orain itzalaz, erabat joko bakarrik izaki,  
Erabat itsaso, erabat eguerdi, erabat denbora helburugabe.  
Orduan, bat-batean, neska adiskide! bat zena bitu egin zen –  
Eta Zaratustra albotik igaro zitzaidan.

Dagoeneko dena osorik dago. Eta hamar egunetan, 1883ko otsailaren 1etik 10era, Nietzschek Honela mintzatu zen Zaratustra-ren lehen liburua idazten du. Idazketa honen bizkortasuna estrainioa iritzi lekiok Nietzschek zeukan lan egin eta liburuak idazteko modua ezagutu ezean. Egun eta hilabeteetan ohar-koadernotan bururatzen zitzaizkion eskema kontzeptualak, pentsamenduak, zirriborro narratibo eta lirikoak jasotzen zituen. Eta liburu bat “idazteak” esanahi literala zuen beretzat: hartaz erditzeko unea iristean kaos hartatik multzo antolatu bat atera eta kopia bat garbian “idaztea” zen kontua. Ondoren berehalaxe eskuizkribuzko bigarren kopia bat egin behar izaten zuen inprimategira bidaltzeko. Otsailaren 10ean Rapallon obra idatzi bezain laster, Nietzsche Genoara doa 14an eskuizkribua editoreari bidaltzeko. Segur aski 13 gauean bukatzen du eskuizkribu honetako, biharamunean Leipzigera bidaliko duen honetako azken pasartearen transkribaketa. Genoara iristean, “neure ohituraren kontra”, Caffaro egunkariaren arratseko alea erosten du eta Wagnerren heriotza-albisteak irakurtzen du bertan. Aurreko gauean hil zen Venezian. Geroago Nietzschek idatziko du “Azken atala, hitzaurrean lerro batzuk aipatu ditudaneko hori berori, Richard Wagner Venezian hiltzen ari zen ordu sakratuan burutu zen” (Ecce homo, 94. or.)

Nietzschek bere obra idatzi zueneko espiritu-egoerari berak inspirazio deitu zion. Entzun ditzagun bere hitzak: Ba al du inork, XIX mendearen amaieran, garai ahaltsuetako poetek inspirazio deitu ziotenaren kontzeptu argirik? Hala ez bada, deskribatu egingo dut. –Superstizio-hondar txikienik gordetzen bada, haragiztatze soila, soinu-tresna soila, indar guztiz ahaltsuen medium soila izatearen ideari uko egitea zaila litzateke. Agerkunde zentzuak, ezin esanezko segurtasun eta fineziaz bat-batean zerbait agerian jartzeak, entzuteak, norbera sakonenean hunkitu eta nahasteak, deskribatzen du sinpleki gertakarien errealtatea. Entzun egiten da eta bilatu; hartu egiten da, ez da galdetzen nor den emailea; tximista leinurutsu baten gisara pentsamendu bat, behartasunarekin, ezbairik gabe forman –nik ez du inoiz aukeratu beharrik izan. Estasi bat, zeinaren tirandura ikaragarria batzuetan malko-zurrustada batean lehertzen den, estasi bat, zeinean batzuetan pausoa nahigabe agudotzen den eta beste batzuetan geldo bihurtzen; erabateko nor-bereburuaz-kanpo-egote bat, ezin zenbatu ahala beldur delikatu eta oinako behatzetaraino iristen diren ikaren kontzientzia guztiz argiarekin; zorion-amildegi bat, zeinean mingarrienak eta goibelenak ez baitihardu antitesi gisa, baizik eta zerbait baldintzatu, exigitu bezala, beharrezko kolore batek bezala halako argi-ugaritasunaren artean; erlazio erritmikoen sen bat, formen espazio zabalak besarkatzen dituen –luzera, erritmo zabal baten beharra inspirazioaren bortxaren ia neurria da, bere presio eta tentsioarekiko kontrapisu gisako bat... Dena era zeharo nahigabean gertatzen da, baina askatasun, baldintzagabetasun, ahalmen, jainkotasunezko sentimendu-ekaitz batean bezala..... Imajinaren, sinboloaren,

nahigabekotasuna da ohargarriena; ez da edukitzen inolako kontzepturik; imajina dena, sinbolo dena adierazpen hurbilena, zehatzena, sotilena bezala azaltzen da. Izatez badirudi, Zaratustra-ko esaldi bat gogora ekartzeko, gauzak hurbildu eta beren burua eskaintzen dutela sinbolotarako (“Hemen gauza guztiak laztantzaile hurbiltzen dira zure bokantzara eta lausengatu egiten zaituzte: zeren zure bizkarrean zaldizka ibili nahi baitute. Sinboloetako bakoitzaren gainean zatoz zu zaldizka hemen egietako bakoitzera. Hemen supituki irekitzen dira zuretzat izaki ororen hitzak eta hitz-armairuak; izaki osoak bihurtu nahi hemen hitz, bilakatze orok ikasi nahi du zugandik hitz egiten”). Hauxe da inspirazioaz dudan esperientzia; ez dut zalantzarik milaka urteetan atzera egin beharra dagoela “nirea ere bada” esateko eskubidea duen norbait aurkitzeko” (Ecce homo, 97-98 or).

Lehen parte hura Leipzigen inprimatu eta ekainean jendarteratu zen. Baina Nietzscheren barruan Zaratustra-k aurrera jarraitzen zuen maiatza eta ekaineko hilak Erroman eman ondoren, udan Sils-Mariara itzultzen da, eta beste hamar egunetan, 1883ko ekainaren 26tik uztailaren 6ra, bigarren atala “idazten”du, irailean argitaratuko dena. Azkenik, Nizan, 1884ko urtarrilaren 8tik 20ra bitartean, “idazten” du hirugarren liburua. “Nizako paisaiaren zoko ezkutu eta goialde asko daude santutuak niretzat adiune ahaztezinez; “Taula zahar eta berriez” izentzat daraman pasarte erabakigarri hura geltokitik Eza, arrano-habia zoragarri eta moriskoa den horretarako igoera txit neketsuan konposatua izan zen” (Ecce homo, 99. or.). Hirugarren atal harekin Nietzschek amaitutzat ematen du Zaratustra. Handik urte bete geroagora arte ez du gaur egun laugarren eta azken partea dena. baina izatez Eguerdia eta betiera titulaturiko obra berri baten lehena izatekoa zen, zeinak izan behar baitzituen hiru atal; bi azkenak ez ziren inoiz idatzi.

Honela mintzatu zen Zaratustra-ren lehen hiru atalak, bereizian argitaratuak, ez zuten oihartzunik txikiena ere izan, ez adiskideen ez etsaien artean. Nietzscheren bakardadea erabateko bihurtu zen. “Garesti ordaintzen da hilezkor izatea”, dio “Bigarren gauza bat da nork bere inguruan entzuten duen isiltasun beldurgarria. Bakardadeak zazpi azal ditu; jadanik ez da ezer igarotzen haietan barrena. Joaten zara gizonengana, agurtzen dituzu adiskideak: basamortu berria, ez dago jadanik agur egiten duen begiradarik. Kasurik hoberenean, errebolta gisako bat. Errebolta hori gradu oso desberdinetan jadanik iragarria neukan, baina nigandik hurbil aurkitzen zen mundu guztian; badirudi ezerk ez duela sakonago iraintzen bat-batean distantzia bat ohartarazteak adina --gur egin gabe bizi izaten ez dakiten izaera prestuak urri dira--” (Ecce homo, 100 or.).

Horregatik Nietzschek, bere editorearekiko harremanak eten zituenak ez dauka obraren laugarren partea argitaratuko dionik. Nola estuasun ekonomikotan aurkitzen den, Gersdorff adiskideari mailegua eskatzen dio, baina hura ez dago ezer eskuratzeko moduan aurkitzen. Bere kontura inprimarazi zituen Nietzschek 40 ale. Zuzen esan izan da “bere adiskideak ez zirela hain ugaria”. “Asko bilatu ondoren, zazpi hartzaile aurkitu zituen, zeinetarik bat ere ez zen bentan duin. Nortzuk izan ziren zazpi horiek? Susma dezagun, ahal bada: aurrena (zeinaz etengabe kexatzen baitzen); Meysenburg andereñoa (bere liburuetako ezer ulertzen ez zuena); Overbeck (adiskide zehatza eta irakurlea argia, baina barnekoia); Burckhardt, Basileako historialaria (horrek beti erantzuten zien Nietzscheren igorpenei, baina hain zen adeitsua, non zer pentsatzen zuen ozta-ozta igar zekioken); Peter Gast (dizipulu fidela, Nietzschek esanekoegi eta fidelegi aurkitzen zuena noski); Lanzky (negu hartan lagun ona); Rohde (irakurketa bortxatu horiek sortzen zioten gogaita ozta-ozta disimulatzen zuena).

Horiek jaso zuten, susmoa dugunez, --nahiz eta guztiek ez zuten irakurtzeko lana hartu-- laugarren eta azken atala, Honela mintzatu zen Zaratustra amaitu bai baina bukatzen ez duen “intermezzo” delakoa (D. Halévy).

1886an Nietzschek hiru atal solteen lehen argitalpeneko ale saldu gabeak liburu bakarrean koadernatzeko agindua ematen du, jendearen arreta berriro bere obrara erakartzeko asmoz. Laugarren atalak argitaragabe iraun zuen (40 aleko aipaturiko argitalpen pribatua izan ezik) Nietzscheren bizialdi zentzuzkoan. Laugarren atala 1890ean plazaratu zen. Eta azkenik, 1892an, Honela mintzatu zen Zaratustra-ren lehen edizio osoa argitaratu zen, gaur ezagutzen dugunez eta irakurleak bolumen honetan aurkituko duenez.

Obraren egitura.

Obra single honen aurrean egin beharreko lehen galdera (“Zaratustra-k aparteko lekua hartzen du”, dio bere egileak) protagonistari dagokiona da. Nor da Zaratustra? Nondik dator? Zer egiten du?

Zaratustra Pertsia zaharreko figura erdi-legendarioa da, arabiarrek konkistatu zuten arte lurralde horretako propioa izan zen erlijio baten sortzaile. Gure aroaz aurreko VI. mendean bizi izan zela uste da, eta bere doktrinaren osagai funtsezkoenak Avesta-ren himnoetan daudela. Nietzschek berak finkatu ditu orri solte batean figura horren ezaugarri nagusiak: “Zaratustra, Ari probintzian, Urmi lakuaren ondoan jaioa, hogeita hamar urterekin utzi zuen sorterrria, mendietara joan zen, eta bere bakardadeko hamar urteetan Zend Avesta idatzi zuen”. Mundu grekoan figura hau filosofo eta azti gisa ezagutu zuten batik bat, eta mirari eta ikuspen estrainioak egozten zizkieten.

Nietzscheren obran figura hau agertzearen arrazoi erabakigarria, hala ere, honek aukeratu zueneko arrazoia da. Inork ez zion galdera hau egin Nietzscheri, baina bera arduratu zen erantzuteaz zalantza guztiak uxatzen dituen era batean: “Ez zait galdetu, baina galdetu behar zitzaidakeen zer esan nahi duen, zehazki nire ezpainetan, lehen immoralistaren, Zaratustra izenak: zeren eta pertsiar honek historian duen singletasun neurrigabeak hain zuzen ere horren alderantzizkoa baita. Zaratustra ohartu zen lehenik gauzak higiarazten dituen benetako gorpila ongia eta gaizkiaren arteko borroka dela. Baina galdera hori jadanik, barrenean, erantzuna izango litzateke; ondorioz, berak izan behar du lehena aitortzen ere. Ez da bakarrik berak horretan beste edozein pentsalarik baino esperientzia handiagoa eta hedatuagoa izatea – historia osoa da, izan ere, “munduaren ordenazio morala” deritzon printzipioaren ezeztapen esperimentalak: garrantzi handiago du Zaratustra beste edozein pentsalari baino egiatiagoa izateak. Bere doktrinak, eta berak bakarrik, jotzen dute egiatasuna bertute nagusitzat –horrek esan nahi du “idealistaren” koldarkeriaz alderantzizkoa, zeinak errealitatearen aurrean ihes egiten baitu; Zaratustrak beste pentsalari guztiek batera baino kemen gehiago du bere gorputzean. Egia esatea eta geziak ongi jaurtikitze, hau da pertsiarren bertutea. – Ulertzen al zait? (...) Morala egiatasunez autogainditzea, moralistaren autogainditzea bere antitesian –nigan-- horixe esan nahi du nire ezpainetan Zaratustra izenak” (Ecce homo, 125 or).

Zaratustra da, beraz, Morala egiatasunez autogainditzea. Eta obran nagusi diren lau pentsamendu handiek eratzun eratzen dute beren artean, betiko itzuleraren eratzuna. Lau pentsamendu horiek honako hauek dira: 1) gaingizona; 2) Jainkoaren heriotza; 3)

ahalmen-nahia; eta 4) berberaren betiko itzulera. Baina E. Finkek zuzen adierazi duenez, Zaratustrak ez ditu indiskriminatuki eskaintzen pentsamendu horiek. Aitzitik, gaingizonaz mintzatzen zaie Zaratustra guztiei, merkatuan bildutako herriari. Jainkoaren heriotza eta ahalmen-nahia gutxi batzuei bakarrik iragartzen dizkien ideiak dira, bere dizipulu deitzen dienei, bere adiskideei. Eta betiko itzuleraz bere buruari bakarrik mintzatzen zaio. Pentsamendu honek halako moldez zanpatzen du, non iratortzeko zorian jartzen duen. Uko egiten dio berari aurre emateari, ez dio buruz buru begiratu nahi, eta horrek estiloan bertan era badu agian eragina, gero eta geldiago eta zalantzakorrago bihurtuz baitoa, batez ere “amildegi-pentsamenduak” sakoneratik igotzera doala dirudienean.

Obra hau osatzen duteneko lau parteen osotasunean, eta imajina poetikoak eta narrazioak berak ere pentsamenduaren sinbolo direla beti ahaztu gabe, hiru kapitulu-mota bereiz litezke gutxienez. Batzuk batez ere narraziozkoak dira eta Zaratustraren historiak aurrera egiten dueneko bermaguneak dira. Beste batzuek izaera doktrinazkoa dute eta benetako urloak dira zeinetan Zaratustraren arima astiroagotu eta bere burua begiesten jartzen baita, bakarreko elkarrizketan. Beste batzuek, azkenik, izaera lirikoa dute, eta beraietan lortzen dira obraren gailurrik garaiak. Pentsatu eta poetizatzea, hala ere, ez dira ulertu behar aldezturik zeuden, jadanik eraturik zeuden imajina, sentimendu eta kontzeptuen berroritarazte poetiko edo lotura logiko gisa. Liburu honen izaera bakarra bere pentsatzea eta bere poetizatzea jadanik badagoenaren pentsatzeaz eta poetizatzeaz haraindi egotean datza; oraindik adierazigabea eta agian adierazezinerako mintzaira batek sorkuntzak dira. Bide oro kanpo ibiltze bat da eta, beraz debekatuan arriskatzera ausartze bat. Orain arte Mendebaldeko gizonak ibilitako bidezidorretik irtete bat da. Zaratustrak adierazitako bidea, hau da, gaingizonaren kontzeptua praktigarria den ala ez, etorkizunak erantzungo duen galdera bat da; baina Heideggerrek adierazi duenez (ikus bedi bere hitzaldia, “Nor da Nietzsche Zaratustra?”, 1953ko maiatzaren 8an Bremenen emana), gizona unibertso osoaz jabetzeko prestatzera doan une batean, ez da aski gizonarekin. Horregatik da hau “guztientzako eta inorentzako ez den liburua”. Guztientzat, bere oraingo gizatasunaren mugak auzitan jartzen dituen edozein gizakirentzat ulergarria den neurrian. Inorentzat ez, inork ez baititu oraindik muga horiek gainditu.

Honela mintzatu zen Zaratustra alegia sinplea da eta erraz zirrimarra daiteke. Hogeita hamar urterekin mendiko bakardadera baztertzen da, non lagun egiten baitiote bere bi animalia heraldikoak: arranoak, harrotasunaren sinboloak, eta sugeak, inteligentziaren sinboloak. Han ikasten du bere jakituria, eta egun batean jaitsi eta gizonei predikatzea erabakitzen du. Beraingana jaistean ermitau batekin topo egiten du “Jainkoa hil den berririk oraindik ez duenarekin”. Hirira heltzean herriari bildurik aurkitzen du merkatuan eta “ermitau guztien ergelkeria handia egiten du”: herriari mintzatzea, hau da, guztiei mintzatzea eta inori ez mintzatzea. Bere hitzaldiak, bada, guztientzat dira eta ez dira inorentzat. Porrota biribila da, eta herriak iseka egiten dio. Hala ere, Zaratustrak gaingizonaren doktrina irakatsi die, gainera azken gizonaren imajina erakutsiz. Herria jostarazten ari zen bitartean eroritako txerpolari bat lurperatu ondoren (“arriskua heure lanbide bihurtu duk eta hori ez duk batere lotsagarri. Orain heure lanbidearengatik galtzen haiz: horregatik neure eskuez emango diat lurra”), Zaratustrak egia berri bat aurkitzen du: ez zaio mintzatu behar herriari. Hemendik aurrera, “ermitauei kantatuko zieat neure kanta eta bikote bakartiei eta oraindik entzungaberako belarriak dituenari neure zorionaz astunduko zioat bihotza”. Zaratustra berriro mendira baztertzen da, eta horrela amaitzen da “Zaratustraren aurremintzaldia”.



Lehen atala hiru eraldakuntzei buruzko hitzaldi batekin hasten da: nola espiritua gamelu bihurtzen den, eta gamelua lehoi, eta lehoia, azkenik, haur. Lehen atal honen gai nagusia Jainkoaren heriotza da. Pisu horrek utzi beharra dio gizona abailtzeari, honek konkista dezan, ez “beste mundua”, baizik eta bere mundu hau. Gero lo-eragile gisa diharduten bertuteen aurkako erasoak datoz ondoren (zintzoaren loa), atzemundutiarren kontra (“bere gorputzaz eta lur honetaz kanpo zeudela imajinatu zuten esker gabeko horiek”), gorputza mesprezatu eta heriotza predikatzen dutenen aurka, eta abar. Doktrina-motako hitzaldi hauen artean, batzuek –“Mendiko zuhaitzaz” titulaturikoak bezala-- bere dizipulu bihurtu nahi dituen banaka haiekin Zaratustrak dituen erromesaldiak eta elkarriketak deskribatzen dituzte. Adiskidetasuna, ezkontza, emakumeei (“Emakumeetara al hoa? Ez ahaztu zartailua!”) buruzko kapituluek Nietzsche biziaren pertsonal-sorta bat eskaintzen dute, batzuk bere biografiaren ezaugarriak, baina maila orokor batera gainditu eta jasoak. Azkenean Zaratustrak “heriotza librea” predikatzen du alferrekoentzat, eta borrokaturiko sasi-bertuteei azkenerako etorkizuneko bertutea kontrajartzen die: bertute oparigilea. Azken lerroetan Zaratustrak azken agurra esaten die dizipuluei eta bakardadera itzultzen da. “Orain ni galtzeko eta zuen buruak aurkitzeko agintzen dizuet, eta aurrena, guztiok niri uko egin didazuenean, orduan itzuliko naiz zuengana”.

Bigarren atalaren hasieran Zaratustra mendian aurkitzen da berak ereindako haziak uzta eman dezan zain. Urduri jartzen da, bere jakituriaren gehiegitasunaz, eta egunsenti batean amets bat egiten du: berak predikaturiko doktrina desitxuratzen ari dira. Galdu egin ditu adiskideak, eta berriro bila joan beharra dauka. “Zuek ere ikaratuko zarete, ene adiskideok, nire jakituria uzuairengatik; eta agian berari ere ihes egingo diozue etsaiekin batera”. Agian horrek eusten dio bere itxaropenari. Ez da ziurra dizipuluek abandonatu egingo dutela. Bigarren atalean nabari den gai nagusia, ageriki edo ezkutuan, ahalmen-nahiarena da. Horregatik lehen kapituluak beren irakatsiez nahi horri kontrajartzen zaizkionen aurkako erasoak dira. Errukitsuak, apaizak, bertutetsuak, jakintsu ospetsuak, jendaila, tarantulak: hauek guztiak aiherra diote bizitzari eta bere esentziari. Mendeku-espirituaren menpean daude. Supituki, tonu lirikoko hiru kapitulu sortzen dira, “Gau-kanta”, “Dantza-kanta” eta “Hilobi-kanta”. Eta beraien ondoren bizitzaren aurkako mendeku-espiritutik libratzen den gizonaren zirrimarra agertzen da. “Jazoera handiez” kapituluak Zaratustraren bidaia eta ibileren berri ematen digu, “berrerospenari” buruzkoak ere egiten duenez, zeinean Zaratustra elbarritu eta eskaleekin mintzatzen den. Parte honetako azken kapituluak ernarazten du, munstro bat bezala, betiko itzuleraren pentsamendua. Zaratustrak “izularriz oihu egiten du” haren aurrean. Ez du esan nahi; setati agertzen da, eta isilik geratzen da errekerimendu guztiak gorabehera. “Luzaroan egon nintzen gogoeta egiten eta dardarka. Azkenean, ordea, aurrena esandakoa bera esan nuen: “Ez dut nahi””. Gauean bakarrik alde egin eta bertan behera uzten ditu adiskideak.

Hirugarren parteak obraren gailurra eratzen du. Ez da ahaztu behar, Nietzsche biziaren hasierako asmoan, Honela mintzatu zen Zaratustra hemen amaitzen zela. Pentsa daitekeenez, bere gai nagusia bigarrenaren amaieran adierazi gabe geratu zena da: betiko itzuleraren pentsamendua, Zaratustrak esan “nahi izan ez zuena”. Orain ere zalantzak ditu proposatzeko. Bere pentsamenduaren erdiguneak ihes egiten dio hitzari. Jakite ezkutu bat da. Nietzsche ezbaian dabil eta etengabe hesi berriak eraikitzen ditu bere sekretuaren inguruan, zeren bere intuizio gorenean gelditzen baita atzeraen kontzeptuaz azpitik. Bere ideia nagusiaren misterioa kezkarri denaren ilunpetan

bildurik geratzen baitzaio berari ere. Agian horrela ateratzen da lehen aldiz metafisikaren zidorretik eta biderik gabe aurkitzen da, dimentsio berri batean galdurik” (E.Fink).

Zaratustra ontzira igotzen da eta zeharkaldian izan berri duen amets bat kontatzen die marinelei. dagokion sailaren izenburua hau da: “Ikuspenaz eta enigmaz”. Eta zalantzarik gabe ez dago trinkoago laburbiltzerik obra honen muina zera esan gabe: Honela mintzatu zen Zaratustra “enigma baten ikuspena” dela. Ikuspena aurkezten deneko berehalakotasunarengatik, sortzen duen izuarengatik. Enigma, adierazigabea gelditzen delako. Eta izu horretatik, eztarran trabesturiko suge bat bezalakoa den horretatik, gizonak libratu nahi badu hozka egin eta sugeari burua kenduz, eta urrunera jaurtikiz egin behar du hori. Orduan barre egiten du: “Inoiz ez zuen lurraren gainean gizonak hark bezala barre egin”. Intermezzo lirikoak ugariak dira hirugarren parte honetan, gailur gorenak harrapatuz, “Eguzkia irten baino lehen” titulaturikoan bezala. Baina betiko itzuleraren pentsamendua behin eta berriz azaleratzen da, eta bere adierazpenik xeheenera heltzen da “Astuntasunaren espirituaz” eta “Susperra” sailetan. Hirugarren atal hau maite-kantaren iruzkinarekin amaitzen da saminaz, munduaren funtsaz, azken atalaren amaieran berriz agertuko denaz,

Oi gizona! Hago hadi!  
Guerdi sakonak zer ziok?  
Lo egin diat, lo egin diat!-  
amets sakonetik esnatu nauk:-  
Mundua sakona duk,  
eta egunak ez uste hain sakon zenik.  
Sakona dik bere samina-  
Atsegin –bihotz-dolorea baino ere sakonagoa:  
Samina mintzo duk: Pasa!  
Baina atsegin orok nahi du betiera-  
- betiera sakon, sakona!

Urte asko eta ilargi asko igaro dira Zaratustraren arimaren gainetik, laugarren parte hasten denean. Berriz ere haitzulora bazterturik dago, eta ileak zuritu egin zaizkio. Orduan arrantza bitxi bat egitea erabakitzen du: gizonak harrapatzea mendi garaietan. Zorionaren kante erakarrita, beragana jotzen dute “gizon garaiagoek” Zaratustrak sorospen-dei bat entzuten du, eta azken tentazioa hurbiltzen zaio. Azken tentazio hau, bere azken bekatura zirika lezakeena, gizon garai hauenganako errukia da. Banan-banan doaz agertuz Zaratustraren sailetan azitia, tronua utzi duten erregeak, espiritu kontzientziatsua, magoa, aita santu jubilatua, gizonik itsusiena, borondatezko eskalea, bidaiaria eta itzala. Zaratustrak agur egin eta beraiekin ospatzen du “Afaria”. Eta geroago, “asto-festa”. Baina Zaratustra ez dago gizon garai haien zain mendian. Bera zeinuaren zain dago, eta hau heldu egiten da: lehoi irribarretsua eta uso-saldia. Gizon garaiagoek izuturik ihes egiten dute. Zaratustrak bere azken tentazioa gainditu du, eta orain helburu ezezagun batera abiatzen da”. “Honela mintzatu zen Zaratustra eta alde egin zuen haitzulotik, suhar eta indartsu, mendi ilunetatik datorren goiz-eguzkia bezala.” Obra betetzen duten sinbolo guztien artean, haxe da zalantzarik gabe esanahitsuena.

Zenbait arazo formal

Gainerako bere balio guztiak alde batera utzirik, Honela mintzatu zen Zaratustra arrazoiz jotzen da alemaneraz idatziriko literatur obra nagusienetakotzat. Nietzschek bazuen horren kontzientzia. “Nire idatzietan leku apartekoa hartzen du nire Zaratustrak. Berarekin egin diot gizaldiari orain arte hartu duen oparirik handiena. Liburu hau, milurteak zeharkatzen dituen ahots batez hornitua, ez da dagoen libururik jasoena soilik, goialdeetako airearen benetako liburua –“gizon” gertakari osoa izugarritzko tarte batera aurkitzen da beronen azpitik--, libururik sakonena ere bada, egiaren aberastasun barnekoenetik jaioa, osin agortezina, zeinetara ez den suilik jaisten urrez eta ontasunez beterik igo gabe. Ez du bertan “profeta” batek hitz egiten, erlijio-sortzaile deituriko gaixotasun eta ahalmen-nahizko hibrido izugarri horietako batek. Ezer baino lehen beharrezkoa da bere ahotik irteten den soinu, soinu altzioniko hori, bere jakituriaren zentzuarekiko negargarriro bidegabe ez izateko. “Hitzik isilenak ekaitza ekartzen dutenak izaten dira, uso-pausoz hurbiltzen diren pentsamenduak gidatzen dute mundua” (Ecce homo 17 or.).

Beste leku batean dio: “Erritmo handiaren artea, Goi neurrigabe bat eta grina sublimezko behea bat adierazteko periodoen estilo handia, gizagaindiko grinazkoa, neuk aurkitu dut aurrena; hirugarren Zaratustraren azkenekoa bezalako ditiranbo batekin, “Zazpi zigiluak” titulaturikoarekin, orain arte poesia deitzen zitzaionaz milaka milia harantzago hegaz egin dut” (Ecce homo, 61-62 or.).

Obra hau irakurtzen hasten den edozein irakurlek berehala hautemango du zein den beste liburu handia, zeinaren antitesi izan nahi duen honek: liburuen liburua, Biblia. Eta hori ez zentzu ideologiko eta doktrinazkoan soilik, baita literaturazkoan ere. Bada obra bat bere itzala atergabe egiten Honela mintzatu zen Zaratustra-ren orrialdetan zehar: Bibliaren itzulpen luterotarra, hizkuntza alemaniarra sortu zuen itzulpena. Nietzschek bere lehen urteetatik zehaztasunez ezagutzen zuen Luteroren hiztegia eta eraikuntza sintaktikoa, eta hauek orain nonahitik agertzen dira bere mintzairan, termino eta esamoldeen hautapeneraino iristen delarik, eta esaldiak konbinatzeko eraraino ere bai. Eragin indartsu honetaz landa, gainerako guztia Nietzscheren sorkuntza da. Gisa honetako obra baten itzulpena sufrikario eta gozamen da itzultzailearentzat. Alemaniar hizkuntzak bere-bereak dituen baliabide erretoriko ugari derrigor galtzen dira. Hizkuntza horren berezitasun estilistikoetan oinarrituriko antitesi eta aliterazioak oso lausoki bakarrik azalduko dira edozein hizkuntzatan. Bestalde, Nietzschek lehen aldizko hitz berri ugari sortzen ditu, zeinetarik gehienak ez diren aleman arruntera pasatu, adierazpen-indar handikoak direlako eta erabilgarriak ez direlako hemen nagusi den pareko tentsio-egoeratan izan ezik.

Aldiz, Nietzschek oso gogokoa duen teknika bat, “aipamen” ezkutuak, itzultzaileak ezarritako oharretan nahikoa argibide aurkitzen du. Ikusiko denez, aipaturiko pasarte biblikoak ezin zenbatu ahal dira. Aitzitik, bere bizitzako pertsona eta gertakariei buruzko “aieruak”, nahiz eta aski dokumentuak egon beste iturri batzuetan (Nietzsche beraren gutun eta aitorpenetan), lortzeko zaila izaki, ez dugu uste ia arretarik merezi dutenik. Nietzsche murgilduegia zegoen “enigmaren ikuspenean” txikikeria horiek aipagarri gerta zekizkion. Nolanahi ere, hegeliar terminoa erabiliz, aufgehoben gelditzen dira (ezabatuak, jasoak eta integratuak) besarkatzen dituen osotasunean,

## Bibliografia

### Friedrich Nietzsche.

Gaur eguneko Nietzscheren edizio alemaniar hoberena Walter de Gruyter argitaletxeak egina da: Werke. Kritische Gesamtausgabe (Berlin, 1967 eta hh.). Edizio berean bada beste bertsio erabilgarriago eta merkeago bat, 15 bolumenetan: Werke. Kritische Studienausgabe, (DTV, Munich), testu guztiak biltzen dituen (bigarren edizioa, zuzendua, 1988). 1970az aurreko Nietzscheren idatzietarako ezinbestekoa da Historisch-Kritische Gesamtausgabe (Beck, Munich, 1936-1942) bost bolumenetara jotzea.

### Gutunak

Walter de Gruyter editorialak berak argitara eman du Nietzschek idatziriko eta jasoriko gutuneria guztia: Briefe. Kritische Gesamtausgabe (Berlin, 1975 eta hh.). Eta edizio merkean: Briefe, Kritische Studienausgabe (DTV, Munich, 1986), Nietzscheren gutunak bakarrik dakartzana.

## Bibliografia

H.W. Reichert/K. Schlehta: International Nietzsche Bibliography (Chapel Hill, 2. edizioa, 1968). Nietzsche buruzko ikerketen berri jakiteko ezinbestekoa da Nietzsche-Studien urtekaria (Walter de Gruyter, Berlin), 1972az geroztik argitaratzen dena.

## Biografia

Friedrich Nietzsche. Biographie C.P. Janzen-aren obrak (Carl Hanser Verlag, Munich-Viena, 1978-79) zaharkiturik utzi ditu aurreko biografia guztiak. Bada gaztelaniazko itzulpena Alianza Editorial-en, 4 bolumenetan.

### Nietzscheri buruzko ikerketak

Andler, Ch.: Nietzsche, sa vie et sa pensée (3 bolumen. Gallimard, Paris, 1958). Lehen edizio frantsesa 1920-1931koa da.

Andreas-Salome, Lou: Friedrich Nietzsche in seinen Werken (Viena, Konegan, 1894).

Colli, G.: Después de Nietzsche (Anagrama, Barcelona, 1978). Lehen edizio italiarra 1974koa da.

Deleuze, G: Nietzsche y la filosofía (Anagrama, Barcelona, 1971). Lehen edizio frantsesa 1964koa da.

Fink, E.: La filosofía de Nietzsche (Alianza, Madrid, 1966). Lehen edizio alemaniarra 1960koa da.

Heidegger, M.: Nietzsche (Sudamericana, Buenos Aires, 1963).

Jaspers, K.: Nietzsche (Sudamericana, Buenos Aires, 1963). Lehen edizio alemaniarra 1936koa da.

Löwith, K.: De Hegel a Nietzsche (Sudamericana, Buenos Aires, 1968)- Lehen edizio alemaniarra 1941ekoa da.

Nietzscheri buruzko ikerketan Espainiak zenbait estudio orijinal eta garrantzizko eman ditu azken urteotan. Sobejanoren Nietzsche en España (Gredos, Madrid, 1967) liburu eskergaren ondotik, honako hauek aipa daitezke:

Avila Crespo, R.: Nietzsche y la redención del azar (Universidad de Granada, 1986).

Barrios, M.: Nietzsche y Hölderlin (Universidad de Sevilla, 1992).

Conill, J.: El crepúsculo de la metafísica (Anthropos, Barcelona, 1988).

Hernández-Pacheco, J.: Friedrich Nietzsche (Herder, Barcelona, 1990)

Jiménez Moreno, L.: El pensamiento de Nietzsche (Cincel, Madrid, 1986).

Quesada, J.: Un pensamiento intempestivo. Ontología, estética y política en F. Nietzsche (Anthropos, Barcelona, 1998).

Sánchez Meca, D.: En torno al superhombre Nietzsche y la crítica de la modernidad (Anthropos, Barcelona, 1989).

Vermal, J.L.: La crítica de la metafísica en Nietzsche (Anthropos, Barcelona, 1987).

Gaztelaniazko Itzulpenak

1971tik, Alianza Editorial, Madridek abiarazia du Nietzscheren obren edizioa osoa, Andrés Sánchez Pascual-ek itzuli eta iruzkindua. Dagoeneko honako bolumen hauek agertu dira:

El nacimiento de la tragedia.

Consideraciones intempestivas I.

Así habló Zaratustra.

Más allá del bien y del mal.

La genealogía de la moral.

Crepúsculo de los ídolos.

El Anticristo

Ecce Homo.

LEHEN ATALA

## ZARATUSTRAREN AURREMINTZALDIAK

### I

Zaratustra, hogeita hamar urte betetzean<sup>1</sup>, utzi sorterrria eta sorterriko lakua eta mendira joan zen. Hemen bere izpirituaz eta bere bakardadeaz gozatu zuen eta hamar urtetan ez zen nekatu. Azkenean, ordean, aldatu zuen bere bihotza, -eta goiz batez jaiki zen oskorriarekin, eman zion aurpegi eguzkiari eta honela mintzatu zitzaion:

"Hi, izar handi hori! Zer huke hire zoriona, hik argi egiten diean horiek gabe<sup>2</sup>!

Hamar urtez etorri haiz hona, nire haitzulora: heure argiaz eta heure bidez gogaiturik hengoke ni, nire arranoa eta nire sugea gabe.

Baina goizero itxaroten genian, hartzen genian hire soberakina eta horregatik bedekatzeko hindugun.

Hara! Asperturik negok neure jakituriaz, ezti gehiegi bildu duen erlea bezala; hedatzen diren eskuak behar dizkiat.

Opariak egin eta banaketan aritu nahi nirek, harik eta gizonen arteko jakintsuak berriro beren eromenaz eta behartsuak berriro beren aberastasunaz pozik egon arte.

Horretarako hosiñera jaitzi behar diat: hik arratsean egiten duanez, itsasoaren atzekaldera joan eta Azpimunduari argia eramaten dioanean, hik izar oparo horrek!

Nik ere, hik bezala, behera joan behar diat, ni jaitzi nahi natzaion gizonak esaten dutenez.

Beraz bedekatu nazak, bada, Begi baketsu horrek, bekaitzik gabe zorionik handiena ere ikusteko gauza haizen horrek!

Bedekatu ezak edalontzia, gainezka egin nahi duena, bertatik urrezko ura darion eta noranahi hire distiraren gozamenaren daraman.

Hara! Edalontzi honek berriro hutsik geratuko nahi dik, eta Zaratustrak berriro gizon izan nahi dik".

-Honela hasi zen Zaratustraren beherabidea.

### II

Zaratustra bakarrik jaitzi zen menditik eta ez zuen inorekin topo egin. Baina oihanean sartzean agure batek aurre eman zion bapatean, zeinak bere txosna santua utzia baitzuen oihanean sustraia bilatzeko. Eta honela mintzatu zitzaion agurea Zaratustrari:

"Ez zaidak arrotz ibiltari hau: duela zenbait urte igaro huen hemendik. Zaratustra zian izena; baina aldatu egin duk.

Orduan heure errautsak heramatzen mendira: gaur heure sua eramanez nahi al duk ibarretara? Ez al diok beldurrik suemaile-zigorri?

Bai, ezagutzen diat Zaratustra. Begia garbi dik, eta ahoan ez dik nazkarik gordeta. Ez al zebilek dantzari baten erara?

Aldatu egin duk Zaratustra, haur bihurtu duk Zaratustra, itzartu bat duk Zaratustra: zer nahi duk bada lokartuen artean?

Itsasoan bezala bizi hintzen bakardadean, eta itsasoak ekarri hinduen. Ai ene, lehorrera jaitzi nahi al duk? Ai ene, berriro heure gorputza arrastaka erabili nahi al duk?"

Zaratustrak erantzun zion: "Nik maite ditut gizonak".

"Zergatik", esan zuen Santuak "joan nauk ni oihanera eta basamortura? Agian gizonak gehiegi maite nituelako ez al duk izan?"

Orain Jainkoa maite diat: ez diat gizonik maite. Gizona gauza akastuna iruditzen zaidak. Gizonarenganako maitasunak hil egingo nindukek."

Zaratustrak erantzun zion: "Zer mintzatu naiz ni maitasunaz! Opari bat daramaket gizonen".

"Ez iezaiek ezer eman", esan zuen santuak. "Hobe duk beraiei zerbait kendu eta heuk eramanez haiekin -horretxek egingo ziek ezer baino mesede handiagoa: baldin eta hiri ere mesede egiten badik!"

Eta zerbait eman nahi badiek, limosna besterik ez eman, eta gainera eskatu diezaatela!"

"Ez", erantzun zuen Zaratustrak "ez dut limosnarik ematen. Ez naiz horretarako bezain behartsua."

Santuak barre egin zion Zaratustrari eta mintzatu zitzaion: "Tira, ea hire emariak hartzen dituzten! Fidagaitzak dituk ermitauekiko eta ez ditek sinesten opariak egitera gatozenik."

Gure urrats-hotsa bakartiegia iruditzen zaiek karriketan barna. Eta baldin gauetan ohean daudela gizon baten oinotsak entzuten badituzte, eguzkia irten baino askoz lehenago, beren buruari galdetzen ziotek: nora ote doa lapurra?

Ez hadi joan gizonengana eta hago oihanean! Hoa lehenago piztiengana! Zergatik ez duk izan nahi ni bezalakoa - hartz hartzen artean, txori txorien artean?"

"Eta zer egiten du santuak oihanean?", galdetu zuen Zaratustrak.

Santuak erantzun zuen: "Kantak egin eta kantatu egiten dizkiat, eta kantak egiten ari naizen bitartean, barre, negar eta marmar egiten diat: honela goستن diat Jainkoa."

Kanta, negar, barre eta marmarrez goستن diat Jainkoa, nire Jainkoa dena. Eta zer opari dakarkiguk?"

Zaratustrak hitz hauek entzun ondoren, santuari gur egin eta mintzatu zitzaion: "Zer neukake nik zuei emateko! Utz nazazue bizkor alde egiten, zerbait ken ez diezazuedan!" -Eta honela banatu ziren elkarrengandik, agurea eta gizona, barrez, bi mutikok barre egiten duten modura.

Zaratustra bakarrik egotean, bere bihotzari honela mintzatu zitzaion: "Ba ote liteke gero? Santu zahar honek, bere oihanean dagoela, ez du oraindik Jainkoa hil den berririk!"

### III

Zaratustra oihanetatik hurbil dagoen hirira sartu zenean, hantxe bertan jendetza handia aurkitu zuen merkatuan bildurik: zeren soka-dantzari bat agertuko zela agindua baitzen. Eta Zaratustra jendetzari mintzatu zitzaion:

Gaingizona irakasten dizuet. Gizona gainditu beharreko zerbait da. Zer egin duzue bera gainditzeko?

Izaki guztiek sortu dute orain arte zerbait beren buruaren gainekoa dena: eta zuek marea handi horren izbehera izan nahi al duzue, eta animaliarengana itzuli gizakia gainditu beharrean?

Zer da tximinoa gizonarentzat? Barre-algara edo lotsaizun mingarria. Bada gauza bera izan behar du gizonak gaingizonarentzat: barre-

-algara edo lotsaizun mingarri.

Harragandik gizonaganainoko bidea egina duzue eta oraindik zuen baitako asko harra da. Behiala tximino zineten eta oraindik ere gizona edozein tximino baino tximinoago da.

Zuetan jakintsuena dena ere bikoitza eta landare eta mamuzko bikuna da. Baina landare edo mamu bihurtzeko agintzen al dizuet nik?

Begira, gaingizona aldarrikatzen dizuet!

Gaingizona da lurraren zentzua. Zuen nahiak esan beza: gaingizona bedi lurraren zentzua!

Senideok, lurrari leial irautea gomendatzen dizuet eta ez sinetsi munduaz-gaindiko itxaropenez mintzatzen zaizkizuenei! Pozoi-nahastaileak dira, jakinaren gainean ala ez. Bizitzaren arbuizatzaileak dira, hilaginean daudenak eta beren burua pozoitu dutenak, lurra nekagarri zaienak: ai, alde egingo balute!

Behinola Jainkoaren aurkako hogena zen hogenarik handiena, baina Jainkoa hil da, eta berarekin hil dira hobenlariak ere. Lurraren aurka hoben egitea da orain ikaragarriena, eta arakagaitza denaren erraiak gehiagotzat edukitzea lurraren zentzua baino!

Behinola arimak destainaz begiratzen zion gorputzari: eta garai hartan destaina hau zen gorenari: - arimak argal, beldurgarri, gosekil ikusi nahi zuen hura. Horrela berari eta lurrari ihes egitea espero zuen.

Oi, arima hau berau zen argal, beldurgarri eta gosekil: eta krudelkeria zen arima honen gozamina!

Baina zuek ere mintza zakizkidate, ene senideok: zer esaten dizue gorputzak zeuen arimaz? Ez al da zuen arima miseria, zikina eta asetasun errukarria?

Egitan, korrante zikina da gizona. Itsaso izan behar da, korrante zikin bat hartu ahal izateko, lohitu gabe.

Begira, gaingizona aldarrikatzen dizuet: bera da itsasoa, bere baitan joan daiteke behera zuen destaina handia.

Zer da gerta lekizuekeenik handiena? Destaina handiaren ordua da. Ordu horretan nazkatu egingo zarete zeuen zorionaz eta baita zeuen arrazoiak eta zeuen bertuteaz ere.

Hau esango duzuen ordua: "Zer axola dio nire zorionak! Miseria eta zikina eta asetasun errukarria besterik ez da! Baina zorionak existentzia bera ere zuribidetu egin beharko luke!"

Hau esango duzuen ordua: "Zer axola dio nire bertuteak! Irrikatzen al du jakituria lehoiak bere janaria bezala? Miseria eta zikina eta asetasun errukarria da!"

Hau esango duzuen ordua: "Zer axola dio nire zuzentasunak! Ez dut ikusten sugar eta ikatz naizenik. Baina zuzena sugar eta ikatz da!"

Hau esango duzuen ordua: "Zer axola dio nire gupidak! Ez al da gupida gizonak maite dituen josita daukan gurutzeta? Baina nire gupida ez da gurutziltzaketa."

Mintzatu al zarete dagoeneko? Oihukatu al duzue dagoeneko? Ai, hobe bai oihukatzen entzun izan bazintzate!

Zuen bekatuak ez - zuen askitasunak egiten dio garrasi zeruari, zeuen bekatuetan beraietan duzuen ziztrinkeriak egiten dio garrasi zeruari!

Non dago bere mihiaz milikatuko zaituzten tximista? Non dago txertatu behar zaizuen eromena?

Begira, gaingizona aldarrikatzen dizuet: bera da tximista hau, bera da eromen hau!

Zaratustra mintzatu zelarik, jendetzatik batek oihu egin zion: "Nahikoa entzuna dugu soka-dantzariak; orain utziguzu ikusten!" Eta jendetza osoak barre egin zuen Zaratustraren lepotik. Baina soka-dantzariak, hitz haiek beretzat zirela uste izanik, bere lanari ekin zion.

#### IV

Zaratustrak, ordea, ikusi zuen jendetza eta harritu egin zen. Gero honela mintzatu zen: Gizona soka bat da, piztia eta gaingizonaren artean lotua, -amildegi baten gainean dagoen soka bat.

Harantzago-joate arriskutsua, bidean-egote arriskutsua, atzera-begiratze arriskutsua, zalantzan eta geldi-geratze arriskutsua.

Gizonak duen handitasuna zubi izatea da eta ez helburu: gizonak duen maitagarria harantzago-joataile eta behera-joataile izatea da.

Maite ditut behera joateko bestetarako bizi izaten ez dakitenak, zer horiek baitira harantzago joaten direnak.

Maite ditut destainati handiak, zer gurtzaile handiak baitira eta beste hegiaren joranez dauden azkonak.



Maite ditut izarren atzean ziorik bilatzen ez dutenak galtzeko edo beren buruak sakrifikatzeko: aitzitik bere burua lurrari sakrifikatzen diotenak, lurra noizbait gaingizonarena izan dadin.

Maite dut jakiteko bizi dena eta jakin nahi duena, noizbait gaingizona bizi dadin. Eta horrela bere galera nahi duena.

Maite dut lanean eta idoroketan ari dena, gaingizonari etxea eraikitzeke eta berari lurra, piztiak eta landareak prestatzeko: zeren horrela bere galera nahi baitu.

Maite dut bere bertutea maite duena: zeren bertutea galera-nahia da eta joranaren azkona.

Maite dut izpiritu-tanta bakar bat ere beretzat gordetzen ez duena, aitzitik bere bertutearen izpiritu osoki izan nahi duena: horrela gurutzatzen baitu zubia izpiritu bezala.

Maite dut bere bertuteaz lera eta patu egiten duena: horrela bere bertutearengatik bizitzen nahi baitu segi eta ez segi.

Maite dut bertute gehiegi izan nahi ez dituenen. Bertute bakarra bi bertute baino gehiago da, horrela korapilo handiagoa baita zoria esekitzeko.

Maite dut arima suntsitzen zaiona<sup>4</sup>, eskerrik hartu nahi ez eta ematen ere ez duena: zeren beti ematen baitu eta ez baitu bere burua gorde nahi izaten.

Maite dut lotsatzen dena, baldin eta dadoak alde ateratzen bazaizkio, eta gero galdetzen badu: jokalaria tranpatia al naiz orduan? -bere beherakada nahi baitu.

Maite dut bere egintzen aurretik urrezko hitzak jaurtikitzen dituenen eta agintzen duena baino gehiago betetzen duena: zeren bere beherakada nahi baitu.

Maite dut etortzekoak zuribidetzen eta iraganekoak erreskatatzen dituenen: zeren presenteagatik bere buruaren galera nahi baitu.

Maite dut bere jainkoa zigortzen duena, zeren maite baitu bere jainkoa<sup>5</sup>: zeren bere burua galdu behar baitu bere jainkoaren koleraz.

Maite dut zauritzean ere sakona den arima, eta gorabehera txiki baten aurrean ere bere burua galtzen duena: horrela gogoz gurutzatuko du zubia.

Maite dut arima bere buruaz ahazteraino gainezka duena, eta gauza guztiak bere baitan dauzkana: horrela gauza guztiak galera bihurtuko zaizkio.

Maite dut izpirituz libre eta bihotzez libre dena: horrela burua bere bihotzaren errai besterik ez du izango, baina bihotzak bere burua galtzera eramango du.

Maite ditut tanta astunak bezalakoak direnak, banan-banan gizonen gainean dagoen hodei ilunetik erortzen direnak: tximista badatorrela iragartzen dute eta iragarle bezala galdu egiten dira.

Begira, Tximistaren iragarlea naiz eta hodeitiko tanta astuna: gaingizona da tximista honen izena.

V

Zaratustrak hitz hauek esatean, ikusi zuen berriro jendetza eta mututu egin zen: "Hor daude", esan zuen bere golkorako, "barre egiten dute: ez naute ulertzen, ni ez naiz belarri horientzako ahoa<sup>6</sup>.

Belarriak suntsitu beharko ote zaizkie, begiez entzuten ikas dezaten? Danborrek eta penitentzi predikariek bezalako burrundara atera beharko ote da? Edota hitz-totelei baizik ez ote diete sinesten?

Badute zerbait oso harro egonarazten dituenen. Nola deitzen dute hain harro egonarazten dituen hori? Kultura deitzen dute, eta horrek bereizten ditu ahuntzainengandik.

Horregatik ez dute gogoz entzuten beren aurrean "destaina" hitza. Beraz, beren harrotasunari hitz egin nahi diot.

Beraz destainagarrienaz hitz egin nahi diet: azkeneko gizonaz".

Eta honela mintzatu zitzaion Zaratustra jendetzari:

Bada garaia gizonak bere helburuak ezar ditzan. Bada garaia gizonak bere itxaropenik handienen ernamuina landa dezan.

Oraindik aski aberatsa du bere lurra horretarako. Baina egunen batean lur hau elkor eta antzua izango da, eta ezin izango da gehiago zuhaitz tantairik hartatik hazi.

Ai ene! Badator garaia gizonak bere joranaren azkona gizonaz haraindi jaurtikitzen ez duenekoa eta arkuaren kordelari ahaztu zaio dardar egiten!

Neuk diotsuet: beharrezko da oraindik kaosa norbere baitan izatea, izar dantzariak erditu ahal izateko. Neuk diotsuet: oraindik baduzue kaosa zeuon baitan.

Ai ene! Badator garaia, gizonak izarrik gehiago erdituko ez duena. Ai ene! Badator gizon destainagarrienaren garaia, bere buruari destaina egiteko gauza izango ez dena. Begira! Azkeneko gizona erakusten dizuet.

"Zer da maitasuna? Zer da sorkuntza? Zer da jorana? Zer da izarra?" -galdera hauek egiten ditu azkeneko gizonak eta begiei keinu eragiten die.

Lurra txiki bihurtu da eta beronen gainean jauzika ari da azkeneko gizona, dena txiki bihurtu duena. Bere askazia iraungiezin da, lurreko zorriarena bezala; azkeneko gizona da bizi luzeenekoa.

"Zoriona aurkitu dugu guk" -diote azkeneko gizonak eta begiei keinu eragiten diete.

Bertan behera utzi dituzte bizitzen zail zeneko lurraldeak: berotasuna behar baita.

Oraindik maite dute lagun hurkoa eta berarengana arrimatzen dira: berotasuna behar baita.

Gaixotzea eta fidagaitz izatea bekatuzko iruditzen zaie: beti arretatsu ibiltzen dira. Eroa da oraindik harriekin edo gizonekin behaztopatzen dena!

Pozoi piska bat tarteka ametsak atseginen sortzaile da hori. Eta pozo asko azkenean heriotze atseginaren eragile.

Oraindik lan egiten da, zeren lana olgeta baita: baina kontuz ibili behar da olgeta horrek kalterik egin ez dezan.

Jadanik ez da jendea behartsu eta aberats egiten: biak dira higuingarriegi. Nork agindu nahi du oraindik? Nork obeditu oraindik? Biak dira higuingarriegi.

Artzainik ez eta artalde bat? Guztiek gauza bera nahi dute, guztiak berdinak dira: eta besterik sentitzen duena, borondatez joaten da eroetxera!

"Behinola mundu guztia zoraturik zegoen" -esaten dute sotilenek eta begiei keinu eragiten diete.

Zuhurrak dira eta gertaturiko guztiaren berri dakite: horregatik ez du amaierarik iseka egiteak. Agirika aritzen dira, baina laster adiskidetzen dira - bestela urdaila hondatzen baita.

Badituzte egunerako atsegintxoak eta gauerako atsegintxoak: baina begirunea zaio osasunari.

"Zoriona aurkitu dugu guk" -diote azkeneko gizonak eta begiei keinu eragiten diete.-

Eta hemen bukatu zen Zaratustraren lehen hitzaldia, "Hitzaurre" ere deitzen dena: zeren une hartan ostearen garrasiek eta iskanbilak moztu baitzuten. "Emaizkiguk azkeneko gizon horiek, oi Zaratustra" -hala oihu egiten zioten- "egin gaitzak azkeneko gizon horien modukoak! Eta guk opari egingo diagu gaingizona!" Eta jendetza osoa barre-algaraka eta mihiaz txastaka hasi zen. Zaratustra, ordea, triste jarri zen eta bere golkorako esan zuen:

"Ez naute ulertzen: ni ez naiz belarri hauentzako ahoa.

Seguraski luzaroegi bizi izan naiz mendian, gehiegi entzun ditut errekatxoak eta zuhaitzak: orain hauei ahuntzainei bezala mintzatzen natzaie.

Patxadan daukat arima eta eguerdiartean mendia bezain argi. Baina hotza naizela uste dute eta txantxa beldurgarriak egiten ditudan zirtolaria.

Eta begiratu eta barre egiten didate: eta barre egiten didaten bitartean, gorrotatu egiten naute. Izotza dago horien barrenean".

## VI

Baina orduan aho guztiak mutu eta begi guztiak tinko jarri zituen zerbait gertatu zen. Bitartean soka-dantzariak bere lanari ekin zion: atetxo batetik irtena zen eta bi dorreren erdian teinkaturik zegoen soka zehar zihoan, eta honela merkatua eta jendetzaren gainean zintzilik zegoen. Bere bidearen erdian zegoela, berriro ireki zen atetxoa eta lagun nabar bat, txerpolar baten gisakoa agertu zen bapatean eta urrats bizkorak emanez lehenarengana abiatu zen. "Aurrera, txankerrea!", oihi egin zion ahots zakarrak, "aurrera, nagi, tranpati, musuzuri! Ez diezaadala neure orpoez kili-kilirik egin! Zeren bila habil bi dorre hauen artean? Dorre batean sarturik eduki beharko hindukete heu baino hobeari bidean traba egiten dioalako!" - Eta hitz bakoitzean gero eta hurbiltzenago zitzaion: eta urrats bakar batera zegoela, orduan gertatu zen ikaragarria, aho guztiak mutu eta begi guztiak tinko utzi zituen: -deabru batek bezalako garrasi bat jaregin eta bidean traba egiten zionaren gainetik salto egin zuen. Honek, orduan, arerioak menperatu zuela ikustean burua eta soka galdu zituen; jaurtiki zuen haga eta berau baino bizkorrago amildu zen behera beso eta zangozko zirimola baten antzera. Merkatuak eta jendetzak ekaitzak astintzen duen itsasoa ziruditen: guztiek ihes egin zuten elkarrengandik eta elkarren gainetik, eta batez ere gorputzak lurra jo behar zuen tokian. Zaratustrak geldi iraun zuen eta hain zuzen ere bere ondoan erori zen gorputza, min harturik eta hautsita, baina artean hil gabe. Handik piska batera konortea itzuli zitzaion zanpatuari eta bere ondoan Zaratustra belaunikaturik ikusi zuen. "Zertan ari haiz?" esan zion azkenik, "aspalditik nekian deabruak joko gaiztoa egingo zidala. Orain ifernura eramango naik: eragotzi egin nahi al diok hik?"

"Neure ohoreagatik, adiskidea", erantzun zion Zaratustrak, "hik dioanik batere ez dagoela zin egiten diat: ez zegok ez deabururik eta ez ifernurik. Arima bizkorrago hilko zaik gorputza baino: ez izan gehiago beldurrik!"

Gizonak fidagaitz begiratu zion. "Egia badiok, esan zuen orduan, "ez diat ezer galtzen, bizia galtzeaz. Makilaka eta zatzaka dantzari ikasi duen piztia baino askoz gehiago ez nauk".

"Hori ez", esan zuen Zaratustrak; "arriskua heure lanbide bihurtu duk eta hori ez duk batere lotsagarri. Orain heure lanbidearengatik galtzen haiz: horregatik neure eskuez emango diat lurra".

Zaratustrak hau esan zuenean, hil-zorian zegoenak ez zion erantzun gehiago; baina eskua higitu zuen, Zaratustraren eskua eskerrak emateko bilatuko balu bezala.-

## VII

Bitartean arratsa etorri zen eta ilunpeak estali zuen plaza: orduan jendea barreiatu egin zen, zeren jakiminak eta ikarak nekatu egiten baitute. Zaratustrak, ordea, lurrean hildakoaren ondoan eserita jarraitzen zuen eta gogoetan murgildurik zegoen: honela denboraz ahaztu zen. Azkenean gautu zuen eta haize hotzak jo zuen bakartia. Orduan Zaratustra jaiki eta honela mintzatu zitzaion bere bihotzari:

"Benetan arrantza bikaina egin du gaur Zaratustrak! Gizonik ez baizik hilotza harrapatu duk!

Misteriotsua da giza izatea eta inolako zentzurik gabea: bufoi bat parte txarreko gerta lekiok.

Nik bere izatearen zentzua erakutsi nahi diot gizakiari: gaingizona, gizakia den hodei ilunetik sortzen den tximista.

Baina oraindik oso urrun nago beraiengandik, eta nire mintzoa ez zaie haien zentzuari mintzo. Tarteko bat naiz gizonentzat zoroaren eta hilotzaren bitartean.

Iluna da gaua eta ilunak dira Zaratustraren bideak. Hator nirekin, bidelagun hotz eta zurruna! Neure eskuez lurra emateko lekura eramango haut".

## VIII

Zaratustrak hau bere bihotzari esan ondoren, hilotza bizkarrean hartu eta bideari lotu zitzaion. Eta ehun urrats ozta emanak zituenean, gizon bat isilka hurbildu eta zerbait xuxurlatu zion belarrira - eta hara! Mintzo zitzaion hura dorreko bufoia zen. "Alde egik hiri honetatik, oi Zaratustra", esan zion; "gehiegik gorrotatzen haute hemen. On eta zintzoek gorrotatzen haute, eta beren etsai eta arbuiatzaile aitortzen haute. Egiazko fedearen fededunek gorrotatzen haute, eta jendetzaren arrisku izendatzen haute. Zortea izan duk heure lepotik barre egin izatean: eta benetan, bufoi baten modura hitz egin diek. Zortea izan duk txakur hil horren kide bezala agertu izatean: hainbeste apaldu izatean, gaurkoz heure burua salbatu duk. Baina alde egik hiri honetatik -edo bestela bihar hire gainean jauzi egin beharko diat, biziak hildakoaren gainetik egingo lukeenez". Eta hau esanik, gizona ezkutatu egin zen; baina Zaratustrak karrika ilunetan zehar jarraitu zuen.

Hiriaren atean lurperatzaileekin topo egin zuen: zuziaz argi egin zioten aurpegira, ezagutu zuten Zaratustra eta iseka handiak egin zizkioten. "Zaratustrak bazeramak txakur hila: aupa, Zaratustra lurperatzaile bihurtu duk! Izan ere, gure eskuak garbiegiak dituk erreus horrentzat. Zaratustrak bere mokadua kendu nahi ote zioke deabruari?

Bejondeiola! Eta on dakiola! Nola eta deabrua Zaratustra baino lapur hobea ez den, eta biei lapurtzen ez dien eta biak irensten!". Eta beren artean barrezka eta txutxuputxuka zebiltzan.

Zaratustrak ez zuen hitzik ere esan honen aurrean eta bere bideari jarraitu zitzaion. Bi orduz ibili ondoren, baso eta zingirak igaro eta gero, nahikoa aldiz entzunak zituen otso gosekilen uluak, eta berari ere gosea sortu zitzaion. Orduan argia zuen etxe bakarti batean gelditu zen.

"Gosea jabetu duk nitaz", esan zuen Zaratustrak, "mauseari baten modura. Baso eta zingiretan, gosea jabetu duk nitaz, gauaren erdian.

Apeta harrigarria dik nire goseak. Sarritan afalostean etorri ohi zaidak, eta gaur egun osoan ez zaidak etorri: nondik ibili ote duk?"

Eta honenbestez Zaratustrak etxearen atea jo zuen. Agure bat agertu zen; argia zekarren eta galdetu zuen: "Nor dator nigana eta nire lo txarrera?"

"Bizi bat eta hildako bat", esan zuen Zaratustrak. "Emaidazu jaten eta edaten, ahaztu egin dut egunean zehar. Gose denari jaten ematen dionak bere arima azkartzen du: hala dio zuhurritzak9".

Agureak alde egin zuen, baina laster itzuli zen eta ogia eta ardoa eskaini zizkion Zaratustrari. "Lurralde txarra duk hau gose direnentzat", esan zuen; "horregatik bizi nauk ni hemen. Gizaki eta piztiak etortzen dituk nigana, ermitau honengana. Baina esaiok heure bidelagunari ere jateko eta edateko, hi baino nekatuago baitzegok".

Zaratustrak erantzun zion: "Nire bidelaguna hilik dago. Nekez lortuko nuke horretara eragitea." - "Hori ez zaidak niri axola", esan zuen agureak mutiri, "nire atera deitzen duenak eskaintzen diodana hartu behar zidak. Jan, beraz, eta on dakizuela!" -

Gero beste bi orduz ibili zen eta bideaz eta izarren argiaz fidatu zen: zeren gauibiltari ohitua zenez gero atsegin izaten zuen lotan zegoen guztiari aurpegira begiratzea. Baina goiznabartzen hasi zuenean, baso sakon batean aurkitu zen eta ez zitzaion biderik nabari gehiago. Hantxe ezarri zuen hildakoa zuhaitz hustu batean bere buruaren parean - otsoetatik babestu egin nahi baitzuen- eta bera behearen gainean, goroldiotan etzan zen. Eta laster lokartu zen, gorputza nekaturik, baina arima bare zuela.

## IX

Luzaroan lo egin zuen Zaratustrak, eta goizkorria ezezik, eguerdia ere igaro zitzaion aurpegiaren gainetik. Baina azkenean zabaldu zituen begiak: harriturik begiratu zien Zaratustrak basoa eta isiltasunari, harriturik begiratu zion bere barrenari. Gero laster

batean jaiki zen, lehorra bapatean ikusten duen itsasgizona bezala, eta pozezko oihu bat jaregin zuen: zeren egia bat ikusi baitzuen. Eta honela mintzatu zitzaion bere bihotzari:

"Argi bat izan diat: bidelagunak behar dizkiat eta biziak -eta ez nahi dudan tokira eramateko bidelagun hil eta gorpuak.

Bidelagun biziak behar dizkiat, beren buruari jarraitu nahi zaizkiolako jarraituko zaizkidanak -eta nik nahi dudan tokira joango direnak.

Argi bat izan diat: Zaratustra ez zaiek mintzatu behar jendeari, bidelagunei baizik!

Zaratustrak ez dik artzain edo arditxakur baten gisako bihurtu behar.

Artaldetik hamaika errebelatzera - horretarako etorri nauk ni. Jendeak eta artaldeak haserretuko dituk nirekin: mauseari deituko ziotek artzainek Zaratustrari.

Artzain deitzen dizkiat nik, baina berek on eta zintzo deitzen ziek beren buruari. Artzain deitzen dizkiat nik: baina berek egiazko fedearen fededun deitzen ziek beren buruari.

Hara, on eta zuzenak! Nor gorrotatzen dute gehien? Balioen taulak puskatzen dituen, hauslea, hobenlaria: -baina horixe duk sortzailea.

Hara, fede guztietako fededunak! Nor gorrotatzen dute gehien? Balioen taulak puskatzen dituen, hauslea, hobenlaria: -baina horixe duk sortzailea.

Bidelagunak bilatzen dizkik sortzaileak eta ez gorpuak, eta ez artaldeak eta fededunak ere. Sorkideak bilatzen dizkik sortzaileak, taula berrietan balio berriak idatziko dituztenak.

Bidelagunak bilatzen dizkik sortzaileak, eta uztakideak: zeren dena zoriturik baitzegok berarengan uztarako. Baina ehun igitaiak falta zaizkiok<sup>10</sup>; horregatik erauzten dizkik galburuak eta zegok amorraturik.

Bidelagunak bilatzen dizkik sortzaileak, beren igitaiak zorrozten dakitenak, hain zuzen. Deuseztatzaile deituko zituztek, eta ongia eta gaizkiaren destainatzaileak. Baina uztabiltzaileak dituk eta ospatzaileak.

Sorkideak bilatzen dizkik Zaratustrak, uztakideak eta ospakideak bilatzen dizkik Zaratustrak: zer egin zezakek berak artaldeekin eta artzainekin eta gorpuekin!

Eta hi, ene lehen bidelaguna, ongi izan! Ongi ehortzi haut heure zuhaitz hustuan, ongi babestu haut otsoetatik.

Baina aldentzera nihoak higandik, denbora amaitu duk. Goizkorriaren eta goizkorriaren bitartean egia berri bat etorri zaidak.

Ez diat izan behar artzain, ezta ehorztaile ere. Jendeari ere ez zioat berriro hitz egin ere egin nahi; azkeneko aldiz hitz egin zioat hildako bati.

Sortzaileekin, uztabiltzaileekin, ospatzaileekin elkartu nahi diat: ortzadarra erakutsi nahi zieat eta gaingizonaren eskilara-maila guztiak.

Ermitauei kantatuko zieat neure kanta eta bikote bakartiei<sup>11</sup>; eta oraindik entzungaberako belarriak dituenari neure zorionaz astunduko zioat bihotza.

Neure helmugara joan nahi diat, eta neure bidetik nihoak; ez baitien eta atzeratuen gainetik jauzi egingo diat. Honela izan bedi nire aurrerabidea haien beherabide!"

X

Hauxe esan zion Zaratustrak bere bihotzari, eguzkia eguerdian zegoela: itaunkor begiratu zion goialdeari -zeren hegazti baten dei zorrotza entzuna baitzuen. Eta hara! Arrano bat zebilen biribil zabalak eginez airean eta beragandik suge bat zegoen zintzilik, baina ez harrapakin gisara, adiskide bezala baizik: zeren lepoan kiribildurik baitzegoen.

"Nire animaliak dituk!" esan zuen Zaratustrak eta bihotzez poztu zen.

"Eguzkipeko animaliarik harroena eta eguzkipeko animaliarik zuhurrena - lurraldea miaztera atera dituk.

Zaratustra oraindik bizi ote den jakin nahi ditek. Benetan, bizi ote nauk?

Arrisku gehiagorekin aurkitu nauk gizonen artean, animalien artean baino, bide arriskutsuetan barna zebilek Zaratustra. Gidatuko ahal naiate neure animaliek!" Zaratustra, hau esan zuenean, oihaneko santuaren hitzez oroitu zen, hasperen egin eta honela mintzatu zitzaion bere bihotzari:

"Zuhurrago izan banendi! Guztiz zuhurra izan banendi, neure sugearen antzera!

Baina ezinezkoa eskatzen ari nauk: horregatik eskatzen zioat neure harrotasunari beti neure zuhurtasunarekin batera ibiltzeko!

Eta halakoren batean zuhurtasunak bertan behera uzten banau: - oi, atsegin baitik ihes egitea!- nire harrotasunak nire zorotasunarekin batera hegaz egin dezala!"-

-Honela hasi zen Zaratustraren beherabidea.

## ZARATUSTRAREN

### MINTZALDIAK

#### HIRU ERALDAKUNTZEZ

Izpirituaren hiru eraldakuntzez mintzatuko natzaizue: izpiritu nola gamelu bihurtzen den, eta gamelua lehoi, eta lehoia azkenean haur.

Zama asko jasaten ditu izpirituak, izpiritu irmo eta eramaneak, begirunearen jabe denean: bere irmotasunak zamarik handien eta astunenak eskatzen ditu.

Zer da astuna, honela galdetzen du eramaneko izpirituak, honela belaunikatzen da eta ongi zama dezaten nahi du.

Zer da astunena, heroiok! honela galdetzen du eramaneko izpirituak, neure gainean har dezadan eta nire irmotasuna poz dadin.

Hori ez al da: apaltzea, hantusteari min emateko? Norbere zorotasunari argi egiten uztea, norbere jakituriaz iseka egiteko?

Edo ez ote da: guretarrengandik aldentzea, guztiak garaitia ospatzen ari direnean? Edo mendi garaietara igotea, tentatzailea tentatzera<sup>12</sup>?

Edo ez ote da: jakintzaren ezkur eta belarrez elikatzea eta ariman egiarengatiko gosea pairatzea?

Edo ez ote da: gaixorik egotea eta kontsolatzaileak bidaltzea eta gorrekin adiskide bihurtzea, norberak nahi duenik inoiz entzuten ez dutenekin?

Edo ez ote da: ur zikinetara jaistea, bera egiaren ura denean, igel hotzak eta apo beroak norberagandik saihestu gabe?

Edo ez ote da: arbuiatzen gaituztenak maitatzea<sup>13</sup> eta izutu nahi gaituzten mamu guztiei eskua luzatzea?

Zama astunen guzti hauek hartzen ditu bere gainean eramaneko izpirituak: basamortuan zamaturik dabilen gameluaren gisara, horrela dabil bera ere bere basamortuan barna.

Baina basamorturik bakartienean gertatzen da bigarren eraldakuntza: lehoi bihurtzen da hemen izpiritu, askatasuna eskuratu nahi du eta bere basamortuan jaun izan.

Bere azken jauna bilatzen du hemen: beraren eta bere azken Jainkoaren etsai izan nahi du, garaitia lortzeko herensuge handiarekin burruka egin nahi du.

Zein da izpirituak aurrerantzean jaun eta Jainko deitu nahi ez duen herensuge handi hori? "Behar duk" deritzo herensuge handiari. Baina lehoiaren izpirituak "nahi diat" esaten du.

"Behar duk" horrek ixten dio bidea, urre-distiratan, animalia ezkatatsu bezala, eta ezkata bakoitzean urre-distiratan ageri zaio "Behar duk!"

Milaka urtetako balioek dir-dir egiten dute ezkata hauetan, eta herensugerik ahaltsuena honela mintzatu zen: -gauzen balio guztiek nigan dir-dir egiten dute.

Balio guztiak dagoeneko sortuak daude -eta sorturiko balio guztiak- ni naiz. Zinez, gehiago ez du izan behar "nahi diat" batek. Honela mintzatzen zen herensugea.

Ene senideok, zer premia dago lehoiaren izpirituan? Ez al da aski animalia zamariarekin, denari uko egin eta begirunea dionarekin?

Balio berriak sortzea -lehoiak ere ezin du hori: baina sorketa berrietarako askatasuna sortzea- lehoiaren ahalmenak badezake hori.

Askatasuna sortzeko eta betebeharraren aurrean ezetz sakratu bat esateko: horretarako, ene senideok, lehoiaren premia dago.

Balio berrietarako eskubidea izatea -horixe da izpiritu eramaneko eta begirunetsuaren lorpenik errespetagarriena. Zinez, harrapaketa bat da hori berarentzat, eta piztia harraparien gauza.

Bere gauzarik sakratuentzat maitatu zuen behinola bere "behar duk" hura: orain sakratuenean ere nahikundea eta apeta aurkitu behar ditu, bere maitasunetik askatasuna harrapatzeko: lehoiaren premia dago harrapaketa horretarako.

Baina esaidazue, ene senideok, zer egin lezake haurrak, lehoiak berak ere egin ahal izan ez duenik? Zergatik bihurtu behar du orduan lehoi harrapariak haur?

Errugabetasuna da haurra eta ahazmendua, haste berri bat, jolas bat, bere baitan biraka dabilen gurpil bat, lehen mugimendu bat, baietz esate sakratu bat.

Bai, sortzearen jolaserako, ene senideok, beharrezko da baietz esate sakratu bat: bere nahia nahi du orain izpirituak, bere mundua irabazten du mundutik aldenduak.

Izpirituaren hiru eraldakuntza aipatu dizkizuet: izpiritua nola gamelu bihurtu zen, eta gamelua lehoi, eta lehoia azkenik haur.-

Honela mintzatu zen Zaratustra. Eta orduan "Behi Nabarra" zeritzan hirian geratu zen. **BERTUTEAREN KATEDREZ**

Goraipatu zitzaien Zaratustrari jakintsu batek ongi hitz egiten zuela loaz eta bertuteaz: oso gurtua eta goraipatua zen horregatik, eta gazte guztiak beraren katedraren aurrean eserita zeuden. Berarengana joan zen Zaratustra, eta gazte guztiakin batera eseri zen katedraren aurrean. Eta honela mintzatu zen jakintsua:

Ohorea eta lotsitzala loari! Hauxe da aurrena! Eta alde egizue gaizki lo egiten duten eta gauez itzartzen direnen bidetik!

Lotsitzala sentitzen du lapurrak berak ere loaren aurrean: beti itzalgaizka ohosten du gauean. Baina gaueko zaindaria lotsitzalik gabea da, eta lotsitzalik gabe erabiltzen du bere adarra.

Ez da arte kaskarra lo egitea: beharrezko da horretarako, egun osoan itzarturik egon izana.

Hamar bider gaintitu beharko duzu zeure burua egunez: horrek unadura sortzen du eta arimaren lobelar da hori.

Hamar bider adiskidetu beharko duzu zeure buruarekin egunez; zeren gaintitzea garratza baita, eta gaizki lo egiten baitu adiskidetu ez denak.

Hamar egia aurkitu beharko dituzu egunez: bestela gauez egiaren bila ibili beharko duzu, eta arima gose izango zenuke.

Hamar bider barre egin beharko duzu egunez eta alai egon: bestela urdaila gaitzi izango zaizu gauez, ondoezaren aita den hori.

Gutxik dakite hau: baina bertute guztien jabe izan behar da, ongi lo egiteko. Gezurrezko testigantza egingo al dut? Ezkontzaustea egingo al dut?

Neure buruari utzi egingo al diot hurkoaren dontzeila gutiziatzen?<sup>14</sup> Guzti honek gaizki elkar hartzen du lo onarekin.

Nahiz eta bertute guztien jabe izan, artean gauza bat jakin beharra dago: bertuteak berak ere garaiz lo egitera bidaltzen.

Ez dezatela beren artean sesiorik sortu emakumetxo pinpirin horiek! Ezta zuri buruz ere, dohakabe hori!

Jainkoa eta auzoarekiko bakea<sup>15</sup>: hori eskatzen du lo onak. Eta baita auzoaren deabruarekiko bakea ere<sup>16</sup>! Bestela jirabiraka ibiliko zaizu gauez.

Ohorea agintariei eta obedientzia, eta baita agintari makurrei ere! Hori eskatzen du lo onak. Zer dut nik ikustekorik, baldin eta aginteak zango makurren gainean ibili nahi baldin badu?

Niretzat beti artzainik hoberena, bere ardiak belazerik mardulenetara eramaten dituen izango da<sup>17</sup>: horrelakoak ongi lo egingo du.

Ez dut nahi ohore askorik, ezta aberastasun handirik ere: guzti honek barea handitzen du. Baina gaizki lo egiten da izen onik eta altxor txiki bat gabe.

Lagunarte txiki bat nahiago dut txarra baino: baina garaiz joan eta etorri behar du.

Horrela dagokio ongi lo egiteari.

Oso atsegin zaizkit izpirituz behartsu direnak ere: loa indartzen dute. Zoriontsu dira, batez ere beti arrazoia ematen bazaie<sup>18</sup>.



Honela igarotzen zaio eguna bertutetsuari. Eta gaua iristean, ez naiz aritzen loari deika!  
Ez du nahi izaten inork deitzerik loak, bertuteen jauna den horrek!

Aldiz pentsatzen aritzen naiz egunez zer egin eta pentsatu dudana.

Hausnartuz galdetzen diot neure buruari, behi baten antzeko egonarriaz: zein izan dituk hire hamar gainditzeak?

Eta zein izan dituk hamar adiskidetzeak eta hamar egiak eta hamar barre-algarak, heure bihotza asaskatzeko egin dituanak?

Honela gogoeta eginez eta berrogei pentsamenduk zabukaturik, halako batean ustekabea amiltzen zait loa, deitugabea, bertuteen jauna.

Loak begietara deitzen dit: hauek astundu egiten dira. Loak ahoa ukitzen dit: hau zabalik geratzen da.

Zinez, oinetako arinez etortzen zait, lapurrik kuttunena, eta pentsamenduak ohosten dizkit: mutu geratzen naiz orduan aulki hau bezala.

Baina ez naiz luzaroan zutik egoten: laster etzaten naiz.-

Zaratustrak, jakintsuari honela mintzatzen entzuten zion bitartean, barre egiten zuen bere bihotzean: zeren argi bat piztu baitzitzaion une hartan. Eta honela mintzatu zitzaion bere bihotzari:

Zoro bat da niretzat jakintsu hau bere berrogei pentsamenduekin: baina lo egitearen berri ongi dakielakoan nago.

Zorionekoa jakintsu honengandik hurbil bizi dena! Honelako loa kutsatu egiten da, nahiz eta tartean horma lodi bat egon kutsatu egiten da.

Eta bere katedran begizko bat dago. Eta ez dira alferrik esertzen gazteak bertuteen predikari honen aurrean.

Bere jakituriak irakasten du: ernai egoten, ongi lo egiteko. Eta zinez, bizitzak zentzurik ez balu eta nik zentzugabezia hautatu beharko banu, hauxe joko nuke zentzugabeziarik hautagarrientzat.

Oraintxe ulertzen dut argiro, batez ere zer bilatzen zen behinola, bertute-irakaslea bilatzen zenean. Lo ona bilatzen zen eta bertute lobelarrezatuak horretarako!

Katedretako jakintsu goraipatu guzti hauentzat ametsik gabeko loa zen jakituri<sup>19</sup>: bizitzari ez zioten zentzu hoberik ezagutu.

Gaur egun ere oraindik geratzen dira bertutearen predikari hauen moduko banaka batzuk eta ez dira beti hain ohoregarriak: baina denbora amaitu egin zaie. Eta ezin dute luzaroan zutik iraun: laster etzango dira.

Zorionekoak loguretuak: zeren laster hasiko baitira kuluskan.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### ATZEMUNDUTIARREZ

Behiala Zaratustrak bere jorana gizonaz haraindi jaurtiki zuen, atzemundutiar guztiek ohi dutenez. Orduan Jainko pairakor eta oinazetu baten obra neritzon munduari.

Ametsa neritzon munduari, eta Jainko baten poema; koloretako kea asegabe jainkotiar baten begien aurrean.

Ongia eta gaizkia, atsegina eta oinazea eta nia eta zua - koloretako kea iruditzen zitzaidan begi sortzaileen aurrean. Sortzaileak bere buruarengandik aldendu egin nahi izan zuen begirada -eta orduan mundua sortu zuen.

Oinazetan dagoenarentzat atsegin horditzailea da bere buruarengandik begirada aldentzea eta bere baitatik irtetea. Atsegin horditzailea eta bere baitatik irtetea iruditzen zitzaidan behinola mundua.

Mundu hau, beti osatugabea, betiko kontraesan baten errainua eta errainu osatugabea - bere sortzaile osatugabearen atsegin horditzailea: - horixe iruditzen zitzaidan behiala mundua.

Honela jaurtiki nituen neure joranak gizonaz haraindi, atzemundutiar guztiek ohi dutenez. Gizonaz haraindi egitan?

Ah, senideok, sortu nuen jainko hura giza obra eta giza eldarnio besterik ez zen, jainko guztiak bezala!

Gizon zen, gizona eta niaren atal gaixo bat: neure errauts eta txingarretatik sortu zitzaidana, mamu hau, egitan! Ez zitzaidan Harainditik etorri!

Zer gertatu zen, ene senideok? Neure burua pairatzailea gainditu nuen eta neure errautsak mendira eraman nituen eta sugar argiago bat aurkitu nuen neuretzat. Eta hara! Orduan ihes egin zidan mamuak!

Sufrikario eta oinaze litzaide orain, sendaturik nagoelarik, horrelako mamuetan sinestea: sufrikario litzaide orain eta umiliazio. Honela hitz egiten diet atzemundutiarrei.

Sufrikarioa izan zen eta ezintasuna - atzemundutiarren sortzaile; eta zorionaren eldarnio labor hori, gehien sufritzen duenak soilik somatzen duena.

Unadurak, jauzi bakar batez, herio-jauzi batez azkeneraino iritsi nahi duenarenak, unadura gaixo ezjakin batek, nahi izateko kemenik ere ez duenak: hori da jainko eta atzemundutiar guztien sortzaile.

Sinetsidazue, ene senideok! Gorputzak etsi zuen gorputzaz, -honek izpiritu aztoratuaren atzamarrez haztatu zituen azkeneko hormak.

Sinetsidazue, ene senideok! Gorputzak etsi zuen lurraz, -izatearen erraiez mintzatzen zitzaizkiola entzun zuen.

Eta orduan burua sartu nahi izan zuen azken hormetan barna, eta ez burua soilik - "mundu hartaraino" igaro nahi izan zuen.

Baina "mundu hura" gizonentzat ezkutaturik dago, mundu ezgizatiar desgizatiartu hura, ezerez zerutiar bat dena; eta izakiaren erraia ez zaio gizonari mintzatzen, gizon erara izan ezik.

Zinez, zail da izakia egiaztatzea eta zail mintzaraztea. Esaidazue, ene senideok, denik eta miragarriena ez al da ongien egiaztatua?

Bai, ni hau eta niaren kontraesana eta nahastea mintzatzen dira jatorkien bere izateaz, sortzen desiratzen eta baloratzen duen ni hori, gauzen neurria eta balioa dena.

Eta izaki jatorren hau, nia - gorputzaz mintzatzen da, eta oraindik gorputza nahi du, nahiz eta poetizatu, asaldatu eta hegal hautsiez zafraka ari izan.

Gero eta jatorrago mintzatzen ikasten du niak: eta zenbat eta gehiago ikasi, hainbat hitz eta ohore gehiago aurkitzen ditu gorputza eta lurrarentzat.

Hantuste berri bat irakatsi dit niak, neuk gizonei irakasten diedana: ez sartu gehiago burua gauza zerutiarren hondarretan, baizik eta libre eramazue, lur-buru bat, lur-zentzua sortzen duena!

Nahi berri bat irakasten diet gizonei: nahi ezazue gizonak itsuka ibili duen bide hori, emazue ontzat eta ez zaitezte bertatik gehiago inoiz alden, gaixo eta hil-zorian daudenak bezala!

Gaixo eta hil-zorian zeuden gorputza eta lurra arbuiatu zituztenak, eta gauza zerutiarrak eta odol-tanta berrerosleak asmatu zituztenak<sup>20</sup>: baina pozoiz ezti eta goibel horiek ere gorputzetik eta lurretik hartu zituzten!

Beren miseriei ihes egin nahi zieten eta izarrak urrunegi ageri zitzaizkien. Orduan hasperen egin zuten: "Oi, bide zerutiarrak balego beste izate eta zorion batera joateko!" -orduan asmatu zituzten beren maltzurkeriak eta odol-edabeak.

Beren gorputzetik eta lur honetatik saihestu zirelakoan zeuden orduan esker txarreko hauek. Baina nori zor zitzioten beren estasiaren dardarizo eta gozamenak? Beren gorputzari eta lur honi.

Samurra da Zaratustra gaixoekiko. Zinez, ez da sumintzen beraien kontsolatzeko era eta esker txarrarengatik. Sendatu eta beren burua gaitzitu ahal dute eta gorputz bikainago bat sortuko ahal dute!

Sendatzen ari denarekin ere Zaratustra ez da sumintzen, bere nahikundeei samurki begiratzen dienean eta gauerdian bere jainkoaren hilobi inguruan dabilenean: baina gaixotasun eta gorputz gaixo gertatzen zaizkit bere malkoak halere.

Jende gaixobera ugari izan da beti ametsetan eta jainko-minetan dabilzanen artean; amorruz gorrotatzen dute jakituna eta bertuteetan gazteena den jatortasuna.

Atzerantz begiratzen dute beti garai ilunetara: orduan nahikundea eta fedea beste gauza bat ziren; arrazoiaren eldarnioa jainkokidetasuna eta zalantza bekatu.

Sobera ezagutzen ditut nik jainkokide hauek: berengan sinets dezaten eta zalantza bekatu izan dadin nahi dute. Sobera dakit ere zertan sinesten duten gehien.

Zinez, ez dute atzemunduan eta odol-tanta berrerosletan sinesten<sup>21</sup>: baizik eta gorputzean sinesten dute gehien eta beren gorputza dute berentzat gauza berezkoa.

Baina gauza gaixobera zaie: eta pozik alde egingo lukete larrutik. Horregatik entzuten diete herio-predikariei eta berek ere atzemunduak predikatzen dituzte.

Entzuidazue niri, ene senideok, gorputz osasuntsuaren mintzoari: mintzo jatorrago eta garbiagoa da hau.

Jatorrago mintzatzen da eta garbiago gorputz osasuntsua, osoa eta koadratua: eta lurraren zentzuaz mintzatzen da.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### GORPUTZAREN ARBUIATZAILEEZ

Gorputzaren arbuizatzaileei neure hitza esan nahi diet. Ez dute ezer berririk ikasten eta irakasten ibili beharrik, aitzitik aski dute beren gorputzari diosala egin - eta honela mutu geratzea.

"Gorputza naiz eta arima" -honela mintzatzen da haurra. Eta zergatik ez da mintzatu behar hurrek bezala?

Baina itzartuak, jakintsuak dio: Gorputza naiz erabat, eta besterik ez; eta arima gorputzean dagoen zerbaiten izena besterik ez da.

Gorputza arrazoi handi bat da, zentzu bakarra duen aniztasun bat, gerra bat eta bake bat, artalde bat eta artzain bat.

Zure gorputzaren lanabesa da zure arrazoi txikia ere, ene anaia, "izpiritu" deitzen duzuna, zure arrazoi handiaren lanabes eta jostailu txikia.

"Ni" esaten duzu eta harrotu egiten zaitu hitz honek. Baina handiena -sinetsi nahi ez baduzu ere- zeure gorputza eta zeure arrazoi handia dituzu: Ni esaten ez duena baina Ni egiten duena.

Zentzuek sentitzen dutenak, izpirituak ezagutzen duenak ez du bere baitan azkenik.

Baina zentzuek eta izpirituak ahaleginak egiten dituzte gauza guztien xede direla beren buruari sinetsarazten: hain dira handiputzak.

Lanabes eta jostailu dira zentzuak eta izpirituak: berauen atzean ezkutatzen da Nor Bera. Nor Berak zentzuen begiez ere bilatzen du, izpirituaren belarriez ere aditzen du.

Beti dabil Nor Bera bilatzen eta aditzen: erkatzen, hertsatzen, konkistatzen, suntsitzen.

Zure pentsamenduen eta sentimenduen atzean, ene anaia, ugazaba ahaltsu bat dago, jakitun ezezagun bat -Nor Bera du izena. Zure gorputzean bizi da, zure gorputza da.

Zure gorputzean arrazoi gehiago dago zure jakituriarik hoberenean baino. Eta nork daki, zure gorputzak zertarako behar duen zure jakituriarik hoberena?

Zure Nor Berak barre egiten du zure niaren lepotik eta bere zilipurdi harroengatik. "Zer dira niretzat zilipurdi eta pentsamenduaren hegaldaketa horiek? esaten du. Nire helbururako itzulinguruak. Ni naiz Niaren xutikoa eta bere kontzeptuen iradokitzailea".

Nor Berak Niari esaten dio: "Hemen senti ezak oinazea!" Eta orduan niak oinazea sentitzen du eta gehiago oinazerik ez sentitzeko zer egin pentsatzen du -eta horretarako pentsatu behar du hain zuzen.

Nor Berak Niari esaten dio: "Hemen senti ezak atsegina!" Orduan alaitzen da eta sarritan alaitzeko zer egin pentsatzen du -eta horretarako pentsatu behar du hain zuzen. Gorputzaren arbuiatzaileei hitz bat esan nahi diet. Beren arbuiatzea dute beren preziatze. Zerk sortu ditu estimua eta arbuioa, balioa eta nahia?

Nor Bera sortzaileak sortu ditu estimua eta arbuioa, berak sortu ditu atsegina eta samina. Gorputz sortzaileak sortu du izpiritua beretzat bere nahiaren esku baten gisara. Zeuen tentelkerian eta arbuioan ere, gorputzaren arbuiatzaileok, zeuen Nor Berari zerbitzatzen diotzue. Nik esaten dizuet: zuen Nor Berak hil egin nahi du eta bizitik saihestu egiten da.

Dagoeneko ez da gai gogokoen zuena egiteko: bere buruaz gainetik sortzeko. Horixe du gogokoen, horixe du bere joran osoa.

Baina honez gero beranduegi da horretarako: -horregatik zuen Nor Berak beherabidea hartu nahi du, gorputzaren arbuiatzaileok.

Beherabidea hartu nahi du zuen Nor Berak, eta horregatik bihurtu zarete gorputzaren arbuiatzaile! Zeren dagoeneko ez baitzarete gai zeuen buruaz gainetik sortzeko.

Eta horregatik amorrua sentitzen duzue biziaren eta lurraren aurka. Bekaitz oharkabea dago zuen arbuioaren begirada ezkelean.

Ni ez noa zuen bidetik, gorputzaren arbuiatzaileok! Niretzat ez zarete gaingizonarenganako zubi!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

POZ ETA GRINEZ

Ene anaia, bertuteren bat baldin baduzu eta zeure bertute baduzu, orduan ez duzu inorekin partekatzen.

Jakina, bere izenez deitu eta laztandu egin nahi duzu; belarritik tira egin eta berarekin olgeta egin nahi duzu.

Eta hara! Orain bere izena jendearekin partekatzen duzu eta jende eta artalde bihurtu zara zeure bertutearekin!

Hobe zenuke esatea: "Esanezina da eta izengabea nire arima oinazetzen eta gozatzen duena eta nire erraien gosea ere badena."

Bedi zure bertutea izenen lagunartekotasuna baino garaiagoa: eta berataz mintzatu behar baduzu, ez zaitez lotsa hartaz hitz-totelka aritzeaz.

Beraz, mintzatu eta hitz-totelka ari zaitez: "Hori da nire ongia, ni maitale izatea, horrek asetzen nau erabat, horrela soilik nahi dut nik ongia.

Ez dut nahi Jainkoaren agindu bezala, ezta giza lege edo behartasun bezala ere: ez bedi izan hiretzat inolako bide-erakusle goi-lurretarako eta paradisurako.

Bertute lurtarra da nik maite dudana: zuhurtasun gutxi dago bertan, eta guztien arrazoiak ezer baino gutxiago.

Baina txori honek habia egin du nire baitan: horregatik maitatzen eta besarkatzen dut, -orain bere urrezko arraultzak berotzen ari da nigan".

Honela aritu behar duzu hitz-totelka, zeure bertutea goretsiz.

Behiala grinak zenituen eta gaitz deitzen zenien. Baina orain zeure bertuteak besterik ez duzu: zure grinetatik sortu direnak.

Grina hauen baitan jarri duzu bihotzean zeure helbururik garaiena: eta bertute eta alaitasun bihurtu zitzaizkizun.

Eta nahiz eta suminkorren arrazakoa bazina ere, edo irriskoienekoa edo fedezale itsuenekoa edo mendekatienekoa:

Azkenean grina guztiak bertute eta deabru guztiak aingeru bihurtuko litzaizkizuke.

Behiala txakur amorratuak zeneuzkan gorderik zeure sotoan, baina azkenean txori eta kantari maitagarri bihurtu zaizkizu.

Zeure pozoiez ondu duzu gantzugailua; "Atsekabe" behia jetzi duzu -orain beraren errapeko esne ezti edaten ari zara.

Eta honez gero ezin da ezer txarrik sortu zugandik, zure bertuteen arteko burrukatik sortzen den gaizkia izan ezik.

Ene anaia, zoriontsu bazara, bertute baten jabe zara eta bakarrarena: horrela arinago gurutzatuko duzu zubia.

Nabarmengarri da bertute bat baino gehiago izatea, baina zori astuna; eta asko joan ziren basamortura eta hil zuten bere burua, nekaturik baitzeuden beren bertuteen burruka eta burruka-zelai izateaz.

Ene anaia, gerra eta burruka txarrak al dira? Gaitza beharrezko da, bekaitza, mesfidantza eta belzkeria beharrezko dira zure bertuteen artean.

Begira zure bertuteetako bakoitzak gorenera nola jotzen duen: zure izpiritu osoa nahi du, bere aldarrikalari izan dadin, eta amorrua, gorrotoa eta maitasunaren zure indar guztia ere nahi du.

Zelati dago bertute bakoitza besteeikiko, eta gauza beldurgarria da zelua. Bertuteak ere hil daitezke zeluengatik.

Zeluaren sugarrek inguratzen dutenak azkenean bere buruaren aurka zuzenduko du ezten pozoitua, eskorpioa bezala.

Ai, ene anaia, ikusi al duzu inoiz bertuterik bere burua belzten eta puinaletzatzen?

Gizona gaingiditu beharreko zerbait da: eta horregatik maitatu behar dituzu zeure bertuteak-: zeren beraiengatik galduko baitzara.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### HOBENLARI ZURBILAZ

Ez al duzue erahil nahi, epailari eta sakrifikatzaileok, animaliak bere burua makurtu baino lehen? Ikus hogenlari zurbilak nola makurtu duen: bere begietatik arbuio handia mintzatzen da.

"Nire nia gaingiditu beharreko zerbait da: nire nia gizonen arbuio handia da niretzat": honela mintzatzen da begi hauetatik.

Bere burua epaitu zuenean, izan zen bere unerik gorena: ez utzi goituari atzera behekerian erortzen!

Ez dago berrerospenik bere buruarengatik pairatzen dagoenarentzat, heriotza bizkorra izan ezik.

Zuen gizahilketak, epailariok, erruki izan behar du eta ez mendeku. Eta hiltzen ari zareten bitartean, kontu egizue zeuok bizia zuri dezazuen!

Ez da aski hiltzen ari zareten harekin adiskidetzea. Zuen tristura gaingizonarenganako maitasuna izan dadila: honela zuritzen duzue bizitzen jarraitzea!

"Etsai" esan behar duzue baina ez "gaiztagin"; "gaixo" esan behar duzue, baina ez "ziztrin"; "ergel" esan behar duzue, baina ez "bekatari".

Eta zeuk, epailari gorritua, baldin eta ahots goraz esango bazenu, ordurako pentsamenduz egina duzuna: orduan guztiek oihu egingo lizukete: "Utikan likiskeria eta zomorro pozoitsu horiek!"

Baina gauza bat da pentsatzea, besterik egitea, besterik eginaren irudia. Zoriaren gorpila ez da haien artean iraulika dabilena.

Irudi batek zurbilarazi zuen gizon zurbil hori. Bere egintzaren pareko zen burutzen ari zela: baina burutu ondoren, ezin izan zuen haren irudia jasan.

Harez gero egintza bakar baten egile bezala ikusi zuen bere burua. Zorotasuna deitzen diot nik honi: salbuespena funts bihurtu zitzaion.

Marrak oiloa liluratzen duen bezala; emandako kolpeak arrazoi gaixoa soresetatzen dio hogenlariari -egintzaren ondoko zorotasuna deitzen diot nik honi.

Entzuidazue, epailariok! Badago beste zorotasun bat eta hau egintzaren aurrekoa da. Ai, ez duzue behar adina sakondu arima honetan!

Honela hitz egiten du epailari gorriak: "Zergatik hil zuen hogenlari honek? Lapurreta egin nahi zuelako". Baina nik esaten dizuet: bere arimak odola nahi zuela, ez lapurreta: labanaren zorionaren egarri zen!

Baina bere arrazoi gaixoak ez zuen zorotasun hau ulertu eta sinetsarazi egin zion. "Zer axola dio odolak!" esan zion; "ez ote duzu nahi gutxienez haren bitartez lapurreta bat egin? Mendeku hartu?"

Eta entzun egin zion bere arrazoi gaixoari: beruna bezala zitzaion haren hitzaldia - orduan lapurreta egin zuen, hiltzekoan. Ez zuen bere zorotasunaz lotsatu nahi.

Eta orain berriro bere erruaren beruna sentitzen du, eta berriro bere arrazoi gaixoa zurrin bezala, perlesiak joa bezala, trabatua bezala sentitzen du.

Burua inarrosteko soilik gai izango balitz, zama lurrera amilduko litzaioke: baina nork inarrosten du buru hau?

Zer da gizon hau? Gaixotasun-multzo bat, izpirituaren bitartez munduan barna hedatzen direnak: hantxe bildu nahi dituzte harrapakinak.

Zer da gizon hau? Suge amorratuzko mataza bat, elkarren artean nekez bakerik izaten dutenena -bakoitza bere aldetik joaten da mundura eta bertan harrapakina biltzen du.

Hara gorputz gaixo hori! Beronek pairatzen eta desiratzen zuena adierazten ahalegindu zen arima gaixo hau -hilketazko atsegin eta labanaren zorion-irrika bezala adierazi zituen.

Orain gaixo dagoena, gaitzak menperaturik dauka, oraingo gaitza denak: berak pairatzen dituen gaitzak pairarazi nahi ditu. Baina izan zen beste garairik eta beste gaitzik eta onik.

Behiala zalantza txarra zen eta baita norberarekiko nahia ere. Orduan gaixoak herese eta sorgin ziren: sorgin eta herese bezala pairatzen zuten eta pairarazi nahi zuten.

Baina honek ez du zuen belarrietan sartu nahi: kalte egiten die zuen zintzoei, esaten didazue. Baina zer axola didate niri zuen zintzoek!

Zuen zintzoen baitako gauza askok nazka ematen didate; eta zinez ez beraien gaitzak. Nahiago nuke zorotasunen bat izango balute, berarengatik gal daitezen, hobenlari zurbil honen gisara!

Zinez, nahi nuen beraien zorotasunak egia izena izatea, edo zoriona, edo justizia, luzaroan adostasun errukarri batena bizi izateko.

Murru bat naiz ibaiaren hegian: heldu nahi didanak heldu diezadala! Baina ez dut zuen makulu izan nahi.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

**IRAKURTZEAZ ETA IDAZTEAZ**

Idatziriko guztiaren artean, nork bere odolaz idazten duena soilik maite dut nik. Idatz odolaz: eta odola izpiritu dela ohartuko zara.

Ez da erraza inoren odola ulertzen: gorroto ditut nagi irakurtzaileak.

Irakurlea ezagutzen duenak, ez du ezer gehiago bere irakurlearentzat egiten. Beste mende bat gehiago irakurle -eta izpirituak berak ere kiratsa izango du.

Edonork irakurtzen ikasteko eskubidea izateak, luzera idaztea bera ezezik, pentsatzea ere hondatu egiten du.

Behiala izpiritua Jainko zen<sup>22</sup>, gero gizon bihurtu zen, eta orain jendaila ere bihurtzen da.

Odolez eta esaeraz idazten duena, horrek ez du nahi irakur dezaten, buruz ikas dezaten baizik.

Mendietan biderik laburrena gailurrez gailur doana izaten da: baina horretarako zango luzeak behar dituzu. Esaerek gailur izan behar dute: eta zuzentzen zaizkienek handi eta sendo.

Aire garbi eta arina, arrisku hurbilekoak eta izpiritua gaiztakeria alaiz betea: bata bestea ongi hartzen dutenak dira horiek.

Iratxoak nahi ditut neure inguruan, zeren kementsua bainaiz. Mamuak uxatzen dituen kemenak bere iratxoak sortzen ditu, -kemenak barre egin nahi du.

Nik jadanik ez dut zuek bezala sentitzen: hodei hau, neure oinetan ikusten dudana, iluntasun eta astuntasun hauek, zeinen lepotik barre egiten baitut - hauxe duzue zeuen ekaitz-hodeia.

Zuek gora begiratzen duzue igo nahi duzuenean. Eta nik behera begiratzen dut, goian nagoelako.

Zuetako nor da gauza aldi berean barre egiteko eta goian egoteko?

Mendirik garaienetara igotzen denak eszenako eta bizitzako tragedia guztiez barre egiten du.

Kementsu, axolakabe, isekati eta zakar - honelaxe nahi gaitu zuhertasunak: emakumea da eta beti gerraria soilik maite du.

Zuek esaten didazue: "Bizitza eramangaitza da." Baina zertarako dituzue orduan zeuon eguerdiarteko harrotasuna eta arratsaldeko etsipena?

Bizitza eramangaitza da: baina ez zaitezte hainbeste samur! Guztiok gara astar eta asteme polit eta sendoak<sup>23</sup>.

Zer kidetasun dugu guk arrosa-kukuluarekin, bere gorputzean ihintz-tanta bat daukalako dardar egiten duenarekin?

Egia da: maite dugu bizitza, ez bizitzera ohiturik gaudelako, maitasunera gaudelako baizik.

Beti dago maitasunean zorotasun-apurren bat. Baina beti dago zorotasunean arrazoi-apurren bat ere.

Eta nik ere, bizitzarekin ongi konpontzen naizen honek, uste dut zorionaz gehien dakitenak xaboi-punpuiloak eta tximeletak direla eta gizonen artean beraien antzekoa denak.

Arimatxo arin, zoro, xarmangarri mugikor horiek hegazka ikusteak -horrek malkoak eta kantak isurarazten dizkio Zaratustrari.

Dantza egiten dakien Jainko batengan soilik sinetsiko nuke nik.

Neure deabrua ikustean, serio, barren, sakon, handios aurkitu nuen: astuntasunaren izpiritua zen -beraren bitartez erortzen dira gauza guztiak.

Ez amorruren bitartez, barrearen bitartez baizik hiltzen da inor. Hil dezagun beraz astuntasunaren izpiritua!

Ibiltzen ikasi nuen: eta harrez gero lasterka egiten dut. Hegaz ikasi nuen, eta harez gero ez dut onartzen inork bultza egiterik toki batetik bestera pasatzeko.

Orain arina naiz, orain hegaz egiten dut, orain neure buruaren azpitik ikusten dut neure burua, orain jainko batek dantza egiten du nire bitartez.

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### MENDIKO ZUHAITZAZ

Zaratustraren begiak ikusia zuen gazte batek itzuri egiten zuela. Eta arrats batez "Behi Nabarra" deritzon hiria inguratzen duten mendietatik bakarrik zihoala, hara, ibili zebilela gazte haretxeekin topo egin zuen, zuhaitz batera arrimaturik eserita eta begirada nekatuaz ibarrera begira zegoela. Zaratustra gaztea eserita zegoen zuhaitza besarkatu eta honela mintzatu zen:

"Zuhaitz hau neure eskuez inarrosi nahi izango banu, ezingo niake.

Aitzitik, ikusten ez dugun haizeak, oinazetu eta makurtu egiten dik, nahi duen bezala. Esku ikusezinak dituk okerren makurtzen eta oinazetzen gaituztenak<sup>24</sup>".

Orduan gazteak aztoraturik zutitu eta esan zuen: "Zaratustra entzuten ari naiz eta beragan pentsatzen ere banengoen." Zaratustrak erantzun zion:

"Eta zergatik ikaratzen haiz orduan? -Gizonekin zuhaitzekin bezala gertatzen duk. Zenbat eta gorantz eta argirantz igotzen gehiago ahalegindu, hainbat eta indartsuago ahalegintzen dituk bere zainak lurrerantz, beheerantz, ilunera, sakonera -gaizkira jaisten". "Bai, gaizkira!" jaregin zuen gazteak. "Nola igarri ahal izan duzu nire arimaren berri?" Zaratustra barre egin eta mintzatu zen: "Zenbait arimaren berri ez duk inoiz igartzen, aurrena idoro ezik behintzat."

"Bai, gaizkira!, jaregin zuen gazteak berriz ere.

Egia zenioen, Zaratustra. Neure buruaz ez naiz fidatzen, gora igo nahi dudanez geroztik, eta inor ez da nitaz fidatzen -nola gertatzen da hau gero?

Bizkorregi eraldatzen naiz: nire gaurrak nire biharra kontraesaten du. Sarritan salto egiten dut mailen gainetik, igotzen ari naizela -ezein mailak ez dit hori barkatzen.

Goian nagoenean, beti bakarrik aurkitzen naiz. Ez da inor nirekin mintzatzen, bakardadearen izotzak dardar eragiten dit. Zergatik joan nahi dut goialdera halere? Nire arbuioa eta nire jorana elkarrekin hazten dira; zenbat eta gorago igotzen naizen, hainbat gehiago arbuiatzen dut igotzen dena. Zergatik joan nahi dut goialdera halere? Nola lotsatzen naizen neure igotzeaz eta oztopatzeaz! Nola burlatzen naizen neure hasperen gogorraz! Nola gorroto dudana hegaz dabilena! Zeinen nekaturik nagoen goialdean!"

Orduan isildu egin zen gaztea. Eta Zaratustrak begiratu zion zeudeneko zuhaitzari eta honela mintzatu zen:

"Zuhaitz hau hemen zegok bakarti mendian; gizonen eta animalien oso gainetik hazi duk.

Eta mintzatu nahi balu, ez liake izango ulertuko liokeenik: hain gora hazi baituk.

Orain itxaron eta itxaron zegok -zeri itxaroten zio? Hodeien eserlekutik hurbilegi bizi duk: lehen tximista bati itxaroten ote zegok?"

Zaratustrak hau esan zuenean, gazteak keinu nabarmenez jaregin zuen: "Bai, Zaratustra, egia diozu. Neure behearabidea nahi nuen, goialdera igotzea exigitu nuenean, eta zu nik itxaroten nuen tximista zara! Hara, zer naiz ni, zu gure artean agertu zarenetik? Zureganako bekaitzak hondatu nau ni!" -Honela mintzatu zen gaztea eta negarrari eman zion saminki. Zaratustrak, ordea, besoa ezarri zion gerrian eta berekin eramanean zuen.

Eta tarte bat elkarrekin ibili ondoren, Zaratustrak berriro hitz egiteari ekin zion:

Urratu egiten zaidak bihotza. Hire hitzek baino hobeki, ematen zidak hire begiak hire arrisku guztien berri.

Oraindik ez haiz libre, askatasunaren bila habil. Hire bilaketak loguragabeegi eta ernaiegi bihurtu hau.

Goialde libreria iritsi nahi duk, hire arima izarren egarri duk. Baina hire olde makur guztiak ere askatasunaren egarri dituk.

Hire txakur uzu guztiek askatasuna nahi ditek; beren koban atseginez zaunka egiten ditek, hire izpirituak presondegi guztiak irekitzeko asmoa duenean.

Niretzat oraindik bere askatasunaz ametsetan dagoen preso haiz: ai, zuhur bihurtzen duk horrelako presoen arima, baina baita maltzur eta gaizto ere.

Garbiketa beharrean aurkitzen duk oraindik izpirituz askatua. Presondegi eta lizun asko geratzen zaiok oraindik: begia oraindik garbitu beharra dik.

Bai, ezagutzen diat hire arriskua. Baina neure maitasun eta itxaropenarengatik zin egiten diat: ez itzak heure maitasuna eta itxaropena jaurtiki!



Prestu sentitzen haiz oraindik, eta jator sentitzen haute oraindik besteez, gaitzi izan eta begirada makurrak zuzentzen dizkiate. Bai baitakite jator batek traba egiten diela bidean.

Zintzoei berei ere traba zaiek jatorra bidean: eta nahiz eta zintzo deitu, horrela baztertu egin nahi diate.

Zerbait berria sortu nahi dik jatorrak eta bertute berri bat. Zintzoak zaharra nahi dik, eta zaharrak iraun dezan.

Baina ez duk jatorraren arriskua zintzo bihurtzea, baizik eta ozar, isekati eta deuseztatzaile.

Ai, ezagutu dizkiat beren itxaropenik garaiena galdu duten jatorrak, eta harrez gero itxaropen garai guztiak belztu dizkiate.

Harrez gero, ozar bizi dituk atsegin laburretan eta egun bakarraz haraindi nekez ezartzen ditek helbururik.

"Izpiritua irriks ere bada" - hala esaten ziaten. Eta orduan beraien izpirituari hegala hautsi zitzaizkian: hau orain alde batetik bestera zebilek, eta karraskatzean lohitu egiten dik.

Behiala heroi izatearen ametsa egiten zitean: baina irriskoi besterik ez dituk orain.

Gaitzikoa eta laborria duk beraientzat heroia.

Baina neure maitasun eta itxaropenarengatik zin egiten diat: ez ezak jaurtiki heure ariman daukaan heroia! Santu gorde ezak heure itxaropen gorena!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### HERIOTZAREN PREDIKARIEZ

Badira heriotzaren predikariak: eta lurra halakoz beterik dago, zeinei bizitzatik aldentzeko predikatu behar baitzaie.

Beterik dago lurra soberakinez, hondaturik dago bizitza gehiegiaz. On litzateke "betiko bizitzaren" apeuaz norbaitek bizitza honetatik aterako balitu!

"Horiak": honela deitzen zaie heriotzaren predikariei, edo "beltzak". Baina nik oraindik beste kolore batzuekin aurkeztu nahi dizkizuet.

Hor daude beldurgarriak, beren baitan piztia harraparia daramatenak eta hautakizunik ez dutenak: irritsa edo beren buruaren hildura. Eta beraien atseginak beren buruaren hildura dira.

Oraindik gizon ere ez dira egin beldurgarri hauek: predikatuko ahal dute bizitzatik aldentzea eta berek alde egingo ahal dute!

Hor daude arimazko hetikatsuak: ozta jaioak dira eta, eta dagoeneko hasiak dira hiltzen, eta unadura eta ukapenezko dotrinen irrikia dute.

Pozik egongo lirateke hilik, eta guk berretsi egin beharko genuke beren nahia! Gorde ditzagun geure buruak hildako hauek piztetik eta zerraldo bizi hauek bortxatetik!

Gaixo bat edo agure bat edo gorpu batekin topo egiten dutenean, laster esaten dute:

"Bizitza ezeztaturik dago!"

Baina beraiek soilik dira ezeztatuak eta beraien begia, izatearen aurpegi bakarra besterik ikusten ez duena.

Melankolia loditan murgildurik, eta heriotza ekartzen duten ezbehar txikien irrikaz: itxaron egiten dute eta hortzak estutzen dituzte.

Beste batzuetan gozokietarantz luzatzen dituzte eskuak eta berek iseka egiten dute umekeria horrengatik: lasto bat den bizitzatik zintzilik daude eta iseka egiten dute artean lasto batetik zintzilik daudelako<sup>25</sup>.

Beraien zuhertasunak dio: "Tentela bizitzen jarraitzen duena, baina gu ere horrelakoxe tentelak gara! Eta haxe da bizitzako gauzarik tentelena!" -

"Bizitza pairatzea besterik ez da" -honela diote beste batzuek; eta ez diote gezurrik:

Beraz, ahalegin zaitetze eten dadin, pairatzea besterik ez baita!

Eta zuen bertutearen dotrina ere entzun bedi: "Zeure burua hil behar duzu! Zeure buruari ihes egin behar diozu!"-

"Irritsa bekatu da" -esaten dute heriotzaren predikari batzuek- "alden gaitezen elkarrengandik eta ez dezagun seme-alabarik sor!"

"Erditzea mingarria da" -esaten dute beste batzuek- "zertarako erdi gehiago? Dohakabeak soilik erditzen dira!" Eta hauek ere heriotzaren predikari dira.

"Errukia da behar dena" -diote hirugarrenek. "Har ezazue daukadana! Har ezazue naizena! Hainbat gutxiago lotuko nau bizitzak!"

Benetan errukiorrak balira, lagun hurkoari bizitza hondatuko liokete. Txarrak izatea -hori lukete beren benetako ontasun.

Baina bizitzatik askatu nahi dute beren burua: zer axola die inoren bizitza kateaz eta opariz oraindik tinkoago lotzeak!-

Eta zuek ere bai, zeinentzat bizitza lan eta ezinegona baita: ez al zaudete oso nekaturik bizitzaz? Ez al zaudete oso zoriturik heriotzaren predikurako?

Zuek guztiok, lan gogorra maite duzuenok eta bizkorra, berria, arrotza dena -gaizki eramaten duzue zeuen burua, zuen lehia ihesa da eta zeuen burua ahaztu nahia.

Bizitzan gehiago sinetsiko bazenute, gutxiago lotuko zintzaizkiokete aldiuneari. Baina ez duzue itxaropenerako behar adina edukin -ezta nagitasunerako ere!

Nonahi entzuten da heriotza predikatzen dutenen mintzoa: eta lurra beterik dago heriotza predikatu behar zaienez.

Edo "betiko bizitza": niri berdin dit -laster alde egiten badute behintzat!

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### GERRAZ ETA GERRAJENDEAZ

Ez dugu nahi gure etsairik hoberenek barka gaitzaten, ezta benetan maite gaituztenek ere. Utzidazue, beraz, egia esaten!

Ene anaia gerrakoak! Benetan maite zaituztet eta zuek bezalako naiz eta nintzen. Eta neu naiz zuen etsairik hoberena ere. Utzidazue, beraz, egia bat esaten!

Ezagutzen dut zuen bihotzeko gorrotoa eta bekaitza. Ez zarete gorrotoa eta bekaitza ez ezagutzeko bezain handiak. Izan zaitezte, beraz, beraien lotsarik ez izateko bezain handiak!

Eta ezagueraren santuak izateko gai ez bazarete, izan zaitezte gutxienez haren gerrariak. Hauek dira horrelako santutasunaren bidelagunak eta aitzindariak.

Soldadu asko ikusten dut: gerrari asko ikusi ahal izango banitu! "Uni-formea" deitzen zaio soinean darabiltenari: ez ahal da uni- formetasuna izango horrekin estaltzen dutena!

Beren begiaz atergabe etsaia, zeuen etsaia, bilatzen duten horietakoa izan beharko zenukete. Eta zuetako batzuegan lehen begiratuan aurkitzen da gorrotoa.

Zeuen etsaia bilatu behar duzue, zeuen gerra egin behar duzue eta zeuen pentsamenduen alde! Eta baldin zuen pentsamenduak porrot egiten badu, zuen jatortasunak garaitia aldarrikatu behar du horregatik!

Eta gerra berrietarako bitarteko bezala maite izan behar duzue bakea. Eta bake laburra luzea baino gehiago.

Ez dizuet lanerako aholkurik ematen, gerrarako baizik. Ez dizuet bakerako aholkurik ematen, garaitiarako baizik. Zuen lana bedi gerra, zuen bakea bedi garaitia!

Isil eta lasai, gezia eta arkua izatean egon daiteke: bestela berriketan eta sesiotan bestetan ez da aritzen. Zuen bakea garaitia izan dadila!

Zuek ez al diozue, kausa on batek gerra bera ere santutu egiten duela? Neuk diotsuet: gerra onak santutzen du kausa oro.

Gerrak eta kemenak lagun hurkoarenganako maitasunak baino gauza handiagoak egin dituzte. Ez zuen errukiak, baizik eta zuen bulartasunak salbatu ditu orain arte ezbehartuak.

"Zer da ona?" galdetzen duzue. Bulartsua izatea ona da. Utzi neskatoei esaten: "Ona izatea polita eta aldi berean hunkigarria izatea da."

Bihozkabe deitzen zaituztete: baina zuen bihotza benetakoa da eta nik maite dut zuen bihozkortasunaren lotsa. Zuek zeuen itsasgoraz lotsatzen zarete eta beste batzuk beren itsasbeheraz lotsatzen dira.

Itsusiak al zarete? Tira, bada, ene senideok! Ingura itzazue zeuon buruak gurentasunaz, itsusitasunaren kapaz!

Eta zuen arima handitzen bada, harrotu ere egingo da, eta zuen gurentasunean dago gaiztotasuna. Ezagutzen zaituztet.

Gaiztotasunean topo egiten dute elkarrekin harroak eta makalak. Baina ez dute elkar ongi ulertzen. Ezagutzen zaituztet.

Gorrotatzekoak diren etsaiak soilik izan behar dituzue; baina ez arbuiatzekoak. Harro sentitu behar duzue zeuen etsaiengatik: orduan zuen etsaien arrakastak ere zeuen arrakasta izango dituzue.

Errebolta -hori da esklabuaren noblezia. Bedi obedientzia zuen noblezia! Bedi zuen agintzea bera obeditzea!

Gerrari onak atseginago entzuten du "behar duk" "nahi diat" baino. Eta maite duzuen edozeri aurrea agintzen utzi behar diozue.

Zuen bizitzarenganako maitasuna bedi zuen itxaropenik gorena: eta zuen itxaropen gorena izan bedi biziaren pentsamendurik gorena!

Baina zuen pentsamendurik gorenak nik zuei agindutakoa behar du izan - eta honela dio: gizona gainditu beharreko zerbaite da.

Bizi ezazue zeuen obedientzia eta gerra-bizitza! Zer axola dio luzez bizitzeak? Zein gerrarik nahi du guriki tratatua izatea!

Nik ez zaituztet guriki tratatzen, errotik maitatzen zaituztet, ene senideok, gerran! -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## JAINKOIZUN BERRIAZ

Nonbait oraindik badira herriak eta artaldeak, baina ez zuen artean, ene senideok: hemen estatuak daude.

Estatua? Zer da hori? Orain irekizkidazue belarriak, zeren orain esango baitizuet neure hitza herrien heriotzaz.

Estatu deitzen zaio munstro hotz guztien artean hotzenari. Hoztasun osoz esaten du gezurra; eta gezur hau ateratzen zaio ahotik: "Ni, Estatua, naiz herria."

A zer gezurra! Sortzaileak izan dira herriak sortu dituztenak, eta fede bat eta maitasun bat eseki zituzten beraien gainetik: honela zerbitzatu zuten bizitza.

Deuseztatzaileak dira askotzari tranpak ezarri eta estatu deitzen dutenak: ezpata bat esekitzen dute eta ehundaka gurari.

Oraindik herri bat dagoen tokian, han ez da estatua ulertzen, eta gorrotatu egiten da, begizko txar bat bezala ohitura eta eskubideen aurka.

Seinale hau ematen dizuet: herri bakoitzak bere mintzaira hitz egiten du ongiaz eta gaizkiaz: hau ez du auzoak ulertzen. Bere hizkuntza ohitura eta eskubideetan aurkitu zuen.

Baina estatuak mintzaira guztietan esaten du gezurra ongiaz eta gaizkiaz; hitz egiten duena gezurra da - eta daukana ere, lapurtu duelako du.

Faltsua du guztia bere baitan; lapurturiko hortzez egiten du hozka, hozkalari horrek.

Faltsuak ditu erraiak ere.

Ongia eta gaizkiaren hizkuntza-nahastea: seinale hau ematen dizuet estatuaren seinale gisa. Zinez, seinale honek herio-nahia adierazten du! Zinez, keinu egiten die heriotzaren predikariei!

Asko, gehiegi jaiotzen dira: soberakinentzat asmatu zen estatua.

Begira nola deitzen dituen, gehiegiak! Nola irensten, murtxikatzen eta hausnartzen dituen!

"Lurraren gainean ez dago ni baino ezer handiagorik: Jainkoaren hatz agintzailea naiz ni" - honela egiten du orroa munstroak. Eta belarriluzeak eta bistalaburrak soilik ez dira belaunikatzen!

Ai, baita zuengana ere, arima handikook, lerratzen ditu bere gezur ilunak! Ai, antzematen die bihotz aberatsei eta bere burua gogoz xahutzen dutenei!

Bai, zuei ere antzematen dizue, Jainko zaharraren menperatzaileoi! Nekatu egin zineten burrukan, eta orain zuen nekadurak mesede egiten die jainkoizun berriei!

Heroiak eta ohoredunak ezarri nahi ditu bere inguruan, jainkoizun berriak! Gogoz egoten da kontzientzia onaren eguzkitan -munstro hotz hori!

Dena emango dizue zuei, baldin eta zuek adoratzeko baduzue, jainkoizun berri horrek<sup>26</sup>: horrela erosten du zuen bertuteen erlantzak eta zuen begi harroaren begirada.

Soberakinak erakartzeko beitatatzat erabili nahi zaituzte! Bai, adrazu ifernuzko bat asmatu da hemen, herio-zaldi bat, ohore jainkotiarrezko apainduraz hornitua!

Bai, askorentzako heriotza bat asmatu da hemen, bere burua bizitzat goraipatzen duena: zinez, heriotzaren predikari guztientzako bihotz-zerbitzu bat.

Estatu deitzen diot nik, guztiak, on eta txar, pozoi-edale diren tokiari: estatua, on eta txar, nork bere burua galtzen duen tokiari: estatua, guztien suizidio motelari "bizitza" deitzen zaion tokiari.

Begiraiezue soberakin hauei! Asmatzaileen obrak eta jakitunen altxorrak lapurtzen dituzte: formazio deitzen diote beren lapurretari -eta dena gaixotasun eta hondamendi bihurtzen zaie!

Begiraiezue soberakin hauei! gaixo daude beti, beren behazuna kanporatu eta egunkari deitzen diote. Elkar irensten dute eta liseritzeko ere ez dira gauza.

Begiraiezue soberakin hauei! Aberastasunak eskuratzen dituzte eta horrenbestez behartsuago bihurtzen dira. Boterea nahi dute, eta lehendabizi boterearen balanka, dirua -kaudimengabe halakoak!

Begira nola igotzen diren tximino bizkor horiek! Elkarren gainetik igotzen dira eta horrela lokatzatan eta sakonean arrastatzen dira.

Guztiek tronura iritsi nahi dute: beren zorotasuna datza -tronuan esertzea zoriontasuna dela uste izatean! Sarritan esertzen da lokatza tronuan - eta sarritan tronua ere lokatzatan.

Zoroak dira guztiak niretzat eta tximino igokariak eta gainberotuak. Beraien jainkoizunari, munstro hotzari, usain txarra aditzen diot: usain txarra aditzen diet jainkoizun-zerbitzari guzti horiei.

Ene senideok, ito egin nahi al duzue beren zintzur eta irritsetako arnasatan? Hobe duzue leihoak haustea eta aire librerak jauzi egitea!

Ihes egizue usain txarra dagoen tokitik! Alde egizue soberakinen jainkoizun-gurketatik!

Ihes egizue usain txarra dagoen tokitik! Alde egizue giza sakrifizio hauen lurrinetik!

Libre dago oraindik arima handientzat lurra. Hutsik daude oraindik leku ugari ermitau eta bikote bakartientzat, itsaso isiletako usainez kutsaturiko lekuak.

Libre dago oraindik arima handientzat bizitza libre bat. Zinez, gutxienaren jabe dena, hainbat gutxiago da inoren jabego. Goretsia bedi behartasun txikia!

Han, estatua amaitzen den tokian, hantxe hasten da soberakina ez den gizona: hantxe hasten da beharrezkoak direnen kanta, doinu bakar eta ordezkazina.

Han, estatua amaitzen den tokian -begira ezazue, ene senideok! Ez al dituzue ikusten ortzadarra eta gaingizonarenganako zubiak?-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

MERKATUKO EULIEZ

Ihes egizu, ene adiskidea, zeure bakardadera! Gorturik ikusten zaitut gizon handien zarataz eta txikien eztenek ziztaturik.

Duintasunez dakite oihanak eta harkaitzak zurekin isilik egoten. Itzul zaituzte zuhaitzera, maite duzun, zuhaitz adarranitz horretara: isilik eta adi dago itsasoaren gainean esekirik. Bakardadea amaitzen den tokian, han hasten da merkatua; eta merkatua hasten den tokian, han hasten dira komeriante handien zarata eta euli pozoitsuen zunburruntxoak ere. Munduan inoiz ez dira gauzarik hoberenak nagusitzen, norbaitek antzesten ez baditu: gizon handi deitzen dituzte herriak antzeslari handiak.

Herriak gutxi ulertzen du handia dena, hau da: sortzailea dena. Baina badu zentzua gauza handien antzesle eta komerianteetarako.

Balio berrien aurkitzaileen inguruan ematen dituzte munduak birak: - ikusezin ematen dituzte birak. Baina herriak eta sonak komeriante handien inguruan ematen dituzte birak:

honetakoa da "munduaren joaira".

Komerianteak badu izpiritua, baina izpirituaren kontzientzia gutxi. Besteak sinetsaraz ditzakeenean sinesten du -beragan sinetsaraz dezakeenean!

Bihar fede berri bat izango du eta etzi beste berri bat. Bapateko zentzuak dituzte, herriak bezala, eta auresusmo aldakorak.

Porrokatzea -horri deitzen dio egiaztatzea. Zoraztea -horri deitzen dio sinetsaraztea. Eta odola du bere argudiorik hoberena.

Belarri finetan bakarrik sartzeko moduko egiari gezurra eta ezereza deitzen dio. Zinez, munduan zarata handia ateratzen duten jainkoizunetan soilik sinesten du!

Bufoi handiosez beterik dago merkatua - bitartean herria harrotu egiten da bere gizon handiez: hauek dira berarentzat aldiunearen jaunak.

Baina aldiuneak behartu egiten dituzte: eta honela behartzen zaituzte zu ere "baietza" edo "ezetza" nahi dute zugandik. Errukarria zu, alde eta kontra baten artean ezarri nahi al duzu zeure aulkia?

Ez izan inoiz izpiritu baldintzagabe eta behartzaile horien bekaitzik, egiaren maitale zaren horrek! Egia inoiz ez da eseki baldintzagabe baten besotik.

Bapateko hauengandik alde egizu zeure segurtasunera: merkaturak bakarrik oldartzen zaizkio bati baietza edo ezetzarekin.

Geldoa da hosi sakon guztien bizipena: luzaroan itxaron behar izaten dute sakonera zer erori den jakin arte.

Merkatuaz eta sonaz aparte gertatzen da handia den oro: merkaturatik aparte bizi izan dira balio berrien asmatzaile guztiak.

Ihes egizu, ene adiskidea, bakardadera: euli pozoitsuz josita ikusten zaitut. Ihes egizu aire gordin gogorak jotzen duen tokira!

Ihes egizu bakardadera! Txiki eta ziztrinengandik hurbilegi bizi izan zara. Ihes egizu beraien mendeku ikusezinetik! Zure kontra mendeku besterik ez dira.

Ez ezazu beraien aurka inoiz eskurik altxa! Ezin konta ahala dira eta zure patua ez da euli-izukari izatea.

Ezin konta ahala dira txikiak eta ziztrinak; eta eraikuntza harro asko lurrera eraitsi dituzte euri-tantek edo belar txarrek.

Zu ez zara harria, baina dagoeneko husturik zaude tanta askoren eraginez. Oraindik hainbeste tantaren eraginez arrakalaturik eta apurturik amaituko duzu.

Gogaiturik ikusten zaitut euli pozoitsuez, alehunka tokitan ziztadaz odoldurik ikusten zaitut; eta zure harrotasuna ez da mindu ere egiten.

Odola atera nahi dizute errugabetasun guztiaz, odol-irrikaz daude beraien arima odolgabeak - eta errugabetasun handienaz zizta egiten dute.

Baina zuk, sakon horrek, sakonegi pairatzen duzu zauri txikiengatik; eta sendatu ere egin baino lehen, arrastaka zebilkizun pozoiz-zomorrotan bera eskuan barna.

Iruditzen zait harroegia zarela salo hauek hiltzeko. Kontuz, ordea, ez dadila izan zure patua beraien bidegabe pozoitsu guztia jasan behar izatea!

Beren gorespen eta guzti aritzen dira furrundaka zure inguruan: mutirikeria dira beraien gorespenak. Zure larrutik eta odoletik hurbil egon nahi dute.

Jainko edo deabru bati bezala egiten dizute zurikeria; jainko edo deabru baten aurrean bezala aritzen dira zinkurinka. Bost axola! Zuriketari eta zinkurinak besterik ez dira.

Sarritan maitagarri bezala ere agertzen dira. Horrelakoa izan da beti koldarren maltzurtasuna. Bai, koldarrak maltzurak dira!

Asko pentsatzen dute zutaz beren arima meharrean -beti eman diezu zer pentsaturik!

Asko pentsatzen den guztiak zer pentsatua ematen du.

Zeure bertute guztiengatik zigortzen zaituzte. Egiazki hauxe bakarrik barkatzen dizute: zeure akatsak.

Nola otzana eta kontzientzia zuzenekoa zaren esaten duzu: "Errugabe dira beren izatea txikiaren aurrean". Baina beraien arima estuak pentsatzen du: "Izate handi oro errudun da".

Nahiz eta beraiekiko otzana izan, arbuiatu egiten dituzula sentitzen dute; eta zure on egiteak beren gaitz egite estaliez ordaintzen dizkizute.

Zure harrotasun mutuak sumindu egiten ditu; poztu egiten dira hantustea izateko bezain apala zarenean.

Gizon batengan ezagutzen duguna, hori berori sutzen dugu beraren baitan. Zain ezazu zeure burua txikien aurrean!

Zure aurrean txiki sentitzen dira eta beren kaxkertasuna sutu eta goritu egiten zaie zure kontra mendeku ikusezinean.

Ez al duzu ohartu zeinen sarri mututzen ziren hurbiltzen zintzaizkienean, eta indarrak nola alde egiten zien, iraungitzen ari den suari keak bezala?

Bai, ene adiskidea, kontzientzia txarra zara zeure lagun hurkoentzat: zeren ez baitira zure duin. Horrela gorrotatzen zaituzte, eta odola xurgatuko lizukete pozik.

Zure lagun hurkoak euli pozoitsu izango dira beti; zuga handia dena -horretxek berak bihurtuko ditu pozoitsuago eta euliago.

Ihes egizu, ene adiskidea, zeure bakardadera eta aire gordin gogorak jotzen duen tokira.

Zure zoria ez da euli-izukari izatea.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

**KASTITATEAZ**

Nik oihana maite dut. Hirietan gaizki bizitzen da: lizun gehiegi dago.

Ez al da hobeto, hiltzaile baten eskuetan erortzea, emakume lizunaren ametsetan baino?

Eta begiraiezu gizon horiei: beren begiak esaten du -ez dute ezer hoberik ezagutzen lurrean, emakume batekin oheratzea baino.

Lokatza daukate arimaren barrenean; eta ai, lokatza horrek gainera izpiritu badu!

Gutxienez animalia bezala beteginak bazinete! Baina animalari errugabea izatea dagokio.

Zeuen zentzuak hiltzeko aholkatzen al dizuet? Zentzuen errugabetasuna aholkatzen dizuet.

Kastitatea aholkatzen al dizuet? Kastitatea batzuegan bertutea da, baina askorengan ia bizio.

Hauek eutsiak dira ziur: sentsualitate amorratuak, ordea, egiten duten guztiari bekaitzez begiratzen dio.

Bere bertutearen goialderaino eta izpiritu hotzeraino jarraitzen die piztia honek bere ondoezarekin.

Eta zeinen trebeki dakien sentsualitatearen txakurremeak izpiritu-zati bat errumes gisa eskatzen, haragi-zati bat ukatzen zaionean!

Atsegin al dituzue tragediak eta bihotza urratzen duen guztia? Bada ni ez naiz fidatzen zuen txakurremeaz.

Begi ankerregiak ikusten dizkizuet eta lizuntasunez begiratzen diezue sufritzen daudenei. Ez ote da zuen irritsa moztaratu besterik egin eta erruki izena hartu?

Eta gainera alegia hau eskaintzen dizuet: beren deabruak jaurtiki nahi izan zituzten bat baino gehiago, azkenean txerrietara sartu ziren<sup>27</sup>.

Kastitatea neke zaionari, ez zaio aholkatu behar: ifernurako bide bihur ez dakion -hau da, lokatza eta arimako lizunerakoa<sup>28</sup>.

Gauza lohiez mintzatzen al natzaizue? Hau ez da niretzat txarrena.

Ez egia lohia denean, baizik eta mehats denean, orduan jaisten da gogoz kontra uretara jakituna.

Zinez, badira kastuak barren-barrenetikoak: bihotzez otzanak dira, zuek baino gehiago eta ugariago barre egiten dute.

Kastitateaz beraz ere barre egiten dute eta galdetzen dute: "Zer da kastitatea!

Kastitatea ez al da tentelkeria? Baina tentelkeria hori gugana etorri da eta ez gu beragana.

Ostari honi aterpea eta bihotza eskaini dizkiogu: orain gure baitan bizi da -nahi duen bitartean iraun dezala!"

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### ADISKIDEAZ

"Bakarra beti gehiegi da nire inguruan" -honela pentsatzen du bakartiak. "Hasieran beti bat - luzera bi izaten da!"

Ni eta Nire suharregi dira beti elkarriketan: nola eraman, adiskiderik ez balego?

Beti da bakartiarentzat adiskidea hirugarren: hirugarrena kortxo da, biren elkarriketa sakonera iristea eragozten duena.

Ai, sakonera gehiegi daude bakarti guztientzat. Horregatik irrikatzen dute hainbeste adiskidea eta haren parean jartzea.

Besteengan dugun fedea salatzen du geure baitan zer sinetsi nahiko genukeen. Gure adiskide-jorana da gure salatailea.

Eta sarritan maitasunarekin geure bekaitzaren gainetik jauzi egin nahi izaten dugu. Eta sarritan eraso eta etsaia egiten dugu, erasogarriak garelako ezkutatzeko.

"Izan hadi gutxienez nire etsai!" - honela mintzatzen da egiazko errespetua, adiskidetasuna eskatzera ausartzen ez denean.

Adiskidea izan nahi duenak, beraren alde gerra egitea ere nahi izan behar du: eta gerra egiteko etsai izateko gauza izan behar da.

Norbere adiskidearengan etsaiari ere ohore egin behar zaio. Gauza al zara adiskidearengana oso hurbiltzeko, berarengana igaro gabe?

Norbere adiskidearengan izan behar da etsaierik hoberena. Berarengandik bihotzez hurbilen egon behar duzu, berarekin burrukan ari zarenean.

Ez al duzu arroparik erabili nahi adiskidearen aurrean? Zure adiskidearen ohoretan izango al da, zaren bezala zeure burua berari ematea? Baina horrexegatik bidaliko zaitu deabrutara!

Disimulurik ez duenak, asaldarazi egiten du: baduzue hamaika arrazoi biluztasunari beldurra izateko! Bai, jainkoak bazinete, lotsa zintezkete zeuen arropaz!

Ez zara inoiz behar adina apainduko zeure adiskidearentzat: zeren eta gaingizonaganako gezi bat eta joran bat bezala agertu behar baituzu berarentzat.

Ikusi al duzu dagoeneko adiskidea lotan -zer itxura duen jakiteko? Zer da beraz zure adiskidearen aurpegia? Zure aurpegia bera da, ispilu zakar eta betegingabe batean.

Ikusi al duzu dagoeneko adiskidea lotan? Ez al zara izutu zure adiskideak itxura hori izateaz? Oh, ene adiskidea, gizona gainditu beharreko zerbait da!

Igertzean eta isilik egotean maisu izan behar du adiskideak: ez duzu dena ikusi nahi izan behar. Zure ametsak iragarri behar dizu, zure adiskideak ernai egiten duena.

Iragartze bat bedi errukia: aurrena jakin dezazun zure adiskideak errukirik nahi duen.

Agian zukan begi irmea eta betiera-begirada maite ditu.

Adiskidearenganako errukia azal gogor baten azpian ezkutatu behar da, beraren kontra hautsi behar dituzu zeure hortzak. Hala izango ditu dagozkion finezia eta gozoa.

Aire garbia eta bakardadea eta ogia eta sendagaia al zara zeure adiskidearentzat? Askok ezin izan ditu eten bere kateak, eta halere berrerosle bihurtzen da adiskidearentzat.

Esklabu al zara? Orduan ezin zara adiskide izan. Tirano al zara? Orduan ezin duzu adiskiderik izan.

Luzaroegi egon dira emakumearengan esklabua eta tiranoa ezkutaturik. Horregatik, emakumea oraindik ez da adiskidetasunerako gai: maitasuna besterik ez du ezagutzen.

Emakumearen maitasunean zuzentasunik eza eta itsutasuna daude maite ez duen guztiarekiko. Eta emakumearen maitasun jakintsuan beti daude ustekabeko eraso eta tximista, eta gaua argiaren ondoan.

Oraindik emakumea ez da adiskidetasunerako gai: katu dira beti oraindik emakumeak eta txori. Edo, hoberenean, behi.

Oraindik emakumea ez da adiskidetasunerako gai. Baina esaidazue, gizonok, zuetako nor da gai adiskidetasunerako?

O, a zer nolako miseria, gizonok, eta zikoizkeria dagoen zuen arimetan! Adiskideari ematen diozuen, hori eman nahi diot nik neure etsaiari, eta ez dut behartsuago bihurtzeko gogorik horregatik.

Badago kidetasunik: hobe bai adiskidetasunik balego!

Honela mintzatu zen Zaratustra.

MILA ETA BAT HELBURUEZ

Lurralde asko ikusi ditu Zaratustrak eta herri asko: horrela aurkitu du herri askoren ongia eta gaizkia. Ez du ahalmen handiagorik aurkitu Zaratustrak lurlean ongia eta gaizkia baino.

Ezingo litzateke bizi ezein herri, aurrez balio-ematerik egingo ez balu; baina iraun nahi badu, ezin dezake balio-ematerik egin auzoak bezala.

Herri honek on iritzi dien gauza asko, beste batek lotsaizun eta laido iritzi die: hori aurkitu dut nik. Gauza asko aurkitu ditut hemen txar deituak eta han purpura-ohorez apainduak.

Inoiz ez du auzo batek bestea ulertu: beti txunditu izan zaio arima bestearen zorotasun eta gaiztakeriaren aurrean.

Herri bakoitzaren gainean ondasun-taula bat dago zintzilik. Hara, bere gainditzeen taula da; hara, bere botere-nahiaren mintzoa da.

Goresgarria da zail deritzona; ezinbesteko eta zaila denari, on deitzen zaio; eta premia larrienetik jaregiten duenari, bakanari, zailenari -halakoa santutzat goratzen da.

Jaun izatea eta garaitzea eta distiratztea, auzoaren bekaitza eta higuina eragiten diona: hori da berarentzat goren, lehen, neurri, gauza guztien zentzua.

Zinez, ene anaia, herri baten premia eta lurra eta zerua eta auzoa aurrena ezagutzetik hasi baldin bazara: igarriko diozu zein duen gainditzeen legea, eta zergatik eskilara honetatik bere itxaropena igotzen den.

"Beti aurrena izan behar duzu eta besteei aldea atera: Ez du inor zure arima zelatiak maitatu behar, adiskidea izan ezik" -honek ikaratan jartzen zion arima greko bati: eta hala jarraitzen zitzaion handitasunerako bidezidorrari.

"Egia esan eta arkua eta gezia ongi baliatu" -horri zeritzon herri hark zail eta kutun<sup>29</sup>, nondik baitator nire izena- zail eta kutun zaidan izena.



"Aita eta ama ohoratzea eta arimaren erroraino haien borondatea betetzea": gainditze-taula hau beste herri batek<sup>30</sup> zintzilikatu zuen bere buruaren gainetik eta ahaltsu eta betierako izan zen berarekin.

"Leialtasuna gorde eta leialtasunarengatik ohorea eta odola baita kausa arriskutsu eta txarretan ere eman": hau bere buruari irakatsiz hezi zen beste herri bat<sup>31</sup>, eta honela bere burua heziz ernari eta izar jarri zen itxaropen handiez.

Zinez, gizonak beren ongia eta gaizki guztia eman diote elkarri. Zinez, ez zuten hartu, ez zuten aurkitu, ez zitzaien zerutikako mintzo bezala jausi ere.

Balioak ezarri zituen aurrena gizonak gauzetan, bere burua gordetzeko -berak sortu zien aurrena gauzei zentzua, giza zentzua! Horregatik deitzen dio bere buruari "gizon", hots: balio-emaile.

Balio-ematea sortzea da: entzun, sortzaileok! Balio-ematea bera da balioztaturiko gauza guztien altxorra eta bitxia.

Balio-ematearen bitartez soilik dago baliorik: eta balio-ematerik gabe hutsik legoke izatearen intxaurra. Entzun, sortzaileok!

Balioen aldaketa -sortzaileen aldaketa da hori. Beti deuseztatu egiten du, sortzaile izan behar duenak.

Sortzaile izan ziren aurrena herriak, eta gero soilik banakoak; zinez, banakoa bera da sorkuntzarik berriena.

Herriek behiala ongiaren taula bat zintzilikatzen zuten beren gainetik. Agindu nahi duen maitasunak eta obeditu nahi duen maitasunak elkarrekin sortu zituzten taula horiek.

Zaharragoa da artalde izatearen atsegina Ni izatearen atsegina baino: eta kontzientzia onak artalde izena duen bitartean, kontzientzia txarrak Ni esaten du.

Zinez, ni maltzur, maitasungabea, bere onura nahi duena, hori ez da artaldearen sorburua, haren beherabidea baizik.

Maitale izan dira beti eta sortzaile, ongia eta gaizkia sortu zituztenak. Maitasun-sua da izekirik bertute guztien izenetan eta suminaren sua.

Lurralde asko ikusi ditu Zaratustrak eta herri asko: ez du ahalmen handiagorik aurkitu Zaratustrak lurrean maitaleen obrak baino: "on" eta "txar" dute izena.

Zinez, munstro bat da oneste eta txarreste horren ahalmena. Esaidazue, nork heziko dit, senideok? Esaidazue, nork jaurtikiko dizkio piztia honi kateak mila lepondoen gainetik? Mila helburu izan dira orain arte, zeren mila herri baitziren. Mila lepondoentzako katea falta da soilik, helburu bakarra besterik ez da falta. Beraz gizateriak ez du oraindik helbururik.

Baina esaidazue, ene senideok: baldin eta gizateriari oraindik helburua falta bazaio -ez ote da oraindik bera ere falta?-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### **HURKOARENGANAKO MAITASUNAZ**

Hurkoaren inguruan multzokatzen zarete eta hitz ederrak dituzue horretarako. Baina neuk esaten dizuet: hurkoarenganako maitasuna zeuen buruarenganako maitasun txarra duzue.

Zeuen buruarengandik ihes egiten duzue hurkoarengana eta hori bertute bihurtu nahi zenukete: baina nik zuen "buru-ukapenaz" haraindi ikusten dut.

Zua Nia baino zaharragoa da; Zua santutua izan da, baina Nia oraindik ez: horregatik ahalegintzen da gizona hurkoarengana joaten.

Hurkoarenganako maitasuna aholkatzen al dizuet nik? Lehenago aholkatuko dizuet hurkoarengandik ihes egiteko eta urrunekoa maitatzeko!

Hurkoarenganako maitasuna baino gorago dago urrunekoa eta etortzekoarenganako maitasuna; gizonarenganako maitasuna baino gorago dago gauzen eta mamuenganako maitasuna.

Mamu hau, zure aurretik lasterka doana, ene anaia, zu baino ederragoa da; zergatik ez dizkiozu zeure haragia eta hezurak ematen? Baina beldurra diozu eta zeure hurkoarengana zoaz lasterka.

Ez duzue zeuen burua jasaten ezta nahikoa maite ere: horregatik erakarri nahi duzue hurkoa maitasunera eta bere errakuntzaz zeuen burua urrezatu.

Nik nahiko nuke zuek ez inolako hurkorik eta ez haren auzorik ere ez jasatea; orduan zeuen baitatik sortu beharko zenukete zeuen adiskidea eta bere bihotz gainezkatua.

Lekukoa gonbidatzen duzue zuek, zeuen buruaz ongi mintzatu nahi duzuenean; eta zeuen buruaz ongi pentsatzera errebelarazi duzuenean, zeuok ere ongi pentsatzen duzue zeuen buruaz.

Ez du soilik gezurra esaten dakienaren aurka mintzatzen denak, baizik eta ez dakienaren aurka mintzatzen denak batipat. Eta honela mintzatzen zarete zeuen buruaz harremanetan eta esaten diozue auzoari gezurra.

Honela mintzatu zen zoroa: "Gizonekiko harremanak adiurrea hondatzen du, batez ere falta denean."

Bata beren buruaren bila dabilelako doa hurkoarengana, eta bestea, bere burua galdu nahiko lukeelako. Zeuen buruari diozuen maitasun txarrak bihurtzen dizue bakardadea presondegi.

Urrunekoek ordaintzen dizue hurkoarengako maitasuna; eta baldin eta bost elkartzen bazarete, seigarrenak hil beharra du beti.

Nik zuen jaiak ere ez ditut maite: komeriante gehiegi aurkitzen dut beraietan, eta ikusleak berak ere sarritan komeriante bezala portatzen dira.

Nik ez dizuet hurkoaren berri ematen, adiskidearena baizik.

Adiskidea izan bekizue lurreko jaia eta gaingizonaren auresusmo bat.

Adiskidearen berri ematen dizuet eta haren bihotz mukurutuarena.

Baina esponja izaten jakin behar duzue, bihotz mukurutuak maita zaitzaten nahi baduzue.

Adiskidearen berri ematen dizuet, zeinean mundua prest baitago, ongiaren kopa baten modura -adiskide sortzailea, beti mundu prestatu bat oparitzeko daukana.

Eta berari mundua deskribildu zitzaion bezala, horrela kiribiltzen zaio berriro eraztunetan, txarraren bitartezko ongintza bezala, zoriaren bitartezko helburugintza bezala.

Etorkizuna eta urrunenekoa izan bitez zure gaurraren kausa: zeure adiskidearengan gaingizona maitatu behar duzu zeure buruaren kausatzat.

Ene anaia, ez dizuet hurkoarenganako maitasunik aholkatzen: urrunekoarenganako maitasuna aholkatzen dizuet.

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### **SORTZAILEAREN BIDEAZ**

Nahi al duzu, ene anaia, bakardadera joan? Bilatu nahi al duzu zeure buruarenganako bidea? Zaude apur bat eta entzuidazu.

"Bila dabilenak, erraz galtzen du bere burua. Bakardade oro erruzkoa da": honela mintzatzen da artaldea. Eta zu aspaldidanik zara artaldekoa.

Artaldearen mintzoak oraindik durundi egingo du zugean. Eta esaten baduzu: "Nik ez daukat honez gero zuen kontzientzia bera", orduan kexua eta mina izango da.

Hara, min hau kontzientzia bakar hark sortua da: eta kontzientzia honen azken distirak distiratzen du zure atsekabearen gainean.

Baina zuk zeure atsekabearen bidetik ibili nahi al duzu, zeure baitarako bidea den horretatik? Erakutsizkidazu zeure eskubidea eta zeure indarra horretarako!

Indar berri bat eta eskubide berri bat al zara zu? Lehen mugimendu bat? Bere baitan iraulka dabilen gorpil bat? Behar al ditzakezu izarrak zeure inguruan birak ematera?

Ai, badago goranahikeria ugari! Badago gutizi karranpa ugari! Erakutsidazu zu ez zarela ez goranahi eta ez gutizitsu!

Ai, bada pentsamendu handi ugari, hauspoarena besterik egiten ez dutenak: puztuago eta hustuago geratzen dira.

Libre deitzen al diozu zeure buruari? Zeure pentsamendu nagusikoia entzun nahi dut, eta ez uztarri bati ihes egin diozula.

Uztarriren batetik ihes egiteko modukoren bat al zara? Badira bat baino gehiago, beren azken balioa jaurtiki dutenak beren morrontza jaurtiki dutenean.

Zertatik libre? Bost axola horrek Zaratuatrari! Zure begiak argiro esan behar dit: zertarako libre?

Eman al diezazkiokezu zeure buruari ongia eta gaizkia eta zeure nahia zeure gainetik zintzilika al dezakezu lege baten modura? Izan al zaitezke zeure buruaren epailari eta zeure legearen mendekatzaille?

Beldurgarria da epailearekin eta norbere legearen mendekatzaillearekin bakarrean egotea. Honela jaurtikitzen da izarra espazio-eremura eta bakardadearen arnasa izoztura. Gaur oraindik pairatu egiten duzu askotzarengatik, bakar horrek: gaur oraindik badituzu zeure kemena eta zeure itxaropenak.

Baina egunen batean bakartasunak nekatuko zaitu, egunen batean zure harrotasunak porrot egingo du eta zure kemenak karrask eragingo die hortzei. Oihu egingo duzu egunen batean: "Bakarrik nago!"

Egunen batean ia zeure goiera ez duzu ikusiko, eta hurbilegi, zeure beheratasuna; zeure garaitasunak berak beldurtuko zaitu mamu batek bezala. Oihu egingo duzu egunen batean: "Dena faltsua da!"

Badira sentimenduak, bakartia hil nahi dutenak; lortzen ez dutenean, berek hil behar dute! Baina gai al zara hiltzaile izateko?

Ezagutzen al duzu, ene anaia, "arbuio" hitza? Eta zeure zuzentasunaren sufrikarioa, arbuiatzen zaituztenekin zuzena izateko?

Asko behartzen dituzu zeure buruaz iritzia aldatzera; hori garesti ordainarazten dizute.

Etorri zinen haien ondora eta parean pasa zinen: ez dizute inoiz barkatuko hori.

Haien gainetik pasatzen zara zu: baina zenbat eta gorago igotzen zaren, hainbat txikiago ikusten zaitu bekaitzaren begiak. Hegaz egiten duena gorrotatzen da gehien, halere.

"Nola nahi duzue nirekiko zuzen izan!" -esan behar duzu- "zuen bidegabekeria hautatzen dut niretzat neuri dagokidan ataltzat."

Bidegabekeria eta zikinkeria jaurtikitzen dituzte bakartiaren kontra: baina, ene anaia, izar izan nahi baduzu, ez diezu horregatik argi gutxiago eman behar!

Eta gorde ezazu zeure burua zintzo eta zuzenengandik! Gogoz gurutzeratzen dituzte bere bertuteak sortzen dituztenak -gorrotoa diote bakartiari.

Gorde ezazu zeure burua tolesgabetasun santutik ere<sup>32</sup>! Tolesgabea ez den guztia, ez du santutzat hartzen; gogoz jolas egiten du suarekin -jendea erretzeko suarekin.

Gorde ezazu zeure burua maitasun-bulkadetatik ere! Bizkorregi luzatzen dio eskua bakartiak aurkitzen duenari.

Zenbait gizoni ezin diezaiokezu eskua eman, hanka baizik: eta zure hankak atzaparrak izatea nahi nuke.

Baina aurki dezakezun etsairik txarrena zeure burua izango duzu beti; zeure buruaren zelatan zaude, haitzulo eta oihanetan.

Bakartia, zeure baitarako bidetik zabilta! Eta zeure ondotik igarotzen da bide hori eta zeure zazpi deabruen ondotik!

Herese izango zara zeure buruarentzat eta sorgin eta azti eta zoro eta sinesgogor eta donge eta gaiztagin.

Zeure sugarretan kiskali nahi izan behar duzu zeure burua: nola izan nahi duzu berri, aurretik errauts bihurtu ez bazara!

Bakartia, sortzailearen bideari zarraizkio: Jainko bat sortu nahi duzu zeure zazpi deabruetatik!

Bakartia, maitailearen bideari zarraizkio: zeure burua maite duzu, eta horregatik arbuiatzen duzu zeure burua, maitaleek soilik arbuiatzen dakitenez.

Sortu egin nahi du maitaleak, arbuiatu egiten baitu! Zer daki maitasunaz, maite zuena arbuiatu behar izan ez duenak!

Zeure maitasunarekin eta sortzearekin zoaz zeure bakardadera, ene anaia; eta gero etorriko zaizu zuzentasuna atzetik herrenka.

Zeure malkoekin zoaz zeure bakardadera, ene anaia. Bere burua baino zerbait handiagoa sortu nahi eta galtzen dena maite dut nik.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

EMAKUMETXO ZAHAR ETA GAZTEEZ

"Zergatik habil hain itzalgaizka inularrean, Zaratustra? Eta zer daukak hain arreta handiarekin gordeta heure mantupean?

Oparitu diaten altxorren bat? Edo jaio zaian haurren bat? Edo heu ere orain lapurren bidetik ote habil, gaiztoen adiskide hori?"-

Zinez, ene anaia! mintzatu zen Zaratustra, oparitu didaten altxor bat da: aldean darabildan egia txiki bat.

Baina haurtxo bat bezain bihurria da; eta ahoa estaltzen ez badiot, egundoko oihuak egiten ditu.

Gaur bakarrik neure bidetik nindoala, eguzkia sartzen den orduan, emakumetxo zahar batekin topo egin dut eta honela mintzatu zaio nire arimari:

"Asko mintzatu zaiguk Zaratustra guri, emakumeoi, baina inoiz ez zaiguk emakumeaz mintzatu".

Eta nik erantzun diot: "Emakumeaz gizona soilik mintzatu behar zaie."

"Hitz egidak niri ere emakumeaz", esan dit; "nahikoa zaharra nauk, berehalaxe ahazteko hartaz".

Eta amore eman nion emakumetxo zaharrari eta honela mintzatu nintzaion:

Dena da igerkizun emakumearengan, eta denak soluzio bakarra du emakumearengan: haurdunaldia deritzo.

Gizona bitarteko bat da emakumearentzat: helburua beti haurra da. Baina zer da emakumea gizonarentzat?

Bi gauza nahi ditu benetako gizonak: arriskua eta jokoa. Horregatik nahi du emakumea jostailurik arriskutsuentzat.

Gizonak gerrarako hezia izan behar du, eta emakumeak gerrariaren atsedenerako: gainerako guztia tentelkeria da.

Fruitu gozoegiak -ez ditu gogoko gerrariak. Horregatik du atsegin emakumea; mingotsa da beti emakumerik gozoena ere.

Gizonak baino hobeki ulertzen ditu emakumeak haurrak, baina gizona emakumea baino haurragoa da.

Benetako gizonarengan haur bat dago ezkutaturik: hark jolas egin nahi du. Tira, emakumeok, aurki ezazue gizonarengan dagoen haur hori!

Jostailu bat bedi emakumea, zina eta fina, harribitxiaren pareko, oraindik ez dagoen mundu bateko bertutez errainutua.

Izar baten izpiak dir-dir egin beza zuen maitasunean! Esan beza zuen itxaropenak:

"Gaingizonaz erdi ahal banendi!"

Zeuen maitasunean bego kementa! Zeuen maitasunaz oldartu behar zatzaizkiote ikara sartzen dizuenari.

Zeuen maitasunean bego zuen ohorea! Bestenaz, gutxi ulertzen du emakumeak ohoreaz. Baina hau bedi zuen ohorea, maite zaituzten baino gehiago maitatzea beti, eta inoiz ez izatea bigarren.

Gizonak beldurra izan biezaio emakumeari, honek maite duenean: zeren orduan edozein sakrifiziotarako prest baitago, eta beste edozer gauza baliogabetzat baitauka.

Gizonak beldurra izan biezaio emakumeari, honek gorrotatzen duenean: zeren gizona arimaren barrenean soilik baita gaiztoa, emakumea ordea txarra.

Nor gorrotatzen du emakumeak gehien? -Honela mintzatu zitzaion burdina imanari:

"Hi gorrotatzen haut gehien, zeren erakartzen baituk, baina ez baitaiz eradukitzeko bezain ahaltsua."

Gizonaren zorionari "nahi diat" deritzo. Emakumearen zorionari "nahi din" deritzo.

"Hara, oraintxe bihurtu da mundua betegin!" -honela pentsatzen du emakumeak maitasun osoz obeditzean.

Eta emakumeak obeditu egin behar du eta sakonera bat aurkitu bere azalerari. Azalera da emakumearen sentimena, mintz mugikor asaldatua urmahelean.

Gizonaren sentimena ordea sakona da, haren korrontea lurpeko kobazuloetara amiltzen da: emakumeak susmatzen du haren indarra, baina ez du ulertzen.-

Orduan emakumetxo zaharrak erantzun zidan: "Gauza politak esan dizkik Zaratustrak, eta batez ere horretarako bezain gazte direnentzat.

Bitxia duk, Zaratustrak gutxi ezagutzen dizkik emakumeak eta halere zuzen aritu duk beraietaz! Emakumearengan ezer ezinezko ez delako gertatzen ote duk hau?

Eta orain har ezak eskertzeko egia txiki bat! Nahikoa zaharra nauk horretarako!

Bil ezak eta ahoa estaliok: bestela egundoko oihuak egingo dizkik egia txiki honek".

"Emaidazu, emakume, zeure egia txikia!" esan nuen. Eta honela mintzatu zen emakumetxo zaharra:

"Emakumeetara al hoa? Ez ahaztu zartailua!" -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### SUGEGORRIAREN HELDUKADA

Egun baten Zaratustra loak hartu zuen pikondo baten azpian, bero egiten baitzuen, eta besoa aurpegiaren gainean ezarria zuen. Orduan sugedorri bat etorri eta lepoan heldu zion, eta Zaratustrak oihu egin zuen minez. Besoa aurpegitik alderatzean, sugea ikusi zuen: Zaratustraren begiak ezagutu zituenean, baldarki itzuli eta alde egin nahi izan zuen. "Oraindik ez", mintzatu zen Zaratustra; "oraindik ez duk nire esker ona hartu! Garaiz esnatu nauk, oraindik bide luzea diat." "Bide laburra izango duzu", esan zuen sugedorriak tristeki; "nire pozoiak hil egiten du". Zaratustrak barre egin zuen. "Noiz hil duk herensugea sugearen pozoiarengatik?" -esan zuen. "Baina har ezak berriro heure pozoia! Ez haiz niri oparitzeko bezain aberatsa". Orduan sugedorriak berriro lepora salto egin eta zauria milikatu zion.

Zaratustrak hau bere dizipuluei kontatzean, hauek galdetu zioten: "Eta zein da istorio horren moraleja, oi Zaratustra?" Zaratustrak honela erantzun zien:

Moralaren suntsitzaile deitzen naute zintzo eta zuzenek: nire istorioa inmorala da.

Baldin etsairik baduzue, ez iezaiozue ongirik gaizkiaren truke itzul: umiliarazi egingo bailuke. Aitzitik erakutsiozue, zerbait ona egin dizuela.

Eta hobe duzue sumintzea, bera umiliaraztea baino! Eta madarikatzen bazaituztete, ez dut atsegin, zuek bedekatu nahi dezazuen<sup>33</sup>. Hobe da zuek ere apur bat madarikatzea!

Eta bidegabekeria handiren bat gertatu bazaizue, zuek gutxienez bost bidegabekeria txiki egin itzazue! Ikaragarria da bidegabekeriak bera soilik zanpatzen duena.

Ba al zenekiten hau? Bidegabekeria partekatua erdi-zuzentasuna da. Eta jasateko gai denak soilik hartu behar du aldean bidegabekeria!

Mendeku txiki bat mendekurik eza baino gizatiarragoa da. Eta zigorra hobenlariarentzat eskubide eta ohore ez bada, orduan ez dut atsegin zuen mendekua ere.

Jatorrago da nork bere buruari arrazoa kentzea ematea baino, batez ere nork berak arrazoa duenean. Zera bakarrik, nahikoa aberats izan behar da horretarako.

Ez dut atsegin zuen justizia hotza: zuen epailarien begitik borreroak eta bere burdina hotzak begiratzen didate.

Esan, non aurkitzen da maitasun begi argiko den justizia?

Aurki ezazue bada maitasuna, zigor guztiak ez ezik, erru guztiak ere jasaten dituen!

Aurki ezazue justizia, guztiak asketsiko dituen, epaitzen dutenak izan ezik!

Beste hau ere entzun nahi al duzue? Errotik zuzena izan nahi duenarengan, gezurra bera ere gizonenganako maitasun bihurtzen da.

Baina nola izan ninteke ni errotik zuzena! Nola eman niezaioke nik nori berea! Aski bekit hau: nik nori neurea ematen diot.

Azkenik, senideok, gorde ezazue zeuen burua bidegabe aritzeaz bakartiren batekin!

Nola ahantz lezake bakartiak! Nola erantzun lezake!

Hosin sakonaren gisakoa da bakartia. Erraza da hosinera harria jaurtikitzen; baina hondoraino erori denean, esazue, nork atera nahi atzera?

Gorde ezazue zeuen burua bakartia iraintzetik! Baina egin baduzue, orduan hil ere egizue!

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### HAURRAZ ETA EZKONTZAZ

Galdera bat diat hiretzat bakarrik, ene anaia: zunda bat bezala jaurtikiko diat galdera hau hire arimara, zeinen sakona den jakin dezadan.

Gaztea haiz, eta emaztea eta haurra nahi dituk heuretzat. Baina nik galdetzen diat: haurra desiratzea zilegi zaion gizona al haiz?

Garaikorra, heure buruaren bezatzailea, zentzuen jauna, bertuteen jabea al haiz? Honela galdetzen diat.

Edo hire desiran piztiak eta beharrianak hitz egiten al ditek? Edo bakardadeak? Edo heure buruarekiko nahiezak?

Nik nahi diat hire garaitiak eta hire askatasunak seme bat irrika dezaten. Oroigailu biziak eraiki behar dizkiek heure garaitiari eta heure askapenari.

Heure buruaz gora eraiki behar duk. Baina aurrena heure burua eraiki behar duk, gorputzez eta arimaz koadratu.

Ez duk luzetara ugaldtu behar, gorantz baizik! Lagunduko al dik ezkontzaren jardinak horretan!

Gorputz garaiago bat sortu behar duk, lehen mugimendu bat, berez irauliko den gurpil bat -sortzaile bat sortu behar duk.

Ezkontza: honela deitzen zioat nik, sortzaileak baino handiago izango den bat sortzeko biren nahiari. Elkarrekiko errespetu deitzen zioat ezkontzari honelako nahian bat datozen artean.

Hauxe bedi hire ezkontzaren zentzua eta egia. Baina gehiegiek, ezkontza deitzen diotena, soberakinek -ai, nola deitzen zioat nik?

Ai, biren arteko arima-behartasun hori! Ai, biren arteko arima-zikinkeria hori! Ai, biren arteko ongizate errukarri hori!

Guzti horri ezkontza deitzen ziotek; eta esaten ditek beren ezkontzak zeruan eginak direla.

Tira, ez diat atsegin, soberakinen zeru hori! Ez, ez dizkiat atsegin sare zerutiarrean gatibaturiko piztia horiek!

Urrun gera bedi nigandik Jainkoa ere, berak atondu ez duena bedeinkatzera herrenka datorrena<sup>34</sup>!

Ez barrerik egin niri horrelako ezkontzez! Zer hurrek ez dik izango arrazoirik bere gurasoengatik negar egiteko?

Duin neritzoan gizon horri eta umoa lurraren zentzurako; baina bere emaztea ikustean, eroetxe iritzi nioan lurrari.

Bai, lurra dardarka mugitzea nahiko niake santua eta antzaremea haragiz elkartzean.

Honek heroi baten modura alde egin zian eta azkenean harrapakin gisa ongi apainduriko gezurtxo bat ekarri zian; eta bere ezkontza deitzen zioke horri.

Hura uzkurra huen harremanetan eta tentuz hautatzen zian. Baina behingoz hondatu zian betirako bere konpainia; eta ezkontza deitzen zioke horri.

Besteak neskamea bilatu nahi zian aingeruaren bertuteekin. Baina behingoz emakume baten neskame bihurtu huen, eta orain gainera aingeru bihurtu beharko luke.

Erosle guztiak arretatsu aurkitu dizkiat, eta guztiek dizkitek begi zolia. Baina zolienak ere bere emaztea itsumustuan erosten dik.

Tentelkeria labur ugari - horri deitzen diozue maitasuna. Eta zuen ezkontzak tentelkeria labur askori ematen zioke amaiera, lelokeria luze bakar batez.

Zuen emakumearenganako maitasuna eta emakumearen gizonarenganako maitasuna, ai, jainko estali eta oinazetuenganako erruki balira! Baina gehienetan bi animaliak elkar susmatzen dute.

Baina zuen maitasunik hoberena ere sinbolo arrotatu eta sugar mindu besterik ez duk.

Zuzi bat besterik ez duk, bide garaiagoetara gidatu behar zaituztena.

Egunen batez zeuen buruaz gainetik maitatzen ikasi beharko duzue! Ikas ezazue, beraz, lehendabizi maitatzen! Eta horretarako zeuen maitasunaren kaliza mingotsa edan behar duzue<sup>35</sup>.

Mingostasuna aurkituko duzue maitasun hoberenaren kalizan ere: horregatik gaingizon-jorana sortzen du, horregatik ematen dizu egarria, sortzailea!

Egarria sortzaileari, gezia eta gaingizon-jorana: mintza hadi, ene anaia, hau al duk hire ezkontza-nahia?

Santu dituk niretzat horrelako nahia eta horrelako ezkontza.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## HERIOTZA LIBREAZ

Asko hiltzen dira beranduegi, eta batzuk goizegi. Oraindik bitxi deritzogu irakatsiari: "Garaiz hil hadi!"

Garaiz hiltzen: hori irakasten du Zaratustrak.

Noski, inoiz garaiz bizi ez dena, nola hilko da garaiz? Hobe inoiz jaio izan ez balitz! - Hori aholkatzen diet soberakinei.

Baina soberakinak ere garrantzizko bihurtzen dira beren heriotzaz, eta intxaurrik hutsaleneke ere koskatuak izan nahi dute.

Guztiek ematen diote garrantzia heriotzari: baina heriotza ez da oraindik jai. Gizonek oraindik ez dute ikasi jairik ederrenak nola ospatzen diren.

Heriotza burutzailea erakusten dizuet, bizi direnentzat ezten<sup>36</sup> eta agintzari dena.

Burutzen dena garaikorde hiltzen da itxaroten eta agintzen dutenez inguraturik.

Honela ikasi beharko litzateke hiltzen; eta ez litzateke jairik egin behar, non eta hiltzen ari den horietako batek bizien zinitzak sagaratuko ez balitu!

Honela hiltzea da hoberena; eta bigarrena burrukan hiltzea da eta arima handi bat xahutzea.

Baina borrokatzaileari bezala zaio garaileari ere higuigarri zuen heriotza pariztagile hori, lapur bezala hurbiltzen dena -eta halere jaun bezala datorrena.

Neure heriotza predikatzen dizuet, heriotza librea, neuk nahi dudalako niregana datorrena.

Eta noiz nahiko dut? -Helburua duenak eta oinordekoa, garaian nahi du heriotza helburua eta oinordekoarentzat.

Eta helburua eta oinordekoarenganako errespetuz ez du koroa iharrik esekiko biziaren santutegian.

Zinez, ez dut kordelarien antzeko izan nahi: luzetara tira egiten diete beren hariei eta horregatik joaten dira beti atzeraka.

Batzuk beren egia eta garaitietarako zaharregi bihurtzen dira; aho horzkabeak ez du gehiago egia guztietarako eskubiderik.

Eta sona izan nahi duenak, ohoreari garaiz adio esan behar dio eta garaian -alde egitearen arte zaila praktikatu.

Ez zaio utzi behar inori jan gaitzan, zaporerik hoberena dugunean: badakite horren berri luzaroan maitatuak izan nahi dutenek.

Sagar garratzak badira noski eta berauen zoria udazkeneko azken egunera arte itxarotea izaten da: eta bapatean heltzen, horitzen eta zimurtzen dira.

Batzuei bihotza zahartzen zaie aurrena eta beste batzuei izpiritua. Eta batzuk zahar dira gaztetan: baina beranduko gazte dena luzarorako izaten da gazte.

Batzuei huts egiten die bizitzak: har pozoitsuak jaten die bihotza. Horregatik hainbat gehiago arduratzen dira heriotza ongi atera dakien.

Batzuk ez dira inoiz gozatzen, udan usteltzen dira. Koldarkeriak lotuarazten ditu bere adarrera.

Gehiegi bizi dira eta gehiegi daude luzaroegi beren adarrei esekita. Etorriko balitz ekaitz bat ustel eta harjo guzti hauek zuhaitzetik inarrots litzan!

Etorriko balira heriotza lasterraren predikariak! Hauek izango lirateke benetako ekaitzak eta bizi-zuhaitzen inarrosleak! Baina heriotza geldoa eta "lurtiarrarekiko" egonarria predikatzen besterik ez dut entzuten.

Ai, lurtiarrarekiko egonarria predikatzen al duzue? Lurtiar honek beronek dauka zuekiko egonarri gehiegi, aho biraolariok!

Zinez, goizegi hil zen hebertar hura, heriotza geldoaren predikariek ohoratzen dutena: eta askorentzat izan zen hondamendi bera goizegi hiltzea.

Malkoak eta hebertarraren melankolia besterik ez zuen artean ezagutzen, zintzoen eta zuzenen gorrotoarekin batera -Jesus hebertarrak: eta orduan sortu zitzaion heriotzaren jorana.

Hobe zukeen basamortuan gelditu izan balitz zintzo eta zuzenengandik urrun! Agian bizi izaten ikasiko zukeen eta lurra maite izaten -eta baita barre egiten ere<sup>37</sup>!

Sinetsidazue, ene senideok! Goizegi hil zen: berez kontraesango ziekeen bere irakatsiei, nire adinera iritsi izan balitz! Aski jatorra zen kontraesateko!

Baina artean heldugabe zegoen. Heldutasunik gabe maite izaten du gazteak eta heldutasunik gabe gorrotatzen ditu gizona eta lurra ere. Lotuak eta astunak zaizkio oraindik sentimena eta izpiritu-hegalak.

Baina gizonagan haurretik gehiago dago gazteagan baino eta melankolia gutxiago: hobeto ulertzen ditu bizitza eta heriotza.

Libre heriotzarako eta libre heriotzan, ezetz-esale santu bat bai esateko garaia ez denean: hala ulertzen du berak heriotzaz eta bizitzaz.

Zuen heriotza ez dadila birao izan gizonaren eta lurraren kontra, ene adiskideok: hori eskatzen diot zuen arimako eztiari.

Zuen heriotzan artean zuen izpirituak eta zuen bertuteak irazekirik egon behar dute, arraskorria lurraren inguruan bezala: bestela heriotza gaizki aterako zaizue.

Honela hil nahi dut neuk ere, zuek, adiskideok, nigatik lurra gehiago maita dezazuen; eta lurrera itzuli nahi dut erdi ninduen bakean izan dezadan.



Zinez, helburu bat zuen Zaratustrak eta jaurtiki zuen bere pilota: adiskideok, orain zuek zarete nire helburuaren oinordekoak, zuei jaurtikitzen dizuet urrezko pilota.

Beste ezer baino atseginago zait, ene adiskideok, zuek urrezko pilota jaurtikitzen ikustea! Eta horregatik egon nahi dut apur bat gehiago lurrean: barkaidazue!

Honela mintzatu Zaratustra.

BERTUTE OPARIGILEAZ

I

Zaratustrak hiriari adio esan zionean, zeinaz bihotza zaletu baitzitzaion eta zeinaren izena "Behi Nabarra" baita -beren buruei haren dizipulu izena eman zien asko jarraitu zitzaizkion eta konpainia egiten zioten. Honela bidegurutze batera iritsi ziren: orduan, bakarrik ibili nahi zuela esan zien Zaratustrak; zeren bakarrik ibiltzearen adiskide baitzen. Orduan dizipuluek adio esatean makila bat eskuratu zioten, zeinaren urrezko eskulekuan suge bat baitzegoen eguzkiaren inguruan kiribildurik. Zaratustra poztu egin zen makilarengatik eta berataz baliatu zen; gero honela mintzatu zitzaion dizipuluei: Esaidazue: nola iritsi da urrea baliorik gorena izatera? Zeragatik, bakana delako eta alferrikakoa eta distirantea eta erlantz emekoa; beti bere buruaren oparia egiten du. Bertute gorenaren errainu bezala soilik iritsi da urrea balio gorena izatera. Urreak bezala distiratzen dio begiradak oparigileari. Urre-erlantzak zigilatzen du ilargia eta eguzkiaren arteko bakea.

Bakana da bertuterik gorena, eta alferrikakoa, eta distirantea da eta erlantz emekoa: bertute oparigilea da bertute gorena.

Zinez, igarri egiten dizuet, ene dizipuluok: zuek ere, nik bezala, bertute oparigilearen irrikia duzue. Zer izango zenukete katuekin eta otsoekin amankomunean?

Hau da zuen egarri, zeuen buruak biktima eta opari bihurtzea: eta horregatik duzue aberastasun guztiak zeuen ariman metatzeko egarria.

Altxor eta bitxien irrika asezina du zuen arimak, zeren zuen bertutea asezina baita opari egin nahian.

Gauza guztiak zeuenganantz eta zeuengan behartzen dituzue, zuen iturburutik berriro jaria daitezen, zuen maitasunaren emari gisa.

Zinez, balio guztien lapur bihurtu behar du maitasun oparigile horrek; baina nik osasuntsu eta santu deitzen diot norberakeria horri.

Bada beste norberakeria bat, guztiz behartsua, gosekila, beti ohostu nahi duena: gaixoen norberakeria, norberakeria gaixoa.

Ebasle-begiz begiratzen dio distiratzen duen guztiari; gosetu-gutiziaz neurtzen du jateko ugari duena; eta oparigilearen mahaiaren inguruan mugitzen da beti.

Gaixotasuna mintzatzen da hainbesteko gutiziatik eta endekatze ikusezina; gorputz gaixotik mintzatzen da norberakeria honen lapur-gutizia.

Esaidazue, ene senideok: zer da guretzat txarra eta txarrena? Ez al da endekatzea? -Eta beti igartzen diogu endekatzeari arima oparigilea falta den tokian.

Gorantz doa gure bidea, espezieetik gainespeziera. Baina lazkarria zaigu "dena niretzat" esaten duen zentzu endekatzaila.

Gorantz hegaz egiten du gure zentzuak: horrela gure gorputzaren sinbolo da, goratzearen sinbolo. Horrelako goratze sinboloak dira bertuteen izenak.

Honela doa gorputza historian barna, bilakatzen eta borrokatzen ari dena bezala. Eta izpiritua -zer da berarentzat? Bere burruka eta garaitien aldarrikari, lagun eta oihartzun. Sinbolo dira ongia eta gaizkiaren izen guztiak: ez dute ezer mintzatzen, keinu besterik ez dute egiten. Tentela beraietatik jakintza lortu nahi duena.

Zaudete erne, ene senideok, zuen izpiritua sinbolotan mintzatu nahi duen garaietan: hantxe dago zuen bertutearen sorburua.

Goratua dago orduan zuen gorputza eta berbiztua; bere gozamenaz izpirituak irazekitzen du sortzaile eta balioemaile eta maitale eta gauza guztien ongile bihur dadin.

Zuen bihotzak dirakienean, zabal eta bete, ibaiaren gisara, hegikoentzat bedeinkapen eta arrisku delarik: hantxe dago zuen bertutearen sorburua.

Laudorio eta agiriken gainetik goratzen zaretenean eta zuen nahiak gauza guztiei aginduak eman nahi dizkienean, maite duen nahiak bezala: hantxe dago zuen bertutearen sorburua.

Atsegina dena arbuiatu eta ohe biguina eta nagiengandik urrun ez bada atsedetik hartu ezin duzuenean: hantxe dago zuen bertutearen sorburua.

Borondate bakarraz nahi duzuenean eta behar ororen joaira zuentzat premia deritzanean: hantxe dago zuen bertutearen sorburua.

Zinez, hori ongi berri bat eta gaizki berri bat da! Zinez, murmurio sakon berri bat eta iturburu berri baten mintzoa da!

Ahalmena da bertute berri hau; pentsamendu nagusikoi bat da, eta inguruan arima zuhur bat du: urrezko eguzki bat, eta inguruan ezagueraren sugea.

## II

Hemen isilaldi bat egin zuen Zaratustrak eta maitasunez begiratu zien bere dizipuluei.

Gero mintzatzeari jarraitu zion: -eta ahotsa aldatu egin zitzaion.

Iraun ezazue lurrarekiko leial, ene senideok, zeuen bertutearen ahalmenarekin! Zuen maitasun oparigileak eta zuen ezaguerak zerbitza biezaiote lurraren zentzuari! Honela eskatzen dizuet erreguka eta arrenka.

Ez iezaiozue utz lurtiarra denetik hegaz ihes egiten eta bere hegalez betierako hormen kontra tupust egiten! Ai, hainbeste bertute izan da beti hegaz ihes egina!

Gida ezazue, nik bezala, hegaz ihes egindako bertutea berriro lurrera - bai, berriro gorputzera eta bizira: lurrari bere zentzua eman diezaion, giza zentzu bat!

Alehunka modutara ihes egin hegaz eta huts egin dute orain arte izpirituak eta bertuteak. Ai, gure gorputzean daude oraindik eldarnio eta errakuntza guzti hauek: gorputz eta nahi bihurtu dira.

Alehunka modutara ihes egin eta oker egin dute orain arte izpirituak eta bertuteak. Bai, saio bat izan da gizona. Ai, zenbat ezjakintasun eta zenbat oker gorpuztu den gugan!

Ez milurteen arrazoia soilik - haien zorotasunak ere bidea urratzen du gugan.

Arriskutsua da oinordeko izatea.

Urratsez urrats burukatzen gara Halabehar erraldoiarekin, eta gizateria osoaren gain nagusitu dira zentzueza eta zentzugabea.

Zuen izpirituak eta zuen bertuteak zerbitza biezaiote lurraren zentzuari, ene senideok: eta gauza guztien balioa berrizta ezazue! Horretarako izan behar duzue burrukalari!

Horretarako izan behar duzue sortzaile!

Jakiteaz garbitzen da gorputza; eta jakiten saiatuz goratzen; ezagutzen duenari bulkada guztiak santutzen zaizkio; goratuari arima alaitzen zaio.

Mediku, senda ezazu zeure burua<sup>38</sup>: honela lagunduko diozu zeure gaixoari ere. Hori izan bekio laguntzarik hoberena, bere begiaz ikustea bere buruaren sendatzailea.

Milaka bidezidor daude oraindik inoiz ibili gabeak, milaka osasun eta bizi-irla ezkutuko. Agortu gabe eta aurkitu gabe daude oraindik ere beti gizona eta giza lurra.

Erne egon eta entzun, bakartiok! Etorkizunetik datoz haizeak hegaldots sekretuekin; eta mezu ona dabil belarri finetan.

Gaurko bakartiok, aldenduok, noizbait herri izango zarete: zuen baitatik, zeuen burua hautatu duzuenon artetik, sortuko da herri hautatu bat<sup>39</sup>: -eta hartatik gaingizona.

Zinez, sendatze-leku bihurtuko da oraindik lurra! Eta dagoeneko osasuna dakarren usain berri batek inguratzen du -eta itxaropen berri batek!

## III

Zaratustra, hitz hauek esan zituenean, isildu egin zen, artean bere azken hitza esan ez duena bezala; luzaroan egon zen zalantzan makila eskuan zuela. Azkenean honela mintzatu zen: -eta ahotsa aldatu egin zitzaion.

Bakarrik joango naiz orain, ene dizipuluok! Eta zuek ere joango zarete eta bakarrik! Halaxe nahi dut.

Zinez, aholku ematen dizuet: alde egizue nigandik eta gorde ezazue zeuen burua Zaratustrarengandik! Areago: berataz lotsa zaitezte! Agian iruzur egin dizue.

Ezaguera-gizonak ez du aski bere etsaiak maitatze hutsaz, bere adiskideak gorrotatzeko ere gai izan behar du<sup>40</sup>.

Gaizki ordaintzen zaio irakasleari, beti haren ikasle geldituz gero. Eta zergatik ez didazue kimatu nahi koroa?

Gur egiten didazue zuek; baina zer, egunen batean zuen gurketak porrot egiten badu?

Kontuz estatuaren batek azpian harrapa ez zaitzaten!

Zaratustrarengan sinesten duzuela al diozue? Baina zer axola Zaratustrak! Zuek zarete nire fededunak: baina zer axola fededun guztiak!

Artean zeuen buruak bilatu gabe zeneuzkaten: orduan aurkitu ninduzuen ni. Gauza bera egiten dute fededun guztiek; horregatik dira hain gauza gutxi fede guztiak.

Orain ni galtzeko eta zeuen buruak aurkitzeko agintzen dizuet; eta aurrena, guztiok niri uko egin didazuenean<sup>41</sup>, orduan itzuliko naiz zuengana.

Zinez, beste begi batzuekin, ene senideok, bilatuko ditut orduan neure galduak; beste maitasun batez maitatuko zaituztet orduan.

Eta egunen baten nire adiskide bihurtuko zarete eta itxaropen bakarraren seme-alaba: orduan hirugarren aldiz egon nahi dut zuen ondoan, zuekin eguerdi handia ospa dezadan.

Eta hura izango da eguerdi handia, gizona bere ibilbidearen erdian aurkituko denekoa animalia eta gaingizonaren bitartean eta arratserako bere bidea itxaropen gorentzat ospatuko du: zeren goiz berri baterako bidea baita.

Orduan behera doanak bere burua bedeinkatuko du, bestaldera igarotzen den bat delako; eta bere ezagueraren eguzkia eguerdian jarriko zaio.

"Hil dira jainko guztiak: orain gaingizona bizi dadin nahi dugu". - Hauxe izan bedi noizbait eguerdi handian gure azken nahia! -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## BIGARREN ATALA

"- eta aurrena, guztiok niri uko eginez gero, orduan itzuliko naiz zuengana.  
Zinez, beste begi batzuekin, ene senideok, bilatuko ditut neure galduak; beste maitasun  
batez maitatuko zaituztet orduan".

Zaratustra

Bertute oparigileaz (I, 95 or.)

## ISPILUAREKIKO HAURRA

Ondoren Zaratustra atzera mendira eta bere haitzuloko bakardadera igo eta aldendu egin zen gizonengandik: itxaroten, bere hazia jaurtiki duen ereilearen antzera<sup>42</sup>. Baina arima ezinegonez eta irrikaz bete zitzaion maite zituenenganako: zeren artean asko baitzeukan beraiei emateko. Hauxe da, izan ere, zailena: maitasunarengatik esku irekia ixtea eta oparigile izaki lotsa gordetzea.

Honela igaro zitzaizkion bakartiari hilak eta urteak; baina jakituria hazi egiten zitzaion eta min ematen zion bere betetasunean.

Goiz batez oskorria baino lehenago jaiki zen, luzaroan egon zen bere ohatzean hausnarketan eta azkenik bere bihotzari mintzatu zitzaion:

"Zerk ikaratu nau hainbesteraino ametsetan, esnatu ere egiteko? Ez al zait hurbildu aldean ispilu bat zeukan haur bat?"

"Oi, Zaratustra" -mintzatu zait haurra-, "begira zeure buruari ispiluan!"

Baina ispiluari begiratzean, oihu bat jaregin dut, eta nire bihotzak dar-dar egin du: zeren ez baitut neure burua ikusi bertan, baizik eta deabru baten parizta eta barre isekatia. Zinez, ondotxo ulertzen dut ametsaren zentzua eta gaztigua: nire irakatsia arriskuan dago, hirakak gari bihurtu nahi du!

Nire etsaiak ahaltsu bihurtu dira eta nire irakatsia itxuragabetu egin dute, halako moldez, non nire maiteenek lotsatu egin behar izan baitute nik emandako opariez.

Galduak ditut neure adiskideak; iritsi zait ordua neure galduen bila joateko!" -

Hitz hauekin zutitu zen Zaratustra, baina ez airearen bila dabilen itolarritua bezala, baizik eta izpirituak hartu duen ikusle eta kantari bezala. Harriturik begiratu zioten bere arranoak eta sugeak: zeren goizkorriaren antzera zoriona agertu baitzitzaion aurpegian. Zer gertatu zait, ene piztiok? -esan zuen Zaratustrak. Ez al nago aldaturik? Ez al zait etorri zoriontasuna ekaitz-haize bat bezala?

Zorua da nire zoriona eta zorakeriak esango ditu: gazteegia da oraindik -izan ezazue egonarria berarekin!

Zauriturik nauka neure zorionak: sufritzen dauden guztiek izan behar lukete nire mediku!

Berriz ere jaitsi naiteke neure adiskideengana eta baita neure etsaiengana ere! Zaratustra berriz ere mintza daiteke, opariak egin ditzake eta maiteekin gogokoen duena!

Nire maitasun egonarrigabea errekatari jaritzen da gorantz eta beherantz<sup>43</sup>. Mendi isiletatik eta oinazearen ekaitzetatik nire arima ibarretara oldartzen da.

Luzaroegi egon naiz irrikaz urrunera begira! Luzaroegi izan naiz bakardadearena: orain ahaztua dut isilik egotea.

Aho bihurtu naiz goitik beheraino, harkaitz garaietatiko errekastaren susmur: ibarretara amilarazi nahi ditut neure hitzak.

Eta nire maitasun-erreaka amil dadila ezin igarozkoraino! Nolatan erreakak ez luke aurkituko azkenean itsarorako bidea!

Badago laku bat nigan, noski, bakartia, bere buruaz aski duena; baina nire maitasun-erreakak berekin -itsasoraino darama!

Bide berrietatik nabil, mintzaira berri bat datorkit; nekatu egin naiz, hizkera zaharren sortzaile guztiak bezala. Nire izpirituak ez du ibili nahi zola higatuen gainean.

Astiroegi lasterka egiten du niretzat mintzaira orok: -hire gurdira jauzi egiten diat, ekaitz! Eta hi ere zigortu nahi haut neure gaiztakeriaz!

Garrasi eta poz-oihu bat bezala igaro nahi dut itsaso zabalen gainetik, nire adiskideak daudeneko irla zorionekoak aurkitu arte:-

Eta neure etsaiak beraien artean! Nola maite ditudan hitz egin diezaiekedan guztiak!

Nire etsaiak ere nire zoriontasunaren parte dira.

Eta neure zaldirik uzuenaren gainera igo nahi badut, ezerk baino hobeto laguntzen dit horretan neure lantzak: bera dut neure oinaren inoizko zerbitzaririk prestuena:-

Neure etsaien aurka jaurtikitzen dudana lantza! Nola eskertzen diedan neure etsaiei azkenean bera jaurtiki ahal izatea!

Handiegia zen nire hodeiaren tirandura: tximistazko barre-algaren artean bota nahi dut kazkabar-jasa sakonera.

Indartsu hanpatuko da orduan bularra, eta indartsu jaregingo du bere ekaitza mendien gainetik: hala arinduko da.

Zinez, ekaitz baten antzera dator nire zoriona eta nire askatasuna! Baina nire etsaiek sinetsiko dute, Gaiztagina dabilela amorruz beren buruen gainetik.

Ai, zuek ere ikaratuko zarete, ene adiskideok, nire jakiturgia uzarengatik; eta agian berari ihes ere egingo diozue etsaiekin batera.

Ai, gauza izango banintz artzain-txilibitua joz zuek itzularazteko! Ai, nire jakiturgia lehoiameak samurki orroa egiten ikasiko balu! Eta hamaika gauza ikasia dugu dagoeneko elkarrekin!

Nire jakiturgia uzua ernari geratu zen mendi bakartietan; eta harri malkarren gainean erdi da bere kumeaz, bere azken kumeaz.

Orain zoraturik lasterka dabil basamortua idorrean zehar eta zotal biguinaren bila eta bila dabil -nire jakiturgia uzu zaharra!

Zuen bihotzetako zotal biguinaren gainean, ene adiskideok! -zuen maitasunaren gainean eratzan nahiko nuke berak gogokoen duena!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### IRLA ZORIONEKOEZ

Pikuak zuhaitzetik erortzen ari dira, onak eta gozoak dira; eta erori ahala, azal gorria urratzen zaie. Ipar-haizea naiz piku helduentzat.

Honela, pikuen modura, erortzen zaizkizue irakatsi hauek, ene adiskideok: edan ezazue beraz berauen zukua eta berauen mami gozoa! Udazkena dugu inguruan eta oskarbia eta arratsaldea.

Hara, zer betetasuna dugun inguruan! Eta gainezkatzetik polita da itsaso urrunera begiratzea.

Behiala Jainkoa esaten zen itsaso urrunera begiratzean; orain orde, gaingizona esaten irakatsi dizuet nik.

Jainkoa aieru bat da; baina nik nahi dut zuen aierua zuen nahi sortzailea baino urrunago joan ez dadin.

Jainko bat sor al zenezakete? -Orduan ez aipatu niri jainkorik! Baina gaingizona sortzeko gauza zarete.

Zuek zeuok bakarrik ez agian, ene senideok! Baina gaingizonaren guraso eta arbaso bihur zintezkete: hauxe bedi zuen sorkuntzarik hoberena!

Jainkoa aieru bat da: baina nik nahi dut zuen aieruak pentsagarrira mugatuak izatea.

Pentsa al zenezakete Jainkoa? -Egi nahiak adieraz beza zuentzat, dena gizonak pentsagarri, gizonak ikusgarri, gizonak sentigarri bihurtu behar dela! Zeuen zentzuak amaieraraino pentsatu behar dituzue!

Eta mundu deitzen duzuen hori aurrena zeuok sortu behar duzue: zuen arrazoia, zuen irudia, zuen nahia, zuen maitasuna hortxe gertatu beharrekoak dira! Eta zinez, zuen zorionerako, ezagutzaileok!

Eta nola jasango zenukete bizitza itxaropen hori gabe, ezagutzaileok? Ez zintezkete ulertezinean koka, ezta arrazoigabeen ere.

Baina neure bihotza erabat zuei agertzeko, ene adiskideok: jainkorik balego, nola eramango nuke nik jainko ez izatea! Beraz ez dago jainkorik.

Neronek atera dut ondorioa; baina orain berak ateratzen nau ni.-

Jainkoa aieru bat da: baina nork edan lezake aieru honen samin guztia hil gabe? Kendu egin behar al zaio sortzaileari bere fedea eta arranoari arrano-goialdetan eralgitzea?

Jainkoa pentsamendu bat da, zuzena den guztia okertzen duena eta zutik dagoen guztia iraultzen duena. Nola? Denbora ezeztatu al liteke eta iragankorra den guztia gezurra izan al liteke?

Hau pentsatzea giza eskeletoaren zirimola eta zorabioa da, eta goralarrria urdailarentzat: zinez, gaixotasun birakaria deitzen diot aieru hau izateari.

Txar eta gizonaren etsai deitzen diet: Betearen eta Mugiezinaren eta Asearen eta Iraganezinaren irakatsi guzti horiei!

Iraganezina sinbolo besterik ez da! Eta poetek gezur gehiegi esaten dute.<sup>44</sup>

Baina denboraz eta bilakaeraz mintzatu behar dute sinbolo hoberenek: iragankorra den guztiaren laudorio izan behar dute eta zuribide!

Sortzea -hori da sufritzetik askatze handia, eta bizitzaren arinketa. Baina sortzailea gerta dadin, horretarako sufrikario asko behar da eta eraldakuntza asko.

Bai, heriotza mingots asko behar dituzue zeuen bizitzetan, sortzaileok! Honela izan zaitezte iragankorraren aldezte eta zuritzaile.

Sortzailea berriro jaiotzen den haurra izateko, horretarako erditzailea ere izateko gogoia behar du eta erditzailearen minak.

Zinez, ehun arimatan barna igaro da nire bidea eta ehun sehaskatan eta ehun erdiminetan barna. Askotan esan dut adio dagoeneko, eta ezagunak ditut azken ordu bihotz-urratzaileak.

Baina hala nahi du nire nahi sortzaileak, nire zoriak. Edo, jatorrago esan diezazuedan: honelako zoria hain zuzen -da nire nahiaren gogoia.

Sentitzen duen guztiak pairatzen du nigan eta gartzeletan dago: baina nire nahia askatzaile eta poz-ekarle bezala etortzen zait beti.

Nahiak askatu egiten du: haxe da egiazko irakatsia nahiaz eta askatasunaz - hala irakasten dizue Zaratustrak.

Gehiago-ez-nahi-izatea eta gehiago-ez-balio-ematea eta gehiago-ez-sortzea! Ai, nekadura handi hau beti nigandik urrun bego!

Ezagutzean bertan ere neure sortze eta bilakatze-nahiaren atsegina besterik ez dut sentitzen; eta nire ezagueran errugabetasuna badago, bertan sortzeko nahia dagoelako gertatzen da hori.

Jainkoa eta jainkoengandik urrun erakarri nau nahi honek; zer legoke sortzeko, jainkoak baleude!

Baina gizonengana bultzatzen nau beti berriro nire sortze-nahi suharrak; honela bultzatzen dute mailua harrirantz.

Ai, gizonok, harrian dago niretzat irudi bat lotan, nire irudien irudia! Ai, harririk gogorren, itsusienean lo egin behar izatea!

Nire mailuak amorruaz erasotzen dio bere gartzelari. Harriari puskak jaulkitzen zaizkio: zer axola dit niri?

Burutu egin nahi dut: itzal bat hurbildu baitzait -gauza guztietan isilena eta arinena etorri zait!-

Gaigizonaren edertasuna etorri zait itzal modura. Ai, ene senideok! Bost axola niri dagoeneko -jainkoak!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

ERRUKITSUEZ

Ene adiskideok, iseka-hitzak iritsi zaizkio zuen adiskideari: "Begira Zaratustrari! Ez al dabil gure artean piztien artean bezala?"

Baina hobeto esana legoke: "Ezagutzailea piztien artean bezala dabil gizonen artean." Ezagutzailearentzat ordea honela deitzen da gizona bera: masaila gorriak dituen piztia.

Nola gertatu zaio hori? Ez ote da sarriegi lotsatu beharra izan duelako?

Oi, ene adiskideok! Honela mintzatzen da ezagutzailea: lotsa, lotsa, lotsa -horixe da gizonaren historia!

Eta horregatik eskatzen dio jatorrak bere buruari inor ez lotsaraztea: pairatzen duen guztiaren aurrean lotsa sentitzera behartzen du bere burua.

Zinez, ezin ditut jasan errukitsuak<sup>45</sup>, beren errukian zorioneko direnak: lotsa gehiegi falta zaie.

Errukitsu izan behar badut, ez dut nahi horrela dei nazaten; eta deitzen banaute, urrunetik izan dadila.

Gogoz estaltzen dut neure burua eta egiten dut ihes, ezagutua izan aurretik: eta zuei ere gauza bera egiteko agintzen dizuet, ene adiskideok!

Nahi dakiola zoriari beti zuek bezalako samingabeak niri bidean ezartzea eta halakoekin neure itxaropena eta otordua eta ezta banatzea zilegi izan bekit!

Zinez, dagoeneko hau eta hori egina naiz pairatzen daudenen alde: baina jokabide hobea iruditu izan zait beti hobeto pozten ikastea.

Gizonak daudenetik, gutxiegi poztu izan da gizona: hauxe besterik ez da, ene senideok, gure jatorrizko bekatua!

Eta hobeto pozten ikasten badugu, horrela ahazten zaigu hobekien besteei kalte egiteaz eta minak asmatzeaz.

Horregatik garbitzen dut nik, pairatzen dagoenari lagundu dion eskua, eta horrexegatik garbitzen dut nik arima bera ere.

Zeren pairatzailea pairatzen ikustean, lotsatu egin nintzen haren lotsarengatik; eta lagundu nionean, kolpe gogorra eman nion bere harrotasunean.

Mesede handiek ez dute esker onik sortzen, mendeku-nahia baizik; eta egintza on txikia ahazten ez bada, har hozkari bihurtzen da.

"Uzkur izan zaitezte onartzen! Nabarmen zaitezte onartzearengatik!" -aholku hau ematen diet oparitzeko ezer ez dutenei.

Baina ni oparigilea naiz: gogoz egiten dizkiet opariak adiskideei adiskide bezala.

Arrotzek ordea, eta behartsuek berek har ditzatela fruituak nire zuhaitzetik: horrela gutxiago lotsatzen da.

Eskaleak erabat ezabatu beharko lirateke! Zinez, amorrarazi egiten du beraiei emateak eta amorrarazi egiten du beraiei ez emateak.

Eta gauza bera bekatariez eta kontzientzia txarrez! Sinetsidazue, ene adiskideok:

kontzientzi hozkadek hozka egiten irakasten dute.

Okerrena pentsamendu txikiak dira. Zinez, hobe da oker jokatzeta, pentsamendu txikiak izatea baino!

Egia da esaten duzuela: "Gaiztakeria txikien atseginak egintza txar handien nekea aurrezten digu". Baina hemen ez litzateke aurreztu behar.

Ultzeraren gisakoa da egintza txarra: erre, hazkurea eman eta leher egiten da -benetan mintzatzen da.

"Hara, ni gaixotasuna naiz" -honela mintzatzen da egintza txarra; horixe du bere benetasuna.

Baina perretxikoaren antzekoa da pentsamendu txikia: arrastatu eta makurtu egiten da eta ez du inon egon nahi -harik eta gorputz osoa ustel eta zimel geratzen den arte perretxiko txikiengatik.

Baina deabruak menperaturik daukanari hitz hau esango diot belarrira: "Hobe izango duk heure deabrua gizentzea! Hiretzat ere bazegok handitasunerako bide bat!"-

Ai, ene senideok! Gehiegitxo dakigu bakoitzari buruz! Eta asko garden bihurtzen zaizkigu, baina halere urrun gaude beraien barna igarotzeko.

Zail da gizonekin bizi izaten, zeren oso zail baita isiltzea.



Eta ez gara izaten bidegabeenak kontra daukagunarekiko, baizik eta batere axola ez digunarekiko.

Baina pairatzen dagoen adiskideren bat baduzu, izan zaitez atsedeen-leku haren pairamenduarentzat; baina era berean ohe gogor, burruka-zelai: horrela izango zatzaizkio baliagarrien.

Eta adiskideren batek gaitz egiten badizu, esazu: "Barkatzen diat niri egindakoa; baina heure buruari egin dioana -nola barkatuko diat!"

Honela mintzatzen da maitasun handi oro: barkamena eta errukia ere gainditu egiten ditu.

Bihotza tinkatu egin behar dugu; zeren alde egiten badu, buruak ere laster alde egiten baitu!

Ai, non egin dira errukitsuen artean baino tentelkeria handiagoak? Eta zerk sortu du munduan errukitsuen tentelkeriek baino pairamendu gehiago?

Ai ene beren errukia baino goiera handiagorik ez duten maitale guztiak!

Honela mintzatu zitzaidan deabrua behinola: "Jainkoak ere badu bere ifernua: gizonenganako maitasuna du hori".

Eta arestian entzun diot hitz hau esaten: "Hil da Jainkoa; gizonenganako bere errukiagatik hil da Jainkoa".-

Beraz, erne jarrita zaudete errukiaz: hartatik etortzen zaie gizonei oraindik ere hodei bat. Zinez, ulertzen ditut eguraldiaren zantzuak!

Baina gogoan izan hitz hau ere: maitasun handi oro bere erruki guztiaren gainetik dago: zeren berak maitea sortu egin nahi baitu, gainera!

"Neure burua eskaintzen diot neure maitasunari; eta neure lagun hurkoari neure buruari bezala<sup>46</sup>" -honelakoa izaten da sortzaile guztien mintzaira.

Baina sortzaile guztiak gogorrek dira.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

APAIZEZ

Eta behiala Zaratustrak keinu bat egin dizipuluei eta hitz hauek esan zizkien:

"Hemen apaizak daude: eta nire etsaiak diren arren, igaro zaitezte beraien ondotik isilean eta ezpatak lotan dituzuela!

Beraien artean ere badira heroiak; beraietako askok gehiegi pairatu dute:- horregatik pairarazi nahi diete besteei.

Etsai txarrak dira: ez dago horien apaltasuna baino ezer mendekuzaleagorik. Eta erraz kutsatzen da erasotzen diena.

Baina nire odola horienaren ahaide da; eta nire odola horiengan ere ohoratua izan dadin nahi dut".-

Eta bere ondotik igaro zirenean, Zaratustrak samina sentitu zuen; eta apur batean saminarekin borroka egin ondoren, mintzatzeari ekin zion:

Pena ematen didate apaiz hauek. Nazka ere ematen didate; baina hori da gutxienekoa, gizonen artean nagoenez gero.

Baina nik beraiekin pairatzen dut eta pairatu dut: gatibuak eta kondenatuak dira niretzat. Berrerosle deitzen duten hark kateez zamatu ditu: -

Balio faltsu eta lilura-hitzezko kateez! Ai, norbaitek beren berreroslearengandik berrerosiko balitu!

Behinola irla batean lehorreratzea espero zuten, itsasoak botatzen zituenean; baina hara, munstro loakartu bat zen!

Balio faltsuak eta lilura-hitzak: horiek dira munstrorik okerrenak hilkorrontzat -luzaroan egoten da beraengan lotan eta itxaroten patua.

Baina azkenean etortzen da eta esnatzen da eta jan eta irentsi egiten du bere gainean etxolak eraiki zituena.

Oi, begira etxola hauei, apaizek eraiki dituztenoi! Eliza deitzen diete beren usain gozozko zuloei.

Oi, argi faltsotu honen gainean, aire lizundu hau! Hemen, arimak bere goialdera -hegaz igo ezin daitekeen toki honetan!

Zeren beren fedeak eskatzen baitie: "Belauniko igo zaitezte eskilaretan gora, bekatoriok!"

Zinez, nahiago dut lotsagabe bat ikusi, lotsa eta debozio horren begi okertuak ikusi baino!

Nork sortu zituen honelako zuloak eta penitentzi eskilarak? Ez ote zen izan ezkutatu nahi zuenen bat eta oskarbiaren aurrean lotsatzen zenen bat?

Eta oskarbiak ganga porrokatuetan barrena berrirori begiratu, eta belarreraino eta horma hautsietako mitxoleta gorriraino iristean -orduan zuzendu nahiko dut neure bihotza Jainko horren egoitzara.

Jainko deitu zuten kontra eta min egiten zien guztia: eta zinez, beren debozioak heroi-kutsu handia zuen!

Eta ez zuten beren Jainkoa maitatzen ikasi, aldi berean gizona gurutzean josi gabe! Gorpuak bezala bizitzeko asmoa zuten, eta beltzez beztitu zuten beren gorpua; beren mintzaldietan ere aditzen diet hil-ganbaretako kiratsa.

Eta beraien hurbil bizi dena, putzu beltzen ondoan bizi da eta beraietatik apoak bere kanta melankolia eztiarekin kantatzen du.

Kanta hobeak kantatu beharko lizkidakete, nik beren berrerosleagan sinesten ikas dezadan: berrerosiakoak iruditu beharko litzaizkidake beren dizipuluak!

Biluzik ikusi nahiko nituzke: zeren edertasunak soilik predikatu beharko bailuke penitentzia. Baina ea nor komentzitzen duen atsekabe mozorrotu horrek!

Zinez, beraien berrerosleak ere ez ziren askatasunetik etorri eta zazpigarren zeruko askatasunetik! Zinez, berak ere ez ziren inoiz ezagueraren alfonbra gainean ibili!

Zulozkoa zen berrerosle horien izpiritua; baina zulo bakoitzean ezarria zuten beren lilura, beren zulo-estaltzailea, Jainko deitzen ziotena.

Errukian ito zitzairen izpiritua eta errukiz hanpatu eta gainezka egiten zuten arren, beti zebilen igerian gainean tentelkeria handi bat.

Suharraz eta oihuka gidatzen zuten beren artaldea bidezidorrean barna: etorkizunerako bidezidor bakar bat besterik ez balego bezala! Zinez, artzain hauek ere ardietaoak ziren!

Izpiritu txikiak eta arima eskergak zituzten artzain hauek: baina, ene senideok, a zer herrialde txikiak izan diren oraindainokoan arimarik eskergenak!

Odolezko zeinuak idatzi zituzten zebiltzan bidean, eta beren tentelkeriak irakasten zuen odolaz probatzen dela egia.

Baina odola da egiaren lekuko txarrena; odolak irakatsirik garbiena ere pozoitu egiten du bihotzaren lilura eta gorroto bihurtu arte.

Eta norbait sutatik igarotzen bada bere irakatsiarengatik -zer frogatzen du horrek! Hobe da, zinez, sutetik beretik irakatsi bera irtetea!

Bihotz irazekia eta buru hotza: biok elkartzen diren tokian, hantxe sortzen da zurrunbiloa, "berreroslea".

Handiagorik izan da zinez eta leinargiagorik herriak bererosle deitzen dituen zurrunbilo horiek baino!

Eta berrerosle guztiak baino handiago izan direnek, ene senideok, berrerosi beharko zaituztete, askatasunerako bidea aurkitu nahi baduzue!

Oraindik ez da izan gaingizonik. Biluzik ikusi ditut biak, gizonik handiena eta txikiena.- Oraindik elkarren antz handiegia dute. Zinez, handiena ere oraindik -gizatiarregi aurkitu dut!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## BERTUTETSUEZ

Trumoi eta su artifizial zerutarrekin mintzatu behar zaie zentzu lotu eta loakartuei.

Baina edertasunaren mintzoak emaro hitz egiten du: arimarik erneenetara soilik lerratzen da.

Emaro barre eta dardar egin du gaur nire ezkutuak; horiek dira edertasunaren dardarizo eta barre sakratuak.

Zuen lepotik, bertutetsuok, barre egin du gaur nire edertasunak. Eta bere mintzoa niganaino ere etorri zen: "Ordainduak -izan nahi dute gainera!"

Ordainduak izan nahi duzue gainera, bertutetsuok! Saria nahi al duzue zeuen bertutearen truke eta zerua lurraren truke eta betiera zeuen gaurraren truke?

Eta sumindu egiten al zarete nirekin, saritzailerik eta ordaintzailerik ez dagoela irakasten dizuedalako? Eta zinez, ez dut irakasten bertutea bere buruaren sari denik ere. Ai, hori da nire nahigabea: gauzen barrenean saria eta zigorra ezarria izan da -eta orain baita zuen arimen barrenean ere, bertutetsuok!

Baina basurdearen letaginak bezala urratu behar du nire hitzak zuen arimen barrena; golde-nabar<sup>47</sup> izan nahi dut zuentzat.

Zuen barreneko sekretu guztiek argitara irten behar dute; eta nahasturik eta deseginik eguzkitan zaudetenean, orduan zuen gezurra ere zuen egiatik banandurik egongo da. Zeren hau baita zuen egia: garbiegiak zarete hitzon zikinerako: mendekua, zigorra, saria, asperkundera.

Amak haurra bezala maite duzue zeuon bertutea; baina noiz entzun da ama batek bere maitasunarengatik ordaina nahi duenik?

Zeuen izaterik kutunena duzue bertutea. Eraztun-egarria dago zuengan: berriro bere burua atzemateko burruka eta bira egiten du edozein eraztunek.

Eta iraungitzen den izarra bezalakoak dira zuen bertutearen egintza oro: beti bidean dago bere argia eta ibilian -eta noiz utziko dio bidean egoteari?

Zuen bertutearen argia ere oraindik bidean dago, nahiz eta egintza egina izan den.

Baliteke orain ahazturik eta hilik egotea: bere argi-  
-errainuak oraindik bizirik eta ibilian jarraitzen du.

Zuen bertutea zuen izatea bera bedi, eta ez zerbait arrotza, azala, mantua: hori da zuen arimaren barrenetik egia, bertutetsuok!-

Baina badira batzuk bai, zeinentzat bertutea zartailupeko karranpa baita: eta zuek beraien garrasiak gehiegi entzun dituzue!

Eta badira beste batzuk beren bizioen nagitzeari bertute deitzen diotenak; eta beren gorrotoak eta bekaitzak nagiak ateratzen dituztenean, orduan "zuzentasunak" erne jarri eta begi loguretuak igurtzitzen ditu.

Eta badira beste batzuk behetik tira egiten dietela diruditenak: beren deabruak tira egiten diete. Baina zenbat eta hondorago, hainbat sutsuago argi egiten diete begiek eta beren jainkoaganako gutziak.

Ai, azken hauen garrasiak zuenganaino ere iritsiak dira, bertutetsuok: "Ni ez naizena, hori, hori da niretzat Jainko eta bertute!"

Eta badira beste batzuk zamatutik eta kirrinkaka datozenak, aldapan behera harriak dakartzaten gurdien modura: asko mintzatzen dira duintasunaz eta bertuteaz -beren balaztei deitzen diete bertute!

Eta badira beste batzuk, korda eman zaien eguneroko erlojuak bezalakoak direnak; beren tiki-takari bertute deitu nahi diote.

Zinez, horiekin ongi pasatzen dut: horrelako erlojuak aurkitzean, korda emango diet neure isekaz; eta marmar egitea beste erremediorik ez dute izango!

Eta beste batzuk harrotu egiten dira beren eskutada zuzentasunaz eta horregatik makurkeriak egiten dituzte gauza guztien kontra: hainbestearino, non mundua beraien bidegabekeriaren itotzen den.

Ai, bai gaizki dagokiela ahotik "bertute" hitza ateratzea! Eta "zuzena naiz" diotenean "mendekatua naiz" esango balute bezala da.

Beren bertuteaz begiak erauzi nahi dizkiete etsaiei; eta beren burua goratzen dute besteak behertzeko.

Eta badira beste batzuk, beren istilean esertzen eta beren kainaberaditik honela mintzatzen direnak: "Bertutea -istilean isilik esertzea da.

Guk ez diogu inori hozka egiten eta aldentu egiten gara hozka egin nahi dutenen bidetik; eta gauza guztietan ematen zaigun iritzia dugu."

Eta badira keinuak maite dituztenak ere eta pentsatzen dute: bertutea keinu gisako zerbait da.

Beraien belaunak beti gurtzen aritzen dira, eta beraien eskuak bertutearen laudorio dira baina beraien bihotzak ez daki ezer horretaz.

Eta badira bertutetzat daukatenak esatea: "Bertutea beharrezkoa da"; baina barrenean polizia soilik dela beharrezko sinesten dute.

Eta asko, gizonarengan goikoa dena ikusteko gai ez direnak, beren ziztrinkeria hurbiletik ikusteari deitzen diote bertute: honela beren begirada txarrari deitzen diote bertute.

Eta batzuek jasoak eta eraikiak izan nahi dute eta bertute deitzen diote horri; eta beste batzuek nahiago dute amilduak izan -eta bertute deitzen diote horri ere.

Eta horrela sinesten dute ia guztiek bertutean esku hartzen dutela; eta gutxienez bakoitzak "ongia" eta "gaizkia"ren ezagutzaile izan nahi du.

Baina Zaratustra ez zen etorri, gezurti eta zoro guzti horiei esatera: "Zer dakizue zuek bertuteaz! Zer jakin zenezakete zuek bertuteaz!"-

Baizik eta zuek, ene adiskideok, zoro eta gezurtiengandik ikasi dituzuen hitz zaharrez asper zaitezten:

Asper zaitezten "saria", "asperkundera", "zigorra", "zuzentasunezko mendekua" hitzez.-

Asper zaitezten esaten: "Egintza bat ona da interesik gabe egiten bada."

Ai, ene adiskideok! Zuen izatea bera egon bedi egintzan, ama haurrarengan dagoen bezala: hori bedi zuen hitza bertuteaz!

Zinez, ehun hitz kendu dizkizuet gutxienez eta zuen bertutearen jostailurik kutunenak; eta haurrak ernegatzen diren bezala ernegatzen zarete orain nirekin.

Itsasertzean ari ziren jolasean -orduan etorri zen olatua eta sakonera eramane zizkien jostailuak: orain negarrez ari dira.

Baina olatu berak ekarriko dizkie jostailu berriak eta txirla nabar berriak banatuko dizkie!

Honela kontsolatuko dira; eta zuek ere, ene adiskideok, era berean izango dituzue kontsolamenduak -eta txirla nabar berriak!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

JENDAILAZ

Bizitza atsegin-iturri da; baina jendailak batera edaten duen tokian, han hosin guztiak pozoiturik geratzen dira.

Garbia den guztiaren zale naiz; baina ezin ditut ikusi mutur isekatiak eta kutsatuen egarria.

Hosinaren barnera begiratu dute: orain beraien barre ziztrina isladatzen zait hosinetik.

Ur santua pozoitu dute beren lizunkeriaz; eta beren amets zikinari atsegin deitu diotenez gero, hitzak ere pozoitu egin dituzte.

Gogotxartu egiten daugarra beren bihotz hezeak sutan jartzen dituztenean; izpiritua irakiten eta ketan jartzen da, jendaila sutara hurbiltzen denean.

Eztitsu eta melenge bihurtzen zaie eskuan fruitua: haizeak jaulkierraz eta adarrihar bihurtzen du fruitarbola beraien begiradak.

Eta bizitik saihestu zen bat baino gehiago, jendailatik soilik saihestu zen: ez zuen hosinik eta sugarrik eta fruiturik jendailarekin banatu nahi.

Eta basamortura joan zen bat baino gehiago eta basapiztien artean egarria pairatu zuenak, gameluzain zikinekin bozaderaren inguruan ez esertzea besterik ez zuen nahi.

Eta suntsitzaille gisa etorri zen bat baino gehiago eta kazkabar-jasa gisa fruitadien gainera, jendailaren ahoan oina ezartzea besterik ez zuen nahi eta honela zintzurra estaltzea.

Eta eztarrian gehien korapilatu zaidan mokadua ez da bizitzak beharrezko duela etsaitasuna eta heriotza eta gurutzeratzea jakitea:-

Baizik eta behin behiala galdetu nuen eta ia ito egin nintzen neure galderaz: Nola?

Biziak beharrezko al du jendaila ere?

Beharrezko al dira hosin pozoituak eta su kirastunak eta amets zikinduak eta bizi-ogiko harrak?

Nire gorrotoak ez, nire nazkak irentsi dit bizia! Ai, izpirituaz ere sarritan aspertu naiz, jendaila ere izpiritutsua dela ohartzean!

Eta nagusi direnei bizkarra eman diet nagusi izatea egun zeri deitzen dioten ikustean: errekaradaritzan eta botereagatiko tratuan aritzeari -jendailarekin!

Mintzaira arrotzeko herrien artean bizi izan naiz, belarri estaliekin: beren errekaradaritzako mintzaira eta botereagatiko tratukoa arrotz gerta zekizkidan.

Eta sudurrari eutsiz igaro naiz nahigabez atzo eta gaur osoan barna: zinez, a zer jendaila idazlearen kiratsa darien atzoa eta gaurrari!

Gor eta itsu eta mutu bihurtu den elbarri baten gisara: honela bizi izan naiz luzaroan, boterea, idaztea eta atseginaren jendailarekin ez bizitzearren.

Nekeaz igotzen zen nire izpiritua eskailaretan gora eta kontuz; atseginezko limosnak izan zituen aringarri; makilara arrimaturik igarotzen zitzaion bizia itsuari.

Zer gertatu zitzaidan orduan? Nola libratu nintzen neure nazkatik? Nork gaztetu zuen nire begia? Nola egin nuen hegaz hosinaren inguruan jendailarik eserita ez daukan gorenera?

Nire nazkak berak sortu al zizkidan hegalak eta iturriak susmatzen dituzten indarrak? Zinez, goreneraino egin behar izan nuen hegaz atseginaren iturburua berriro aurkitzeko! Oi, aurkitu nuen, ene senideok! Hemen gorenean dario niretzat atsegin-iturburuari! Eta bada bizi bat jendailak gainerakoekin edaten ez duena!

Oi, ia oldartsuegi dariok niretzat, atsegin-iturburu! Eta sarritan husten duk edalontzia bete nahi izan dualako!

Hiregana apalago hurbiltzen ikasi beharko diat: oldartsuegi baitzeriok nire bihotzak hireganantz:-

Nire bihotza, nire uda gainean erretzen dagokiona, labur, bero, melankoliati, zoriontsu: nola irrikitzen duen nire uda-bihotzak hire hotza!

Igaro da nire udaberriaren atsekabe ezbaitia! Igaro da ekaineko nire elur-maluten txartasuna! Erabat uda bihurtu naiz eta uda-eguerdi!

Uda gorenean iturburu hotzekin eta isiltasun zorionsuarekin; oi, zatozte, ene adiskideok, isiltasuna oraindik zorionsuago dadin!

Zeren hau baitugu geure goren eta geure sorterri: garaiegi eta malkarregi bizi gara hemen lohientzat eta beraien egarriarentzat.

Jaurtiki itzazue zeuen begi garbiak nire atseginaren iturburura, adiskideok! Ez da ez horregatik arretuko! Bere garbitasunaren irribarrea izango duzue erantzun.

Etorkizun zuhaitzean eraikitzen dugu geure habia; arranoek ekarriko digute janaria ermitauoi mokoetan!

Zinez, lohiek ere jan dezaketen janaririk bat ere ez! Sua jaten ari direla uste izango lukete eta ahoak kiskaltzen ari zaizkiela!

Zinez, lohientzat ez daukagu hemen prest batere egoitzarik! Izotzezko koba litzateke haien gorputzentzat gure zoriona eta haien izpirituentzat!

Eta haize indartsuak bezala bizi nahi dugu beraien gainetik, arranoen auzo, elurraren auzo, eguzkiaren auzo: honela bizi dira haize indartsuak.

Eta haizearen modura putz egin nahi dut beste behin haien artean eta neure izpirituaz beraien izpirituari arnasa eten: honela nahi du nire etorkizunak.

Zinez, haize indartsua da Zaratustra sakana guztientzat; eta aholku hau ematen die bere etsaiei eta ttuka eta okadaka ari diren guztiei: "Begira haizearen aurka ttu egitetik!" -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

### TARANTULEZ

Hara, hori da tarantularen haitzuloa! Ikusi nahi al duzu bera? Hemen dago zintzilik bere sarea: uki ezazu, dardar egin dezan.

Gogoz dator: ongietorria, tarantula! Beltz daukazu bizkarrean zeure triangelua eta ikurra; eta badakit zeure ariman daukazunaren berri ere.

Mendekua daukazu ariman: hozka egiten duzun tokian, tortika beltza sortzen da; mendekuarekin bira eragiten die zure pozoiak arimei!

Honela mintzatzen natzaizue parabolatan, zuei, arimei bira eragiten diezuenoi, berdintasunaren predikarioi! Tarantula zarete niretzat eta ezkutuko mendekati!

Baina nik argitara atera nahi ditut zeuen gordelekuak: horregatik barre egiten dizuet aurpegira neure goialdeetako barre-algaraz.

Horregatik urratzen ditut zuen sareak amorruek zeuen gezur-zuloetatik atera zaitzaten eta zuen mendekua zuen "zuzentasuna" hitzaren atzetik ager dadin.

Gero, gizona mendekutik salbatua izatea: hori da niretzat itxaropenik gorenerako zubia eta ekaitz luzeen ondotik ortzadarra.

Baina besterik nahi dute noski tarantulek. "Guretzat haxe dei bedi zuzentasuna, mundua bete dadila gure mendekuaren ekaitzez!" -honela mintzatzen dira elkarren artean.

"Mendeku hartu nahi dugu eta iseka egin gure kideko ez diren guztiei" - honela zin egiten diote beren buruari tarantula-bihotzek.

"Eta "berdintasun-nahi" horrek izan behar du aurrerantzean bertutearen izena; eta boterea daukan guztiaren aurka egingo dugu geure oihua!"

Berdintasunaren predikariok, ezintasunaren tirano-nahikundeak eskatzen du oihuka "berdintasuna" zuengan: zuen tirano-irrits ezkutukoena bertute-hitzez mozorrotzen dira!

Arrandi mingostua, bekaitz hertsatua, behar bada zuen gurasoen arrandia eta bekaitza: zuengandik hori sugar eta mendeku-nahikunde gisako bat sortzen da.

Aitak isildu zuenak, horrek hitz egiten du semearengan; eta sarritan aurkitu nuen semea aitaren misterio azaldua zela.

Suhartuen antzekoak dira: baina ez ditu bihotzak suhartzen -mendekuak baizik. Eta fin eta hotz bihurtzen direnean, ez ditu izpirituak, baizik eta bekaitzak fin eta hotz bihurtzen.

Beren bekaitzak pentsalarien bidezidorrera ere gidatzen ditu; eta haxe dute beren bekaitzaren ezaugarria -beti urrunegi joaten dira: eta azkenean, beren nekeak elurraren gainean etzan behar izaten du lo egiteko.

Beraien kexuetako bakoitzean mendekuaren hotsa entzuten da, beraien laudorio bakoitzean gaizkintza bat dago; epailari izateari deritzote zoriontasuna.

Honela ematen dizuet aholkua, ene adiskideok: ez zaitezte fida zigortzeko joera handia duen edonortaz!

Adiurre eta jatorri txarreko jendea da; beraien begietatik begiratzen dute borreroak eta ehizatxakurrak.

Ez zaitezte fida beren zuzentasunaz atergabe hitz egiten dutenez! Zinez, ezti soila baino zerbait gehiago falta dute beren arimetan.

Eta baldin eta beren buruak "on eta zuzen" izendatzen badituzte, ez ezazue ahanzt, fariseu izateko ez dutela ezer falta -boterea ezik!

Ene adiskideok, ez dut nahi beste batzuekin nahastu eta halakotzat har nazaten.

Badira biziari buruzko nire irakatsia predikatzen dutenak: eta aldi berean berdintasunaren predikari eta tarantula dira.

Biziaren alde hitz egitea, nahiz eta berak beren zuloan egon, armiarma pozoitsu halakoak, eta bizitik saihesturik: horrela gaitz egin nahi dutelako da hori.

Horrelakoek gaitz egin nahi diete orain boterearen jabe direnei: zeren berauen artean aurkitzen baitu harrerarik hoberena heriotzari buruzko predikuak.

Bestela balitz, tarantulek besterik irakatsiko lukete: eta hain zuzen ere beraiek izan ziren behiala mundu-ukatzailerik eta herese-erretzailerik hoberenak.

Ez dut nahi berdintasunaren predikari hauekin nahastu eta halakotzat har nazaten. Zeren justiziak hau esaten baitit niri: "Gizonak ez dira berdinak".

Eta ez dute izan ere egin behar! Zer izango litzateke gaingizonarenganako nire maitasunaz bestela mintzatuko banintz?

Mila zubi eta bidezidorretan barna oldartu behar dute gizonek etorkizunera, eta beti ere gerra eta desberdintasun gehiago ezarri behar da beraien artean: honela hitz eragiten dit nire maitasun handiak!

Irudi eta mamu-asmatzaile izatera iritsi behar dute beren etsaitasunetan, eta beren irudi eta mamuekin borrokatu behar dute elkarren aurka borrokarik gorena!

Zintzo eta gaizto, eta aberats eta behartsu, eta garai eta apal, eta balioen izen guztiak: arma izan behar dute eta ezaugarri durunditsu, biziak bere burua atergabe gainditu hehar duelakoarena!

Gorantz eraiki nahi du bere burua biziak pilare eta mailekin: urrun-urrunera begiratu nahi du eta edertasun zorientsurantz -horregatik behar du goitasuna!

Eta goitasuna behar duelako, behar ditu mailak eta mailen eta igotzen ari direnen arteko kontraesana! Igo egin nahi du biziak eta igoz gainditu bere burua.

Eta ohar zaitezte, ene adiskideok! Hemen, tarantularen kobazuloa dagoen tokian, tenplo zahar baten hondakinak altxatzen dira gorantz -begi argituez begiraiezue!

Zinez, behiala hemen bere pentsamenduak harrian dorre bihurtu zituenak, hark bazekien, jakintsuenak bezala, bizi osoaren misterioaren berri!

Borroka eta desberdintasuna edertasunean berean ere badaudela, eta boterea eta gainboterearengatik burruka: hori irakasten digu hemen sinbolo argienaz.

Gangak eta arkuak jainkotiarki guduan hausten diren bezala argia eta itzalarekin elkarrekin lehiatzen diren bezala, jainko-lehia dutenak-

Honela gu ere segurtasun eta edertasun beraz izan gaitezen etsai, ene adiskideok!

Jainkotiarki lehiatu nahi dugu elkarren kontra!-

Ai ene! neroni ere hozka egin dit tarantulak, etsai zahar horrek! Segurtasun eta edertasun jainkotiarraz hozka egin dit hatzean!

"Zigorra behar da eta zuzentasuna" -pentsatzen du: "ez ditu zigorgabe kantak kantatuko hemen etsaitasunaren ohoretan!"

Bai, hartu du mendekua! Eta ai ene! Orain mendekuaz birak eragingo dizkio nire arimari!

Baina nik birarik egin ez dezadan, ene adiskideok, gogor lotu nazazue zutabe honetara!  
Nahiago dut zutabe-santu izan mendekuaren zirimola baino!

Zinez, Zaratustra ez da ez zurrumbilo eta ez zirimola; eta dantzari bada, ez da inola ere tarantula-dantzari!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### JAKINTSU OSPETSUEZ

Herriari zerbitzatu diozue eta herriaren superstizioari, jakintsu ospetsu guztiok! -eta ez egiari! Eta horregatik hain zuzen ere erakutsi zaizue lotsitzala.

Eta horregatik jasagarri gertatu da zuen federik eza, zeren zimardi eta itzulinguru baitzen herriarentzat. Honela uzten die jaunak bere esklabuei gozatzen eta olgetan aritzen da haien arrandiek.

Baina herriari gorrotagarri zaiona otsoak txakurrei bezala: hori izpiritu librea da, kateen etsaia, adoratzeko ez duena, oihanetan bizi dena.

Bere etzalekutik ateratzea -hori izan da herriarentzat "zuzenaren zentzua": beraren aurka xaxatzen ditu gaur egun ere bere txakur hagin-zorrotzenak.

"Zeren egia hor baitago: herria hor baitago! Ai ene, ai ene bila dabilzanak!" -honela entzun izan da betidanik.

Zeuen herriari arrazoiak eman nahi izan diozue beren gurketan: horri deitu diozue "egi nahia", oi jakintsu ospetsuok!

Eta zuen bihotzak beti bere baitan esaten zuen: "Herritik etorri naiz ni: bertatik etorri zait niri Jainkoaren mintzoa ere."

Lepagogor eta zuhurak, astoaren modura, izan zarete beti herriaren aldezle bezala.

Eta ahaltsu batek baino gehiagok, herriarekin ongi egon nahi zuenean, erantsi zion bere karroari astotxo bat -jakintsu ospetsu bat.

Eta orain nik nahi nuke, oi jakintsu ospetsuok, azkenean jaurtiki zenezaten lehoi-larrua zeuengandik urrun!

Basapiztiaren larru nabarra eta ikerketariaren, miaketariaren, konkistatzailearen adatsak! Ai, nik zuen "egiazkotasunean" sinesten ikas nezan, horretarako aurrena zeuen nahi gurtzailea hautsi beharko zenukete.

Egiazko -basamortu jainkogabera joan eta bere bihotz gurtzailea hautsi duenari deitzen diot nik.

Basamortuko hondar horitan eta eguzkiak kiskalirik okertzen ditu begiak egarri bizitan irla iturburutsuetarantz, zuhaitz ilunen pean bizidunek atsedena hartzen duten tokirantz. Baina bere egarriak ez du eramaten nagitzar haiek imitatzen: zeren oasiak dauden tokian, han baitaude jainkoizunen irudiak ere.

Goseti, bortxakoi, bakarti, jainkogabe: horrela nahi du bere burua lehoi-nahiak.

Morroien atseginetik libre, jainko eta adorazioetatik jaregina, beldurgabe eta izugarri, handi eta bakarti: honelakoa da egiazkoaren nahia.

Basamortuan bizi izan dira betidanik egiazkoak, izpiritu libreak, basamortuaren jaun bezala; aitzitik hirietan bizi dira jakintsu ospetsu ongi elikatuak -tirakariak.

Beti benetan astoen modura tira egiten diote -herriaren karroari!

Nik ez diet horregatik haserre egiten: baina niretzat zerbitzari eta pildatu izaten jarraitzen dute, nahiz eta urrezko pilden distira duten.

Eta sarritan izan dira zerbitzari on eta goresgarri. Zeren honela mintzatzen baita bertutea: "Zerbitzari izan behar baduzu, bila ezazu zure zerbitzua baliagarrien zaiona! Zure jaunaren izpirituak eta bertuteak hazi egin behar dute, zu bere zerbitzari zaituela medio: horrela zu zeu ere hazi egiten zara bere izpiritu eta bertutearekin!"

Eta zinez, jakintsu ospetsuok, herriaren zerbitzariok! Herriaren izpiritua eta bertutearekin batera hazi zarete -eta herria zuen bitartez! Zuen ohoretan diot hau!



Baina herri izaten jarraitzen duzue niretzat zeuen bertuteetan ere, bista laburreko herri, - izpiritua zer den ez dakiena!

Izpiritua bere burua bizitan ebakitzen duen bizia da: bere minez areagotzen du bere jakitea -ba al zenekiten hori?

Eta izpirituaren zoriona horixe da: gantzutua izatea eta malkoz sagaratua oparigaitarako -ba al zenekiten hori?

Eta itsuaren itsutasunak eta bere bilaketak eta haztamukak begiratu dion eguzkiaren botereaz testigantza eman behar du -ba al zenekiten hori?

Eta mendiekin ikasi behar du eraikitzen ezagutzaileak: gutxi da izpirituak mendiak lekuz aldatzea<sup>48</sup> -ba al zenekiten hori?

Izpirituaren txinpartak besterik ez duzue ezagutzen: baina ez duzue bera den ingudea ikusten, ezta bere mailuaren krudelkeria ere!

Zinez, ez duzue izpirituaren harrotasuna ezagutzen! Baina oraindik gutxiago eramango zenukete izpirituaren apaltasuna, halako batean hitz egin nahiko balu!

Eta inoiz ez zaizue zilegi zeuen izpiritua elur-hobi batera jaurtikitzea: ez zarete horretarako bezain beroak! Horregatik ez dituzue bere hotzaren estasiak ezagutzen.

Oro har, ordea, fidakorregi derizkizuet izpirituarekiko; eta jakituria errukietxe eta eritegi bihurtzen duzue poeta txarrentzat.

Zuek ez zarete arrano: horregatik ez duzue sentitu izpirituaren izularrian dagoen zoriona. Eta hegazti ez denak, ez luke amildegiaren gainean habiarik egin behar.

Epelak zarete niretzat: eta ezaguera sakon orok jario hotza du. Izoztuak dira izpirituaren iturburu barnekoenak: gozagarri esku beroentzat eta lanean ari direnentzat.

Ohoragarri zagozkidate eta zurrun eta bizkarra tente duzuela, jakintsu ospetsuok! - ez dizue haize eta nahi indartsuak bultza egiten.

Ez al duzue inoiz ikusi bela bat itsasoan zehar, haizearen enbatarekin biribilduta eta puzturik eta dardaraz?

Haizearen enbatarekin dardar egiten duen bela bezala doa nire jakituria itsasoan zehar - nire jakituria uzua!

Baina zuek, herriaren zerbitzariok, jakintsu ospetsuok -nola ibil zintezkete nirekin!- Honela mintzatu zen Zaratustra!

#### GAU-KANTA

Gaua da: orain ozenago hitz egiten dute iturburuek. Eta nire arima ere iturburua da.

Gaua da: orain soilik itzartzen dira maitaleen kanta guztiak. Eta nire arima ere maitale baten kanta da.

Zerbait asegabea, asezina dago nigan; hitz egin nahi du. Maitasun-irrika bat dago nigan, bera ere maitasun-mintzaira hitz egiten duena.

Argia naiz ni: ai, gaua balitz! Baina hori da nire bakardadea, argiz inguraturik egon beharra.

Ai, iluna eta gaua banintz! Nola edoski nahiko nituzkeen argiaren bularrak!

Eta zuek ere bedeinkatu nahiko zintuzketet, izartxo nirmirati eta goiko ipurtargiok! -eta zoriontsu izan zuen argi-opariarengatik.

Baina ni neure argitan bizi naiz, berriro zurruputzen ditut nigandik irteten diren sugarrak.

Ez dut ezagutzen hartzailearen zorionik; eta sarritan amets egin izan dut lapurtzeak hartzeak baino atseginago izan behar duela, nonbait<sup>49</sup>.

Hau da nire pobrezia, nire eskuak ematez inoiz atsedetik ez hartzea; hau da nire bekaitza, itxaroten dauden begiak ikustea eta joranezko gau argituak.

Oi, emaileron zorigaitza! Oi, nire eguzkiaren itzaldura! Oi irrikitzearen irrikia! Oi aseduraren gosegarria!

Beraiek nigandik hartzen dute: baina ukitzen al diet nik beraiei arima? Leize bat dago ematearen eta hartzearen bitartean; eta leizerik txikiena da gainditzeko azkena.

Nire edertasunari gosea dario: gaitz egin nahi nieke argitzen ditudanei, eta lapurreta egin nahi nieke opariak eman dizkiedanei: -halakoa dut gaiztakeri gosea.

Eskua atzeratuz baldin eta berari beste esku bat hedatu bazaio; urjauzia bezala zalantzakor, amiltzekoan ere zalantzakor egoten baita: -halakoa dut gaiztakeri gosea. Honelako mendekua irudikatzen du nire betetasunak: honelako makurkeria dario nire bakardadeari.

Opari egiteko nire zoriona opari egitearen poderioz hil zen, nire bertutea bere buruaz nekatu zen bere gainezkatzeaz!

Beti opari egiten dabilenak, lotsa galtzeko arriskua du; beti banatzen dabilenari, eskua eta bihotza soritu egiten zaizkio banatzearen banatzez.

Nire begiari ez dario jadanik malkorik eskaleen lotsaren aurrean; eskua gogorregi bihurtu da esku beteen dardararako.

Nora joan zaizkio malkoak nire begiari eta ilaina nire bihotzari? Oi oparigileen bakardadea! Oi argitzaileen isiltasuna!

Eguzki asko dabil biraka espazio-eremuetan: iluna den guztiari beren argiaz hitz egiten diote - niretzat isilik daude.

Oi, hauxe da argiaren etsaitasuna argitzailearen kontra: errukabe darraikio bere ibilbideari.

Makurra argitzailearen kontra bihotzaren sakonenean, hotza eguzkiaren kontra - honela ibiltzen da eguzki oro.

Ekaitzaren modura hegaz egiten dute eguzkiek beren ibilbideetan barna. Beren nahi aldaezinari darraizkio, hau da, beren hoztasunari.

Oi, zuek zarete soilik, ilunok, gauekook, argitik beroa ateratzen duzuenok! Oi, zuek soilik edaten duzue esnea eta gozagarrria argiaren ugatzetatik!

Ai, izotzak inguratzen nau, izotzetan kiskaltzen zait eskua! Ai, egarria dago nigan, zuen egarriarengatik unatzen dena!

Gaua da: ai, nik argi izan behar dudala! Eta gauekoaren egarri! Eta bakardade!

Gaua da: orain iturburu bat bezala sortzen da nigan nire desira -hitz egitea desiratzen dut.

Gaua da: orain ozenago hitz egiten dute iturburu guztiek. Eta nire arima ere iturburu da.

Gaua da: orain itzartzen dira maitaleen kanta guztiak. Eta nire arima ere maitale baten kanta da.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### DANTZA-KANTA

Arrats batez Zaratustra dizipuluekin zebilen oihanean zehar; eta iturri baten bila ziharduela, hara, belardi berde batera iritsi zen, oraindik zuhaitz eta sastrakaz ingururaturik zegoen batera: bertan neskatile batzuk ari ziren elkarrekin dantzan.

Neskatilek Zaratustra ezagutu zuten bezain laster, utzi egin zioten dantzatzeari; baina Zaratustra keinu adiskidekorrekin hurbildu zitzaien eta hitz hauek esan zituen:

"Ez utzi dantza egiteari, neskatile xarmagarriok! Ez zaizue begirakune txarreko jai-hondatzailerik etorri, ez neskatilen etsairik ere.

Jainkoaren aldeze naiz deabruaren aurrean: berau, ordea, astuntasunaren izpiritua da.

Nola izan ninteke, arinok, dantza jainkotiarren etsai? Edo txorkatila ederreko neskatilen zangoena?

Oihana naiz, noski, eta zuhaitz iluneko gaua: baina nire ilunpeaz ikaratzen ez denak, arrosa esekiak ere aurkituko ditu altzipresen azpian.

Eta neskatilen maiteena den jainko txikia ere aurkituko du: begiak itxirik iturriaren ondoan, lasai, egoten dena.

Zinez, egun argi batez lotan geratu zitzaidan nagitzar hori! Agian gehiegi lasterka egin ote zuen tximeleten atzetik?

Ez haserretu nirekin, dantzari politok, jainkotxoak apur bat zentzatzaren badut! Seguraski garrasi eta negar egingo du -baina negar egitean ere barre eragiten du!

Eta malkoak begietan dituela dantza bat eskatuko dizue; eta neronek kantatuko dut kanta bat bere dantzarako:

Dantza -eta iseka-kanta bat, astuntasunaren izpirituaren aurka, nire deabrurik goren eta ahaltsuenaren, "munduaren jauna" omen denaren aurka".-

Eta hauxe da Zaratustrak kantatu zuen kanta, Cupido eta neskatilak elkarrekin dantzan ari ziren bitartean:

Arestian begiratu dizut begietara, oi bizia! Eta hondargabeen murgiltzen ari nintzela iruditu zait.

Baina urrezko amuaz atera nauzu zuk; eta isekati barre egin didazu hondargabe deitu zaitudanean.

"Horrelakoa da arrain guztien hizkera", mintzatu zinen; "berek hondoa hartu ezin diotenari hondargabe deitzen diote.

Baina ni aldakor hutsa naiz eta uzua, eta guztian emakume eta bertutegabea:

Eta nahiz zuentzat, gizonontzat, "sakona" deritzadan edo "leiala", "betikoa", "misteriotsua".

Halere, zuek gizonok, zeuen bertuteak oparitzen dizkiguzue beti -ai, bertutetsuok!"

Honela barre egiten zuen berak, sinetsezinak; baina nik ez dut inoiz sinesten bera eta ez bere barrea, gaiztoz bere buruaz mintzatzaren denean.

Eta ni neure jakituria uzauekin bakarrean mintzatzaren ari nintzela, sumindurik esan zidan: "Zuk nahi duzu, zuk irrikatzen duzu, zuk maite duzu, horregatik soilik goreszten duzu bizitza!"

Laster emango niokeen erantzun txarra eta esango suminduari egia; eta ezin liteke txarkiago erantzun, nork bere jakituriari "egia esaten" dionean baino.

Honela daude gauzak gu hiruron artean. Funtsean, bizitza besterik ez dut maite nik -eta, zinez, gehiena gorroto dudanean!

Baina ni jakituriarekin ona banaiz eta sarritan onegia: bizitza gehiegi gogorarazten didalako da hori!

Beraren begiak ditu, beraren barrea eta beraren urrezko amua ere bai: zer egingo dut nik, bada, biek elkarren hainbesteko antza badute?

Eta behiala bizitzak galdetu zidanean: Nor da hori, jakituria? -supituki erantzun nion: "Ai, bai, jakituria!

Beraren egarri gara baina ez dugu asetzen, belo artetik begiratzen diogu, sare artean atzitu nahi dugu.

Polita al da? Zer dakit nik! Baina karparik zaharrenek ere kosk egiten diote.

Aldabera eta kaskagorria da; sarritan ikusi dut ezpainei hozka egiten eta orrazia ile-kontra pasatzen.

Agian gaiztoa eta faltsua da eta guztian emakumetzar bat; baina bere buruaz gaizki mintzatzaren denean, orduan liluratzen du gehien."

Hau bizitzari esan nionean, gaiztoz irribarre egin eta begiak itxi zituen: "Nortaz ari zara hitz egiten?" esan zuen, "nitaz agian?"

Eta arrazoia bazenu ere - horrela niri hori aurpegira esatea! Baina orain mintza zaitetz zeure jakituriaren ere!"

Ai, eta orduan berriro ireki egin zenituen begiak, oi bizitza maitea! Eta berriro hondargabeen murgiltzen ari nintzela iruditu zitzaidan.-

Honela kantatu zuen Zaratustrak. Baina dantza amaitu eta neskatilek alde egitean, triste jarri zen.

"Aspaldi sartu da eguzkia", esan zuen azkenik; "belardia busti dago, oihanetatik haize hotza dator.

Zerbait ezezaguna dut inguruan eta pentsakor begiratzen dit. Nola! Oraindik bizi al haiz, Zaratustra?

Zergatik? Zertarako? Zertaz? Nora? Non? Nola? Ez al duk tentelkeria oraindik bizitzea?-

Ai, ene adiskideok, arratsa da nire baitan galdera horiek egiten dituenen. Barkaidazue tristura!

Arratsa iritsi da: barkaidazue, arratsa iritsi izana!"

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## HILOBI-KANTA

"Hor dago hilobien irla, isila; hor daude nire gaztaroko hilobiak ere. Bertara eraman nahi dut bizitzaren koroa beti berde bat."

Honela bihotzean deliberatuz gurutzatu nuen itsasoa.-

Oi zuek, nire gaztaroko ikuskizun eta agerkariok! Oi zuek, maitasunaren begirada guztiok, zuek aldiune jainkotiarrok! Nola hil zatzaizkidate hain bizkor! Neure hildakoak bezala gogoratzen zaituztet gaur.

Zuengandik, ene hildako maite-maiteok, usain gozo bat datorkit, bihotza eta malkoak askatuz. Zinez, inarrosi eta askatu egiten du itsasketari bakartiaren bihotza.

Oraindik aberatsena eta inbidiagarriena naiz, -ni bakarti hau! Zeren nik zuek baitzinduzkatedan, eta zuek ni bainindukazuen: esazue, nori erori zitzaizkion, niri bezala, halako sagar arrosak zuhaitzetik?

Oraindik zuen maitasunaren oinordekoa naiz eta zuen oroitzapenetan kolore guztietako basa-bertutez loratzen den lurra, ene maite-maiteok!

Ai, elkarren ondoan egoteko eginak geunden, mirari aldeko arrotzok; eta ez zarete txori herabetien modura etorri nigana eta nire desirara -ez, baizik eta fidatuak fidatuarengana bezala!

Bai, leialtasunerako eginak, nerau bezala, eta betikotasun samurretarako: orain zuen desleialtasunaren arabera deitu behar zaituztet, oi begirada eta aldiune jainkotiarrok: oraindik ez dut beste izenik ikasi.

Zinez, bizkorregi hil zatzaizkidate, iheslariok. Halere, ez didazue ihes egin, nik ere ez dizuet ihes egin: errugabe gara batak eta besteak geure desleialtasunean.

Ni hiltzeko, zuek irato zaituztete, nire itxaropenen txori kantariok! Bai, zuen kontra, maite-maiteok, jaurtiki ditu gaiztakeriak beti bere geziak -nire bihotza jotzeko!

Eta jo du! Zuek baitzineten beti nire bihotzekoena, nire jabego eta nire jabegai: horregatik hil behar izan zenuten gazte eta goizegi!

Neukan gunerik zaurigarrienera jaurtiki zidaten gezia: zuek zineten, larrua ilaina bezalakoa duzenok eta areago begirada batez hiltzen den irribarrea bezalakoa!

Baina hitz hau esan nahi diet neure etsaiei: zer dira gizahilketa guztiak zuek egin didazuenaren aldean!

Gizahilketa oro den baino txarragoa egin didazue; berreskuraezina dena kendu didazue: -honela hitz egiten dizuet, ene etsaiok!

Gaztaroko ikuskizunak eta miraririk maiteenak hil dizkidazue! Jolaskideak kendu dizkidazue, izpiritu dohatsuak! Beraien oroitzapenetan ezartzen ditut koroa hau eta madarikazio hau.

Madarikazio hau zuen kontra, ene etsaiok! Nire betiera laburtu duzue, doinu bat gau hotzean hausten den modura! Begi jainkotiarren kliskada bat bezala ozta-ozta etorri zitzaidan -aldiune bat bezala!

Honela mintzatu zen garai onean behiala nire garbitasuna: "Jainkotiar izango dira niretzat izaki guztiak."

Orduan mamu zikinen modura erori zintzaizkidaten gainera; ai, nora ihes egin ote zuen garai on hark!

"Egun guztiek santu izan behar dute niretzat" -esan zuen behiala nire gaztaroko jakituriak: zinez, jakituria pozkariotsuari dagokion hizkera!

Baina orduan, etsaiok, nire gauak lapurtu eta logabeko oinaze bihurtu zenizkidaten: ai, nora ihes egin zuen orduan jakituria pozkariotsu hark?

Behiala augurio onak irrikitzen nituen: orduan mozoilo-munstro bat pasarazi zenidaten bidetik ikaragarria. Ai, nora ihes egin zuen orduan nire irrika samurrak?

Nazka orori uko egitea agindu nuen behiala: nire hurkoak eta hurbilekoak zauri zornatsu bihurtu zenituzten. Ai, nora ihes egin zuen orduan nire agintzaririk jatorrenak?

Itsu baten gisara nenbilen behiala zorioneko bideetan barna: orduan zarama jaurtiki zenuten itsuaren bidera: eta berak nazka hartu zion aintzinako itsu-bideari.

Eta neure gaitzena egin eta neure gainditzeen garaitia ospatu nuenean: orduan ni maite nindutenei garrasi eragin zenieten ni nintzela minik handiena egiten niena.

Zinez, horrela egin duzue beti: eztirik hoberena behazundu didazue eta erlerik hoberenen saiamena.

Nire onberatasunari eskalerik lotsagabeenak bidali dizkiozue beti; eta lotsagabekeria sendaezina dutenak nire errukia eskatzera behartu dituzue. Honela zauritu zenituzten nire bertuteak bere fedean.

Eta nigan santuena sakrifiziotzat eskaini nuenean: zuen "pietateak" supituki gehitu zituen bere opari koipetsuak: honela zuen koipearen lurrinetan itorik geratu zen nigan santuena zena.

Eta behiala dantza egin nahi izan nuen, inoiz dantza egin ez nuen bezala: zeru guztien gainetik dantza egin nahi izan nuen. Orduan liluratu zenuten nire kantaririk maiteena. Eta orduan doinu triste eta ikaragarri bat kantatzeari ekin zion; ai, adar goibel batek bezala durundi egiten zidan belarrian!

Kantari asasinatzailea, gaiztakeriaren tresna, errugabeena! Ni prest nengoen dantzarik hoberenerako: orduan asasinatu zenuen nire estasia zeure doinuez!

Dantzan soilik dakit nik gauza gorenaren sinboloa esaten: -eta orain nire sinbolorik gorena esan gabe geratu zait gorputzadarretan!

Esan gabe eta berrerosi gabe geratu zitzaidan itxaropenik gorena! Eta hil egin zitzaizkidan gaztaroko ikuskizun eta kontsolamendu guztiak!

Nola jasan ahal izan nuen? Nola menperatu eta gainditu nituen halako zauriak? Nola berpiztu zen nire arima hilobi hauetatik?

Bai, zerbait zaurtezina, ehortzezina badago nigan, harkaitzei zapart eragiten dien zerbait: nire nahia. Isilik eta aldatugabe dabil urteetan barna.

Bere bidetik nire oinez ibili nahi du, nire nahi zaharrak; bere sena bihotz-gogorra eta zaurtezina da.

Zaurtezina naiz orpoan bakarrik. Oraindik hor bizi zara eta zeure buruaren kideko zara, eramanez handieneko hori! Hilobi guztietan barna igarotzea lortu duzu!

Zugan bizi da oraindik nire gaztaroko berrerosigabea; eta bizitza eta gaztaro itxaropentsu bezala eseri zara hilobi-hondakin horien gainean.

Bai, oraindik hilobi guztien hondatzailea zara niretzat: Agur zuri, nire nahia! Eta hilobiak dauden tokian soilik daude berpizteak.-

Honela kantatu zuen Zaratustrak.

**NORK BERE BURUA GAINDITZEAZ**

"Egiaren nahia" deitzen al diozue, zuek jakintsuenok, bultzatu eta sutzen zaituzten horri?

Den guztia pentsagarri bihurtu nahia: honela deitzen diot nik zuen nahiari!

Den guztia pentsagarri bihurtu nahi duzue: zeren mesfidantza onez jartzen baituzue zalantzan dagoeneko pentsagarria ote den.

Baina zuei moldatu eta makurtu behar zaizue! Honela nahi du zuen nahiak. Lautu egin behar du eta izpirituaren menpean jarri, beronen ispilu eta errainu bezala.

Hori da zuen nahi osoa, jakintsuenok, boterearen nahia; eta baita onaz eta txarraz hitz egiten duzuenean eta balioztapenez ere.

Mundu bat sortu nahi duzue, beraren aurrean zuek belaunikatzeko modukoa: horixe duzue zeuen azken itxaropena eta horditasuna.

Ezjakinak noski, herria - gainean txalupa dabilkion ibaiaren antzeko da: eta txalupan daude handios eta mozorroto balioztapenak.

Zeuen nahia eta zeuen balioak bilakaeraren ibaian ezarri dituzue; boterearen nahi zahar bat salatzen dit niri, herriak on eta txar bezala sinesten duenak.

Zuek zarete, jakintsuenok, honelako pasaiari hauek txalupan ezarri eta berauei ponpezia eta izen hantusteak eman dizkiezuenak -zuek eta zuen nagusi izateko nahiak!

Aurrera darama orain ibaiak zuen txalupa: eraman egin behar du. Ez dio askorik axola uhin lehertuak aparra ateratzea eta sumindurik gilari kontra egitea!

Ez da ibaia zuen arriskua eta zuen ona eta txarraren amaia ere, jakintsuenok: baizik eta nahi hura bera, boterearen nahia -bizi-nahi agortezin eta ernaltzailea.

Baina nire hitza uler dezazuen onaz eta txarraz: horretarako bizitzari buruzko neure hitza ere esan behar dizuet, eta bizia duen mota guztiari buruzkoa.

Bizidunaren atzetik ibili naiz ni, biderik handienetan eta txikienetan barna ibili naiz haren mota ezagutzeko.

Ehun aldeko ispiluaz atzeman diot begirada, ahoa itxirik zeukala: bere begiek hitz egin ziezadaten. Eta bere begiak hitz egin zidan.

Baina, edonon biziduna aurkitu dudan tokian, bertan aurkitu dut obedientzia hitza ere. Bizidun oro obeditzailea da.

Eta haxe da bigarrena: bere buruari obeditzen ez dakienari soilik agintzen zaio. Honelakoa da bizidunen mota.

Eta hau da hirugarren entzun nuena: agintzea obeditzea baino zailago da. Eta ez agintariak obeditzaile guztien pisua jasan behar duelako soilik, eta pisu honek erraz zanpa dezakeelako:-

Saio bat eta arrisku bat agertu izan zait beti agindu orotan; eta agintzen duen bakoitzean, bizidunak bere burua arriskatzen du.

Eta bere buruari agintzen dionean, orduan ere bere agintzearen penitentzia egin behar du. Berak ezarritako legearen epailari eta mendekatzaile eta biktima izan behar du.

Nola gertatzen da hau, ordea! galdetzen nion neure buruari. Zerk eragiten du biziduna obeditzera eta agintzera eta agintzen ari dela ere obeditzaile izatera?

Entzun ezazue beraz, jakintsuenok! Benetan azter ezazue ea biziaren bihotzeraino sartu naizen, bere bihotzaren erroetaraino!

Biziduna aurkitu dudan tokian, bertan aurkitu dut boterearen nahia ere; eta zerbitzariaren nahian ere aurkitu dut jaun izateko nahia.

Indartsuagoa zerbitzatzera eragiten du nahiak ahulagoa, artean ahulagoa denaren jaun izan nahi baitu: haxe da bere buruari kendu nahi ez dion atsegin bakarra.

Eta txikiagoak handiagoari bere burua ematen dion bezala, txikienaren gain boterea eta atsegina izateko: horrela handiak ere ematen du bere burua eta arriskatzen du boterearengatik -bizia.

Haxe da indartsuenak bere burua ematea: ausardia eta arrisku izatea eta heriotzarekin dado-joko bat.

Eta sakrifizioa eta zerbitzua eta maitasunezko begiradak dauden tokian: han badago jaun izan nahia ere. Zeharbideetatik sartzen da ahula gaztelura eta indartsuagoaren bihotzeraino -eta boterea lapurtzen dio.

Eta sekretu hau bizitzak berak esan dit: "Hara" mintzatu zitzaidan, "bere burua beti gainditu behar duen huraxe naiz ni.

Noski, zuek ernaltze-nahia deitzen diozue horri, edo xedeen, garaiagoaren, urrunagoaren, anizkunagoaren nahia: baina guzti hau misterio bat eta bakarra da. Nahiago dut behera joan, gauza bakar honi uko egin baino; eta zinez, beherakada eta hosto-erorketa dagoen tokian, hara, han biziak bere burua sakrifikatzen du - boterearengatik!

Nik burruka izan behar dudala eta bilakaera eta xede eta xedeen kontraesan: ai, nire nahia ulertzen duenak, hark ibili beharreko bide makurrak ere ulertzen ditu.

Zernahi gauza sortzen dudala eta nolanahi maitatzen dudala ere -laster bihurtu beharko natzaio arerio berari eta neure maitasunari: gogo hori du nire nahiak.

Eta zu ere bai, ezagutzaile hori, nire nahiaren bidezidor eta oinatz besterik ez zara: zinez, nire boterearen nahia zure egiaren nahiaren atzetik orpoz orpo doa!

Ez du egiaren artskarra jo, beraren aurka "izatearen nahia" hitza jaurtiki duenak<sup>50</sup>: honelako nahirik -ez dago!

Zeren: ez denak, ezin du nahi izan; eta izatean dagoenak, nola nahi lezake izaterik!

Bizia dagoen tokian soilik dago nahia ere: baina ez biziaren nahia, baizik eta -hala irakasten dizut- boterearen nahia!

Gauza asko dauzka bizidunak bere bizia bera baino estimu handiagotan; baina estimutik bertatik hitz egiten du -boterearen nahiak!"-

Honela irakatsi zidan biziak behiala: eta horregatik argitzen dizuet, jakintsuenok, zuen bihotzeko igarkizuna bera ere.

Zinez, esaten dizuet: ona eta txarra, iraganezinak direnik -ez dago! Beren baitatik gainditu behar dute beren burua behin eta beti.

Ona eta txarrari buruzko zuen balio eta hitzekin, balioztatzaileok, bortxa egiten duzue: eta haxe duzue zeuen maitasun ezkutua eta zuen arimako erlantza, dardara eta mukurutzea.

Baina bortxa indartsuago bat ernetzen da zuen balioetatik eta gainditze berri bat: bertan arraultza eta arraultzoscokola hausten dira.

Eta sortzaile izan nahi duenak onean eta txarrean: zinez, halakoak suntsitzaile izan behar du aurrea eta balioen haustaile.

Horregatik, txarrik gorena onik gorenaren partaide da: hau ordea sortzaile da.-

Hitz egin dezagun honetaz, jakintsuenok, nahiz eta kaltegarri izan. Isiltzea kaltegarriago da; egia isildu guztiak pozoitsu bihurtzen dira.

Eta hauts dezagun gure egietan hauts -daitekeen guztia! Etxe ugari dago oraindik eraikitzeko! -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

GAILENEZ

Isila da nire itsasoaren hondoa: nork iger lezakeen munstro jostariak bere baitan dauzkanik!

Astinezina da nire sakona: baina igerkizun eta barre-algara igerilariz dir-dir egiten du.

Gailen bat ikusi dut gaur, jaieratsu bat, izpirituaren penitentzigile bat: oi zer barreak egin dituen nire arimak bere itsusitasunarengatik!

Bular hanpatuarekin, arnasa hartzen dutenak bezala: honela zegoen han, gailena, isilik:

Egia itsusiez apaindurik, bere ehiz-harrapakin eta arropa urratu ugarirekin; arantze ugari ere bazuen zintzilik -halere ez nion arrosarik ikusi.

Halere ez zuen irribarre egitearen eta edertasunaren berririk izan. Goibel zetorren atzera ehiztari hau ezagueraren oihanetik.

Basapiztiekin borrokan aritzetik zetorren etxera: eta bere aurpegitik oraindik basapiztiak begiratzan du -bezatu gabe dagoen batek!

Tigre gisara dago oraindik hor, salto egin nahian; baina ez ditut arima teinkatu horiek atsegin, nire gustuari uzkur horiek ez zaizkio gogoko.

Eta, adiskideok, gustu eta zaletasunez ez dela gatazkan aritu behar esaten al didazue?

Baina bizitza osoa gustua eta zaletasunarengatik gatazka da!

Gustua: pisu, balantza eta pisatzaile da aldi berean; Ai ene pisua eta balantza eta pisatzailearengatik gatazkan aritu gabe bizi nahi duen biziduna!

Bere gailentasunaz nekatuko balitz, gailen hau: orduantxe bakarrik jabetuko litzateke edertasunaz -eta orduan soilik nahiko nioke gustua hartu eta gustuko aurkitu.

Eta bere buruarengandik aldentzean soilik jauzi egingo du bere itzalaren gainetik - eta, zinez! sartuko da bere eguzkira.

Luzaroegi egon da itzalpean eserita, masailak zurbildu egin zaizkio izpirituaren penitentzigileari; ia gosez hil da bere itxaron beharrean.

Arbuioa dauka oraindik begietan; eta nazka gorderik ahoan. Orain atsedena hartzen ari da noski, baina bere atsedena ez da oraindik eguzkitan etzan.

Zezenak bezala egin beharko luke; eta bere zorionak lur-usaina izan beharko luke eta ez lurrarenganako arbuio-usaina.

Zezen biguin bezala ikusi nahiko nuke, goldearen aurretik murruntzaka eta pafaka: eta bere murruntzak lurreko guztia goretsi beharko luke gainera!

Iluna du oraindik aurpegia; eskuaren itzala jolasean dabilkio gainean. Itzaldurik dago oraindik bere begiaren zentzua.

Bere egintza bera da oraindik gaineko itzala: eskuak ilundu egiten du eskuztatzailea.

Halere ez du bere egintza gainditu.

Benetan maite dut beragan zezen-lepoa: baina orain aingeru-begia ere ikusi nahi diot.

Bere heroi-nahia ere ahaztu beharra du: jaso batere izan behar du niretzat eta ez gailen bat soilik: -eterrak berak jaso beharko luke, nahigabe hori!

Munstroak bezatu ditu, igerkizunak asmatu ditu: baina oraindik bere baitako munstroak bezatu eta igarkizunak asmatu behar lituzke, seme zerutar bihurtu behar lituzke.

Bere ezaguerak ez du oraindik irribarre egiten ikasi, ezta zelurik gabe egoten ere; eta bere grina jariakorra ez da oraindik edertasunean baretu.

Zinez, ez luke bere guraria asetasunean baretu eta murgildu behar, edertasunean baizik!

Txairotasuna bihotzandien bihotzanditasunari dagokiona da.

Besoa buruaren gainean ezarririk: honela hartu beharko luke atsedena heroiak, horrela gainditu beharko luke bere atsedena ere.

Baina hain zuzen ere heroiarentzat ederra da gauza guztien artean zailena.

Bortxazko nahi orori eskuraezina gertatzen zaio ederra.

Apur bat gehiago, apur bat gutxiago: horixe da hain zuzen ere hemen asko, horixe da hemen gehiena.

Giharre laxotuekin eta uztarritik askaturiko nahiarekin zutik egotea: hauxe da zailena zuek guztiontzat, gailenok!

Boterea graziazko bihurtu eta ikusgai deneraino jaisten denean: edertasun deitzen diot jaiste horri.

Eta ez dut inorengandik hain zuzen zugandik adina edertasun eskatzen, bortxatzaile hori: zure ontasuna izan bedi zeure buruaren azken gainditze.

Gaiztakeria guztietarako gaitasuna ikusten dizut: horregatik nahi dut zugandik ongia.

Zinez, sarritan barre egin dut ahulen lepotik, beren burua ontzat baitaukate atzaparrak elbarriturik dituztelako!



Pilareko bertutea desiratu behar duzu: ederragoa eta samurragoa bihurtzen da, baina barrenetik gogorrago eta jasankorrago zenbat eta gorago igotzen den.

Bai, gailen hori, zuk ere ederra izan beharko duzu egunen batean eta zeure edertasunari ispilua erakutsi.

Orduan zure arimak dardar egingo du joran jainkotiarretan; eta adorazioa izango da zure banitatean bertan ere!

Eta hauxe da hain zuzen arimaren misterioa: heroiak bertan behera utzi duenean soilik hurbiltzen zaio ametsetan -gainheroia.-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

**KULTURAREN HERRIALDEAZ**

Urrunegi hegaz sartua nintzen etorkizunean: ikarak menperatu ninduen.

Eta ingurura begiratu nuenean, hara! denbora nuen neure denborakide bakarra.

Orduan atzerantz, etxerantz egin nuen ihes -gero eta bizkorrago beti: eta zuengana iritsi nintzen, presentekoongana, eta kulturaren herrialdera.

Lehendabiziko aldiz nerabiltzan begiak aldean zuek ikusteko, eta gurari handia: zinez, bihotza joranez beterik nuela etorri nintzen.

Baina zer gertatu zitzaidan? Oso larriturik banengoen ere -barre egiteari ekin behar izan nion! Ez nuen inoiz hain nabarki zirtaturik ikusi!

Nik barre eta barre egiten nuen, nahiz eta zangoak ikaratan ibili eta baita bihotza bera ere: "Hauxe da noski kolore-poto guztien sorterrria!" -esan nuen.

Berrogeita hamar zirriborroz aurpegia eta lohadarrak pintaturik: honela zeundeten eserita, nire txundimenerako, presentekook!

Eta berrogeita hamar ispilu inguruan, zuen kolore-jokoak lausengatu eta kopiatuz!

Zinez, ezin zenezakete maskara hoberik erabil, presentekook, zeuen aurpegia bera baino! Nork -ezagutu zintzakete!

Zinez, iraganaren zeinuez zirriborraturik, eta zeinu hauek ere zeinu berriez gainetik berrukiturik: honela ongi ezkutaturik zaudete zeinu-adierazle orengandik!

Errai-azterlea bera baletor ere<sup>51</sup>: nork uste izango du errairik baduzuenik ere! Kolorez eta paper kolaztatuz oretuak dirudizue.

Denbora eta herri guztiek begiratzen dute nahasturik zuen beloetatik; ohitura eta sineste guztiek hitz egiten dute nahasturik zuen keinuetatik.

Zuen belo eta apaingailu eta kolore eta keinuez gabetuko zaituenak: nahikoa soberakin izango luke, hartaz txoriak izutzeko.

Zinez, ni neu naiz txori izutua, behiala biluzik eta kolore gabe ikusi zintuztena; eta hegaz alde egin nuen, zuen eskeletoak maite-keinuak egin zizkidanean.

Nahiago nuke alogereko izan azpimunduan eta behialakoaren itzaletan! -Zuek baino mardulago eta beteago daude noski azpimundukoak!

Hau mingostasuna da bai nire erraientzat, zuek ez biluzik eta ez jantzirik ezin jasan izatea, presentekook!

Etorkizuneko misterio guztia, txori errebelatuak izutu dituen guztia, zinez zuen "errealitatea" baino abegikorrago eta fidagarriagoa da.

Honela mintzatzen baitzarete: "Guztiz errealak gara, eta federik eta sineskeriarik gabeak": honela hanpatzen duzue paparra -paparririk ez duzuenok ere!

Bai, nola sinets zenezakete, zuek kolorez zirtatuok! -behiala sinetsi izan denaren pinturak baizik ez baitzarete!

Fedearen beraren ezeztapen ibiltari zarete, eta pentsamendu guztien hezur-xehatzaile.

Ez-sinesgarri: honela deitzen dizuet nik zuei, errealoi!

Denbora guztiak berriksukerian dabilta zuen izpirituetan; eta denbora guztietako ametsak eta berriksukeriak errealagoak ziren zuen ernaitasuna dena baino!

Antzuak zarete: horregatik falta duzue fedea. Baina sortu behar izan duenak izan ditu bere egi ametsak eta izar-zeinuak -sinesten zuen fedea!-

Ate erdi-irekiak zarete eta beraietan hilobiratzailleak daude itxaroten. Eta hori duzue zeuen errealitatea: "Denak behera joatea merezi du."

Ai, nola zaudeten nire aurrean, antzuok, zeinen saihets argalekin! Eta bat baino gehiago horretaz oharturik ere bazaudete.

Eta mintzatu zen: "Lotan negoela, ez ote dit jainkoren batek ezkutuan zerbait kendu?"

Zinez, nahikoa, hartaz emakume bat eratzeko!

Harrigarria da nire saihetsetako pobrezia!", honela mintzatu dira presentekoren batzuk.

Bai, barregurea ematen didazue, presentekook! Eta batipat, zeuen buruaz harritzen zaretenean!

Eta ai ene, barre egiterik ez banu zuen harrimenaz eta zuen azpiletako ozale guztia edan behar banu!

Baina txantxetan hartu nahi zaituztet, bai baitut aldean eramateko gauza astunik; eta zer axola niri kakarraldoak eta har hegalaria nire fardelaren gainean kokatzea!

Zinez, horregatik ez zait astunagotuko! Eta zuengandik ez, presentekook, ez zait etorriko unadura handia.-

Ai, noraino igo behar ote dut oraindik neure joranarekin! Mendi guztietatik nabil begiradaz aiterrien eta amerrien bila<sup>52</sup>.

Baina ez dut inon etxerik aurkitu: alderraia naiz hiri guztietan eta abiatze bat ate guztietan.

Arrotz zaizkit eta iseka bat presentekoak, zeinengana oraindik orain jaurtikitzen bainuen neure bihotza; eta jaurtikirik nago aiterri eta amerrietatik.

Horregatik orain seme-alaberria soilik maite dut, aurkitugabea, itsasorik urrunenekoan: behin eta berriz bila dezatela agintzen diet neure belei.

Neure seme-alabengan kitatu nahi dut neure gurasoen seme izatea: eta etorkizun osoan -presente hau!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

**EZAGUERA ORBANGABEAZ**

Atzo ilargia irtetean, eguzki batez erdiko zen susmoa nuen: hain zabal eta ernari baitzegoen horizontean.

Baina gezurretan ari zen bere izorraldiaz; eta lehenago sinetsiko dut ilargia gizonezko dela emakumezko baino.

Noski, gizon gutxia da gau-ibiltari lotsati hori. Zinez, kontzientzia txarrarekin ibiltzen da teilatuen gainetik.

Zeren lizuna eta bekaiztia da ilargian dagoen fraidea: lizuna da lurra eta maitaleen poz guztieekiko.

Ez, ez dut atsegin teillatu gainetako katu hori! Higuigarri zaizkit leiho erdi-itxien inguruan itzalgazka dabiltzanak!

Onbera eta isil dabil izar-alfonbren gainean: -baina ez ditut atsegin oinkada isil horiek, zeinetan ezproinak ere ez duen kirrinkarik egiten.

Jatorraren oinkadek hitz egiten dute; aitzitik katua isilka igarotzen da lurtzoruaren gainetik. Hara, katu gisara eta jatortasunik gabe aurrera egiten du ilargiak.-

Parabola hau zuei eskaintzen dizuet, azaluts sentikorroi, zuei, "ezagutzaile garbioi"! Zuei deitzen dizuet nik -lizun!

Zuek ere maite duzue lurra eta lurrekoa: ongi ezagutzen zaituztet! -baina lotsa dago zuen maitasunean eta kontzientzia txarra-, ilargiaren antza duzue!

Lurra arbuizatzeraz komentzitu dute zuen izpiritua, baina ez zuen hesteak: hauek dira, ordea, zuengan indartsuenak!

Eta orain lotsa du zuen izpirituak, zuen hesteen esanetara egon behar duelako, eta bere lotsa horregatik zidor makur eta gezurrezkoetan barna dabil.

"Niretzat goren" -honela hitz egiten dio bere buruari zuen izpiritu gezurtiak-  
"gutziarik gabe lurrari begiratzea litzateke, eta ez, txakurraren modura, mihia zintzilik dudala:

Zoriontsu izatea, nahia hilik, begira norberakeriaren harrapartasun eta irritsik gabe, -hotz eta gris dudala gorputz osoa, baina ilargitan hordituriko begiekin!

Hori litzateke niretzat gogokoena" -honela liluratzen du bere burua liluratuak- "lurra maite izatea, ilargiak maite duen bezala, eta begiez soilik haren edertasuna ukitzea.

Eta hori izan dakidala gauza guztien ezaguera orbangabea, gauzetarik ezer nahi ez izatea: ezik beraien aurrean egon ahal nadila ehun begiekiko ispilu baten modura".-

Oh, azaluts sentikorrok, lizunok! Errugabetasuna falta duzue desiran: eta horregatik belzten duzue desiratzea!

Zinez, ez duzue lurra maite sortzaile, ernarazle edo bilakatzeko bezala!

Non dago errugabetasuna? Ernarazteko nahia dagoen tokian. Eta bere buruaren gainetik sortu nahi duenak, horretxek du niretzat nahirik garbiena.

Non dago edertasuna? Nahi osoz nahi izan behar dudan tokian; maite izan eta behera joan behar dudan tokian, irudia irudi hutsean gera ez dadin.

Maite izatea eta behera joatea: betieratik kidegurik daude. Maitasun-nahia: hau da, heriotzarako ere prest egotea. Honela hitz egiten dizuet, zuei koldarroi!

Baina orain "begiespen" deitu nahi diozue zeuen ezkel-begiratze irenduari! Eta begi koldarrez ukitua izaten uzten duenak, "eder" bataio-izena hartu behar du! Izen nobleen lohitzaille halakook!

Baina horrek izan behar du zuen madarikazio, orbangabeok, ezagutzaile garbiok, inoiz ez erdi izateak: zabal eta ernari bazegon ere horizontean!

Zinez, hitz noblez betetzen duzue ahoa: eta sinetsi egin behar al dugu bihotza gainezka duzuela, gezurrontziok?

Baina nire hitzak hitz kaxkar, arbuiatu, makurrak dira: gogara jasotzen dut zuen otordukoan mahaiaren azpira erortzen dena.

Halere beraiekin beti esan diezaieket -azalutsei egia! Bai, nire arantzek, maskorrek, garduek beti- egin behar die sudurrean hazkura!

Aire txarra dago beti zuen inguruan eta zuen otorduetan: zuen pentsamendu lizunek, zuen gezur eta itzalgaizkeriek dagoeneko airean daude!

Ausar zaitezte lehenik zeuen buruari sinestera -zeuen buruari eta zeuen hesteei! Bere buruari sinesten ez dionak, gezurra esaten du beti.

Jainko baten moxorroa daukazue beti zintzilik inguruan, "garbiok": jainko baten moxorroan sartu da arrastaka zuen zizare nazkagarria.

Zinez, iruzur egiten duzue, "begiesleok"! Zaratustra ere izan zen behiala zuen larruazal jainkotiarren bufoia; ez zen ohartu gainetik zeuzkan suge-kiribilez.

Jainko baten arima uste nuen ari zela jolasten behiala zuen jokoetan, ezagutzaile garbiok! Garai batean zuen artea baino arte hoberik ez zegoela uste izan nuen!

Suge-gorotzak eta usain txarra ezkututzen zizkidan urruntasunak: eta bertan musker-amarrua lizunki inguruan zebilela.

Baina zuengana hurbildu nintzen: orduan etorri zitzaidan eguna -eta orain datorkizue zuei,- amaitu dira ilargiarekiko maiteminak!

Begiraiozue! Atrapaturik eta zurbil dago han -goizkorriaren aurrean!

Zeren bai baitator bera, irazekia -badator berak lurrari dion maitasuna! Errugabe eta sortze-irrika da eguzki-maitasun oro!

Begiraiozue zeinen artega jaikitzen ari den itsasoaren gainetik! Ez al dituzue egarria eta bere maitasunaren arnasa beroa sentitzen?

Itsasotik edoski nahi du eta bere sakonera goreneraino edan: orduan itsasoaren irrika mila bularrekin altxatzen da.

Musutua eta edoskia izan nahi du eguzkiaren egarriaz; aire bilakatu nahi du eta goialde eta argiaren bidezidor eta argia bera!

Zinez, eguzkiak bezala maite dut nik bizia eta itsaso sakon guztiak.

Eta hauxe da niretzat ezaguera: sakonera orok nire goierara igo behar du!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## IKASIEZ

Lotan nengoela, ardi bat buruan neukan belar-koroatik jaten ari zitzaidan -jan eta esan zuen: "Zaratustra ez da ikasia honez gero".

Hori esan eta burgoi eta harro alde egin zuen. Haur batek kontatu dit.

Gogara egoten naiz etzanda hemen, haurrek jolasean aritzen diren toki honetan, murru arrakalatuaren ondoan, gardu eta mitxoleta gorrien artean.

Oraindik ikasi bat naiz haurrentzat, baita gardu eta mitxoleta gorrientzat ere. Errugabeak dira beren gaiztakerian ere.

Baina ardientzat ez naiz honez gero: honela nahi du nire zoriak -bedeinkatua bedi!

Hauxe baita egia: irten egin bainaiz ikasien etxetik, eta danbateko batez itxi dut gainera atea neure atzetik.

Luzaroegi egon da nire arima gosez bere mahaian; ez nago beraiek bezala ezagutzera trebaturik, intxaurrak koskatze gisara hartzen baitute.

Askatasuna maite dut nik eta lur freskoaren gaineko airea; nahiago dut idi-larruen gainean lo egin haien duintasun eta errespetagarritasunen gainean baino.

Sutsuegia naiz eta neure pentsamenduek kiskaliegia naukate: sarritan geratzen naiz arnasarik gabe. Orduan airepera irten eta gela hautsezatu guztietatik ihes egin behar izaten dut.

Baina haiek fresko egoten dira itzalpe freskoan eserita: guztian ez dute ikusle besterik izan nahi eta ongi gordetzen dute beren burua eguzkiak mailak erretzen dituen tokian esertzetik.

Albotik igarotzen den jendeari aho zabalik begira egoteko kalean landatzen direnen gisara: honela egoten dira itxaroten eta besteek pentsatuak dituzten pentsamenduei aho zabalik begira.

Eskuez heltzen bazaie, irin-zakuek bezala eta gogoz kontra hautseztatzen dute ingurua: baina nork igerriko du haien hautsa aletik datorrela eta udako soroen pozkario horitik? Jakintsuarena egiten hasten direnean, beraien esaeratxo eta egiek hotzikara sartzen didate: kiratsa dario sarritan haien jakituriari, zingiratik baletor bezala: eta zinez, dagoeneko entzunak ditut igelak bertatik korrok egiten!

Iaioak dira, hatz trebeak dituzte: zer nahi du nire bakuntasunak haien anizkuntasunean! Hariltzea eta korapilatzea eta ehotea erabat ulertzen dute haien hatzek: honela egiten dituzte izpirituaren galtzerdiak!

Erloju onak dira: baina korda emateaz arduratu beharra dago ordea! Orduan hutsik gabe erakusten dute ordua eta zarata neurrizkoa ateratzen dute hori egitean.

Errota eta mortairuen gisara lan egiten dute: nahikoa da alea botatzea! -ongi dakite alea xehe ehotzen eta hauts zuri bihurtzen.

Elkarri hatzak zaintzen dizkiote eta ez dira hoberenaz fidatzen. Asmakorrek dira zimardika txikitan, eta jakintza herrenka dabilkien ataizean egoten dira -armiarmek bezala itxaroten dute.

Pozoia arretaz prestatzen ikusi ditut beti; eta horretan ari direnean beirazko goanteak janzen dituzte beren hatzetan.

Dado faltsuekin jokatzan ere badakite; eta hain suharki ikusi ditut jokatzan, non izerdia ere bai baitzerien.

Elkarrekiko arrotzak dira eta beraien bertuteak higuingarriago zaizkio nire gustuari beraien faltsukeriak eta dado faltsuak baino ere.

Beraien artean bizi nintzenean, orduan ere beraien gainetik bizi nintzen. Horregatik sumindu ziren nire kontra.

Entzun ere ez dute egin nahi, norbait beren buruen gainetik dabilenik; eta horregatik ezarri zuten lurra eta egurra eta zaborra beren buruen eta nire oinen artean.

Honela moteltzen zuten nire urratsen hotsa: eta orain arte okerren ikasienek entzun izan naute.

Giza akats eta ahulezia guztiak ezarri zituzten beren eta nire artean: - "sabai izuna" deitzen diote horri beren etxeetan.

Guztiarekin ere neure pentsamenduekin haien buruen gainetik ibiltzeari jarraitzen diot; eta nik neure akatsen gainean ibili nahiko banu ere, haien eta beren buruen gainetik egongo nintzateke.

Zeren gizonak ez baitira berdinak: honela mintzatzen da zuzentasuna. Eta nik nahi dudana, beraiei ez zaie zilegi nahi dezaten!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

POETEZ

"Gorputza hobeto ezagutzen dudanetik" -esan zion Zaratustrak bere dizipuluetako bati- "niretzat izpiritua nolabait ez da izpiritua besterik; eta "iraganezina" den guztia -ez da sinbolo besterik."

"Beste batean ere entzun zintudan gauza bera esaten", erantzun zion dizipuluak; "eta orduan erantsi zenion: "baina poetek gezur gehiegi esaten dute". Zergatik esan zenuen poetek gezur gehiegi esaten dutela?"

"Zergatik?" esan zuen Zaratustrak. "Zergatik galdetzen duzu? Ni ez naiz beren zergatikoaz galde lekieteen horietakoa.

Nire esperientzia atzodanikoa ote da gero? Aspaldidanik bizi izan ditut neure iritzien zioak.

Ez ote nuke nik oroitzapen-ontzi bat izan beharko, baldin eta neure zioak ere neure baitan eduki beharko banitu?

Gehiegi egiten dut neure iritzia neure baitan edukitzeaz; txori batek baino gehiagok ihes egin du hortik.

Eta batzuetan aurkitzen dut hegaz etorri den animalia baten bat ere neure usategian, arrotza zaidana eta dardar egiten duena, eskua gainean ezartzen diodanean.

Baina zer esan zizun Zaratustrak behiala? Poetek gezur gehiegi esaten dutela? - Baina Zaratustra bera ere poeta da.

Orduan egia esan zuelakoan al zaude? Zergatik sinesten duzu hori?"

Dizipuluak erantzun zuen: "Sinesten dut Zaratustra". Baina Zaratustrak buruari eragin eta irribarre egin zuen.

Fedeak ez nau zoriontsu egiten, esan zuen, are gutxiago neure buruan fedea izateak.

Baina demagun norbaitek benetasun guztiaz esaten duela, poetek gezur gehiegi esaten dutela, arrazoia luke -gezur gehiegi esaten dugu.

Gainera gutxiegi dakigu eta ikasle txarrak gara: horregatik esan behar izaten dugu gezurra.

Eta poeten artean zeinek ez du bere ardoa faltsotu? Nahaskilo pozoitsu bat baino gehiago gertatu da gure sotoetan, deskribaezinezko bat baino gehiago egin da bertan.

Eta gutxi dakigunez gero, bihotzez atsegin ditugu izpirituz behartsu direnak<sup>53</sup>, emakume gazteak direnean batipat.

Eta gutziziatu egiten ditugu atsoek arratsetan kontatzen dituzten gauzak berak ere. Horri deitzen diogu geure baitan dagoen betierako emakumezkoa.

Eta jakintzarako irispide bereziki ezkutu bat balego bezala, zerbait ikasten dutenei traba egiten diena: honela sinesten dugu guk herrian eta bere "jakiturian".

Baina zera sinesten dute poeta guztiek: baldin eta belarretan edo malda bakartian etzanda belarriak zorrozten badira, zerbait jakin litekeela, zerua eta lurraren tartean dauden gauzez.

Eta asaldura samurrak gertatzen bazaizkie, poetek beti uste izaten dute natura maitemindu egin zaiela:

Eta itzalgaizka belarrarian sartzen zaiela, sekretuak eta maiteminezko lausenguak kontatzeko: honetaz harropuzten eta hanpatzen dira hilorren aurrean!

Ai, badago hamaika gauza zeruaren eta lurraren tartean, poetek soilik amets egin ahal izan dituztenak!

Eta batez ere zeruaren gainean: zeren jainko guztiak baitira poeta-sinbolo, poeta-asmakari!

Zinez, beti erakartzen gaituzte -hodeien erreinurantz: berauen gainean ezartzen ditugu geure txorimamu nabarrak eta jainko eta gaingizon deitzen diegu:-

Aski arinak baitira aulki horietarako! -jainko eta gaingizon guzti hauek.

Ai, zeinen nekaturik nagoen jazoera izan nahiko eskuraezina den guztiaz! Ai, zeinen nekaturik nagoen poetez!

Zaratustra honela mintzatzean, dizipulua haserretu egin zitzaion, baina isilik geratu zen.

Zaratustra ere isilik geratu zen; eta haren begia barnerantz bihurtu zen, urruneko

tarteetara begiratuko balu bezala. Azkenik hasperen egin eta arnasa hartu zuen.

Gaurkoa eta atzokoa naiz, esan zuen orduan; baina badago zerbait nigan biharkoa eta etzikoa eta noizbaitekoa dena.

Nekatu egin naiz poetez, zaharrez eta berriez: azaleko deritzet guztiei eta sakonik gabeko itsaso.

Ez dute behar adina sakon pentsatu izan: horregatik ez da beren sentimendua hondoraino murgildu.

Gozamen-apur bat eta aspertasun-apur bat: horixe izan da beraien pentsamendurik hoberena.

Mamu-hatsa eta ihesa izan dira niretzat beraien arpegio guztiak; zer zekiten haiek orain arte soinuen suharraz!-

Nahikoa garbi ere ez dira niretzat: beren ur guztiak arre bihurtzen dituzte, sakon-itxura izan dezaten.

Eta gogara agertzen dira adiskidetzaille bezala: baina artekari eta nahastaile dira niretzat, eta hautsi-mautsizale eta zikin!-

Ai, hedatu nuen sarea beraien itsasoetan eta arrain ona harrapatu nahi nuen; baina jainko zaharren baten burua atera nuen beti.

Honela eman zion gosetuari itsasoak harri bat. Eta beraiek ere seguraski itsasotik datoz.

Noski, aurkitzen da perlarik beraien baitan: hainbat antz handiagoa dute berek ere krustazeoena. Eta arimaren ordeaz sarritan beraien baitan basa gazia aurkitu izan dut.

Itsasoari ikasi diote beren banitatea ere: ez al da itsasoa paumen pauma?

Bufalo guztien artean itsusienaren aurrean ere zabaltzen du bere isatsa eta ez da inoiz nekutzen zilar eta zetazko bere xerrak erakusten.

Kopetilun begiratzen dio honi bufaloak, zeren hondarretik hurbilago baitauka bere arima, eta hurbilago oraindik sasartetik, hurbilen ordeaz zingiratik.

Bost axola hari edertasuna eta itsasoa eta paumaren apainduriak! Parabola hau esaten diet poetei.

Zinez, beren izpiritua bera da paumen pauma eta banitatezko itsasoa!

Ikusleak nahi ditu poetaren izpirituak: nahiz eta bufaloak izan!-

Baina ni nekatua nago izpiritu honetaz: eta ikusten ari naiz badatorrela bere buruaz nekatuko den unea ere.

Itxuraldaturik ikusi ditut poetak eta begirada beren buruaren aurka zuzendurik. Izpirituaren penitentzigileak ikusten ditut etortzen: beraiegandik sortu direnak.- Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### JAZOERA HANDIEZ

Badago irla bat itsasoan -Zaratustraren irla zorionekoetatik hurbil samar- zeinetatik atergabe sumendi bati kea darion; hartaz esaten du herriak, eta batez ere herriko atsoek esaten dute, azpimunduaren atean ezarritako harkaitz bat dela: eta sumendi honetan barrena jaisten da azpimunduaren atera gidatzen duen bidetxurra.

Eta behinola, Zaratustra irla zorionekoetan bizi zela, gertatu zen, mendikejarioa dagoen irlaren ondoan ezarri zuela aingura itsasuntzi batek; eta tripulazioa lehorrera joan zen untxiak harrapatzera. Eguerdi aldera, ordea, kapitaina eta bere jendea berriro elkarturik zeudela, bapatean gizon bat ikusi zuten airean barna hurbiltzen ari zitzaizela, eta mintzo batek ozenki esan zuen: "Garaia da! Garai-garaia da!" Eta irudia hurbilen egon zenean - hegaz igaro zen albotik bizkor, itzal baten modura, sumendia zegoen aldera- txundimen handiz, Zaratustra zela konturatu ziren; zeren ordurako guztiek ikusia baitzuten, kapitainak berak izan ezik, eta maite zuten, herriak maite izaten duen bezala: maitasuna eta beldurra erdinabanatuz.

"Begira!" esan zuen lemazain zaharrak "horra non doan Zaratustra ifernura!"-

Marinel hauek su-irlan lehorreratu ziren garai beretsuan, Zaratustra ezabatu zeneko zurrumurrua zabaldu zen; eta bere adiskideei galdetzean, kontatu zuten, gauean untziz joana zela, norakorik esan gabe.

Honela ondoeza sortu zen; hiru egun geroago ondoez honi marinelen istorioa gehitu zitzaion -eta orduan herri osoak Zaratustra deabruak eraman zuela esateari ekin zion.

Dizipuluek gogoz barre egiten zuten esamesa hauengatik; eta beraietako batek esan ere esan zuen: "Lehenago sinetsiko nuke Zaratustrak deabrua eraman duela". Baina arimaren barrenean guztiak kezkaz eta arduraz beterik zeuden: horregatik poz handia hartu zuten, bosgarren egunean, Zaratustra beren artean agertu zenean<sup>54</sup>.

Eta hauxe da Zaratustrak su-txakurrarekin izandako hizketaren kontakizuna:

Lurrak, esan zuen, larruazala du; eta larruazal honek eritasunak ditu. Eritasun hauetako bati, esate baterako: "gizon" deritzo.

Eta eritasun hauetako beste bati "su-txakur" deritzo: beroni buruz gizonak gezur asko esan eta esaten utzi dute.

Misterio hau sakontzeko joan naiz itsasoaz bestaldera: eta egia biluzik ikusi dut, zinez! biluzik burutik oinetaraino.

Orain badakit zer gertatzen den su-txakurrarekin; eta ez dira atso zaharrei soilik beldurra sartzen dieten irazketa- eta itxulasketa-deabruak.

"Kanpora, su-txakurra, heure sakonunetik!" dei egin nuen nik "eta aitor ezak zeinen sakona den sakonune hau! Nondikakoa duk sudurretik jaurtitikiz duan hori?"

Oparo edaten duk itsasotik: hori salatzen dik hire hitz-jario gaziak! Egitan, sakonuneko txakurra izateko janari gehiegi hartzen duk azaletik!

Gehienera ere lurraren sabel-hiztuntzat haukat: eta beti, irazketa- eta itxulasketa-deabru horiez hitz egiten entzun dudanean, hire antzeko aurkitu izan dizkiat: gazi, gezurti eta azaleko.

Zuek ulertzen duzue murruntza egiteaz eta errautsaz iluntzeaz! Akalde handienak zarete eta ase arte ikasi duzue lokatza irakinaraztearen antzea.

Zuek zaudeten tokian, inguruan beti lokatza ere izango da, eta gauza apatz, zulotsu eta hertsatu asko: askatasunera irten nahi dutenak.

‘Askatasuna’ murruntza egiten duzue gogokoen: baina nik galdua dut fedea ‘jazoera handietan’, inguruan murruntza eta ke asko daukaten bitartean.

Eta sinetsidak, ifernu-zarata adiskidea! Jazoera handienak -ez dituk gure ordu zaratatsuenak, isilenak baizik.

Ez zarata berrien asmatzaileen inguruan: balio berrien asmatzaileen inguruan ematen ditu munduak birak; ezin entzunezko eran ematen ditu birak.

Aitor ezak! Ezer gutxi jazo huen, hire zarata eta kea iraungitzean. Bost axola hiri bat momia bihurtzea eta estatua bat lokatzatan gelditzea!

Eta hitz hau esaten diet estatua-itxulastaileei. Zorakeriarik handiena gatza itsasora eta estatuak lokatzatara jaurtikitzea da.

Zuen arbuioaren lokatzatan zetzan estatua: baina horixe da hain zuzen bere legea, arbuiotik berriro bizira eta edertasun bizidunera sortzea!

Ezaugarri jainkozkoagoekin dago berriz ere zutik, pairatzaileen liluramenarekin; eta zinez! oraindik eskerrak emango dizkizue itxulastu duzelako, itxulastaileok!

Aholku hau ematen diet erregeei eta elizei, eta adina edo bertutearengatik ahula den guztiari -utz ezazue itxulas zaitzateten! Berriro bizira etor zaitezten, eta zuengana -bertutea!" -

Honela hitz egin nuen su-txakurraren aurrean: orduan intzirika eten eta galdetu zuen: "Eliza? Zer da hori?"

"Eliza?" -erantzun nion nik, "Estatu gisako zerbait duk, faltsuena hain zuzen ere. Baina hago isilik, txakur azalutsa! Inork baino hobeto ezagutzen duk hik heure kasta!

Hi bezala Estatua txakur azaluts bat duk; hik bezala murruntza eta kearekin hitz egiten dik gustura -hik bezala, gauzen erraietatik hitz egiten duela sinetsarazteko.

Zeren lurreko piztiarik garrantzitsuena izan nahi baitik, Estatuak; eta sinetsi ere egiten ziotek".-

Nik hau esatean, su-txakurra espaz zoroa bezala imintzioka hasi zen. "Nola?" oihu egin zuen "lurreko piztiarik garrantzitsuena? Eta sinetsi ere egiten al diote?" Eta hainbeste lurrin eta hots lazkarri irten zitzaizkion zintzurretik, non uste izan bainuen amorruz eta espaz itoko zela.

Azkenik lasaituz joan zen, eta arnasestuak amore eman zion; lasaitu zen orduko, irribarrezka esan nuen:

"Amorratu egiten haiz, su-txakurra: honela arrazoia ematen didak!

Eta oraindik egiaztatzeko, entzun ezak beste su-txakur baten berri: hau benetan mintzatzen duk lurraren bihotzetik.

Urrea arnasten dik eta urrezko euria: horrela nahi dik bere bihotzak. Zer axola hari errautsa eta kea eta basa beroa!

Barreak hegaz egiten dik beragandik hodei nabar baten erara; eta destaina egiten ziek hire gurgurrei eta ttuei eta hesteen orroei!

Urrea, orde, eta barrea -hori ateratzen du berak lurraren bihotzetik: zeren jakin dezaan-lurraren bihotza urrezkoa baituk".

Su-txakurrak hau hautematean, ezin izan zidan gehiago niri entzun. Lotsaturik, isatsa gorde zuen, ahots apalez tau! tau! bat egin eta bere zulora joan zen arrastaka. -

Hau kontatu zuen Zaratustrak. Baina bere dizipuluek ozta-ozta entzuten zioten: hain irrika handia baitzuten tripulazioaren, untxien eta gizon hegalariaen berri berari emateko.

"Zer pentsatu behar dut horretaz!" esan zuen Zaratustrak. "Iratxoa ote naiz?"

Nire itzala zen, nonbait. Entzun al duzue ezer bidaiariaz eta bere itzalaz?

Gauza bat dago argi: laburrago lotu beharko dudala -bestela nire izen onari kalte egingo dio."



Eta Zaratustra beste behin buruari eragin eta harritu egin zen. "Zer pentsatu behar dut horretaz!" esan zuen beste behin.

"Zergatik oihu egin zuen mamuak: "Garaia da! Garai-garaia da!"

Zertarako da - garai-garaia?"

Honela mintzatu zen Zaratustra.

AZTIA

"-eta tristura handi bat ikusi nuen gizonen gainera etortzen. Hoberenak ere bere egintzez nekaturik zeuden.

Irakatsi bat hedatu zen, fede bat beraren inguruan: "Dena hutsik dago, dena berdin da, dena amaitu da!"

Eta muino guztietatik durundi egiten zuen: "Dena hutsik dago, dena berdin da, dena amaitu da."

Egia da uzta bildua dugula: baina zergatik usteldu eta belztu zaizkigu fruitu guztiak? Zer erori da bart ilargi txarretik?

Lan guztia alferrik izan da, ardoa pozoi bihurtu zaigu begizkoak soroak eta bihotzak zimeldu dizkigu.

Idorturik geratu gara guztiok; eta sua erortzen bazaigu, errautsa bezala birrinduko gara: -suaz beraz ere nekatu egin gara.

Iturri guztiak agortu zaizkigu, eta itsasoak berak ere atzera egin du. Zola osoak itzausi egin nahi du, baina sakonak ez gaitu irentsi nahi!

"Ai, non dago oraindik itsasorik, bertan ito ahal izateko": durundi hau du gure kexuak - zingira azaletan zehar urrunduz.

Zinez, nekatuegi gaude hiltzeko; oraindik itzarririk gaude eta bizirik diraugu - hilobitan!" -

Hauxe entzun zion Zaratustrak azti bati<sup>55</sup>; eta bere igerpena bihotzeratu egin zion eta aldatu egin zuen. Alderrai zebilen triste eta nekaturik; eta aztiak aipatu zituen haien gisako bihurtu zen.

Zinez, hala esan zien dizipuluei, gutxi falta da inular luze hori etor dadin. Ai, nola lortuko dut neure argia hartan barna salbatzea!

Ez dakidala iraungi tristura honetan! Mundu urrunduentzat argi izan behar du, eta gau urrunduenentzat ere bai!

Bihotza honela kezkaturik zuela Zaratustra alderrai zebilen; eta hiru egunetan ez zuen edaririk, ez janaririk hartu, ez zuen atsedetik hartu eta hitza galdu zuen. Azkenik, lo betean sartu zen. Dizipuluek gau-beilaldi luzeak egiten zizkioten inguruan eserita eta arduratan itxaroten zioten ea esnatzen zen eta berriro hitz egiten zuen, eta bere ondoezetik osatzen zen.

Eta hau da Zaratustrak egin zuen hitzaldia, esnatu zenean; haren mintzoa urruntasun handi batetik bezala iristen zitzaien dizipuluei:

Entzuidazue egin dudan ametsa, adiskideok, eta lagunidazue bere zentzuari igertzen!

Niretzat oraindik igerkizun bat da amets hau; bere zentzua gordeta dauka atxiloturik eta oraindik ez du bere gainetik hegalez librez hegaz egiten.

Bizi orori uko egin niola amets egin dut. Gauzain eta hilobizain bihurtua nintzen, han, herio-gazteluaren mendi bakartian.

Han goian neuzkan gordeta bere zerraldoak: ganga bustiak halako garaiti-zeinuz beterik zeuden. Beirazko zerraldoetatik begiratzen zidan bizitza menperatuak.

Hauts bihurturiko betieren usaina hartzen nuen: itolarritan eta hautsezaturik zetzan nire arima. Nork airezta zezakeen han bere arima!

Gauerdiko argitasun bat neukan beti inguruan, bakardadea kuzkurtzen zitzaion ondoan; eta hirugarren bezala, herio-isiltasuna hatsanka, nire adiskiderik makurrena.

Giltzak nerabiltzan, giltza guztietarik herdoilduenak; eta beraiekin banekien aterik kirrinkariena irekitzen.

Belatxingen karranka suminduen modura hedatzen zen hotsa pasilu luzeetan barna, atearen orriak irekitzen zirenean: garrasi lazkarriak egiten zituen txoriak, ez zuen inork esnatzerik nahi.

Baina ikaragarriago zen eta gehiago estutzen zidan bihotza, atzera mututzean eta inguruan isiltasuna sortzean eta ni bakarrik eserita aurkitzean isiltasun makur hartan.

Honela igarotzen zitzaidan astiro denbora, baldin eta artean denborarik bazegoen: zer nekien nik hartaz! Baina azkenean gertatu zen esnatu ninduen.

Hiru aldiz jo zuten atean, trumoi antzera, hiru aldiz egin zuten gangek durundi eta alarau erantzunez: orduan atera joan nintzen.

Alpa! oihu egin nuen, nork dakar bere errautsa mendira? Alpa! Alpa! Nork dakar bere errautsa mendira?

Eta sartu nuen giltza eta bultzatu nuen atea eta indar egin nuen. Baina atea ez zuen hazbeterik ere amore eman:

Orduan haize irrintzilari batek zabaldu zituen bere orriak alderen alde: txistuka, garrasika, zerraldo beltz bat jaurtiki zidan:

Eta irrintzika eta txistuka eta garrasika leher egin zuen zerraldoak eta milaka barre-  
algara okaztatu zituen.

Eta haur, aingeru, hontz, zoro eta haur tamainako tximeleten milaka txingoteetatik zerbaitek barre, txistu eta irrintzi egiten zidan.

Izugarri ikaratu nintzen horregatik: lurrera amildu nintzen. Eta txilioak egin nituen inoiz ez bezalakoak.

Baina neure oihuek esnatu ninduten: -eta neure senera etorri nintzen.-

Honela kontatu zuen Zaratustrak bere ametsa<sup>56</sup> eta isildu egin zen: zeren artean ez baitzekien bere ametsaren esanahia. Baina dizipulua, berak gehien maite zuena<sup>57</sup>, bizkor jaiki, Zaratustrari eskutik heldu eta esan zuen:

"Zeure bizitzak adierazten digu amets hau, oi Zaratustra!

Ez al zara zu zeu txistu zorrotzekiko haize hori, herio-gazteluaren atea indarrez irekitzen dituen?

Ez al zara zu zeu gaiztakeria nabarrez eta bizitzaren aingeru-txingotez beteriko zerraldoa?

Zinez, hauraren mila eratako barre-algararen gisara iristen da Zaratustra hildakoen ganbara guztietara, giltza goibelez txin-txin egiten duten gauzain eta hilobizain guzti hauen lepotik barre eginez.

Zeure barre-algarez izutu eta uzkailiko dituzu; zorabiatzeak eta esnatzeak agerian jarriko du haien gainetik duzun boterea.

Eta inular luzea baldin badator ere, eta herio-nekea, zu ez zara gure zerutik ezabatuko, biziaren aldeze hori!

Izar berriak erakutsi dizkiguzu eta gau-mireskizun berriak; zinez, barrea bera hedatu duzu gure gainetik denda nabar baten gisara.

Orain beti haur-barreak jarioko dira zerraldoetatik; orain haize indartsua etorriko da herio-nekeen garaile: zeu zara horren lekuko eta aztia!

Zinez, beraiekin egin duzu amets, zeure etsaiekin: hau izan da zure ametsik zailena!

Baina zu haiengandik iratzarri zinen bezala eta zeure baitara itzuli zaren bezala, haiek ere beren baitatik iratzarri behar dute -eta zugana itzuli!"-

Honela mintzatu zen dizipulua; eta beste guztiak Zaratustraren inguruan pilatu ziren eta eskuetatik heldu zioten eta ohea eta tristura utz zitzaizkien eta beraiekin itzul zedin komentzitu nahi zuten. Baina Zaratustra, bere ohean zurrin eseri zen, begirada galduarekin. Urruneko herrialde batetik etxera itzultzen denaren gisara, begiratu zien

dizipuluei eta aurpegiak aztertu zituzkien; eta ez zituen ezagutu. Baina altxatu eta oinen gainean ezarri zutenean, hara, bapatean begirada aldatu zitzaion; gertatutako guztia ulertu zuen, bizarra igurtzi eta mintzo sendoz esan zuen:

"Tira! Gauza bakoitzak bere garaia du; ardura zaitezte orain, ene dizipuluok, afari on bat egiteaz, eta bizkor! Honela dut penitentzia egiteko asmoa neure amets txarrengatik! Aztiak, ordea, nire ondoan jan eta edan behar du: eta zinez, oraindik itsaso bat erakutsi nahi diot, bertan itotzeko modukoa!"

Honela mintzatu zen Zaratustra. Gero ametsa adierazi zion dizipuluari luzaroan aurpegira begiratu eta buruari eragin zion.-

### **BERREROSPENAZ**

Egun baten Zaratustra zubi handi batetik igarotzean, elbarritu eta eskaleek<sup>58</sup> inguratu zuten, eta konkordun batek honela hitz egin zion:

"Hara, Zaratustra! Herriak ere ikasten du zuek eta fede ematen dio zure irakatsiari: baina erabat sinets dezan, gauza bat falta du oraindik -aurrea elbarrituok komentzitu behar gaituzu! Hemen daukazu aukera ederra eta zinez, eta ile bat baino gehiago duen abagadunea! Itsuak osa ditzakezu eta elbarrituak lasterkarazi; eta atzealdean gehiegi daukanari, zerbait ken zeniezaioke: -Hori litzateke, nire iritziz, elbarrituek Zaratustra sinets dezaten bide zuzena!"

Zaratustrak ordea, honela erantzun zion hitz egin zuenari: Konkordunari konkorra kentzen bazaio, izpiritua ere kentzen zaio -honela irakasten du herriak. Eta itsuari begiak ematen bazaizkio, gauza oker gehiegi ikusiko ditu lurraren gainean: eta honela osatu duena madarikatuko luke. Eta elbarritua lasterkarazten duenak, horrek egiten dio kalterik handiena: zeren lasterka egiteko gai izango den orduko, bizio guztiek menpean erabiliko baitute -honela irakasten du herriak elbarrituez. Eta zergatik ez du Zaratustrak herriarengandik ikasi behar, baldin eta herriak Zaratustragandik ikasten badu?

Niretzat, horixe da, ordea, gutxienekoa, gizonen artean bizi naizenez gero, ikusi ahal izatea: "Honi begia falta zaio eta hari belarria, hirugarrenari zangoa, eta bada beste bat mihia edo sudurra edo burua galdu duena ere."

Ikusten ditut eta ikusiak ditut okerragoak eta zenbait gauza hain nazkagarriak, non guztiez ez nukeen hitz egin nahiko, eta batzuez ez nuke isildu ere egin nahiko: izan ere, gizon batzuei dena falta zaie, gehiegiz duten zerbait izan ezik -gizonak, ezertxo ere ez direnak begi handi bat izan ezik edo mutur handi bat edo sabel handi bat edo beste zera handiren bat- elbarritu alderantzikatu deitzen diet nik horrelakoei.

Eta ni neure bakardadetik etorri eta lehendabiziko aldiz zubi honetatik igaro nintzenean: ez nien neure begiei sinesten eta behin eta berriz begiratzen nuen eta azkenean esan nuen: "Hau belarria duk! Gizona bezain belarri handia!" Hobeto begiratu nuen: eta benetan, belarriaren azpian zerbait mugitzen zen eta errukia sortzeko bezain txiki eta behartsu eta ahula zen. Eta egitan, belarri eskerga hura ziritxo mehe batean kokaturik zegoen -eta ziria gizona zen! Begien aurrean beira bat jarritz gero, aurpegitxo bekaiztia ere antz ematen zitzaion; eta arimatxo hanpatua ere bai zirian kulunka. Eta herriak esan zidan belarri handi hura ez zela gizon bat soilik, gizon handi bat, jeinu bat baizik. Baina ez nion herriari sinesten gizon handiez hitz egiten zuenean -eta elbarritu alderantzikatua zela sinetsiz jarraitu nuen, denetarik gutxiegi eta gauza bakar batean gehiegi zeukana. Zaratustrak konkordunari honela hitz egin zionean eta bera bozeramale eta aldeze zutenei, haserre bizitan dizipuluengana zuzendu zen eta esan:

Zinez, ene adiskideok, giza atal eta gorputzadarren artean bezala nabil gizonen artean! Hau da nire begietarako ikaragarriena, gizona zatikaturik eta barreiatutik aurkitzea burruka- eta hilgintza-zelai batean bezala.

Eta nire begiek orainetik iraganera ihes egiten badute: beti gauza bera aurkitzen dute: atalak eta gorputzadarrak eta halabehar ankerrak -baina gizonik ez!

Oraina eta iragana lurraren gainean -ai! ene adiskideok- haxe da niretzat jasangaitzena; eta nik ez nuke jakingo bizi izaten, honetaz gain etortzekoa denaren ikusle ez banintz. Ikusle, desiratzaile, sortzaile, etorkizun ere bai eta etorkizunerako zubi -eta ai, gainera, nolabait esateko, elbarritu bat zubi honetan: guzti hori da Zaratustra.

Eta zuek ere sarritan galdetzen diozue zeuen buruari: "Nor da guretzat Zaratustra? Nola deituko diogu?" Eta nik bezala galderak eman dituzue erantzuntzat.

Agintzaile bat al da? Ala betetzaile bat? Konkistatzaile bat? Ala oinordeko bat?

Udazken bat? Ala golde-nabar bat? Mediki bat? Ala zuzperraldiko bat?

Poeta bat al da? Ala egiati bat? Askatzaile bat? Ala bezatzaile bat? Zintzo bat? Ala gaizto bat?

Gizonen artean nabil etorkizunaren atal bailiran: neuk so egiten diodan etorkizunarena.

Eta nire gogoeta eta gurari guztia atal eta igarkizun eta halabehar anker dena batasunean pentsatu eta biltzea da.

Eta nola jasango nuke gizon izatea baldin eta gizona poeta eta igerkizun-asmatzaile eta halabehararren berrerostea ere ez balitz!

Iraganikoak berrerostea eta "izan zen" oro "hala nahi izan nuen!" bat bihurtzea - hori soilik litzateke niretzat berrerospena!

Nahia - honela deritzo askatzaileari eta poz-ekarleari: honela irakatsi dizuet, ene adiskideok! Baina beste hau ere ikas ezazue: nahia bera ere oraindik preso bat da.

Askatu nahia: baina nola deritzo askatzailea bera katepean daukanari?

"Izan zen": honela deritzo nahiaren hagin-karraskari eta ondoez bakartienari. Eginik dagoenarekiko indarge -nahia ikusle txarra da iraganarekiko.

Nahiak ezin du atzerantz nahi izan; denbora ezin eten ahal izatea eta denboraren irrika - hori da nahiaren ondoezik bakartiena.

Askatu nahia: zer asmatzen du nahiak berak ondoezetik bere burua askatzeko eta bere gartzelari iseka egiteko?

Ai, preso oro tentel bihurtzen da! Tentelki berrerosten du bere burua nahi atxilotuak.

Denbora atzerantz ez ibiltzea du bere barne-amorrua. "Izan zen hura, izan zen" -honela deritzo zirkinik eragin ezin dion harriari.

Eta horregatik eragiten die zirkin harriei amorruez eta haserrez eta mendeku hartzen du berak bezala amorrua eta haserrea sentitzen ez dituenaren lepotik.

Honela nahia, askatzaile zena, min-emaile bihurtu da: eta pairatzeko gai den guztiaren lepotik hartzen du mendeku, atzera egin ezin duelako.

Haxe eta haxe soilik da mendekua: denboraren eta bere "izan zen"aren aurkako nahiaren kontrahia.

Zinez, tenteltasun handia dago gure nahian; eta gizadi osoaren madarikazio bihurtu da tenteltasun horrek izpiritu izaten ikasi izana!

Mendekuaren izpiritua: ene adiskideok, honetaz izan dira orain arte gizonaren gogoetarik hoberenak: eta mina izan den tokian, hantxe izan behar zuen beti zigorrak ere.

"Zigor", beraz, honelaxe deitzen dio mendekuak bere buruari: gezur-hitz batez bihurtzen da azaluts kontzientzia ona.

Eta nahi duenarengan mina dagoen bezala, atzera joan nahi ezin duelako -era berean nahiak berak eta bizi orok izan beharko lukete- zigor!

Eta honela hodeiak eta hodeiak metatu dira izpirituaren gainean: azkenean zoramenak predikatu zuen arte: "Dena hondatzen da, eta horregatik, denak hondatzea merezi du!"

"Eta haxe bera da justizia, bere seme-alabak irentsi behar dituen denboraren lege hura": honela predikatu zuen zoramenak.

"Gauzak moralki zuzenbidea eta zigorraren gainean ordenatzen dira. Ai ene! Non dago gauzen joairaren berrerospena eta "izatea" izeneko zigorra?" Honela predikatu zuen zoramenak.

"Izan ote liteke berrerospenik, betiko legerik izanez gero? Ai, higiezina da "izan zen" harria: zigor guztiek ere betikoak izan behar dute." Honela predikatu zuen zoramenak.

"Ez dago ezein egintza suntsitzerik: nola gerta zitekeen zigorraren bidez desegina! Hau, hauxe da "izatea" zigorrean betikoa, izateak beti egintza eta erru izan beharra!"

"Nahiak bere burua berrerosi eta nahia ez-nahi bihurtzen ez bada behintzat"- baina zuek ezagutzen duzue, ene senideok, zoramenaren alegi-kanta hau!

Nik saihestu egin zintuztedan alegi-kanta guzti horietatik, "Nahia sortzailea da" irakatsi nizuenean.

"Izan zen" oro zati bat da, igerkizun bat, zori anker bat -harik eta nahi sortzaileak gehitu arte: "Baina horrela nahi izan nuen!"

-Harik eta nahi sortzaileak gehitu arte: "Baina horrela nahi dut! Eta honela nahi izango dut!"

Baina dagoeneko mintzatu al da? Eta noiz gertatu da hori? Eta bere eromenaren uztarritik jaregin al da nahia dagoeneko?

Nahia bere buruarentzat berrerosle eta poz-ekarle bihurtu al da dagoeneko? Ahaztu al ditu mendekuaren izpiritua eta hagin-karraska guztia?

Eta nork irakatsi dio denborarekin adiskidetzen eta adiskidetze oro baino goragokoa den hori?

Adiskidetze oro baino goragoko zerbait nahi izan behar du nahiak, botere-nahia denean:

-baina nola gertatuko zaio hori? Nork irakatsi dio atzerantz ere nahi izaten?

-Baina hitzaldiaren une honetan zera gertatu zen, Zaratustra bapatean gelditu egin zela eta izudura handienak joa dagoenaren guztiz antzeko zirudiela. Begi izutuez begiratu zien dizipuluei; haren begiek geziek bezala zulatzen zizkieten pentsamenduak eta atzepentsamenduak. Baina handik apur batera berriro barre egin eta patxadaz esan zuen:

"Zaila da gizonekin bizitzea, zeren isiltzea oso zaila baita. Berritsu batentzat batipat".- Honela mintzatu zen Zaratustra. Eta konkordunak entzun zuen hizketaldia eta aurpegia estalirik edukia zuen; eta Zaratustraren barrea entzutean, jakiminez begirada jaso eta astiro galdetu zuen:

"Baina zergatik hitz egiten digu Zaratustrak guri dizipuluei ez bezala?"

Zaratustrak erantzun zuen: "Zer du horrek harritzekorik! Konkordunei konkordun erara hitz egin lekieke!"

"Ederki", esan zuen konkordunak; "eta ikasleekin eskolako erara ere hitz egin liteke.

Baina zergatik hitz egiten die Zaratustrak bere ikasleei -bere buruari ez bezala?" -

**GIZONAREKIKO ZUHURTZIAZ**

Goialdea ez: aldapa da beldurgarria!

Aldapa, begirada amiltzen eta eskua gorantz luzatzen denekoa. Bertan zorabiatzen da bihotza bere nahi bikoitzaren aurrean.

Ai, adiskideok, igertzen al diozue nire bihotzaren nahi bikoitzari?

Hau, hau da nire aldapa eta nire arriskua, nire begiradak goialdera amiltzea, nire eskuak tinkatu eta iroztu nahi duenean -sakonean!

Gizonari oratzen dio nire nahiak: kateez lotzen natzaio gizonari, gorantz gaingizonarenganaino arrastatzen banaute: zeren harantz joan nahi baitu nire beste nahiak.

Eta horretarako bizi naiz itsu gizonen artean; ezagutuko ez banitu bezalaxe: nire eskuak bere fedea zerbait irmean gal ez dezan.

Ez zaituztet ezagutzen gizonok: ilunpe eta kontsolamendu honek sarritan inguratzen naute.

Neure sarbidean eserita nago alproja guztientzat eta galdetzen dut: nork engainatu nahi nau?

Hauxe da gizonarekiko nire lehen zuhurtzia, engaina nazaten, engainatzaileekin adi egon beharrik ez izateko.

Ai, gizonen aurrean adi egon beharrik izango banu: nola izango litzateke gizona nire globoarentzat aingura! Arinegi joango nintzateke gora eta urrunera!

Aurrikuspen hau nire zoriaren gainetik dago: kezkarik gabe bizi behar dut.

Eta gizonen artean egarriz hil nahi ez duenak, edalontzi guztietatik edaten ikasi behar du; eta gizonen artean garbi iraun nahi duenak, ur zikinarekin ere garbitzen jakin behar du.

Eta honela mintzatu izan naiz sarritan neure buruaren kontsolamendurako: "Aupa! Gora! Bihotz zaharra! Ezbeharra gertatu al zaik?: goza ezak heure -zoriona bezala!" Hau da gizonetikiko nire beste zuhurtzia: nik hutsalei lehenago barkatzen diet harroei baino.

Ez al da, ba, banitate zauritua tragedia guztien ama? Baina harrotasuna zauritzen denean, harrotasuna baino zerbait hoberik hazten da han.

Bizitza begiratzeko on gerta dadin, ongi antzesturiko ikuskari izan behar du: eta horretarako antzestlari onak behar dira.

Antzestlari on iritzi izan diet hutsal guztiei: antzestu eta jendeak begiratzea nahi izaten dute -beren izpiritu guztia nahi horretan daukate.

Beren burua eszenaratzen dute, beren burua asmatzen dute; beraien ondoan atsegin dut bizitzari begiratzea, -melankolia sendatzen zait.

Horregatik barkatzen diet hutsalei, nire melankoliaren mediku direlako eta ikuskari batera bezala gizonarengana lotzen nautelako.

Eta gainera: nork neurtuko du hutsalarengan bere apaltasunaren sakonera osoa! Ni on eta errukior naiz berarekin bere apaltasunarengatik.

Zuengandik bere buruarengan fedea izaten ikasi nahi du; zuen begiradez elikatzen da, zuen eskuetatik irensten du laudorioa.

Zuen gezurak sinetsi ere egiten ditu, berataz gezurra ongi esaten baduzue: zeren sakonenean hasperen egiten baitio bihotzak: "Zer naiz ni!"

Eta bertute zuzena bere buruaren berri ez dakiena bada: orduan, hutsalak ez daki bere apaltasunaren berri!-

Hori da gizonetikiko nire hirugarren zuhurtzia, zuen beldurra dela eta gaiztoei begiratzeko gogoa galduarazten ez uztea.

Eta zorioneko naiz eguzki beroak sortzen dituen mirariak ikustean: tigreak eta palmondoak eta kriskitin-sugeak.

Eta gizonen artean ere badira eguzki beroaren kume ederrak, baita mireskizun asko gaiztoen artean ere.

Egitan, zuen jakintsuenak jakintsu iruditzen ez zaizkidan bezala: gizonen gaiztakeria ere beraien aipuz azpitik aurkitzen dut.

Eta sarritan galdetzen dut buruari eraginez: zergatik jotzen duzue kriskitina oraindik, kriskitin-sugeok?

Zinez, oraindik bada gaizkiarentzat ere etorkizunik! Eta hegoarik beroena ez da oraindik gizonarentzat aurkitu izan.

Hamaika gauzari deitzen zaio orain gaiztakeriarik txarrena, hamabi oineko zabalera eta hiru hilabeteko luzera besterik ez izan arren! Egunen batean agertuko dira herensuge handiagoak mundura.

Gaingizonari bere herensugea falta ez dakion, bere duin izango den gain-herensugea: horretarako eguzki bero askok irazeki beharko dute oihan sarriaren gainean!

Baina aurrena zuen basakatuek tigre bihurtu beharko dute eta zuen apo pozoitsuek krokodilo: zeren ehiztari onak ehiza ona izan behar baitu!

Eta zinez, on eta zintzook! Zuengan barregura ematen duen asko dago: batez ere orain arte "deabru" deritzon horri diozuen beldurra!

Hain arrotz zarete handitasunarekiko zuen arimetan, non gaingizona bera ere beldurgarri gertatuko baitzaizue bere ontasunean!

Eta zuek, jakintsu eta jakileok, jakituriaren eguzki-erredurari ihes egingo zenioke, gaingizonak bere biluztasuna atseginez bainatzen duen erredura horri!

Zuek, gizon gorenok, zeinekin nire begiek topo egin baitute! Hau da zuekiko dudak zalantza eta nire ezkutuko barrea: jokatu nuke nire gaingizonari zuek baietz deitu - deabru!

Ai, nekatu egin naute gorenak eta hoberenak diren horiek: beraien "goieran" aurkitzean gorago. Urrutira, kanpora jotzeko, gaingizonarenganantz alde egiteko gogoia nuen!

Hotzikarak hartu ninduen hoberenak biluzik ikustean: orduan hegialak sortu zitzaizkidan etorkizun urrunera alde egiteko.

Inoiz artistak amets egin dituen baino etorkizun urrunagoetara, hegoa hegoaldekoagoetara: hara, jainkoak arropa guztiez lotsatzen diren tokira!

Baina mozturorik ikusi nahi zaituztet, zuek hurko eta kideok, eta ongi apaindurik, eta arranditsu, eta duin, "onak eta zintzoak" bezala-

Eta mozturorik eseri nahi dut zuen artean -neure burua eta zuek ez-ezagutzeko: hauxe da gizonarekiko nire azken zuhurtzia-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### ORDURIK ISILENA

Zer gertatu zait, ene adiskideok? Nahasturik eta hertsaturik ikusten nauzue, esaneko gogoz kontra, joateko prest -ai, zuengandik alde egiteko!

Bai, Zaratustrak berriz ere bere bakardadera itzuli behar du: baina atseginik gabe itzuliko da oraingoan hartza bere kobazulora!

Zer gertatu zait? Nork agindu du hau? -Ai, nire ugazabandre haserretuak nahi du horrela, bera mintzatu zait; dagoeneko esan al dizuet bere izena?

Atzo arratsean mintzatu zitzaidan nire ordurik isilena: hori da nire ugazabandrerik beldurgarrienaren izena.

Eta honela gertatu zen -zeren guztia esan behar baitizuet, zuen bihotza bapateko iheslariaren aurka gogor ez dadin!

Ezagutzen al duzue loakartzera doanaren izularria?-

Oin-puntetaraino ikaratzen da, zeren lurtzoruak amore eman eta ametsa hasten baita.

Parabola gisara esaten dizuet hau. Atzo, ordurik isilenean, lurtzoruak amore eman zidan: ametsa hasi zen.

Orratzak aurrera egiten zuen, nire bizitzako erlojuak arnasa hartzen zuen - inoiz ez nuen halako isiltasunik entzun neure inguruan: bihotza izularritu egin zitzaidan, beraz.

Gero hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Ba al dakik, Zaratustra?"-

Eta nik xuxurlaketa honen aurrean izularriz garrasi egin nion, eta odolak alde egin zidan aurpegitik: baina isildu egin nintzen.

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Badakik, Zaratustra, baina ez duk hitz egin nahi!"-

Eta azkenean kaskagor batek bezala erantzun nion: "Bai, badakit, baina ez dut esan nahi!"

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Ez al duk nahi, Zaratustra? Egia al diok? Ez hadi heure kaskagorkerian ezkuta!" -

Eta nik haurrak bezala negar eta dardar egin eta esan nuen: "Ai ene, nahiko nuke, baina nola egin nezake. Utzidazu. Nire indarrez gainetikoa da!"

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Zer axola zioz hitaz, Zaratustra! Esan ezak heure hitza eta puska hadi!"-

Eta nik erantzun nuen: "Ai, nire hitza al da? Nor naiz ni ? Beste duinago baten zain nago; eta ez naiz beraren kontra puskatzeko ere duin60".

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Zer axola zioz hitaz? Oraindik ez haiz aski apala. Apaltasuna azalik gogorrenaren jabe duk."-

Eta nik erantzun nuen: "Zer ez ote du eraman dagoeneko nire apaltasunaren azalak! Nire goieraren oinetan bizi naiz: nolakoa da nire gailurren goiera? Ez dit inork esan. Baina ongi ezagutzen ditut neure ibarrak".

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Oi, Zaratustra, mendiak lekuz aldatzen dituenak, ibarrak eta sakanak ere aldatzen ditu."-

Eta nik erantzun nuen: "Nire hitzak ez du oraindik mendirik lekuz aldatu, eta nik hitz egina ez da oraindik gizonengana iritsi. Joan naiz gizonengana, baina ez dut oraindik beraiengana iristerik lortu".

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Zer dakik hik horretaz! Ihintza belar gainera erortzen duk, gaua isilen dagoenean".-

Eta nik erantzun nuen: "Iseka egin zidaten, neure bidea aurkitu eta berari lotu nintzaionean; eta oinek dardar egin zidaten egitan.

Eta honela mintzatu zitzaizkidan: ahaztu egin zaik bidea, orain ibiltzea ere ahaztu egin zaik!"

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Bost axola zaiok haien iseka! Obeditzea ahaztu zaion bat haiz: orain agindu egin behar duk!

Ez al dakik nor den beharrezkoena? Gauza handiak agintzen dituenak.

Gauza handiak egitea zaila duk: baina zailagoa gauza handiak agintzea duk.

Barkaezinezkoena higan hauxe duk: boterea baduk, eta ez duk nagusi izan nahi". -

Eta nik erantzun nuen: "Lehoi-ahotsa falta zait edozein agindutarako."

Orduan berriz ere xuxurlaketan bezala mintzatu zitzaidan: "Hitzik isilenak ekaitzek ekartzen dituztenak izaten dituk. Uso-oinekin etortzen diren pentsamenduek gidatzen ditek mundua.

Oi, Zaratustra, etorri beharrekoaren itzalak bezala joan behar duk: orduan aginduko duk eta aginduz besteen aurretik joango haiz".-

Eta nik erantzun nuen: "Lotsatu egiten naiz".

Orduan berriz ere hotsik gabe mintzatu zitzaidan: "Berriz ere haur bihurtu behar duk eta lotsarik gabea.

Gaztetasunaren harroa oraindik higan zegok, berandu gaztetu haiz: baina haur bihurtu nahi duenak, bere gaztetasuna ere gainditu egin behar dik." -

Luzaroan egon nintzen gogoeta egiten eta dardarka. Azkenean, ordea, aurrena esana nuena esan nuen: "Ez dut nahi".

Orduan barre bat entzun zen nire inguruan. Ai ene, nola urratzen zizkidan erraiak eta zulatzen zidan bihotza barre hark!

Eta azkeneko aldiz mintzatu zitzaidan: "Oi, Zaratustra, hire fruituak helduak zeudek, baina hi ez hago heldua heure fruituentzat!

Horregatik heure bakardadera itzuli behar duk: zeren oraindik umotu beharra duk". -

Eta berriz ere barre egin eta ihes egin zuen: gero isiltasuna sortu zen nire inguruan, isiltasun bikoitza balitz bezalakoa. Baina ni lurrean netzan, eta izerdia zerien nire gorputzadar guztiei.

-Orain dena entzuna duzue, eta zergatik neure bakardadera itzuli behar dudan. Ez dizuet ezer isildu, ene lagunok.

Baina entzun didazue nor den gizon guztien artean isilena ere- eta izan nahi duen!



Ai, ene adiskideok! Oraindik banuke zuei zerbait esateko, banuke zuei zerbait emateko<sup>61</sup>! Zergatik ez dut ematen? Zikoitza al naiz orduan?-

Zaratustra, hitz hauek esatean, saminak abaildu zuen, eta adiskideei adio esan beharraren hurbiltasunak: honela bada negarrari eman zion; eta ezin zuen inork kontsolatu. Gauez, ordea, bakarrik alde egin zuen, eta lagunak utzi egin zituen.

## HIRUGARREN ATALA

"Zuek gora begiratzen duzue igo nahi duzuenean. Eta nik behera begiratzen dut goian negoelako.

Zuetako nor da gauza aldi berean barre egiteko eta goian egoteko?

Mendirik garaienetara igotzen denak eszenako eta bizitzako tragedia guztiez barre egiten du".

Zaratustra

Idazteaz eta Irakurtzeaz (I, 59 or.)

## IBILTARIA

Gauerdia aldea zen irlaren bizkarreko bideari heldu zionean, goizean goiz hegira iristeko: zeren bertan untziratu egin nahi baitzuen. Bertan badia on bat zegoen, non untzi atzerritarrek ere ainguratzen ziren; hauek irlak utzi eta itsasoratu nahi zutenak beren baitan hartzen zituzten. Zaratustrak, mendian gora zihoala, gaztetan egindako hainbat bidaia bakarti gogoratu zituen eta igoak zituen hainbat mendi eta bizkar eta gailur. Ibiltaria eta mendigoizalea naiz ni, esan zuen bere golkorako, ez ditut lautadak atsegin eta uste dut ez naizela luzaroan gelditu egoteko gauza.

Eta zernahi zori eta halabehar etorriko zaizkidala ere -beti izango dute beren baitan ibiltze bat, mendiak igotze bat: azken finean bakoitzak norbera soilik sentitzen baitu. Joana da niri ustekabeak gertatzea zilegi zen denbora; eta zer gerta lekidake dagoeneko neurea ez dudarik!

Ez da itzultzea, etxeratzea besterik egiten -nire norbera eta hartatik luzaroan atzerrian zegoena eta gauza guztien eta halabeharren artean barreiatua.

Eta oraindik gauza bat ere badakit: neure azken gailurraren aurrean nago eta luzaroan eragotzi zaidanaren aurrean. Ai, neure bide gogorrena igo beharra naiz! Ai, neure ibilerarik bakartienari dagoeneko heldu diot!

Baina nire etorkikoa denak ez dio ordu honi ihes egiten: zera esaten dio orduari: "Oraintxe habil heure handitasunaren bidetik! Gailur eta amildegi -gauza bera bihurtu dituk orain!

Heure handitasunaren bidetik habil: orain heure azken ihesleku duk, orain arte heure azken arrisku izan duana!

Heure handitasunaren bidetik habil: orain hire adorerik handiena atzetik biderik ez geratzeak izan behar dik!

Heure handitasunaren bidetik habil: hemen inork ez dik itzalgaizka jarraitu behar! Hire oinak berak ezabatu dik atzean utzitako bidea eta haren gainean idatzirik zegok: ezinezkotasuna.

Eta hemendik aurrera eskilara guztiek huts egiten badiate, heure buruaren gainetik igotzen ikasi behar duk: nola igo nahi duk bestela?

Heure buruaren gainetik eta heure bihotzaz harantzago! Orain heure baitako biguinena, oraindik gogorren bihurtu behar zaik.

Beti bere burua goxatu duena, azkenean gaixotu egiten duk gehiegizko zainketaz. Zorionekoa bedi gogortzen duen hori guztia! Ez dut goستن gurina eta eztia - darizkion lurraldea!

Norberagandik begirada saihesten ikastea beharrezko da, asko ikusi ahal izateko: -mendigoizale orok beharrezkoa du gogortasun hori.

Baina ezagutzaile bezala begi sarkorrak dituenak, nola ikus lezake holakoak gauzen arrazoi azalekoa besterik!

Baina, hik, oi Zaratustra, gauzen oinarria eta atze-oinarria ikusi nahi izan dituk: beraz heure buruaren gainetik igo behar duk -gora, harik eta izarrek heure azpian eduki arte! Bai! Neure buruarengana begiak eraitsi, eta baita neure izarretara ere: hori litzateke nire gailurra, hori geratzen zait azken gailurtzat!-

Honela mintzatu zen Zaratustra igotzen ari zela, esakune gogorrekin bere bihotza adoretuz: zeren bihotza ordura arte inoiz ez bezain zauritua baitzeukan. Eta mendi-bizkarraren goialdera iritsi zenean, hara, han zegoen beste itsasoa aurrealdean hedaturik: eta orduan gelditu eta isilik egon zen luzaroan. Gailur hartan gaua hotz, oskarbi eta izarratua zen.

Ezagutzen dut neure zoria, esan zuen azkenik tristuraz. Aupa! Prest nago. Dagoeneko hasia da nire azken bakardadea.

Ai, zeinen itsaso beltz tristea oinetan dudana! Ai, zeinen gaueko goibelaldi ernaria! Ai, zoria eta itsasoa! Zuengana jaitsi behar dut!

Mendirik garaienaren aurrean nago eta neure ibilerarik luzeenaren aurrean: horregatik daukat jaitsi beharra, inoiz jaitsi izan naizen baino beherago:

-sakonago jaitsi saminera, inoiz jaitsi izan naizena baino, bere uholderik

beltzeneraino! Honela nahi du nire zoriak: aupa! Prest nago.

Nondik datoz mendirik garaienak? honela galdetu nuen behiala. Orduan jakin nuen, itsasotik datozela.

Testigantza hau harrian idatzirik dago eta beren gailurretako hormetan. Sakonenetik etorri behar du gorenak bere goialdera.-

Honela mintzatu zen Zaratustra hotz egiten zuen mendiaren gailurrean; baina itsasora hurbildu eta azkenik uharrien artean bakarrik aurkitzean, bidean nekatu egin zela sentitu zuen eta lehen baino jorantsuago.

Denak lotan jarraitzen du, esan zuen; itsasoak ere lo egiten du. Loz horditurik eta arrotz begiratzen didate beren begiek.

Baina arnasa epela du, sentitu egiten dut. Eta sentitu egiten dut, ametsetan ari dela ere. Ametsetan inarosten da burko gogorren gainean.

Entzun! Entzun! Nolako intziriak egiten dituen oroitzapen txarregatik! Edo susmo txarregatik agian?

Triste nago zurekin, munstro goibela, eta neure buruarekin haserre zuregatik.

Ai, ene eskua hau zergatik ez ote da behar bezain irmea! Zinez, gogara jaregingo zintuzket zeure amets txar guztietatik!-

Eta Zaratustra honela mintzatzen zen bitartean, bere buruari barre egiten zion mingostasunez eta melankoliaz. Nola! Zaratustra!, esan zuen, kontsolatzeko kantatu nahi al diok itsasoari?

Ai, Zaratustra, zoro maitasun-aberatsa! Heure fidatzean zorioneko haizena! Baina horrelakoxea izan haiz beti: beti fidatu izan haiz beldurgarria den guztian.

Mustro guztiak laztandu ere egin nahi izan dituk. Arnasa epel piska bat, ilats leun piska bat atzaparretan:- eta berehala hengoan maitatzeko eta liluratzeko prest.

Maitasuna bakartiaren arriskua duk: maitasuna guztiarenganako, bizi den heinean!

Barregarria duk zinez maitasunean dudan zorotasuna eta apaltasuna!-

Honela mintzatu zen Zaratustra, eta bigarrenez barre egin zuen: orduan bere adiskide abandonatuengan pentsatu zuen -eta bere pentsamenduan iraindu izan balitu bezala, haserretu egin zen bere pentsamenduetatik. Eta laster gertatu zen barrezka zegoena negarrez hastea: -amorruez eta joranez negar mingotsak egin zituen.

**IKUSKARIAZ ETA IGERKIZUNAZ**

**I**

Marinelen artean Zaratustra untzian zegoelako zurrumurrua zabaldu zenean -zeren berarekin batera Zorion-Uharteetako gizon bat igoa baitzen untzira- ikusmin eta iguripen handia sortu ziren. Baina Zaratustra isilik egon zen bi egunez, hotz eta gor bere tristuran eta ez zien begiradei ez galderei erantzuten. Bigarren egunaren arratsean, ordea, ireki egin zituen belarriak, nahiz eta oraindik isilik zegoen: zeren gauza bakan eta arriskutsu ugari entzuten baitziren urrunetik zetorren eta artean urrunago joan nahi zuen untzian. Zaratustra bidaia luzeak egiten dituztenen eta arriskurik gabe bizitzeko gauza ez diren guztien adiskidea zen. Eta hara! azkenean entzutearen entzutez mihia askatu, eta bihotzeko izotza hautsi zitzaion: -orduan honela hitz egiten hasi zen,-  
Zuei, bilatzaile eta idorotzaile ausartoi, eta itsaso beldurgarrian bela maltzurrekin untziratu den edonori -zuei, igerkizunez horditurik eta inularrak maitemindurik zaudeteno, zeinen xirulak arima edozein zurrumbilotara erakartzen baititu:

-zeren ez baituzue haztamuka, esku ikaratiz, haririk bilatu nahi; eta igertzeko gauza zaretenean, gorrotoa baitiozue ondorioak ateratzeari-zuei soilik kontatuko dizuet ikusi dudan igerkizuna -bakartienaren ikuskaria.-

Goibel nenbilen arestian inularraren gorpu-zurbiltasunean barna -goibel eta kopetilun, ezpainak estuturik. Ordurako eguzki bakar bat baino gehiago sartu baitzitzaidan.

Bidezidor bat, legar artean setati igotzen zena, belarrik ez sasirik onartzen ez zuen makur eta bakartia: mendi-zidor batek karrask egiten zuen nire oinen setapean.

Harkaskarren kirriz-karraz isekatiaren gainean isilik urratsak ematen ari nintzela, laban eragiten zien harriak zanpatuz: nire oinek gorantz egiten zuten.

Gorantz: -nahiz eta izpirituak beherantz, amildegirantz tira egiten zien, astuntasunaren izpirituak, nire deabruak eta etsai porrokatuak.

Gorantz: -nahiz eta nire gainean eserita egon, erdi-nano, erdi-sator; elbarri, elbarritzaile; beruna belarrira isurtzen zidala, berun-tantazko pentsamenduak garunera.

"Oi, Zaratustra", xuxurlatzen zizkidan silabaz silaba isekati "hi jakituriaren harria! Heuk jaurtiki duk heure burua gora, baina jaurtikitako harri oro -erori beharra duk! Zaratustra, hi jakituriaren harri, hi habailarri, hi izar-birrintzaile! Hik heuk jaurtiki duk heure burua hain gora -baina jaurtikitako harri oro- erori beharra duk!

Heure burura kondenatua eta heure burua harrikatzera: oi, Zaratustra, urrunera jaurtiki duk harria -baina atzera heure gainera eroriko duk!"

Isildu zen orduan nanoa; eta luzaroan itxaron zuen horrela. Haren isiltasunak zapaldu egiten ninduen; eta horrela biren artean egoten denean norbera bakarrik baino bakartiago egoten da!

Gora igo, gora igo, amets egin, pentsatu egiten nuen -baina guztiak zapaltzen ninduen. Gaixo baten gisako nintzen, nozitze makur batek nekarazten duena, eta lokartzen denean ameskaizto batek atzera esnatzen duena.-

Baina nigan bada adorea deitzen dudan zerbait: horrek hil du nigan orain arteko desadore oro. Adore honek agindu zidan gelditu eta esateko: "Nanóa! Hi ala ni!"- Zeren adorea baita hiltzailerik hoberena -erasotzen duen adorea: zeren eraso guztietan baitago danbor-soinua.

Baina gizona da animaliarik adoretuena: horregatik gainditu du ezein animalia. Danbor-soinuaz gainditu ditu min guztiak ere; baina giza mina da minik sakonena. Adoreak amildegira erortzeko zorabioa bera ere hil egiten du adoreak: eta non egongo litzateke gizona amildegien ertzean izan ezik! Begiratzea bera ere ez al da -amildegietara begiratzea?

Adorea da hiltzailerik hoberena: gupida bera ere hil egiten du. Eta gupida da amildegirik sakonena. Zenbat eta sakonago begiratzen dion gizonak bizitzari, hainbat sakonago ikusiko du samina.

Adorea da, ordea, hiltzailerik hoberena, erasotzen duen adorea: heriotza bera hiltzen du, zera esaten baitu: "Hau al genuen bizitza? Tira! Ekin berrira!"

Hitz hauetan, ordea, danbor-soinu ugari dago. Belarririk duenak, entzun dezala62.-

II

"Geldi, nanóa!" esan nuen. "Ni ala hi! Baina neu nauk biotan indartsuena:- ez duk ezagutzen nire amildegi-pentsamendua! Hori -ez huke jasan ahal izango!"- Orduan lasaitu ninduen zerbait gertatu zen: zeren nanoak sorbaldeetatik behera salto egin zidan, begiluzeak! Eta harri baten gainean pikotxean jarri zitzaidan aurrean! Gelditu ginen toki hartan sarbidea zegoen.

"Begiraiok sarbide honi, nanóa!" esan nion: "bi aurpegikoa duk. Bi bide biltzen dituk hemen: inork azkeneraino ibili gabeak.

Atzerantz doan karrika luze horretatik: betiera batek itxaroten dik. Eta beste karrika luze horretatik -beste betiera batek.

Elkarren kontrakoak dituk bi bide hauek; berauen buruak elkarri kontrajarriak dituk eta sarbide honetan bateratzen dituk elkarrekin. Sarbidearen izena goian zegok idatzia: "Aldiunea".

Baina beraietako batetik ibiliko balitz norbait -eta gero eta urrunago joango balitz: sinesten al duk, nanoa, bide hauek betiera bata bestearekiko kontraesankor liratekeenik?"-

"Zuzena den orok gezurra dio", marmar egin zuen nanoak destainati. "Egia oro makurra da, denbora bera zirkulu bat da".

"Oi astuntasunaren izpiritua!" ihardetsi nion haserre, "ez esan arinkeriarik! Bestela hagoen tokian pikotxean utziko haut, txankerrea -neuk gora jasoia baitaiz!

Begira", esan nion gero, "aldiune honi! Aldiune deritzon sarbide honetatik atzerantz karrika luze bat betikoa zihoak: gure atzean betiera bat zegok.

Agian ez ote dik lasterka egiteko gauza den orok noizbait karrika honetan barrena lasterka eginga izan beharko? Agian ez ote dik gertatua izateko gauza den orok, noizbait gertatua, eginga, igarotua izan beharko?

Eta dagoeneko dena gertatua baduk: zer uste duk hik aldiune honetaz, nanoa? Sarbide honek ere ez ote dik dagoeneko -izana izan beharko?

Eta ez al zeudek gauza guztiak hain gogor korapilaturik, non aldiune honek etortzekoak diren gauza guztiak beregana erakartzen dituen? Beraz, -baita bere burua ere?

Zeren, lasterka egiteko gauza den orok: baita karrika luze honetan aurrera ere -oraindik beste behin ere lasterka egin behar baitik!-

Eta armiarma geldo hori, ilargiaren argitan arrastaka doana, eta ilargiaren argi hori bera, eta ni eta hi sarbidean elkarrekin txutxuputxuka ari garenok, betierako gauzez txutxuputxuka -ez ote diagu dagoeneko izanak izan behar?

-eta berriz ere etorri eta aurrera, gure aurretik doan beste karrika luze lazkarri hartan lasterka egin -ez ote diagu betieran itzuli beharko?" -

Honela hitz egin nuen gero eta emeago: zeren beldurra bainien neure pentsamendu eta atzepentsamenduei. Orduan, bapatean, txakur baten zaunka-hotsa entzun nuen aldamenean.

Inoiz entzuna al nuen txakur bat hala zaunka egiten? Pentsamenduak atzera lasterka egin zuen. Bai! Haur nintzela, urruneko haurtzaroan:

-orduan entzun nuen txakur bat honela zaunka egiten. Eta ikusi ere egin nuen, ilea lazturik, burua gora altxaturik, ikaratan, gauerdia isilenean, txakurrek ere mamuetan sinesten duten une horretan:

-eta honela errukia eman zidan. Izan ere une hartan bertan, isiltasunik handienez, suzko biribilgune bat bezala agertu zen ilargia -teilatu zapalen gainean, inoren jabegoaren gainean bezala: -

honenbestez txakurra gehiago izutu zen: zeren txakurrek sinetsi egiten baitute lapur eta mamuengan. Eta berriz ere hala zaunka egiten entzun nionean, errukitu egin nintzen.

Nora joana zen orain nanoa? Eta sarbidea? Eta armiarma? Eta txutxuputxuketa guztia?

Amets egin ote nuen? Itzartu egin ote nintzen? Bapatean harkaitz malkarren artean aurkitu nintzen, bakarrik, bertan behera utzia, ilargitasunik eremuenean.

Baina han gizon bat zetzan lurrean! Hantxe bertan! Txakurra saltoka zebilen, ilea lazturik, intzirika -orduan hurbiltzen ikusi ninduen- eta berriz zaunka egin zuen, alarau egin zuen: -inoiz entzuna al nuen txakur bat hala alarau egiten, laguntza eske?

Eta, zinez, orduan han ikusi nuena bezalakorik inoiz ikusi gabea nintzen. Artzain gazte bat ikusi nuen bihurritzen, itolarrian eta dardaraka, aurpegia itxuragabearekin, ahotik sugetzar beltza zeriola.

Inoiz ikusi ote nuen hainbesteko nazka eta izularririk inoren aurpegian? Loakartu egin ote zen? Orduan sugea sartu zitzaion zintzurrean -eta gogor tinkatu hozka eginez.

Eskuaz tira eta tira egin nion sugeari: -alferrik! Nire eskuak ezin izan zuen sugea zintzurretik atera! Orduan oihuak ihes egin zidan: "Hozka egin! Hozka egin! Ken burua! Hozka egin!" -halako oihua atera zen nigandik, nire izuak, nire gorrotoak, nire nazkak, nire errukiak, nire on eta txar guztiak oihu egin zuen oihu bakar batez nire baitatik.-

Inguruko bipilok! Zuek bilatzaileok, idorotzaileok, eta bela maltzurrekin itsaso ikerrigabeetara untziratu zaretenok! Zuek igerkizunzaleok!

Orduan igerridazue nik orduan begietsi nuen igerkizuna, adieraz idazue gizonik bakartienaren ikuskaria!

Zeren ikuspena izan baitzen eta aurrikuspena: -zer ikusi nuen nik orduan sinbolotan?

Eta nor da oraindik egunen batean etortzekoa<sup>63</sup>?

Nor da sugea zintzurrean sartu zitzaion artzaina? Nor da gauzarik astunena, beltzena zintzurra sartuko zaion gizona?

-Baina artzainak hozka egin zuen, nire oihuak aholku eman zionez; koskada bikaina egin zion! Urrunera ttu egin zuen sugearen burua: - eta salto batez zutitu zen.-

Jadanik ez zen artzaina, jadanik ez zen gizona! -barre egiten zuen itxuraldatu, argiztatu bat! Inoiz ez zuen lurraren gainean gizonak hark bezala barre egin!

Oi, senideok, nik entzun nuen barrea ez zen giza barrea! -eta orain egarriak erretzen nau, inoiz aseko ez den irrikak.

Barre horren irrikak erretzen nau: nola jasango dut oraindik bizi izatea! Eta nola jasango nuke orain hiltzea!-

Honela mintzatu zen Zaratustra.

### GOGOZ KONTRAKO ZORIONAZ

Honelako igarkizun eta mingostasunak bihotzean zituela joan zen Zaratustra itsasoan barna. Baina Zorion-Uhartetatik eta adiskideengandik lau eguneko bidaia egina zuelarik, ordurako gainditua zuen bere samina: - garaikor eta urrats irmez zutitu zen berriro bere zoriaren gain. Eta orduan honela hitz egin zion bere kontzientzia pozkariotsuari:

Bakarrik nago berriz ere eta hala egon nahi dut, bakarrik zeru garbia eta itsaso librearekin; eta berriz ere arratsaldea dut neure inguruan.

Arratsaldez aurkitu nituen lehendabiziko aldiz adiskideak. Arratsaldez aurkitu nituen hurrengo aldian ere: -argi oro isilago bihurtzen den orduan.

Zeren zerua eta lurraren artean oraindik erdibidean aurkitzen den zoriona, hori bilatzen du oraindik osatutzat arima argitsuak: zorionagatik argi oro orain isilago bihurtu da.

Oi, nire bizitzaren arratsaldea! Behiala nire zoriona ere jaitsi zen ibarrera, ostatu bila: han aurkitu zituen arima ireki eta atoskor horiek.

Oi, nire bizitzaren arratsaldea! Zer ez nuen nik eman, gauza bakar bat edukitzearren: nire pentsamenduen mintegi bizi hori, nire itxaropen gorenaren egunsenti hori!

Lagunak bilatu zituen behiala sortzaileak eta bere itxaropenaren seme-alabak: eta hara, ezin izan zituela aurkitu konturatu zen, berak sortu ezik.

Honela nago ni ere neure obraren erdian, neure seme-alabengana joanez eta beraingandik itzuliz: bere seme-alabengatik dauka Zaratustrak bere burua garabete beharra.

Zeren, funtsean, norbere semea eta norbere obra soilik maitatzea baita; eta nork bere buruari maitasun handia dionenean, hantxe dago haurduntasun-seinalea: horixe da aurkitu dudana.

Oraindik berde dauzkat neure seme-alabak beren lehen udaberrian, elkarren ondoan eta haize berak inarrosiak, nire baratzeko eta alorrik hobereneko zuhaitzak.

Eta zinez! Halako zuhaitzak elkarren ondoan dauden tokian, hantxe daude Zorion-Uhartak!

Baina egunen batean aldatu eta bata bestetik berezian ezarri nahi ditut: bakoitzak bakardadea eta hisia eta zuhurtzia ikas ditzan.

Adabegitsu eta bihurri, baina gogortasun zimelarekin egon behar du niretzat itsasoaren hegian, bizi menperaezineko argidorre bizidun.

Han, ekaitzak itsasora amiltzen diren tokian, eta mendien tronpak ura edaten duen tokian, hantxe egingo du bakoitzak gau eta egun zaindaritza, bere azterketa eta ezaguerarako.

Ezagutua eta aztertua izan beharra baitu, ea nire espezie eta jatorrikoa den -ea nahi luzeko jauna den, hitz egiten duenean ere, isila, eta halako moldekoa, non ematean ere hartzaile den: -

-egunen batean nire bidai lagun izan dadin eta Zaratustraren sorkide eta ospakide: - nire nahia taulatan idatziko duen norbait: gauza guztien garabete osorako.

Eta beragatik eta bere kidearengatik garabete behar dut neure burua: horregatik uko egiten diot orain zorion orori eta eskaintzen natzaio zorigaitzari -neure azken azterketa eta ezaguerarako.

Eta zinez, garaia zen joan nendin; eta ibiltariaren itzalak eta unerik luzeenak eta ordurik isilenak -guztiek esaten zidaten: "Garai-garaia da!"

Haizeak, sarraila-zulotik putz egin eta esaten zidan "Hator!" Ateak maltzur ireki eta esaten zidan "Hoa!"

Baina ni kateaturik netzan neure seme-alabenganako maitasunarengatik: joranak ezartzen zizkidan lokarri hauek, maitasun-joranak, neure seme-alaben harrapakin izan eta beraian galtzekoak.

Jorandu -hori esan nahi du niretzat galdu izanak. Bazauzkatet, seme-alabok! Edukitze honetan denak segurtasun izan behar du eta ezer ez joran.

Baina oilaloka baten eran neukan neure gainean maitasunaren eguzkia, bere saltsatan egosten zen Zaratustra -orduan itzal eta zalantzek alde egin zuten nire gainetik.

Izotza eta neguaren gogo bizia neukan ordurako: "Izotzak eta neguak dardar eta karrask eragin diezadatela!" egiten nuen hasperen: -orduan laino hotzak sortu zitzaizkidan neure baitatik.

Nire iraganak bere hilobiak hautsi zituen: bizirik ehortzitako samin bat baino gehiago itzartu zen:- loakaturik egon baitzen, hilatorrean bildurik.

Honela guztiak zeinu egiten zidan: "Bada garaia!" Baina nik -ez nuen entzuten: harik eta nire amildegia inarosten hasi eta pentsamenduak hozka egin zidan arte.

Ai, amildegia-pentsamendua, nire pentsamendu haizena! Noiz aurkituko diat indarra, hi hondeaketan entzun eta gehiago ez ikartzeko?

Eztarriraino salto egiten zidak bihotzak, hondeaketan entzuten haudanean! Hire isiltasunak ito egin nahi naik, amildegiko isil hori!

Inoiz ez nauk ausartu hiri gora deitzera: aski huen hi neurekin aldean - eramatea!

Oraindik ez ninduan aski indartsu lehoiaren azken ausardia eta hantusterako.

Nahikoa beldurgarri izan zaidak beti ere hire astuntasuna: baina egunen batean aurkituko dizkiat lehoiaren indarra eta ahotsa hiri gora deitzeko!

Eta hori gaingidutakoan, artean gauza handiagoa gaingitu nahi izango diat; eta garaitia izango duk nire garabetetzearen zigilu!-

Bitartean itsaso ezjakinetan barna nebilek; zori lausengariak laztantzen naik; aurrera eta atzera begiratzen diat -oraindik ez diat azkenik ikusten.

Oraindik ez duk niretzat azken burrukaren ordua etorri -edo oraintxe bertan etorri ote zait? Zinez, edertasun amarrutsuz begiratzen zidak ingurutik itsasoak eta biziak!

Oi nire bizitzaren arratsaldea! Oi arrats aurreko zoriona! Oi itsaso zabaleko portua! Oi ziurrezeango bakea! Zein gutxi fidatzen naizen zuetaz!



Zinez, fidagaitza naiz zuen edertasun amarrutsuarekiko! Irribarre samurregiez fidatzen ez den maitalearen antzeko naiz.

Bere maitea aldentzen duen zelatiak bezala, bere gogorkerian bertan ere samur - honela aldentzen dut nik neugandik ordu zorioneko hau.

Utikan, ordu zorionekoa! Hirekin gogoz kontrako zoriona etorri zaidak! Hemen negok saminik sakonenari itxaroten: - ezgaraian etorri haiz!

Utikan, ordu zorionekoa! Hobe duk han ostatu hartzea - nire seme-alaben artean! Habil bizkor! Eta bedeinka itzak arratsaren aurretik nire zorionaz!

Arratsa hurbiltzen ari duk: eguzkia sartzen ari duk. Hoa - ene zorion! -

Honela mintzatu zen Zaratustra. Eta gau osoa eman zuen bere zorigaitzari itxaroten: baina alferrik. Gauak argi eta isil iraun zuen, eta zoriona bera gero eta hurbilago etorri zitzaion. Goiz aldera, ordea, Zaratustrak barre egin bere bihotzari eta isekati esan zion: "Zoriona atzetik lasterka zetorkidak. Hori emakumeen atzetik lasterka egiten ez dudalako duk. Zoriona, beraz, emakumea duk".

#### EGUZKI-IRTEERAREN AURRETIK

Oi nire gaineko zerua, garbi hori! Hi argi-amildegi! Hiri begira dar-dar egiten diat irrika jainkotiarrez.

Hire garaiera neure burua jaurtiki - hori duk nire sakonera! Gorde nazak heure garbitasunean - hori duk nire errugabetasuna!

Edertasunak estaltzen dik Jainkoa: horrela ezkutatzen dituk heure izarrak. Ez duk hitz egiten: horrela adierazten didak heure jakituria.

Mutu agertu haiz gaur itsaso orroalariaren gainean, hire maitasuna eta hire lotsa agerkunde dituk nire arima orroalariarentzat.

Eder etorri hatzait, heure edertasunean estalirik, mutu mintzatzen hatzait, heure jakiturian ageri.

Oi nola igerri ez nien nik hire arimako lotsakizun guztiei! Eguzkiaren aurretik etorri hintzaidan, bakartiena naizen honengana!

Hasieratik gaituk adiskide: samin, higuin eta hosinean kide gaituk; eguzkia bera ere kide diagu.

Ez diagu elkarrekin hitz egiten, gauza gehiegi baitzekiagu: - batera isiltzen gaituk, batera egiten zioagu irribarre geure jakintzari.

Ez al haiz hi nire suaren argia? Ez al daukak hik nire jakitearen arreba bikia?

Elkarrekin ikasi genian guztia; elkarrekin ikasi genian geure burua gainditu eta hodeirik gabe irribarre egiten: -

- hodeirik gabe begi argietatik eta lekoatako urruntasunetik beherantz irribarre egiten, gure azpian bortxa eta helburua eta errua euria bezala lurrintzen diren bitartean.

Eta bakarrik nenbilenean: noren gose huen nire arima gauetan eta zidor galduetan? Eta mendietara igotzen nintzenean, nor bilatzen nian nik hitaz besterik, mendietan?

Eta nire ibilera eta mendi-igoera guztia: premia bat huen eta baliaezinduaren baliabide: - hegaz egin nahi dik soilik nire nahi osoak, hire barrura hegaz egin nahi dik!

Eta nor nian nik gorroto igarotzen ari ziren hodeiak baino gehiago, eta hi gandutzen hinduen hura baino? Eta neure gorrotoa bera ere gorroto huen, hi gandutzen hinduelako!

Aiher natzaiek igarotzen ari diren hodei horiei, ataizean hurbiltzen diren katu harrapari horiei: kidegoan duguna kentzen zigutek hiri eta niri - bai eta amen esate eskerga mugagabea.

Aiher gatzazkiek igarotzen ari diren hodei bitartekari eta nahastaile horiei: tarteko erre kardari horiei, ez baitiate bedekintzen ikasi, ezta errotik madarikatzen ere.

Nahiago diat neure kupelan sarturik egon zeru goibelaren pean, edo zerurik gabeko amildegian egon, hi, argi-zeru, hodei igarokorrezt gantuturik ikusi baino!

Eta sarritan izan diat tinkatzeko gogoia, tximistaren urre-hari distiranteez, trumoiak bezala, bere galdara-sabelean atabala jo ahal izan dezadan: -

- atabalari amorratu bat izan hire bai eta amena lapurtzen didatelako, oi nire gaineko zerua! garbi hori! argi hori! argi-amildegi hori! - hiri nire baiezeko borobila lapurtzen diatelako.

Izan ere, nahiago dizkiat zarata eta trumoiak eta eguraldiaren afrontua katu-patxada susmagarri eta begiratu hori baino; eta gizonen artean ere zaratarik gabe ibiltzen direnak, tartekari eta erre kardariak gorrotatzen dizkiat gehien eta hodei igarokor ez baiti, zalantzakorrak.

Eta "bedeinkatzen ez dakienak, madarikatzen ikasi behar du!" - zeru gardenetik erori zitzaidan irakatsi garden hau, izar hau gau ilunean ere ageri izaten duk nire zeruan. Baina ni bedeinkatzaile eta baietz-esalea nauk, hi nire ondoan bahago, garbi hori! argi hori! argi-amildegi hori! - amildegi guztietara eramaten diat orduan neure baietz-esate bedeinkatzailea.

Bedeinkatzaile eta baietz-esale bihurtu nauk: eta horretarako burukatu nauk luzaroan, eta borrokalari bat ninduan egunen batean bedeinkatzeko eskuak libre izan ditzadan. Eta nire bedeinkapena hauxe duk: gauza guztien gainetik egotea bakoitzaren zerua bezala, bere teilatu biribila bezala, bere ezkila urdina eta betierako segurtasuna bezala: eta zorionekoa honela bedeinkatzen duena!

Zeren gauza guztiak betierako iturburuan bataiatuak izan baitira eta ongiaz eta gaizkiaz haraindi; ongia eta gaizkia berak ere tarteko itzalak besterik ez dira, nahigabe bustiak eta hodei igarokorrak.

Zinez, bedeinkapena da eta ez biraoa irakasten badut: "Gauza guztien gainetik Halabehar zerua dago, Errugabetasun zerua, Ausa zerua eta Harrandi zerua".

"Ausaz" - hauxe duk munduko nobleziarik aintzinakoena, gauza guztiei bihurtu diedana, helburuekiko morrontzapetik jaregin baitizkiat.

Askatasun hau eta zeru-zoharditasun hau ezarri dut nik ezkila urdin baten gisara, gauza guztien gainetik, irakatsi dudanean, beraien gainetik eta zehar ez dagoela "betierako nahirik".

Nik ezarri dizkiat harrandi eta zorotasun hori nahi haren tokian, irakatsi dudanean: "Ezinezko bakarra dago gauza guztietan - arrazoizkotasuna!"

Egiaz, arrazoi-apur bat, jakituri ale bat, izarrez izar barreiatua - legami hau gauza guztiei nahastu zaie: zorotasunarengatik jakituria nahastu zaie gauza guztiei<sup>64</sup>!

Jakituri apur bat gehiago litekeena da bai; baina ziurtasun zorioneko hau gauza guztietan aurkitu dut: nahiago baitute halabeharraren oinen gainean - dantza egin.

Oi nire gaineko zeru, garbi hori! garai hori! Hauxe duk niretzat hire garbitasuna, betierako arrazoi-armiarmarik eta armiarma-sarerik ez izatea: -

- eta hi haiz niretzat halabehar jainkotiarrentzako dantzalekua, eta hi haiz niretzat jainko-mahaia jainkotiar dado eta dado-jokalarientzat! -

Baina gorritu egiten al haiz? Esanezinezkoren bat esan al diat? Birao egin al diat, bedeinkatu nahi izatean?

Ala bien arteko lotsak gorriarazi ote hau? - Alde egin eta isiltzeko agintzen al didak - eguna argitzera doalako?

Mundua sakona duk: - eta egunak inoiz pentsatu izan duen baino sakonagoa. Denak ezin dezake egunaren aurretik hitza izan. Baina eguna badator; horregatik banatzen gara!

Oi nire gaineko zeru, lotsor hori, irazeki hori! Oi eguzki-irteeraren aurreko zoriona!

Badator eguna: horregatik banatzen gara! -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

BERTUTE TXIKITZAILEAZ

I

Zaratustra berriro lehorreratu zenean, ez zen zuzenean bere mendira eta bere haitzulora joan, baizik eta bide eta galdera ugari egin zituen, honen eta haren berri jasoz, eta honela, bere buruarekin txantxetan esaten zuen: "Hona hemen ibi bat, bere bihurgune ugarietan atzera sorburura doana!" Zeren bere ezaldian gizonaz zer gertatu zen jakin nahi izan zuen: handiago ala txikiago bihurtu zen. Eta egun batean etxe-sail berri bat ikusi zuen; orduan harritu eta esan zuen:

"Zer esan nahi dute etxe horiek? Zinez, inongo arima handik ez ditu hor jarri, bere buruaren sinbolotzat!

Haur inozoren batek atera ote ditu bere jostailu-kaxatik? Beste haur batek sartuko ahal ditu bere kaxan!

Eta gela eta ganbara horiek: gizonak sartu eta irten al daitezke hortik? Andrakila-etxeak iruditzen zaizkit edo litxarrean erortzen diren litxarzaleenak."

Eta Zaratustra gelditu eta gogoetan hasi zen. Azkenean nahigabeturik esan zuen: "Dena txikitu egin da!

Ate txikiak besterik ez dut ikusten nonahi: nire etorkikoa oraindik igaro daiteke, baina - makurtu beharra dauka!

Oi noiz itzuliko ote naiz neure sorterrira, makurtu beharrik ez izateko - txikien aurrean makurtu beharrik ez izateko!" - Eta Zaratustrak hasperen egin eta urrunera begiratu zuen. -

Egun berean eman zuen hitzaldia bertute txikitzaileaz.

## II

Jendearen artetik noa, begiak zabalik ditudala: ez didate barkatzen beren bertuteen bekaitzik ez izatea.

Hozka egiten didate, esaten diedalako: jende txikiak bertute txikiak behar ditu - eta gogor egiten zaidalako jende txikia beharrezko izatea!

Oilarra inoren oilategian bezala aurkitzen naiz hemen, eta horregatik oiloek mokoka egiten didate; halere ez diet oilo horiei higuinik.

Beraiekiko kunplitua naiz, eragozpen txiki batekiko bezala: txikiarekiko ziztakor agertzea, trikuentzako jakinduriatzat daukat.

Guztiek nitaz hitz egiten dute, arratsean suaren inguruan esertzen direnean - nitaz hitz egiten dute, baina ez du inork pentsatzen - nigan!

Hauxe da ikasi dudari isiltasun berria: inguruan sortzen didaten zaratak mantu bat hedatzen du nire pentsamenduen gainean.

Beren artean mar-mar egiten dute: "Zer nahi ote du gugandik hodei ilun horrek? Izurriterik ez diezagula ekarri behintzat!"

Eta arestian tira egin zion emakume batek nigana hurbildu nahi zuen semeari: "Atera itzazue haurrak!" garrasi egin zuen; "begi hauek erre egiten dituzte haur-arimak<sup>65</sup>".

Eztula egiten dute, nik hitz egitean; uste dute eztula aitzakia zaiela haize gogorre - ez dute ezer igertzen nire zorionaren orroaz!

"Ez dugu Zaratustrarentzat astirik" - esaten dute aitzakiatzat; baina zer balio du Zaratustrarentzat "denborarik ez duen" denbora batek?

Eta gorespenaren banaute ere: nola lo egin nezake baina haien gorespenaren gainean? Ziztagerriko zait haien laudorioa: harramazka egiten dit, kendu eta gero ere.

Eta hau ere ikasia dut beraien artean: laudatzen duena itzultzen duelakoan dago, baina zinez gehiago eman diezaioten nahi du!

Galdegin nire oinei laudatu eta erakartze-era hau atsegin al duten! Zinez, konpas eta tikitaka horren arabera ez dute ez dantzarik egin, ez geldi egon nahi ere.

Bertute txikiantz erakarri nahi izan naute eta bera laudatu; zorion txikiaren tikitakara makurrarazi nahi izan dizkidate oinak.

Jendearen artetik noa, begiak zabalik ditudala: txikiago bihurtu dira eta gero eta txikiago bihurtzen ari dira: - zorionaz eta bertuteaz duten irakatsiaren ondorioa da hau.

Zeren beren bertutean ere apalak baitira -erosotasuna nahi baitute. Erosotasunarekin bertute txikia soilik etortzen da ongi.

Beren erara pausuak ematen eta aurrera egiten ere ikasten dute: herrenka ibiltzea deitzen diot nik horri.- Horrela presa duen guztiari oztopo bihurtzen zaizkio.

Eta beraietako askok aurrera egiten dute eta atzera begiratzen, lepo zurrunaz: horrelakoak gogara hartzen ditut aurrean.

Oinek eta begiek ez diote elkarri gezurrik esan behar, ezta gezurra ukatu ere. Baina gezur ugari izaten da jende txikiaren artean.

Beraietako batzuek nahia dute, baina gehienek nahigarri izan nahi dute. Beraietako batzuk benetakoak dira, baina gehienak aktore txarrak.

Badira jakinaren gaineko aktoreak eta gogoz kontrako aktoreak - benetakoak beti bakanak dira, benetako aktoreak batipat.

Gizonezko gutxi dago hemen: horregatik gizontzen zaizkie emakumeak. Zeren behar adina gizon denak soilik askatuko baitu emakumearengan emakumea.

Eta haxe da beraien artean aurkitu dudana azaluskeriarik txarrena: agintari direnek ere zerbitzarien bertuteak simulatzen dituzte.

"Ni zerbitzari, zu zerbitzari, gu zerbitzari" - honela errezatzen dute agintari azaluts hauek - eta ai, lehen jauna lehen zerbitzaria besterik ez denean!

Ai, beraien azaluskerietan ere errebelatu da hegaz nire jakiminezko begirada; eta ongi igerri diet beren euli-zorion guztia eta beren furrundara leiho-beira eguzkitsuen inguruan.

Zenbat ontasun, hainbat ahultasun ikusten dut. Zenbat zuzentasun eta erruki, hainbat ahultasun.

Biribil, zuzen eta onbera dira elkarrekiko, hondar-aletxoak biribil, zuzen eta onbera diren bezalaxe hondar-aletxoekiko.

Otzanki zorion txiki bat besarkatzea - horri deitzen diote "etsipena"! Eta aldi berean zeharka begiratzen diote beste zorion txiki berri bati.

Barrenean haxe da bakarrik batez ere nahi dutena: inork gaitzik egin ez diezaien.

Horregatik ongi etortzen dira guztiekin eta on egiten diote edonori.

Baina hau koldarkeria da: nahiz eta "bertute" deitu.-

Eta zakar hitz egiten dutenean, jende txiki hauek: erlastasuna besterik ez dut entzuten nik - edozein haize-boladak erlasten ditu.

Bizkorrak dira eta beraien bertuteek atzamar bizkorrak dituzte. Baina ukabilak falta zaizkie, beraien atzamarrek ez dakite ukabilen atzean ezkutatzen.

Bertute da beraientzat otzantzen eta bezatzen duena: horrela bihurtu dute otsoa txakur, eta gizona bera gizonaren etxabererik hoberena.

"Guk erdian jartzen dugu geure aulkia" - haxe esaten dit beraien irribarretxoak - "eta hil-zorian dauden ezpatari eta txerri asetuengandik tarte berdina".

Baina hau - erdipurdikeria da: nahiz eta neurritasuna deitu. -

### III

Herri honen erditik igaro eta eta hitz banaka batzuk jaulkitzen ditut: baina hauek ez dakite ez hartzen eta ez gordetzen.

Harritu egiten zaie ni atsegin eta bizioen aurka biraoka aritzera ez etorri izana; eta zinez, ez naiz litxarreraren aurka erne jartzera ere etorri!

Harritu egiten zaie ni beren bizkortasuna zorroztu eta arazteko prest ez egotea: dagoeneko nahikoa jende bixkor ez balute bezala, zeinen ahotsek arbelapitzek bezala kirrinka egiten baitidate belarrietan!

Eta oihu egiten dudanean: "Bota itzazue aldean darabiltzazuen deabrutxo koldar horiek, beti prest baitaude negar-muzinka aritzeko eta eskuak tolestatu eta adoratzeko." Orduan oihu egiten dute: "Zaratustra jainkogabea da".

Eta batipat beraien etsipen-predikariek egiten dute oihu - baina hain zuzen beraiei nahi izaten diet belarrira garrasi egin: bai! Zaratustra naiz ni, jainkogabea!

Etsipen-predikariok! Txikieria eta eritasuna eta ezkabia dagoen edonon agertzen dira arrastaka zorriak bezala; eta nazkak soilik eragozten dit zanpatzea.

Tira! Hauxe da beraien belarriei eskaintzen diedan predikua: neu naiz Zaratustra, jainkogabea, eta hau dioena: "Nor da ni baino jainkogabeago, beraren irakatsiaz goza dezadan?"

Zaratustra naiz ni, jainkogabea: non aurkituko dut neure kidekorik? Eta nire kideko beren buruari beren nahia ematen dioten, eta etsipen oro baztertzen duten guztiak dira.

Zaratustra naiz, jainkogabea: halabehar oro egosten dut neure eltzean. Eta egosita dagoenean soilik onartzen dut neure jaki bezala.

Eta zinez, halabehar bat baino gehiago iritsi zait arranditsu: baina nire nahia artean arranditsuago mintzatu zaio - eta orduan belauniko jarri da erreguka-

- erreguka, ostatu eta bihotza nigan aurkitzeko, lausengari esanez: "Hara, Zaratustra, nola adiskidea soilik datorren adiskidearengana!" -

Baina zergatik hitz egin, inork ez baditu nire belarriak! Horregatik oihu egin nahi dut lau haizetara:

Gero eta txikiago bihurtzen ari zarete, jende txikia! Apurtzen ari zarete, erosoak! Porrot egitera zoazte -

- zeuen bertute txiki ugariengatik, zeuen ez-egite txiki ugariengatik, zeuen etsipen txiki ugariengatik!

Gehiegi barkatzea, gehiegi amore ematea: hauxe duzue zeuen ondarea! Baina zuhaitzak handi hazteko harkaitz gogorren inguruan sustrai gogorrak egin behar ditu!

Zuek egiteke utzitakoak ere ehoten du giza etorkizunaren ehuna; eta zuen ezereza ere armiarma-sarea da eta armiarma bat, etorkizunaren odolaz bizi dena.

Eta zerbait hartzen duzuenean, lapurreta egitea bezala da, bertutetsu txikiok; baina alprojen artean ere esaten du ohoreak: "Lapurreta egiterik ez dagoenean soilik ebatsi behar da".

"Eman egiten da" - hauxe da etsipenaren beste irakatsi bat. Baina nik esaten dizuet, erosoak: hartu egiten da eta gero eta gehiago hartuko da zuengandik!

Ai, zeuen erdi-nahi guzti horiek zuengandik baztertu eta nagitasunerako bezain prest egongo bazinete egintzarako!

Ai, nire hitza ulertuko bazenute: "Egizue beti, nahi duzuen - baina izan aurrena nahi izateko gauza direnetakoak!"

"Maita ezazue hurkoa zeuen burua bezalaxe - baina aurrena izan zaitezte norbere burua maitatzen dutenetakoak"

- maitasun handiarekin maitatu, arbuio handiarekin maitatu!" Honela mintzatu zen Zaratustra, jainkogabea. -

Baina zertan ari naiz hitz egiten, inork nire belarriak ez dituen tokian! Oraindik goizegi da niretzat hemen.

Neure buruaren aitzindari naiz jende honen artean, neure buruaren oilarite karrika ilunetan zehar.

Baina beraien ordua badator! Eta nirea ere badator! Orduz ordu ari dira txikiago, behartsuago, antzuago bihurtzen - belar gaixoa! lur gaixoa!

Eta laster egongo dira nire aurrean belar eta galtzu iharra bezala, eta zinez! beren buruaz nekaturik - eta uraren egarritz baino suarenaz areago!

Oi, tximistaren ordu bedeinkatua! Oi eguerdiko misterioa! Egunen batean su jariakor bihurtuko ditut eta suzko mihidun iragarle<sup>67</sup>: -

-egunen batean suzko mihiekin iragarri beharko dute: Badator, hurbil dago, eguerdi handia!

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### OLIAMENDIAN

Negua, ostari txar hori, daukat etxean sartua; ubelduak dauzkat eskuak bere adiskidetasunezko esku-ematez.

Ohore egiten diot ostari txar honi, baina gogoz uzten dut bakarrik. Gozoz ihes egiten diot; eta ongi lasterka eginez gero, ihes egiten zaio!

Oin beroekin eta pentsamendu beroekin noa lasterka haizea bare dagoen tokira - oliamendiaren zoko eguzkitsura.

Bertan barre egiten dut neure ostari zorrotzaren lepotik eta eskertu egiten diot, gainera, etxeko euliak uxatzea eta zarata txiki ugari isiltzea.

Ez baitu onartzen eltxo bakar baten burrundara ere; eta karrika bera ere hain bakarti uzten du, non ilargiak ere bertan gauez sartzeari beldurra baitio.

Ostari gogorra da - baina nik ohore egiten diot eta ez otoitz, samurrek bezala, suaren jainkoizun sabelaundiari.

Nahiago izaten dut apur batean hortza hortzaren kontra edukitzea jainkoizunak gurtzea baino! - hala nahi izaten du nire adiurreak. Eta batez ere aiher natzaie suaren jainkoizun lurrunjario eta lizundu guztiei.

Nik maite dudana, hobeto maite izaten dut neguan udan baino; hobeto iseka egiten diet neure etsaiei eta bihotzezago, negua nire etxeaz jabetu denetik.

Bihotzez, zinez, nahiz eta arrastaka oheratzen naizen: - bertan barreka eta ilarraina aritzen da nire zorion uzkurtua; nire gezurretako ametsek ere barreka aritzen dira.

Ni - arrastakari bat? Inoiz ez naiz neure bizitzan ahaltsuen aurrean arrastaka ibili; eta gezurrik esan badut, maitasunez esan dut. Horregatik nago pozik negu-ohean ere.

Ohe behartsuak gehiago berotzen nau ohe aberatsak baino, zeren zelati bainago neure pobreziaz. Eta neguan izaten zait leialen.

Gaiztakeria batez hasten dut egun bakoitza, eta bainu hotz batez iseka egiten diot neguari: horrek sumindu egiten du nire etxelagun zorrotza.

Gogoz aritzen naiz argizarizko kandelatxo batez zirika ere: azkenean zerua inular hitsetik irtenaraz diezadan.

Baina goizaldera izaten naiz bereziki gaiztoa: lehen orduan, putzuetan suilek kirrinka egin eta zaldiek karrika grisetan irrintzi egiten dutenean: -

Artega egoten naiz itxaroten orduan, azkenean zeru argia ager dadin, elurrezko bizarra duen negu-zerua, agure buruzuria -

- negu-zerua, isila, sarritan bere eguzkia isilpean edukitzen duena!

Agian beragandik ikasi ote dut neure isiltasun luze eta argitsua? Edo nigandik ikasi ote du berak? Edo gutako bakoitzak bere aldetik aurkitu ote du?

Gauza on guztiek mila sorburu dituzte - gauza on ilarrain guztiek atseginez salto egiten dute izatera: nola egin zezaketen - behin bakarrik!

Gauza on ilarrain da isiltasun luzea ere eta negu-zeruak bezala begi biribileko aurpegi argitsutik begiratzea: -

-eta berak bezala isilpean bere eguzkia eta bere eguzki-nahi menperaezina edukitzea: zinez, arte hau eta negu-ilarraintasun hau ongi ikasiak ditut!

Nire gaiztakeria eta arte kuttunena da nire isiltasunak ikasia duela isiltasunaz bere burua ez salatzen.

Hitzekin eta dadoekin zarata eginez amarru egiten diet neure zaindari handiosei: barrandari zorrotz horiei guztiei eskintxo egin behar diete nire nahi eta xedeak.

Inor nire barrenean eta azken nahian usnaka ibil ez dadin - horretarako asmatu dut neure isiltasun luze argitsua.

Bizkor bat baino gehiago aurkitua dut bai: bere aurpegia estaltzen eta ura arretzen zuena, inork beronen bitartez eta zoruan ikus ez zezan.

Baina hain zuzen ere halakoari fidagaitz bizkor eta maltzurak etortzen zitzaizkion: eta hain zuzen ere arrainik ezkutuena harrapatzen zioten!

Baina argiak, ernaiak, gardenak - horiek dira niretzat isilik bizkorrenak: hainbestekoa dute sakonera, non urik argienak ere ezin duen - salatu.-

Oi negu-zero isil bizartzuria, gainean haukadan buruzuri begibiribila! Oi nire arima eta ilarraitasunaren sinbolo zerutarra!

Eta ez ote dut ezkutatu beharko, urrea irentsi duenaren modura - arima ireki ez diezadaten?

Makuluak erabili behar ote ditut nire zango luzeei errepara ez diezaien - inguruan ditudan bekaizti eta negarti guzti horiek?

Arima keeztatu, pipitu, maiztu, garraztu eta herdoildu horiek - beraien bekaitzak nola eramanez nire zoriona?

Horregatik erakusten dizkiet neure gailurretako izotza eta negua soilik - eta ez nire mendiak nola lotzen dituen eguzki-gerriko guztiak!

Nire negu-ekaitzen txistuak soilik entzuten dituzte: eta ez nola ibiltzen naizen itsaso epelaren gainetik, hego-haize jorantsu, astun eta beroa bezala.

Nire halabehar eta ezbeharrez errukitzen dira: - baina nire hitzak esaten du: "Utz halabeharrari niregana etortzen: haurtxoa bezain errugabea da!"

Nola eramango lukete nire zoriona, ezbeharrak eta negu-lazeriak eta hartzuri-txanoak eta elur-zeruzko beloak neure zorionaren gainean ezarriko ez banitu!

-baldin ez banintz gupituko beren errukiaz: bekaizti eta negarti horien errukiaz!

-baldin nerau ere hasperenka eta hotzikaratan egongo ez banintz haien aurrean eta egonarriz beraien errukitan biltzea onartuko ez banu!

Hauxe da nire arimaren ilarraitasun zuhurra eta onginahia, beraien negua eta izotz-zurrunbiloak ez ezkutatzea; ospelak ere ez dizkie ezkututzen.

Baten bakardadea gaixoaren ihesa da; bestearen bakardadea gaixoarengandiko ihesa da.

Entzun nazatela neguko hotzaren ondorioz hasperenka eta hotzikaratan nola nagoen, inguruan ditudan alproja ezkel gizajo guzti horiek! Hasperen eta hotzikara horiekin beren gela berotuetatik ere ihes egiten dut.

Nitaz errukitu eta nirekin batera hasperen egin dezatela nire ospelengatik: "Ezagueraren izotzetan gu ere izoztu egingo gaitu horrek!" - honela kexatzen dira.

Bitartean oin beroekin neure oliamendian lasterka nabil alde batetik bestera: neure oliamendiko zoko eguzkitsuan kantatzen eta erruki oroz iseka egiten ari naiz. -

Honela kantatu zuen Zaratustrak.

#### AURRERA JOTZEAZ

Honela, herri eta hiri ugaritatik astiro igaroz, zetorren Zaratustra bere mendira eta bere haitzulora itzulinguruak eginez. Eta hara, supituki hiri handi baten sarbidera iritsi zen: bertan zoro bat atera zitzaion, bitsa zeriola eta besoak zabalik eta bidea itxi zion.

Herriak "Zaratustraren tximinoa" deitzen zion zoro hura bera zen: zeren ohartuak baitzizkion haren hitz egiteko esamolde eta doinua, eta gogara ustiatzen zion beraren jakituriaren altxorra. Zorua honela mintzatu zitzaion Zaratustrari:

"Oi Zaratustra, hemen dago hiri handia: hemen ez duzu ezer bilatzeko eta bai dena galtzeko.

Zergatik zatoz basatza honetatik pasatzera? Erruki zaitez zeure oinaz! Hobe duzu hiri-sarbidean ttu egin eta - bira ematea!

Hau ifernua da bakarti-pentsamenduentzat: hemen pentsamendu handiak bizirik irakin eta txiki egin arte egosten dira.

Hemen sentimendu handi guztiak endekatzen dira: hemen sentimendutxo kalaxken kalakak besterik ez dira entzuten!

Ez al duzu dagoeneko izpirituaren hiltegi eta txiribogetako usaina aditzen? Ez al dario hiri honi hiltegian hildako izpirituaren lurrin-lamara?

Ez al dituzu arimak zintzilik ikusten zarpail zikin maskalak bezala? - Eta honelako zarpailez egunkariak egiten dituzte!

Ez al duzu entzuten, nola hemen izpiritua hitz-joko bihurtzen den? Kontrakarrezko hitz-arrea oka egiten du! - Eta oraindik egunkariak egiten dituzte hitz-arre horretaz.

Elkar axatzen dute baina nora jakin gabe. Elkar berotzen dute baina zergatik jakin gabe. Arran-hotsa ateratzen diote beren latorriari eta tintin-hotsa beren urreari.

Hotzez daude eta beroa bilatzen dute pattarretan; berotzen dira eta freskura bilatzen dute izpiritu izoztuetan; guztiak enul eta jendearen iritzira menperaturik daude.

Atsegin eta bizio guztiak eroso aurkitzen dira hemen; baina badira bertutetsuak ere hemen, soldatapeko bertute adeitsu ugari ere bada: -

Bertute adeitsu ugari idatzesku eta egonarri handikoak, paparreko gurutzetxoz eta lastoz beteriko alaba ipurgabez bedeinkatuak.

Hemen debozio asko ere badago eta ipur-mihazketa sineskor asko, zurikeria asko armaden Jainkoaren aurrean<sup>68</sup>.

“Goitik” jaulkitzen baitira gurutzetxoak eta listu-palardak graziazkoak; gorantz jotzen du gurutzetxorik gabeko papar orok.

Ilargiak badu bere gortea eta gorteak baditu bere ilargi-joak: baina halako gortetik datorren edozer otoitz egiten du eskale-herriak eta eskale-bertute adeitsu guztiek.

“Ni zerbitzari, hi zerbitzari, gu zerbitzari” - honela otoitz egiten dio printzeari bertute adeitsu orok: gurutze merezia azkenik papar maskalari datxekion!

Baina ilargiak lurtarra den ororen inguruan birak ematen ditu: honela printzeak ere ematen ditu birak denetan lurtarrena denaren inguruan:- dendarien urrearenean.

Armaden Jainkoa ez da urre-barren Jainkoa; printzea da pentsatzaile, baina dendaria - arteztaile!

Zugan argia eta indartsua eta ona den guztiarengatik, oi Zaratustra! Ttu egiozu dendari-herri honi eta bira emazu!

Hemen odol oro nagi, geldo, apartsu dabil zainetan barna: ttu egiozu hiri handiari, zeina erreus guztiak batera irakiten dauzkan zabor den!

Ttu egiozu arima erorien eta papar maskalen hiriari, begi sukartu, atzamar likitsenari -

- sarkoien hiriari, lotsagabe, idazle kaxkar, karrankari, handinahi neurrigabeenari: -

- ustela, maskala, goibela, irola, pipitua, zauritua, zornatua batera biltzen duenari: -

ttu egiozu hiri handiari eta bira emazu!" - -

Hemen, ordea, Zaratustrak eten egin zuen bitsa zerion zoroa eta ahoa estali zion.

"Isil hadi behingoz!" oihu egin zion Zaratustrak "aspaldion hire hitz eta manerek nazka ematen zidatek!

Zergatik egon haiz hain luzaroan zingiraren aldamenean, herori ere igel eta apo bihurtu arte?

Ez al zebilek hire zainetan barna ere zingira-odol nagi apartsua, korroka eta biraoka egiten irakatsi diana?

Zergatik ez haiz oihanera joan? Edo lurra goldatu? Ez al zegok itsasoa uharte berdez beterik?

Destaina zioat hire destainari; eta gaztigu egiten badidak - zergatik ez diok heure buruari gaztigu egin?



Maitasunetik soilik irten behar zaidak hegaz nire destaina eta nire txori gaztigatzailea: baina ez zingiratik! -

Nire tximino deitzen diate hiri, zoro bits-jarioa: baina nik nahiago diat txerri kurrinkari deitu -kurrinkaka alferrik galtzen duk nire zorotasunaren laudorioa bera ere.

Zer izan duk lehendabizikoz kurrinka eragin diana? Inork behar adina ez lausengatu izana: - horregatik kokatu hintzen satsadura honen alboan, kurrinka ugari egiteko aitzakia izatearren -

- mendeku ugari hartzeko aitzakia izatearren! Mendeku besterik ez dituk, zoro harroputza, hire bits-jario guztiak, ongi antzeman zioat!

Baina hire zoro-mihiak kalte egiten zidak niri, baita arrazoa duan hartan ere! Eta Zaratustraren hitzak ehun bider arrazoa izango balu ere: hik nire hitzarekin ez huke inoiz - arrazoirik izango!"

Honela mintzatu zen Zaratustra; eta begiratu zion hiri handiari, hasperen egin eta luzaroan isilik egon zen. Azkenik honela hitz egin zuen:

Niri ere nazka ematen dit hiri handi honek, eta ez zoro honek soilik. Ez batagan ez besteagan ez dago zer ondurik, ez zer hondaturik.

Ai ene, hiri handi hau! - Nahiago nuke nik ikusiko banu erraustuko duen sugar-meta!

Zeren sugar-meta horiek eguerdi handiaren aurretik etorri behar baitute<sup>69</sup>. Baina honek badu bere garaia eta bere patua. -

Irakatsi hau ematen diat, zoroa, adio esatean: maitatzerik ez dagoen tokian - aurrera jo beharra zego! -

Honela mintzatu zen Zaratustra eta zoroa eta hiri handia utzirik aurrera jo zuen.

FEDEGALDUEZ

I

Ai ene, dagoeneko dena zimel eta gris al dago, arestian belardi honetan berde eta nabar zegoena? Zenbat itxaropen-ezti eraman dudan hemendik neure erlauntzetarako!

Bihotz gazte guzti hauek dagoeneko zaharturik daude - eta ez zaharrak direlako, baizik eta nekatu, arrunt, paustel direlako: - "berriro deboziotsu bihurtu gara" diote.

Oraindik arestian ikusten nituen goizean goiz irteten oin kementsuekin lasterka egiteko: baina ezagutzearen oinak nekatu egin dira eta orain goizeko kemena bera ere belzten ari dira!

Zinez, batek baino gehiagok behiala artaziak egiten zituen zangoekin dantzarien modura, nire jakiturian dagoen barreak keinuak egiten zizkion berari: - orduan pentsatzeari ekin zion. Eta makurturik ere ikusia dut - gurutzearen atzetik.

Argia eta askatasunaren inguruan hega-zafraka ikusi ditut behiala eltxoen eta poeta gazteen modura. Zaharrago eta hotzago: eta orain sutondoko agure goibel eta marmarti.

Agian bihotzak huts egin ote die, bakardadeak baleak bezala irentsi nauelako<sup>70</sup>?

Ataizean edukiko ote lituzkete belarriak nire turutots eta aldarrikari-oihuak entzuteko irrikan?

- Ai! Gutxi izaten dira beti beren bihotzetan kemen eta harrotasun luzea izaten dituztenak; eta horrelakoengan izpirituak ere egonarritsu irauten du. Enparaduak, ordea, koldarrak izaten dira.

Garaitikoak: beti izaten dira gehienak, egunerokoak, soberakinak, alferrikakoak - guzti horiek koldarrak dira! -

Nire etorkikoa denari nire etorkiko bizipenak aterako zaizkio bidera: honela, beren lehen lagunak gorpuak eta bufoiak izango dituzte.

Beren bigarren lagunak, ordea - beren fededunak deituko dira: multzo bizi bat, maitasun asko, zorotasun asko, gurtza bizarpeitu asko.

Ez die fededun horiei bere bihotza lotu behar nire etorkikoa denak; eta ez du udalehen eta belardi nabar horietan sinetsi behar giza etorki iheskor eta koldarra ezagutzen duenak!

Besterik ahal balezate, besterik nahiko lukete ere! Erdipurdizkoek osotasun guztia hondatzen dute. Hostoak ihartzen direlako - zergatik kexuka ari!

Utz horiei joaten eta jausten, oi Zaratustra, eta ez kexatu! Hobe duk haize furrundariz jotzea beraien artean -

- orbel horiek jotzea, oi Zaratustra: iharturiko guztia higandik lehenbailehen alden dadin! -

## II

"Berriro deboziotsu bihurtu gara" - honela aitortzen dute fedegaltu horiek; eta beraietako asko koldarregiak dira aitortzeko ere.

Horiei begietara begiratzen diet - horiei aurpegira eta lotsaz gorritzeko esaten diet: berriro erreztatzen duten horietakoak zarete!

Baina lotsakizuna da erreztatzea! Ez guztientzat, baizik niretzat eta hiretzat, eta bere kontzientzia buruan ere duenarentzat. Hiretzat lotsakizuna duk erreztatzea!

Ongi dakik: barruan duan deabru koldarrak, gogara eskuak tolestatu eta eskuak altzoan ezarri eta erosoago sentitu nahi lukeen horrek: - deabru koldar horrek esaten dik "Baduk Jainkoa!"

Horrek, ordea, artizuen etorkiko bihurtzen hau, argiak inoiz bakean uzten ez dituen horietako; orain egunero burua sakonago sartu behar duk gau eta gandutan!

Eta zinez, ongi hautatu duk ordua: izan ere, oraintxe bertan, gau-hegaztiak berriro hegaz hasiak baitituk. Etorri duk jende artizu guztiaren ordua, "jai egiten ez deneko" arrats - eta jai-ordua.

Aditu eta usnatu egiten diat: ehiza eta elizbira egiteko ordua etorri zaiok, baina ez ehiza izua, baizik eta ehiza otzan, elbarri, usnakaria poliki ibiltzen eta poliki erreztatzen dutenei dagokiena -

- azaluts arimatsuen ehizerako: bihotz-satarte guztiak berriz ere prest zeudek! Eta gortina jasotzen dudan tokian, bertan gau-tximeleta bat oldartzen duk kanpora. Beste gau-tximeletatxo batekin kuzkurturik ote zegoen bada han? Zeren edonondik aditzen baitut elkarte txiki kuzkurtuen usaina; eta isilpeko bileratxoak dauden tokian, bertan sortzen dira errezatzaile-

-anaidiak eta errezatzaile-anaidien sunda.

Arrats luzeak ematen dituzte elkarrekin eserita eta esanez: "Izan gaitezen berriro haurtxoak bezalakoak<sup>71</sup> eta 'Jainko maitea' esan dezagun!" -ahoa eta urdaila hondaturik dituztela konfitari deboziotsuengatik.

Edota arrats luzetan egoten dira gurutze-armiarma maltzur eta zelatariren bati begira, zeinak armiarme maltzurtasuna predikatzen baitie eta "Gurutzepean sarea irutea komeni da!" irakatsi ere bai.

Edo egunean zehar zingiraren ondoan esertzen dira kanaberarekin eta horrenbestez sakonak direla uste dute; baina arrainik eza dagoen tokian arrantzan egiten duenari, nik ez diot axaleko ere deitzen!

Edo debozioz eta pozkarioz ikasten dute koblakariren baten etxean harpa jotzen, zeina gogoz sartuko bailitzateke neskatala gazteen bihotzean: - zeren nekaturik baitago atso zahar eta berauen laudorioez.

Edo izu-hotzikarak ikasten dituzte erdi-zoro jakintsuren batekin, zeina gela ilunean baitago itxaroten izpirituak noiz agertuko - eta bitartean izpirituak erabat alde egiten dio bertatik!

Edo soinu-jole kirrinkari zahar eta errumes bati entzuten diote, zeinak haize goibele-tatik ikasi baitzuen doinuen goibeltasuna; orain haizearen arabera txistu jotzen du eta doinu goibelez predikatzen du goibeltasuna.

Eta beraietako batzuk gauzain bihurtzeraino iritsi dira: eta adarrari putz egiten eta gauez errondan ibiltzen besterik ez dakite, aspaldidanik lotan dauden gauza zaharrak iratzarriz. Gauza zaharrei buruzko bost hitz entzun nituen atzo gauean lorategiko hormen ondoan: gauzain zahar ihar goibeldu horiengandik zetozen.

"Aita izateko ez duk behar adina seme-alabez arduratzen: gizon-aitek hobeto egiten ditek!" -

"Zaharregia duk! Dagoeneko ez duk bat ere bere seme-alabez arduratzen" - honela erantzun zuen beste gauzainak.

"Baina ba al dik gero seme-alabarik? Inork ezin dik egiaztatu, berak egiaztatu ezik! Aspaldidanik nahi izan diat benetan egia zta dezan".

"Egiaztatu? Berak zerbait inoiz egiaztatu izan balu bezala! Zail zaiok egiaztatzea; sinets diezaizoten egiten dizkik benetako ahaleginak".

"Bai! Bai! Fedeak zorioneko egiten dik, beragan duen fedeak. Honelakoa duk zaharren etorkia! Horrela gertatzen zaiguk guri ere!" -

- Honela mintzatzen ziren elkarren artean bi gauzain zahar eta artizuak, eta berehala putz egiten zieten asaldaturik beren txilibituei: hara zer gertatu zen atzo lorategiko murruean ondoan.

Baina bihotza barrez bihurriturik neukan nik eta leher egin nahi zuen eta ez zekien norantz eta diafragma hondoratu zitzaidan.

Zinez, haxe izango da nire heriotza, barrez itotzea, asto hordituak ikusi eta gauzainak Jainkoaz zalantzan entzutean.

Ez al da aspaldian pasea honelako zalantzetarako garaia? Nori zaio oraindik zilegi horrelako gauza zahar loakartu artizuak iratzartzea!

Jainko zaharren azkena aspaldi izan zen: eta zinez, jainko-azken on eta alaia izan zuten! Ez ziren heriotzara arte "inulartu" - hori gezur biribila da! Aitzitik: heriotzaratu baziren - barrezka izan zen!

Gertaera hori hitzik jainkogabeena Jainko batengandik beragandik atera zenean izan zen: "Jainko bakarra zegok! Eta ez duk beste jainkorik izango nire ondoan72!" -

- Jainko zahar eta zelati batek honela bota zuen: -

Eta jainko guztiek barre egin zuten orduan, beren aulkietan asaldatu eta oihu egin zuten: "Jainkotasuna ez al dago hain zuzen jainkoak izatean eta ez Jainko bakarrik?"

Entzuteko belarririk duenak, entzun dezala. -

Honela hitz egin zuen Zaratu-strak maite zuen eta "Behi Nabarra" zeritzon hirian.

Handik bi eguneko bidea besterik ez zuen bere haitzulora eta bere piztiengana itzultzeko; eta arima pozkariotu egiten zitzaion itzulera hurbil zuelako. -

#### ETXERAKO ITZULERA

Oi bakardadea! Hi, ene sorterri, bakardadea! Luzaroegi bizi izan naun izu gisara atzerri izuan, malkotan hiregana itzul ez nadin!

Orain, orde, mehatxu egidan atzamar hutsez, amek bezala, irribarre egidan amek egiten duten bezala, eta haxe besterik ez zaidan esan: "Nor izan huen, ekaitz-haize baten gisara behiala zalapartaka nigandik aldendu zena?" -

- adio esatean oihu egin zuena: luzaroegi egon naun bakardadearen ondoan eserita, isilik egoten ere ahaztu egin zaidan! Hori - orain ikasiko huen agian?

Oi Zaratu-str, dena zekiat: eta askoren artean hi abandonatuago egon haizela hi, heu bakarra, nire ondoan baino gehiago!

Gauza bat duk abandonua eta beste gauza bat bakardadea: Hau - orain ikasi duk! Eta baita gizonen artean beti izu eta arrotz izango haizela ere:

- izu eta arrotz maitatzen bahaute ere: zeren ezer baino lehenago barkamena hartu nahi baitiate!

Baina hemen heure sorterrian eta etxean hago; hemen dena esan dezakek eta heure arrazoiak agerian jarri, ezer ez baita hemen lotsatzen sentimendu ezkutuko edo gogortuez.

Hemen gauza guztiak laztanka datoz zure mintzora eta losintxa egiten dizute: zure bizkar gainean zaldika ibili nahi baitute. Sinbolo guztien gainean zoaz zu hemen zaldika egia guztietarantz.

Zinki eta finki hitz egin diezaiekezu hemen gauza guztiei: eta zinez, laudoriotzat hartzen dute beren belarriek - norbaitek gauza guztiei zuzen hitz egitea!

Baina zeharo besterik da abandonaturik egotea. Gogoan al duk, Zaratustra? Hire txoriak bere adarretik garrasi egin zianean, oihanean hengoela, nora joan zalantzatan, gorpu baten ondoan: -

- hik esan huen: nire animaliek gida nazatela! Arrisku gehiagorekin aurkitu izan naiz gizonen artean, animalien artean baino: - Hura huen abandonua!

Eta gogoan al duk, oi Zaratustra? Heure uhartean eserita hengoela, pitxar hustuen artean ardo-iturri baten modura, ematen eta banatzen, egarrituen artean eskaintzen eta eskuratzen:

- harik eta azkenean egarritu bakarra izan hintzen arte moskortuen artean eta gauetan kexuka aritzen hintzen "hartzea ez al da ematea baino zorionekoago? Eta lapurtzea ematea baino oraindik zorionekoago?" -Hura huen abandonua!

Eta ez al duk gogoan, oi Zaratustra? Hire ordurik isilena etorri eta heure buruagandik urundu hinduenean, xuxurlaketa makur batez esan zianean: "Mintza hadi eta leher hadi!" -

- berak hire itxarote eta isiltze guztia gaitzi egin eta hire kemen umila umiltzean: Hura huen abandonua!" -

Oi bakardadea! Hi, ene sorterri, bakardadea! Zeinen zoriontsu eta samurki hitz egiten didan hire mintzoak!

Ez zioagu ezer elkarri galdetzen, ez zioagu elkarri ezer egozten, zabalik goaz elkarrekin ate zabalduetan barna.

Zeren hi zabalik eta argi baitago; eta orduak ere oin arinagoz igarotzen dituk hemen. Ilunpean nekezago eramaten duk denbora argitan baino.

Hemen izaki ororen hitzak eta hitz-gordailuak irekitzen zaizkit: izaki orok hitz bilakatu nahi du hemen, bilakatze orok nigandik hitz egiten ikasi nahi du hemen.

Baina han behean - han hitz egite oro alferrik da! Han ahaztea eta aurrera jotzea da jakituriarik hoberena: Hau - orain ikasia dut!

Gizonen artean dena jasotzen ikasi nahi duenak, dena erasotzen ikasi beharko du. Baina horretarako esku garbiegiak ditut.

Ez dut beraien arnasa arnasteko gogorik; ai, hain luzaro beraien zarata eta arnasa txarraren artean bizi izan naizela ere!

Oi nire inguruko isiltasun zorionekoa! Oi nire inguruko usain garbiak! Oi nola hartzen duen hasperen sakonez isiltasun honek arnasa garbia! Oi nola entzuten duen isiltasun zorioneko honek!

Baina han behean - denak hitz egiten du eta ezer ez da entzuna. Nahiz eta norbaitek bere jakituria kanpai-hotsez adierazi: dendariek diruaren txintxinaz estaltzen dute!

Beraien artean hitz egitea da dena; inork ez daki ulertzen. Dena erortzen da uretara, ezer ez da honez gero hosin sakonetara erortzen.

Dena hitz egitea da beraiangana, ez da ezer garatzen eta bururatzen. Dena kakaraka da, baina nork nahi du oraindik habian eseri eta arraultzak berotu?

Dena da hitz egitea beraian, dena hitzez birrindurik geratzen da. Eta atzo bertan artean gogorregi zena denborarentzat eta beraien hortzetarako: gaur zintzilik dago gaurkoen muturretan triskaturik eta xehaturik.

Dena da hitz egitea beraian, dena geratzen da agerian. Eta behiala misterio zeritzana eta arima sakonen ezkutuko, gaur egun karrika-turutalarien eta beste berritsu batzuen esku dago.

Oi giza izatea, harrigarri halakoa! Karrika ilunetako zarata! Orain berriro nire atzean hago: - nire arriskurik handiena atzean dago!

Barkatzean eta errukitzean egon da beti nire arriskurik handiena; eta gizaki orok barkatu eta pairatzea nahi du.

Egia eradukiekin, zoro-eskuaz eta bihotz zoratuaz eta errukizko gezurtxo ugarirekin: - honela bizi izan naiz beti gizonen artean.

Haien artean esertzen nintzen mozorroturik, neure burua ez ezagutzeko prest beraiek eraman ahal izateko, eta neure golkorako pozik esanez "Zorua, gizonak ezagutzen ez dituan hori!"

Gizonak ez ezagutzeko, beraien artean bizitzea da onena: aurretalki gehiegi dago gizon guztiengan - ez dute zereginik beraien artean urrunera begiratzen, urruna bilatzen duten begiek!

Eta haiek niri ez-ezagutuarena egiten zidatenean: nik, zoro honek, neure burua baino barkamen handiagoz tratatzen nituen haiek: neure buruarekin gogorra izatera ohitu nintzen eta sarritan barkamen hura neure buruaren baitan mendekatu nuen.

Euli pozoitsuek triskaturik, eta gaiztakeriazko tanta hisituez harria bezala zulaturik, beraien artean eseri eta neure buruari esaten nion: "Txiki oro errugabe da bere txikitasunean!"

Bereziki, beren buruak "zintzo" deitzen dituztenak, aurkitu izan ditut euli pozoitsuen: errugabetasun osoan heltzen dute, errugabetasun osoan esaten dute gezurra; nola izan litezke nirekiko - zuzen!

Zintzoen artean bizi denari, halakoari gezurra esaten irakasten dio errukiak. Errukiak airea astuntzen die arima libre guztiei. Zintzoen tentelkeria, egiaz, hondargabea da.

Neure burua eta neure ondasunak ezkututzen - hori beraien artean ikasi dut: zeren izpirituz behartsu ikusten baintuen oraindik. Hori izan zen nire errukiaren gezurra, guztiaren berri jakitea, - bakoitzari begiratu eta usnatzea izpiritutik zenbat duen aski, eta izpiritutik zenbat zaion gehiegi!

Beraien jakintsu zurrunei: nik jakintsu deitzen nien, ez zurrun - hala ikasi nuen hitzak irensten. Beraien ehorztailei ikertzaile eta aditu deitzen nien - hala ikasi nuen hitzak trukutzen.

Ehorztaileek ehorzketan eritasunak harrapatzen dituzte. Herexa zaharren azpian usain kiratsak daude. Ez da basarik irandetsi behar. Mendian bizi behar da.

Nire sudur zorionekoek berriro orain mendiko askatasuna arnasten dute! Azkenean nire sudurra libratu da gizaki ororen usainetik!

Ardo apartsuek bezala aire finek kitzikaturik, arimak doministiku egiten dit - doministiku egin eta pozkarioz esaten du: Zure osasunera!

Honela mintzatu zen Zaratustra.

HIRU GAITZEZ

I

Ametsetan, goizeko azken ametsean, gaur lurmutur baten gainean aurkitzen nintzen - munduaz haraindi, balantza bat neukan eskuan eta mundua pisatzen ari nintzen.

Ene, goizegi iratzarri nau egunsentiak: zelati horrek bere sugarraz iratzarri nau. Beti zelati egoten da nire goiz-ametsen sugarraz.

Mundua neurgarri denbora duenarentzat, pisagarri pisatzaile onarentzat, hegaz gainetik igarogarri hegal sendoak dituenarentzat, ulergarri igerkizun-asmatzaile jainkotiarrentzat: honela aurkitu du nire ametsak mundua: -

Nire ametsa, marinela ausarta, erdi-untzi, erdi-haizebolada, tximeletak bezain isila, aztoreak bezain urduri: nola izango nuen gaur mundua pisatzeko pazientzia eta patxada! Nire jakituriak, nire jakituria irrikor eta ernaiak, "mundu amaigabe" guztiei iseka egiten dien horrek, bultzatu ote du horretara? Zeren bai baitio: "Indarra dagoen tokian, zenbakia ere nagusi da bertan: indar handiagoa baitu."

Zein segurtasun handiz begiratzen zion nire ametsak mundu mugatu honi, jakiminik gabe, begiluzekeriarik gabe, beldurrik gabe, arrenik gabe: -

- sagarrak handia eskuratuko balidate bezala, urrezko sagarrak heldua, azal guri, fresko eta leunekoa: - honela eskaini zitzaidan mundua: -

- zuhaitz bat keinuka ari balitzait bezala, adar luzekoa, nahi sendokoa, bidaiari unatuari babesa eta arrimua emateko makurtua: honela ageri zen mundua nire lurmuturrean: -

- esku txairoek kutxatila luzatuko balidate bezala: - begi lotsor eta gurtzaileak

liluratzeko kutxatila irekia: honela eskaintzen zitzaidan gaur mundua: -

- ez nahikoa igerkizun, giza maitasuna uxatzeko, ez nahikoa ebazpen giza jakituria lokarrarazteko: - gizatiarki gauza ona zen niretzat gaur izena hainbeste belzten zaien mundu hori!

Zeinen esker oneko natzaion goizeko ametsari, gaur goizean mundua pisatu ahal izan dudalako! Gizatiarki gauza on bezala etorri zait amets bihotz-kontsolatzaile hori!

Eta egunean zehar haren modura jokatu ahal izateko, haren hoberena jarraitu eta imitatu ahal izateko: orain diren hiru gauzarik txarrenak ezarri nahi ditut balantzari eta gizatiarki ongi pisatu. -

Hemen bedeinkatzen ikasi duenak, madarikatzen ere ikasi du: zein dira munduan hiru gauzarik madarikatuena? Horieta ezarri nahi ditut balantzari.

Irritsa, agindu-nahia, norberegura: hiru gauza horiek izan dira orain arte hiru gauza madarikatuena eta belztuena - hirurok pisatu nahi ditut gizatiarki ongi.

Aurrera! Hemen dago nire lurmuturra eta han dago itsasoa: nigan dator hau iletsu, lausengari, maite dudan ehun buruko txakur munstro leialaren gisara.

Aurrera! Hemen eutsi nahi diot balantzari itsaso biribilkatuaren gainean: eta lekukotzat hautatzen haut - zuhaitz bakarti, usaintsu, hostotsu, maitea! -

Zein zubitatik igarotzen da gerora oraina? Zerk beharturik jaisten da goia behera? Eta zerk agintzen dio gorenari artean - igotzen jarraitzea? -

Orain balantza orekan eta geldidago: hiru galdera zail jaurtiki ditut alde batera, hiru erantzun zail dauzka beste pixalak.

## II

Irritsa: damu-atorrez jantziriko gorputz-arbuiatzaileentzat ezten eta makila, eta "mundutzat" madarikatzen duten zerbait atzemundutiar guztientzat: zeren irri eta barre egiten baitu nahaste eta errakuntzaren irakasle guztien lepotik.

Irritsa: jendaiarentzat kiskaltzen ari deneko su geldia da; zur pipituarentzat, zarpail kiratsentzat labe irazeki eta sujarioa da.

Irritsa: bihotz libreentzat errugabea eta librea, lurreko baratzearen zoriona, etorkizun orok orainari egiten dion eskerronezko gainezkadura.

Irritsa: ihartuarentzat soilik da pozoia gozoa, lehoi-borondatea dutenentzat, ordea, bihotz-indartzaile handia, begirunez gordetako ardorik ardoena.

Irritsa: zorion garaiaren eta itxaropen gorenaren sinbolo-zorion handia. Izan ere, askori ezkontza agindu izan zaio eta ezkontza baino gehiagorik ere bai -

- elkarrekiko gizona eta emakumea baino askoz arrotzago diren askori: - eta nork ulertu du guztiz, zeinen arrotz diren elkarrekiko gizona eta emakumea!

Irritsa: - baina hesia ezarri nahi dut neure pentsamenduen eta baita neure hitzen inguruan ere: txerriak eta suharrak baratzerara sar ez dakizkidan! -

Agindu-gura: su-zigorra bihotz-gogorretan gogorrenentzat; krudelenari dagokion martirio krudela; sute bizien gar goibela.

Agindu-gura: herri harroputzenei ezarritako ahoko makurra; bertute lauso guztien trufatzailea; zaldi eta harrotasun guztien gainean dabilena.

Agindu-gura: pipitu eta iroldutako guztia hausten eta birrintzen duen lurrikara; hilobi zuritu guztien haustaile burrunbari furrundari zigortzailea; alde zurretiko erantzunen ondoan sortzen den tximista-galdera.

Agindu-gura: beronen begiradaren aurrean makurtu, ahozpeztu eta umiltzen da gizona eta txerria eta sugea baino gehiago beherago erortzen da: - harik eta arbuio handiaren oihua irteten zaion arte -

Agindu-gura: arbuio handiaren maistra beldurgarria, hiri eta inperio handien aurrean "Utikan hi!" predikatzen duena - harik eta beraien baitatik "Utikan ni!" oihua irteten zaion arte.

Agindu-gura: halere lilurakor garbi eta bakartiengana, bere buruekin aski duten goialdeetara igotzen dena, lurreko zeruan purpurazko zorionak pintatzen dituen maitasuna bezain gartsu.

Agindu-gura: baina nork deituko lioke gura goia botere bila jaisteari! Zinez, ez dago ezer osasungaitz edo gurazkorik honelako irrikitze eta jaistean!

Goiera bakartia betiko bakardadean geratu nahi eza, ezta bere buruarekiko askitasunean ere; mendiak haranera jaitsi nahia eta goi aldetako haizea sakanetara: -

Oi nork aurki lezakeen bataio eta bertute-izen zuzena honelako joranarentzat! "Bertute oparigile" -honela izendatu zuen behiala izendaezina Zaratustrak.

Eta orduan gertatu zen ere - eta zinez, lehendabiziko aldiz gertatu zen!, - bere hitzak norberegura zorioneko aitortu zuela, arima boteretsuari darion norberegura osasuntsu, ona:

- arima boteretsuari, zeinari gorputz garai, eder, garaikor, bizkorra dagokion beraren inguruan dena ispilu bihurtzen dena:

- gorputz malgu esanguratsua, dantzaria, zeinaren sinbolo eta bilduma baita bere buruaz pozik dagoen arima. Gorputz eta arima horiek bere buruarekiko duten atseginari "bertute" deitzen zaio.

On eta txar hitzez gerizatzen du bere burua atsegin horrek baso sakratuz bezala; bere zorionaren izenez aihenatzen du bere buruagandik arbuiagarri den oro.

Bere buruagandik urrun aihenatzen du koldarkeria oro; hala dio: txarra dena - koldarra da! Eta arbuiagarri zaio beti kezkatutik dagoena, hasperenka ari dena, kexuka eta etekin txikiak ere lurretik bildu egiten dituenak.

Jakituria lanturutsu oro ere arbuiatu egiten du: zeren zinez, bai baitago ilunpetan loratzen den jakituria ere, gau-itzaletako jakituria: "Beti dena hutsala da!" beti hasperenka ari dena.

Fidantza herabetiari destaina egiten dio, eta begirada edo esku luzatuen orde zinak nahiago dituen guztiari: eta jakituria mesfidatiegiari ere destaina egiten dio, zeren honelakoa arima koldarren ondare baita.

Eta batez ere destaina egiten dio zurikeriatan, txakurkeriatan aritzen denari, ahozgora etzaten denari, apalari; bai baitago jakituria apal eta txakurrarena, eta jaieratsu eta aho-zuria.

Aiherkundera eta nazka ematen dizkio bere burua babestu nahi ez duenak, ttu pozoitsuak eta begirada txarrak irensten dituenak, jasankorregiak, dena eramaten eta ontzat ematen duenak: lekaioen etorkikoa denak.

Baldin eta norbait jainkoen eta ostiko jainkotiarren aurrean lekaio gisa portatzen bada, edo gizonen eta berauen giza iritzi inozoen aurrean: lekaio-etorki guzti honen gain ttu egiten du norberegura zorionekoak!

Txarra: honela deitzen dio belaunikatzen eta lekaio ziztrin gisara portatzen denari, zehar-begirada menpekoari, bihotz zanpatuei eta ezpain zabal koldarrez musu ematen duen etorki faltsu amore-emale horri.

Eta sasi-jakitura: honela deitzen die lekaioek eta agureek eta nekatuek asmatzen duten guztiari; eta batez ere apaizen eromen gaizto zantzugabe zentzugabeari!

Baina sasi-jakituriak, apaizek eta munduaz nekaturik dauden guztiek eta arima emakume eta lekaioen gisakoa dutenek - oi, beren jokoak nola egin dion betidanik azpijokoa norberegurari!

Eta hain zuzen ere bertute izan beharko zuen eta bertute deitu, norberegurari azpijokoa egitea! Eta "norbere buruaz libre" - hala izan nahiko lukete arrazoi bikainekin munduaz nekaturiko koldar eta gurutze-armiarma guzti horiek!

Baina badatorkie guztiei eguna, aldaketa, epaiketa-ezpata, eguerdi handia: orduan gauza asko agertuko da!

Eta niari osasungarri eta santu deitzen diona, eta zorioneko norberagurari, zinez, hori ere dakiena aldarrikatzen duen igarlea da: "Begira, badator, hurbil dago eguerdi handia!"

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## ASTUNTASUNAREN IZPIRITUAZ

### I

Nire ahoa - herriarena da: gordinegi eta bihotzez hitz egiten dut untxi gurientzat. Baina nire hitzak oraindik arrotzago gertatzen zaizkie tintazale eta lumalariei.

Nire eskua - inozo-eskua da: ai ene mahai eta horma guztiak, eta inozo-apaindurentzat lekua daukan guztia, inozo-zirriborroentzat!

Nire oina - zaldi-apatxa da; hartaz ibiltzen naiz landa zehar taka-takan eta trostan, harat-honat, eta lasterka bizkorrean atseginaren deabrua sartzen zait gorputzean.

Nire urdaila - agian arrano-urdaila ote da? Zeren bildoskia baitu gogokoen. Ziur dago, ordea, hegazti-urdaila dela.

Gauza errugabez elikatua, eta gauza gutxiz, hegadarako prest eta urrutira hegaz alde egiteko urduri -honelakoxea naiz ni: nola ez izan hegaztiaren zerbait horretan!

Eta batipat, astuntasun-izpirituaren etsaia izatea ni, hori hegaztiei dagokiena da: eta zinez, heriora arteko etsai, artzetsai, arretsai! Nora ez da dagoeneko hegaz joan eta galdu nire etsaitasuna?

Horretaz kanta bat kanta nezake - - eta kantatu egin nahi dut: nahiz eta etxe hutsean neu bakarrik aurkitu eta neure belarrientzat kantatu behar izan.

Badira egiaz beste kantari batzuk, zeintzuei etxea beterik egoteak soilik eztarria leuntzen dien, eskuak mintzodun, begiak adierazkor, bihotza erne bihurtzen: - ni ez naiz horietakoa. -

### II

Egunen batean gizonen hegaz egiten irakatsiko dienak, mugarri guztiak lekuz aldatuko ditu; halakoarentzat mugarri guzti hauek airean berak desegingo dira, eta halakoak lurra berriro bataiatuko du - "arina" deituz.

Ostrukak zaldirik bizkorrenak baino bizkorrago egiten du lasterka, baina buru astuna lur astunean ere ezkutatzen du: honela egiten du, oraindik hegaz egiteko gai ez den gizonak.

Astunak zaizkio lurra eta bizitza; eta horixe nahi du astuntasunaren izpirituak! Baina arin eta txori bihurtu nahi duenak, halakoak bere burua maitatu behar du: -honela irakasten dut nik.



Ez noski makalen eta sukardunen maitasunaz: zeren honelakoen artean norbere maitasunari ere kiratsa baitario!

Nork bere burua maitatzen ikasi behar da - honela irakasten dut nik - maitasun osasuntsuz eta osasungarritz: nor bere buruarekin egotea eraman eta ez alderrai ibiliz. Alderrai ibiltze holakoak "hurkoaganako maitasun" bataiatzen du bere burua: hitz honekin esan izan dira orain arte gezurrik handienak eta egin izan dira azaluskeriarik handienak, eta batipat, mundu guztiarentzat astunenak zirenen aldetik.

Eta zinez, nork bere burua maitatzen ikastea ez da gaurko eta biharrerako agindua. Aitzitik, arte guztietan sotilena, maltzurrena, azkena eta jasankorrena da.

Jabearentzat egiaz jabego oro ongi ezkutaturik egoten da; eta altxor guztien artean, nork berea ateratzen du azkena lurpetik - horixe egiten du astuntasunaren izpirituak.

Ia sehaskan bertan ematen zaizkigu hitz eta balio astunak eta: "on" eta "txar" - honela deitzen zaio emari horri. Eta berorreatatik barkatzen zaigu bizi izatea.

Eta horreatatik uzten diegu haurtxoei hurbil dakizkigun<sup>74</sup>, beren buruak maitatzea garaiz eragozteko: horixe egiten du astuntasunaren izpirituak.

Eta guk - leialki arrastatzen dugu ematen zaiguna sorbalda gogorren eta mendi malkarren gainean! Eta izerditzen bagara zera esaten zaigu: "Bai, bizitza astuna duk eramaten!"

Baina gizona da astuna beronentzat eramaten! Eta hori sorbalda gainean inoren gauza gehiegi daramalako da. Gameluaren antzera, belaunikatu egiten da ongi zama dezaten. Batipat gizon sendo jasankorra, bere baitan gurmene duena: besteren hitz eta balio astun gehiegi zamatzen ditu bere gainean - eta orduan bizitza basamortua iruditzen zaio!

Eta zinez! Eta norbere gauza batzuk ere astunak izaten dira eramateko! Eta gizonaren barruko gauza asko ostraren antzeko izaten dira, nazkagarri eta lingirda eta oratzen zailak -

- honela apaindura prestuak dituen oskol prestu batek haren alde erregutu behar izaten du. Baina beste arte bat ere ikasi behar izaten du: eskola edukitzearena eta itxura ederra eta itsutasun zuhurra!

Bestalde gezur asko esan izan da gizonari buruz, zeren zenbait oskol ziztrin eta triste ugari baita, eta eskolegi ere bai. Inoiz ez da susmatuko dagoen indar eta ondasun ugari; mokadurik gozoenek ez dute dastatzailerik aurkitzen!

Emakumeek ongi dakite hori, finenek: lodixeago, argalxeago - oi zenbat zori dagoen hain gutxian!

Zail da gizona ikertzen, eta norbere burua denetan zailen; sarritan gezurra esaten du izpirituak arimaz. Horixe egiten du astuntasunaren izpirituak.

Baina bere burua aurkitu du, hau esaten duenak: hau duk nire ongia eta nire gaizkia: horrenbestez mutu utzi ditu satorra eta nanoa, zeintzuek esaten baitute: "Guztientzat ongi, guztientzat gaizki".

Zinez, ez ditut gogoko edozein gauzari on eta mundu honi hoberena deritzotenak ere. Oroasebete deitzen diet horrelakoei.

Oroasebetetasuna, guztia atsegin egiten dakiena: ez da hau atseginik hoberena! Nik ohore egiten diet "ni", "bai" eta "ez" esaten ikasi duten mihi eta urdail hauta eta iratxoek kontrakoei.

Dena murtzikatu eta liseritzea - guzti hori benetan txerriei dagokie! Beti BA-I esatea - hori astoek<sup>75</sup> eta berauen izpiritukoa denak soilik ikasi du! -

Hori bizia eta gorri gorria: hori du gogoko nire gustuak - odola kolore guztiekin nahasten duenak. Baina etxea zuritzen duenak arima ere zuritua duela jartzen dit agerian.

Batzuk momiez maitemintzen dira, beste batzuk mamuez; eta biek orobat haragi eta odol ororen etsai dira berdin-berdin - zeinen gustuaren aurkako zaizkidan biak! Zeren odola maite baitut.

Ez dut mundu guztia ttuka eta listujarioka dagoen tokian bizi eta egon nahi: hauxe baita nire gustua -nahiago dut lapur eta zinausleen artean bizi. Inork ez darabil urrerik ahoan. Halere listu-milikatzaileek higuingarriagoak zaizkit oraindik; eta aurkitu dudana giza animaliarik higuingarrienari bizkarroi deitu diot: ez du maitatzaile izan nahi, baina bai maitasunaz bizi.

Zorigabe deitzen diet aukera bakarria dutenei: piztia gaizto bihurtu edo piztien bezatzaile gaizto: holakoen artean ez nuke neure txosna eraikiko<sup>76</sup>.

Zorigabe deitzen diet ere beti itxarotera beharturik daudenei - gustuaren kontrako zaizkit: aduanari guztiak eta dendariak eta erregeak eta beste herrialde- eta denda-zaindariak.

Zinez, nik ere ikasia dut itxaroten eta gogotik gainera - baina neure buruari itxaroten soilik. Eta zutik egoten eta ibiltzen eta lasterka eta salto egiten eta esku-zangoez igotzen eta dantza egiten ikasi dut batipat.

Baina nire irakatsia hau da: egunen batean hegaz egiten ikasi nahi duenak, zutik egoten eta ibiltzen eta lasterka egiten eta esku-zangoez igotzen eta dantza egiten ikasi behar du aurrena: - hegaz egitea ez da aidean ikasten den zerbait!

Leiho batetik baino gehiagotik igotzen ikasia dut nik sokazko eskalaz: zango bizkorrez igo izan naiz mastarik garaienetaraino: jakintzaren masta garaian eserita egotea, ez zitzaidan zorion kaskarra iruditzen -

- sugartxoaren modura dardar egitea masta garaian gainean: argi txikia noski, baina pozkario handia dena marinel errebelatu eta untzigalduentzat! -

Bide eta era ezberdinez iritsi naiz neure egiara: ez naiz eskilara bakarretik gora igo nire begiek urruna miatzen duteneko goialdera.

Eta gogoz kontra galdetu izan ditut beti bideak -beti gustuaz kontrako gertatu izan zait beti! Nahiago izan dut bide beraiei galdetu eta saioak egin.

Saioa eta galdea izan da beti nire ibilera: - eta zinez, horrelako galderei erantzuten ere ikasi beharra dago! Hori da behintzat - nire gustua:

- ez ona, ez txarra, nire gustua baizik, eta horretaz ez dut ez jadanik lotsarik, ez enurarik.

"Hauxe da orain nire bidea - non da zuena?" honela erantzuten nien nik "bideaz" galde egiten zidatenei. Izan ere - bide bakarrik ez baitago!

Honela mintzatu zen Zaratustra.

TAULA ZAHAR ETA BERRIEZ

I

Hemen nago eserita itxaroten, taula zahar hautsiak eta baita taula berri erdi-idatziak inguruan ditudala. Noiz etorriko da nire ordua?

- nire behera joatearen, ilunabartzearen ordua: beste behin ere gizonengana joan nahi dut.

Horretxeri itxaroten nago orain: zeren aurrena nire ordua delako zeinuak etorri behar baitzaizkit - hots, lehoi irribarretsua eta uso-saldoa.

Bitartean, denbora daukanak bezala neure buruari hitz egiten diot. Ez dit inork ezer berririk kontatzen: horregatik kontatzen natzaio neure buruari. -

II

Gizonengana etorri nintzenean, hantuste zahar baten gainean eserita aurkitu nituen: guztiek uste zuten aspaldidanik bazekitela zer den gizonarentzat ona eta txarra.

Gauza zahar aspergarritzat zeukaten bertuteaz hitz egite oro; eta ongi lo egin nahi zuenak, lotaratzean "onaz" eta "txarraz" hitz egiten zuen oraindik.

Logure hori asaldatu egin nuen nik: ona eta txarra zer den oraindik inork ez dakiela irakastean: - sortzaileak izan ezik!

- Baina hau da gizonaren helburua sortzen duena eta lurrari bere zentzua eta bere etorkizuna ematen dizkiona: honetxek soilik egiten du zerbait ona eta txarra izatea.

Eta beren irakasaulki zaharrak iraultzeko agindu nien, hantuste zahar hura eserita eduki zutenak; beren bertute-maisuez eta santuez eta poetez eta mundu-salbatzailez barre egiteko agindu nien.

Beren jakintsu goibelez barre egiteko agindu nien, eta txorimamu beltz baten modura larderiak bizi-zuhaitzaren gainean kokatu zen edozeinez.

Beren hilobi-karrika handiaren ertzean eseri nintzen eta baita saiaren eta haratustelaren ondoan ere<sup>77</sup> - eta beren iragan osoaz eta porrokatzen ari zen beren bikaintasun antzuaz barre egin nuen.

Zinez, damu-predikari edo zoro baten antzera, amorrua eta marrua oihukatu nituen nik beren txikikeria eta handikeria guztien aurka - hain da txikia duten gauzarik hoberena ere! Hain da txikia duten gauzarik txarra ere! - horretaz ere barre egin nuen.

Nire joran zuhurak oihi eta barre egiten zuen nigan, mendietan jaioa zenak, zuhurtzia basatia denak zinez! -hegal zafrakarizko nire joran handiak.

Eta sarritan, joran horrek urrunera eta gora eta kanpora garraiatzen ninduen barrezka ari nintzela: nik orduan ikaraz egiten nuen hegaz, gezi baten antzera, eguzkiz hordituriko estasian zehar:

- urruneko etorkizunetarantz, artean ezein ametsek ikusigabeetarantz, artistak inoiz amets egin baino hegoalde beroagoetarantz: jainkoak dantza egitean jantzi oroz lotsatzen diren toki hartarantz: -

- parabolatan hitz egiten dut eta poetak bezala herrenka eta totelka ari naiz: eta zinez, lotsatu egiten naiz oraindik poeta izan beharraz! -

Han, bilakatze oro jainko-dantza, jainko-bihurrikeria eta mundua gauza solte eta bihurria eta bere baitarantz ihesi doana iruditu zitzaidan lekuan: -

- jainko askoren bere buruagandik ihes egite eta bere burua berriz bilatze betierakoa bezala, jainko asko beren buruari kontraesate bedeinkatu bezala, berriz entzute eta berriz aurkitze bezala: -

Han, denbora oro aldiuneen iseka zorioneko bat iruditzen zitzaidan lekuan, han behartasuna zoriontsu askatasunaren eztenaz jolasean ari zen askatasuna bera zen lekuan<sup>78</sup>: -

Han, neure deabru zahar eta etsai porrokatua, astuntasunaren izpiritua eta berak sortutako guztia: hertsapena, legea, beharra eta ondorioa eta helburua eta nahia eta ona eta txarra berriro aurkitu nituen lekuan: -

Bada, ez al da beharrezko izango gainean dantza egiteko moduko gauzak, haraindi dantza egiteko moduko gauzak izatea? Ez al da beharrezko guztietan arinak, arinenak izan daitezen - satorrak eta nanoak izatea? -

### III

Hantxe bertan jaso nuen bidetik "gaingizon" hitza ere, eta gizona gainditu beharreko zerbait delakoa.

- Gizona zubia dela eta ez helburua: bere burua zoriontsu deitzen duena bere eguerdia eta arratsarengatik, goiznabar berrietarako bide bezala:

- Zaratuaren hitza eguerdi handiaren gainean eta gizonen gainean eseki dudak gainerako guztia, purpurazko bigarren arraskorri bezala.

Zinez, izar berriak ere ikusarazi nizkien gau berriekin batera; eta hodeien eta egunaren eta gauaren gainetik barrea hedatu nuen kapar nabar bat bezala.

Neure bururapen eta gurari guztiak erakutsi dizkiet: batean burutzea eta biltzea gizonarengan puska, igarkizun eta zori anker den guztia -

- poeta, igerkizun-adierazle eta zoriaren berrerosle gisa, etorkizunaren sortzaile izaten irakatsi diet eta izan den guztia - sortuz berrerosten.

Gizonarengana iragana salbatzen eta "izan zen" oro birsortzen, nahiak esan arte: "Honela nahi izan dut nik! Honela nahi izango dut "-

- Horri deitu diot beraientzako berrerospen. Horri soilik berrerospen deitzen irakatsi diet. - -

Orain neure berrerospenari itxaroten nago -azkenekoz beraingana joateari.

Zeren beste behin gizonengana itzuli nahi baitut: beraien artean joan nahi dut behera, hiltzean neure emaririk aberatsena emanez!

Hau eguzkiarengandik ikasi dut, txit aberatsarengandik, sartzen ari denean: urrea barreiatzen du itsasoan bere aberastasun agorrezinetik -

- horrela, arrantzalerik behartsuenak ere urrezko arraunez egiten du arraunean! Hori ikusi nuen behiala eta ez nintzen ase negar-malkoei begiratzetz. - -

Eguzkiak bezala, Zaratustrak ere behera joan nahi du: baina orain hemen eserita eta itxaroten dago, taula zahar hautsiak inguruan dituela eta baita taula berriak ere - erdi-idatzirik.

#### IV

Hara, hona hemen taula berri bat: baina non dira nire senideak haranera eta haragizko bihotzetara neurekin eramateko? -

Hauxe eskatzen du urrunenei diedan maitasun handiak: ez izan barkabera hurkoarekin! Gizona gainditu beharreko zerbait da.

Askotariko bide eta erak daude gaindipenerako: begira zuk hor! Baina bufoiak soilik pentsatuko du: "Gizonaren gainetik salto ere egin daiteke!"

Zeure burua gaindi ezazu baita zeure hurkoarengan ere: eta lapur dezakezun eskubiderik ez utzi inori ematen!

Zuk egiten duzuna, ezin diezazuke beste inork zuri egin. Hara, ez dago saristapenik.

Bere buruari agintzeko gai ez denak, obeditu egin behar du. Eta asko dira bere buruari agintzeko gai, baina oraindik asko falta da obeditu ere egin ahal izateko!

#### V

Honelako da arima nobleen gisa: ez dute ezer doan eduki nahi, bizia ezer baino gutxiago.

Jendailakoa denak doan bizi nahi du; gu ezberdinak, ordea, bizitzak bere burua eman digunok - beti pentsatzen aritzen gara, zer eman dezakegun hoberenik haren ordainetan! Eta zinez, mintzaira garaia da esaten duena: "Bizitzak guri agintzen diguna, horixe bete nahi diogu guk bizitzari!"

Ez da gozatu nahi izan behar, gozatzeko aukerarik ematen ez denen tokian. Eta - ez da gozatu nahi izan behar!

Gozamena eta errugabetasuna dira bi gauzarik lotsorrenak: biek ez dute nahi izaten inork bilatzerik. Eduki egin behar dira - baina errua eta oinazeak areago bilatu behar dira! -

#### VI

Ene senideok, hasikina beti lepo egiten dute. Eta gu hasikinak gara.

Gu guztiok oparimahai ezkutuetan isurtzen dugu odola, guztiok erretzen eta kiskaltzen gara jainkoizun zaharren ohoretan.

Gure baitako hoberena oraindik gaztea da: horrek ahosabai zaharrak zirikatzen ditu.

Gure haragia samurra da eta gure larruazala bildots-

-larruazala da: - nola ez ditugu zirikatuko jainkoizun zaharren apaizak!

Geure baitan bizi da oraindik, jainkoizunen apaiz zaharra, gure baitako hoberenaz orritsa prestatzen duena. Ai, ene senideok, nola ez gara hasikinak lepo eginak izango!

Baina honela nahi du gure etorkiak; eta nik maite ditut beren buruak bermatu nahi ez dituztenak. Maitasun osoz maite ditut behera doazenak: bestaldera baitoaz. -

#### VII

Egiatiak izan - gutxi izan daitezke. Eta izan daitekeenak ez du nahi! Eta gutxien zintzoak izan daitezke.

Ai, zintzo horiek! Gizon zintzoek ez dute inoz egia esaten; Izpirituarentzat eritasun da horrela zintzoak izatea.

Zintzo horiek amore ematen dute, etsi egiten dute, inork esandakoa errepikatzen dute bihotzean, bihotzez obeditzen dute: baina obeditzen duenak ez dio bere buruari entzuten!

Zintzoek txar deitzen duten guztia bateratu egin behar da, horrela egia bakarra jaio dadin: oi ene senideok, aski gaiztoak al zarete egia honetarako?

Ausartzia ausarta, mesfidantza luzea, ezezko ankerra, gogaita, bizizkotik ebakitzea - bai zaila dela guzti hau batera gertatzea! Baina horrelako hazitik - sortzen da egia!

Kontzientzia txarraren ondoan sortu da orain arte jakite oro! Hauts, hautsizkidazue, ezagutzaileok, taula zaharrak!

## VIII

Urak oholak dituenean, ibaiaren gainetik zubitxo eta eskudelak salto egiten dutenean: zinez, orduan ez zaio fede ematen: "Dena jarioan dago" dioen inori.

Kaikuek berek ere kontrakoa iragartzen dute. "Nola?" esaten dute kaikuek, "dena jarioan dagoela? Oholak eta eskudelak korrontearen gainean daude, bada!"

"Korrontearen gainean dena irmo dago: gauzen balio guztiak, zubiak, kontzeptuak, dena, "on" eta "txar" dena: dena irme dago!"

Baina negua etortzen denean, ibaien hezlea: maltzurrenek ere mesfidatzen ikasten dute; eta zinez, ez dute kaikuek soilik esaten orduan: "Ez ote dago dena - geldí ?"

"Barrenean dena geldí dago" - hauxe bai dela benetako negu-irakatsia, gauza ona garai antzu baterako, pozkario ona neguan lo egiten duten eta sutondoan egoten direnentzat.

"Barrenean dena geldí dago!": - bitartean izozte-haizeak kontrakoa predikatzen du!

Izozte-haizea, zezen bat, golderako zezen ez dena -zezen sumindua, deuseztatzailea, adar amorratuez izotza hausten duena! Eta izotzak - - zubitxoak hausten ditu!

Oi ene senideok, ez al dago orain dena jarioan? Ez al dira eskudel eta zubitxo guztiak uretara erori? Nork iraungo du oraindik "ona" eta "txarra"ren gainean?

"Ai zorigaitzekoak gu! Zorionekoak gu! Izozte-haizeak jotzen du!" - Honela predikaidazue, oi ene senideok, karrika guztietan zehar<sup>79</sup>!

## IX

Badago lilura zahar bat, ona eta txarra deritzona. Igerle eta astrologoen inguruan bira eman du orain arte lilura horren gupilak.

Behiala igarle eta astrologoengan sinesten zuten: eta horregatik sinesten zen "Dena patua da: egin beharrean zaude, derrigorturik baitzaude!"

Baina gero berriz ere mesfidantza sortu zen igerle eta astrologoengan; eta horregatik sinesten zuten "Dena askatasuna da: egin dezakezu, nahi baituzu!"

Oi ene senideok, izarrei eta etorkizunari buruz orain arte lilurak besterik ez dira izan, ez jakiterik: eta horregatik ona eta txarrari buruz lilurak besterik ez dira izan, ez jakiterik!

## X

"Ez duzu lapurretarik egingo<sup>80</sup>! Ez duzu hilketarik egingo!" - hitz hauei santu deitzen zitzaaien behiala; berorien aurrean belauna eta burua makurtzen eta oinetakoak eranzten zituzten.

Baina nik galdetzen dizuet: non izan da lapur eta hiltzaile hoberik munduan hitz santu horiek baino?

Ez al dago bizitza ororen baitan - lapurreta eta hilketa? Eta hitz horiei santu deitzean, ez al zen horrenbestez egia bera - hil?

Edo ez al zen herio-prediku bat izan santu deitu ziona bizitza oro erasotzen eta galarazten zuena? - Oi ene senideok, hauts, hautsizkidazue taula zaharrak!

## XI

Hauxe da nire errukia iragan guztiarekiko: bertan behera utzia izan dela ikustea -

- graziari, izpirituari, iristen den belaunaldi bakoitzaren eromenari bertan behera utzia eta izandako guztia bere buruaren baitarako zubitatzat jotzen du!

Bortxa-jaun handi bat etor liteke, bere graziaz eta desgraziaz iragan osoa behin eta berriz bortxa lezakeen deabru azkar bat: harik eta zubi eta aurrezantzu eta aldarrikari eta oilarite izan arte.

Baina hauxe da nire beste arriskua, eta beste errukia: - jendailakoarena denaren oroimena aitonarenganaino soilik iristen da - baina aitonarekin amaitzen da denbora. Honela iragan osoa bertan behera geratzen da: zeren gerta bailiteke inoiz jendaila jaun bihurtzea eta ur- azaletan denbora guztia itotzea.

Horregatik, ene senideok, noblezia berria behar da, jendaila ororen eta bortxa-jaun ororen kontraesale izango dena eta "noble" hitza taula berrian idatziko duena.

Noble asko behar dira eta noble askotarikoak noblezia izan dadin! Edo, behiala parabolatan esan nuenez: "Horixe da jainkotasuna, jainkoak izatea baina ez Jainko bakarrik!"

## XII

Oi ene senideok, noblezia berri baterako sagaratzen eta gomendatzen zaituztet: sortzaile eta hezle eta etorkizunaren ereile izan behar zatzaizkide -

- zinez, ez dendarien modura, dendari-urrez, eros zenezaketen noblezia baterako: zeren balio txikia baitu, prezioa duen edozerk.

Aurrerantzean ez dadila izan zuen ohorea nondik zatozten baizik eta nora zoazten! Zuen nahia eta zuen oinak, zeuen buruaz haraindi joan nahi dutenak - horiek izan daitezela zuen ohore!

Zinez ez printze baten zerbitzari izana - bost axola dagoeneko printzeak! - edota dagoenaren gotorleku bihurtu izana oraindik irmeago egon dadin!

Ez zuen jatorria gortean gortesau egin izana eta flamenkoaren gisara nabar janzten ikasi izana eta urmahel-azaletan ordu luzetan zutik egoten.

- Zeren zutik egon ahal izatea meritu handia baita gortesauen artean; eta gortesau guztiek sinesten dute, heriotzaren ondoko zorientasunari dagokiola - eserita egon ahal izatea! -

Ezta, beraiek santu deitzen duten izpirituak zuen arbasoak agindutako lurraldeetara gidatu zituelakoa ere, zeinak nik ez baititut goستن: zeren, zuhaitz guztien artean txarrena gurutzea sortu duen - lurraldean ez baitago ezer goستekorik! -

- eta zinez, "izpiritu santu" deitu horrek noranahi bere zaldunak gidatzen zituelarik ere, espedizio guztien aurretik - ahuntzak eta antzarak eta gurtzari burugabeak joaten ziren beti! -

Oi ene senideok, ez du zuen nobleziak atzera begiratu behar, aurrera baizik! Aberri eta arbasoerri guztietatik iraitziak izan behar duzue!

Zeuen seme-alaben herria maitatu behar duzue: bedi maitasun hau zuen noblezia berria - itsaso urrunen eta aurkitugabea! Beraien bila bidaltzen ditut zuen belak behin eta berriz! Zeuen seme-alabengan kitatu behar duzue zeuen gurasoen seme-alaba izatea: iragan guztia berrerosi behar duzue horrela! Zuen gainean ezartzen dut taula berri hau!

## XIII

"Zertarako bizi? Dena alferrik da! Bizi izatea - ahotza eultzitzea da; bizi izatea - nork bere burua erretzea da eta halere ez berotzea". -

Aintzinako berri-tsukeria hauek oraindik ere "jakituriatzat" hartzen dira; baina zaharrak dira eta zoko-usaina darie, horregatik egiten zaie ohore gehiago. Lizunak ere nobletu egiten du. -

Haurrei hitz egin zekiekeen horrela: hauek ihes egiten diote suari, erre egin baititu! Haurkeria ugari dago jakituriatzko liburu zaharretan.

Eta beti "ahotza eultzitzen" ari denak, nola egin dezake birao eultzitzearen aurka! Zoro horiei muturra lotu beharko litzaieke!

Horrelakoak esertzen dira mahaira eta ez dute ezer aldean ekartzen, ezta jateko gogo onik ere: - eta gero biraoka ekiten diote "Dena alferrik da!"

Baina ongi jatea eta edatea, oi ene senideok, zinez ez da arte alferra! Hauts, hautsizkidazue inoiz pozik ez daudenen taulak!

#### XIV

"Garbiarentzat, dena garbia da" - honela esaten du herriak. Baina nik esaten dizuet:

"Txerriei dena txerri zaie!

Horregatik predikatzen dute burubero eta burumakurrek, bihotza ere jausia darabiltenek:

"Mundua bera ere munstro kakazu bat da".

Zeren guzti hauek izpirituz lohiak baitira; eta batez ere, atsedetik eta bakerik hartu ez dutenak munduari - atzemundutiarrei atzealdetik begiratu arte!

Horiei esaten diet aurpegira, nahiz eta belarrira soinu onik ez atera: munduak badu atzealdea duen gizonaren antza - hori egia da!

Kaka ugari dago munduan: hori egia da! Baina horregatik mundua bera ez da besterik gabe munstro kakazu bat!

Jakituria dago munduko gauza askok usaina txarra izatean: nazkak berak sortzen ditu hegialak eta indar iturri-susmatzaileak!

Hoberenengan ere badago zerbait nazkagarria; eta hoberena ere oraindik gainditu beharreko zerbait da! -

Oi ene senideok, jakituria handia dago munduan kaka asko egotean! -

#### XV

Honelako esamoldeak entzun izan dizkiet atzemundutiarrei beren golkorako hitz egitean, eta zinez, makurkeria eta faltsukeria gabe - nahiz eta munduan ez izan ezer faltsuagorik, eta makurragorik.

"Utzi munduari mundu izaten! Ez ezazu horren kontra atzamar bat bera ere jaso!"

"Utzi nahi duenak nahi duena itotzen eta puinaletzatzen eta ebakitzen eta lepo egiten, eta horren kontra atzamar bat bera ere ez jaso! Munduari uko egiten irakasten du horrek".

"Eta zeure arrazoia - horrixe bai heldu behar diozula lepotik eta ito, zeren mundu honetako arrazoia baita.-Horrela zerorrek ikasiko duzu munduari uko egiten". -

- Hauts, hautsidazue, oi ene senideok, jaieratsuen taula zahar hauek! Hautsizkidazue zeuen hitzez mundu-gaizkiesaleen esamoldeak!

#### XVI

"Asko ikasten duenak, irrika zakar guztiak desikasten ditu" - horixe xuxurlatzen zaio elkarri karrika ilun guztietan.

"Jakituriak nekatu egiten du, ez du merezi - ezerk; ez duzu irrikarik izan behar!" - taula berri hau merkatu zabaletan bertan ere aurkitu dut.

Hauts, oi ene senideok, hautsiez kidazue taula berri hauek! Munduaz gogaituek eseki dute eta herio-predikariek, eta baita gartzelazainek ere: zeren hara, esklabutzarako prediku ere bai baita!-

Gaizki ikasi dute eta ez gauzarik hoberena, eta dena goiz eta bizkorregi: eta nola gaizki jan duten, horregatik hondatu zaie urdaila -

- urdail hondatua da justu beren izpiritua: herio-aholkua ematen diena! Zeren zinez, ene senideok, izpiritua urdail da.

Poz-iturburua da bizitza: baina urdail hondatuak hitz egiten dionarentzat, atsekabearen aitararentzat, iturri guztiak pozoiturik daude.

Ezagutzea: hori atsegina da lehoi-nahia duenarentzat! Baina nekatua, inoren "nahipean" dago halakoa, eta olatu guztiek jolas egiten dute berarekin.

Horrelaxe gertatzen zaio beti ahulen etorkiari: galdu egiten dira beren bidean. Eta azkenean nekadurak galdetzen die: "Zertarako egin dugu bidea! Dena berdin dio!" Horrelakoei atsegin zaie belarrian prediku hau entzutea: "Ez du ezerk merezi! Ez da nahi izan behar!" Baina hau esklabutzarako predikua da. Oi ene senideok, haize-bolada freskoaren gisa dator Zaratustra bide-nekatu guztiengana; oraindik sudur askori eragingo die doministiku! Murruetan barna ere putz egiten du nire arnasa libreak, eta presondegi eta izpiritu presoenganaino! Nahi izateak libre bihurtzen du: zeren nahi izatea sortzea baita: honela irakasten dut nik. Eta sortzeko bakarrik ikasi behar duzue! Eta nigandik lehenik ikasi behar duzue ikasten ere, ongi ikasten! - Belarriak dituenak, entzun dezala!

## XVII

Hor dago batela - hor barrena agian ezerez handira joango da. - Baina nork igo nahiko du "agian" horretara? Zuetako inork ez du herio-batelera igo nahi! Nola nahi duzue orduan munduaz nekatuak izan! Munduaz nekatuak! Eta lurraz gabetzerik ere ez duzue lortu! Lurraz gutiziatsu aurkitu izan zaituztet beti, zeuen lur-nekaduraz maitemindurik! Ez daukazue alferrik ezpaina zintzilik: - lur-nahi txiki bat daukazue oraindik hartan! Eta begian - oraindik ez al dabilkizue igerika lur-atsegin ahaztu gabezko hodeitxo bat? Lurrean idorokunde on ugari daude; batzuk baliagarriak, besteak atseginak: beroriengatik maitatu behar da lurra. Eta gauza asko hain ongi idoroak daude, non emakumeen bularrak bezalakoak diren: baliagarriak eta atseginak dira aldi berean. Baina zuek, munduaz nekatuok, zuek, munduaz nagituok! zardaiz astindu beharko zintuzketete. Zardaikadaka arindu beharko litzaizkizueke zangoak. Zeren: gaixo eta alproja mekoak ez bazarete, lurraren nekatzaile, azeri alfer edo atsegin-katu litxarrerok eta kuzkurtu zarete. Eta berriro alaiki lasterka egin nahi ez baduzue - ospa egin beharko duzue! Ez da sendaezinen mediku izateko gogorik behar: hori ere irakasten du Zaratustrak: - ospa egin behar duzue, beraz! Baina kemen handiagoa behar da amaiera emateko, bertso berria egiteko baino: hau ongi dakite mediku eta poeta guztiek. -

## XVIII

Oi ene senideok, badira nekadurak sortutako taulak eta nagikeriak sortutakoak, taula nagiak: nahiz eta era berean hitz egiten duten, era desberdinean entzunak izan nahi dute. - Begira hor belaskatzen dagoen horri! Arrabete baizik ez zaio falta helmugarako, baina nekadurarengatik setati etzan da hautsetan: bulartsu hori! Nekaduraz egiten dio aharrausi bideari eta lurrari eta helmugari eta bere buruari: ez du urratsik gehiago eman nahi - bulartsu horrek! Orain eguzkiak kiskali egiten du, eta txakurrek izerdia milikatzen diote<sup>82</sup>: baina han dago setati etzanik, eta nahiago du belaskatzen egon: - bere helmugatik arrabetera belaskatzen! Zinez, ileetatik tiraka eraman beharko lukete bere zeruraino - heroi hauek! Hobe ordea, bertan behera uztea, etzan den tokian, harik eta loa, pozemailea, etorri dakion arte, euri-zaparrada freskagarriarekin: Utz iozue etzanda egoten berez esna dadin arte - berez bere nekadurari eta nekadurak beragandik irakasten zuenari uko egin diezaion arte!



Bakarrik, ene senideok, uxaizkiozue txakurrak, nagi azalutsok eta "ikasien" zomorro-multzo guzti hori: -

- "ikasien" zomorro-multzo guzti hori, heroi ororen izerdiaz - baliatzen den hori! -

XIX

Nik oboak eta muga sakratuak ezartzen ditut inguruan; gero eta gutxiago dira nirekin, mendi gero eta garaia goetara igotzen direnak: gero eta mendi-multzo sakratuagoa eraikitzen ari naiz. -

Baina nirekin noranahi igotzen ari zaretelarik ere, oi ene senideok: kontuz zuekin batera bizkarroiren bat igo ez dadin!

Bizkarroia: har narrastari eta makurra, zuen zoko zauritu gaixoez gizendu nahi duena.

Eta hau du bere artea, igotzen ari diren arimetan non dagoen nekagunea asmatzea: zuen atsekabea eta nahigabea, zuen lotsa samurrean eraikitzen du bere habia nazkagarria.

Indartsua ahul, noblea barkaberaegi den tokian -hantxe eraikitzen du bere habia nazkagarria: handiak zoko zaurituak dituen tokian bizi da bizkarroia.

Zein da izaki guztietan motarik goitarrena eta zein da behetarrena? Bizkarroia da motarik behetarrena; baina motarik goitarreneko denak elikatzen du bizkarroirik gehien. Izan ere eskilararik luzeena duen eta behereneraino jaisteko gauza den arimak: nola ez ditu aldean bizkarroirik gehien eramango? -

- arima hedatsuena, bere baitan lasterka egin, errebelatu eta gal daitekeena;

beharrezkoena, atseginez zorian amiltzen dena: -

- baden arima, bilakaeran murgiltzen dena; daukana, nahi eta gura izatean murgildu nahi duena: -

- bere buruari ihes egiten diona, oborik zabalenean bere burua atzematen duena, arimarik jakintsuena, eromenak ezetikien gomita egiten diona: -

- bere burua gehien maite duena, zeinean gauza guztiek beren igoera eta jaitsiera, jariora eta birjariora baitute: - oi, nola ez eduki arima gorenak bizkarroirik txarrenak?

XX

Oi ene senideok, krudela ote naiz gero? Baina zera diot nik: erortzen ari denari, oraindik bultza egin behar zaio!

Gaurko gauza guztiak - erortzen, hebaintzen ari dira: nork eutsi nahiko lieke? Baina nik - nik oraindik bultza egin nahi diet!

Ezagutzen al duzue harriak amildegi sakonetara iraularazten dituen gozamina? - Gaurko gizon hauek: begira nola datozen iraulka nire amildegira!

Ni jokalaria hobeena aurrejoko naiz, oi ene senideok! Eta jarraibide: Ekin nire jarraibideari!

Eta hegaz egiten irakasten ez diozuenari, halakoari irakatsi - bizkorrago erortzen! -

XXI

Maite ditut bulartsuak: baina ez da aski ezpata on izatea - nor zauritzen den ere jakin beharra dago!

Eta sarritan bulartsutasun handiagoa dago nork bere buruari eutsi eta paretik igarotzean: horrela etsai duinago baten eskura gertatzeko!

Gorrotatzeko etsai duinak soilik eduki behar dituzue, baina ez arbuiaitzeko duin direnak: harro egon behar duzue zeuen etsaiak: hau ere irakatsi nizuen behiala.

Etsai duinagoaren eskura jartzeko, oi ene senideok, gorde behar duzue zeuen burua: horregatik igaro behar duzue gauza askoren paretik -

- jendaila askoren paretik batez ere, izan ere herriaren eta herrien zarataz beteko babilizkizueke belarriak.

Gorde itzazue begiak garbi haren alde eta kontretatik! Zuzentasun handia, bidegabe handia dago bertan: hara begiratzen duena, sumindu egiten da.

Begiratzea eta jotzea - gauza bera dira hemen: horregatik alde egizue oihanera eta utz itzazue ezpatak lotan!

Jarrai zeuen bideak! Eta utzi herriari eta herriei bereak jarrai ditzaten! - bide ilunak zinez, zeinetan itxaropen bakar batek ere argi egiten ez duen!

Nagusi izan bedi dendaria, dir-dir egiten duen guztia - dendari-urrea baizik ez den tokian! Dagoeneko ez da errege-garaia: gaur bere burua herri deitzen duenak ez du erregerik merezi.

Begira herri horiek nola jokatzen duten dagoeneko dendarien gisara: etekinik txikiak ere jaso egiten dituzte isuskidura guztietatik!

Elkar zelatzen dute, elkarri zer bait zelatatzen diote - eta horri "auzotasun on" deitzen diote. Oi urruneko denbora zorionekoak, zeinetan herriren batek bere buruari esaten baitzion: "Nik herrien gain - jaun izan nahi dut!"

Bada, ene senideok, hoberenak izan behar du jaun, eta hoberenak jaun izan ere nahi du! Eta besterik irakasten den tokian, han - hoberena falta da.

## XXII

Baldin horiek - ogia doan eskuratuko balute, ai ene! Zer ez ote lukete horiek oihuka eskatuko! Mantenua dute - entretenigarri bakar; eta bizimodu gogorra bide dute!

Piztia harrapariak dira: beren "lan egitean" - hor ere badago harrapaketa, beren "merezi izatean" - hor ere badago maltzurkeria! Horregatik bizimodu gogorra bide dute!

Piztia harrapari hobe bihurtu beharrean daude, sotilago eta zuhurrago, gizakiaren antzekoago: gizakia da, izan ere, piztia harraparirik hoberena.

Gizakiak piztia guztiei harrapatu dizkie bertuteak dagoeneko: horregatik gizakiak beste edozein piztiak baino askoz bizimodu gogorragoa du.

Hegaztiak soilik ditu bere buruaren gainetik. Eta gizakiak hegaz egiten ikasten badu, ai ene! noraino - hegaz egingo liokeen harraparitasunak!

## XXIII

Honela nahi ditut gizona eta emakumea nik: bata gerrarako gai, bestea erditzeko gai, baina biak buruaz eta zangoz dantza egiteko gai.

Eta galdutzat eman dezagula, behin bederen dantza egin gabeko eguna! Eta faltsutzat jo dezagula barre-algara bat bederen izan ez duen egia bakoitza!

## XXIV

Zuen ezkon-korapiloa: begira korapilo txar gerta ez dakizuen! Bizkorregi lotzen baduzue: hortik ezkontza-haustea dator!

Eta hobe da ezkontza-haustea ezkontza-okertzea, ezkontza-gezurtatzea baino! - Honela mintzatu zitzaidan emakume bat: "Noski hautsi dudala ezkontza nik, baina aurrena ezkontzak hautsi nau - ni!"

Beti aurkitu izan dut gaizki-parekatuak direla beti mendekuzalerik txarrenak: mundu guztiari ordainarazten diote bakarka lasterka egiterik ez izatea.

Horregatik nahi dut jatorrek elkarri esatea: "Guk maite dugu elkar: ikus dezagun elkar maitatzen jarraitzeko gauza garen! Edota hutsegite bat izan behar ote du gure promesak?"

- "Emaiguzu epe bat eta ezkontza labur bat ikus dezagun ezkontza handirako gai garen! Gauza handia da bi beti elkarrekin egotea!"

Aholku hau ematen diet beti jatorrei; eta zer izango litzateke gaingizonarenganako nire maitasunaz eta etorri beharreko guztiarenganakoaz, bestelako aholkurik eman eta bestelakorik hitz egingo banu!

Ez soilik zeuen mailan ugaltzera, baizik gorantz - horretan lagun diezazuela, oi ene senideok, ezkontzaren baratzak!

## XXV

Jatorri zaharren berri izan duenak, halakoak azkenean etorkizuneko iturburuak ere bilatuko ditu eta baita jatorri berriak ere. -

Oi ene senideok, luzarora gabe erneko dira herri berriak eta iturri berriak jaitsiko dira orroaka amildegi berrietan.

Lurrikarak izan ere - hosin ugari itsutu eta lehorten handia sortzen du: baita barne-indarrak eta ezkutukoak argitara atera ere egiten ditu.

Lurrikarak iturri berriak argitaratzen ditu. Herri zaharren lurrikaran iturri berriak lehertzen dira.

Eta orduan oiher egiten duenari: "Hona hemen hosina egarritu askorentzat, bihotza jorantsu askorentzat, nahia lanabes askorentzat": - inguruan herri bat biltzen zaio, hau da: saiatzaile asko!

Nork agin dezakeen, nork obeditu behar duen - hori da hemen saiatzen dena! Ai, zeinen ikertze eta igartze eta hutsegite eta ikaste eta berriro saiatze luzearekin!

Gizakien elkarteak: saio bat da, hala irakasten dut nik - bilaketa luze bat: eta aginduko duena bilatzen du! -

- saio bat, oi ene senideok! Eta ez "kontratu" bat! Hauts, hautsizkidazue bihotz-kikil eta erdimerdien hitz horiek!

## XXVI

Oi ene senideok! Non datza gizaki guztien etorkizunerako arrisku handiena? Ez al da agian zintzo eta zuzenengan? -

- hitz egiten eta beren bihotzean sentitzen dutenengan: "Dagoeneko badakigu zer den ona eta zuzena, eduki ere badaukagu; utikan, oraindik bila dabiltzanak!"

Eta txarrek egin dezaketen kaltea gorabehera: zintzoen kaltea da kalterik kaltegarriena!

Eta munduaren gaizki-esaleek egin dezaketen kaltea gorabehera: zintzoen kaltea da kalterik kaltegarriena.

Oi ene senideok, norbaitek behin zien zintzo eta zuzenei bihotzera begiratu eta esan zien: "Fariseuak dira". Baina ez zion inork ulertu<sup>83</sup>.

Zintzo eta zuzenak berak ere ez ziren ulertzeko gauza: izpiritua beren kontzientzia onean preso daukate. Zintzoen ergelkeriak zuhurtzia hondargabea du.

Baina egia hau da: zintzoek fariseu izan beharra dute - ez dute aukerarik!

Zintzoek gurutziltzatu egin behar dute beren bertutea idorotzen duena! Hori da egia!

Baina beren herrialdea aurkitu zuen bigarrena, herrialdea, zintzo eta zuzenen bihotza eta lurra, horrek galdetzen du: "Nor gorrotatzen dute gehien?"

Sortzailea gorrotatzen dute gehien: balio zaharren taulak hausten dituenak, haustailea - horri hobienlari deitzen diote.

Zintzoak, izan ere, - ez baitira sortzeko gai: amaieraren hasiera dira beti: -

- gurutziltzatu egiten dute balio berriak taula berrietan idazten dituenak, etorkizunari sakrifikatzen dizkiote beren buruak - gizakiaren etorkizun osoa gurutziltzatzen dute!

Zintzoak - beti izan dira amaieraren hasiera. -

## XXVII

Oi ene senideok, ulertu al duzue hitz hau ere? Eta behiala "azken gizonaz" esan nuena? -

Zeinengan datza gizakien etorkizun osorako arriskurik handiena? Ez al da zintzo eta zuzenengan?

Hauts, hautsizkidazue zintzoak eta zuzenak! - Oi ene senideok, ulertu al duzue hitz hau ere?

## XXVIII

Ihes egiten al didazue? Izaturik al zaudete? Dardar egiten al duzue hitz honen aurrean?

Oi ene senideok, zintzoak eta haien taulak hausteko agindu nizuenean: orduan untziratu nuen nik gizona bere itsaso zabalean.

Eta orain datorkio lehenik izuikara handia, ingurura begiratzea, eritasun handia, nazka handia, zorabio handia.

Kostalde faltsuak eta segurtasun faltsuak erakutsi dizkizute zintzoek; zintzoen gezurretan jaio eta gerizatu zarete<sup>84</sup>. Zintzoek barreneraino endekatu eta faltsutua dago guztia.

Baina "gizaki" herrialdea aurkitu duenak "gizakien etorkizun" herrialdea ere aurkitu du. Orain nire marinel izan behar duzue, bipil, eroapentsu!

Zabiltzate zut eta konpasean, oi ene senideok, ikas ezazue zut ibiltzen! Itsasoa orroaka ari da: askok zutitu nahi dute berriro zuengan.

Itsasoa orroaka ari da: dena itsasoan dago. Ongi! Tira! Marinel zaharraren bihotza duzuenok!

Zer axola dio aberriak! Geure seme-alaben herrialdea dagoen lekura jo nahi du gure lemak! Harantz oldartzen da, itsasoa baino orroalariago, gure joran handia!-

XXIX

"Zergatik hain gogor!" - esan zion behiala diamanteari sukaldeko ikatzak; " ez al gaituk agian ahaide hurbil?"-

Zergatik hain biguin? Oi ene senideok, galdetzen dizuet nik ere zuei: ez al zarete - nire senideak?

Zergatik hain biguin, hain esaneko eta amore emateko prest? Zergatik dago hainbeste ukapen, hainbeste detrakzio zuen bihotzean? Hain asturu gutxi zuen begiradan?

Eta asturu eta noraezko izan nahi ez baduzue: nola nahi duzue nirekin - irabazi?

Eta zuen gogortasunak ez badu txinpartarik sortu eta ebaki eta urratu nahi: nolatan sortu ahal izango zenukete nirekin egunen batean?

Sortzaileak, izan ere, gogorrek baitira. Eta zoriontasuna iritzi behar diozue zuen eskuak milurteen gainean, argizaritan bezala, aztarna ezartzeari -

- zoriontasuna, milurteen nahiaren gainean, brontzean bezala, idazteari - brontzea baino gogorrago, brontzea baino nobleago. Guztiz gogorra soilik da nobleena.

Taula berri hau, oi ene senideok, ezartzen dut zuen gainean: gogor zaitezte! -

XXX

Oi, ene nahi hori! Premia guztien biragune, ene premiatasuna! Garaitzapen txiki guztietatik gorde nazak!

Hi, ene arimaren arduratasuna, nik asturu deitzen dudana! Nire baitan, nire gainean hagoena!

Zain eta gorde nazak asturu handi baterako!

Eta hire azken handitasuna, ene nahia, gorde ezak heure azken unerako - heure garaitzapenera arte noraezko izan hadin! Ai, nor ez zaio makurtu haren garaitzapenari!

Ai, zein begi ez da ilundu inular horditu horretan! Ai, nori ez dio oinak koloka egin eta nork ez du garaitzapenean desikasi - zutik egoten! -

- Ai banintz prestu eta heldu egon eguerdi handirako: prestu eta heldu, brontze goritua, hodei tximistaz ernaritua, errape esnez hanpatua bezala: -

- neure buruarentzat eta neure nahi ezkutuenarentzat prestu: geziaren irrikitan dagoen arkua, bere izarraren irrikitan dagoen gezia bezala: -

- bere eguerdian prestu eta heldu dagoen izarra bezala, irazeki, maitemindu, eguzki-izpi suntsitzaileengatik zoriontsu: -

- eguzki bera bezala ere, eguzki-nahi noraezko bezala, suntsierarako prestu garaitzapenean!

Oi nahia, premia guztien biragune, ene premiatasun hori! Gorde nazak garaitzapen handi baterako! -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

ZUZPERRA

I

Goiz baten, haitzulora itzuli eta handik gutxira, Zaratustrak zoro baten pare jauzi egin zuen ohatzetik, eta ahots beldurgarri oihuka ekin zion, eta keinuak egiten zituen, norbait ohatzean balego bezala, bertatik jaiki nahi ez zuena; eta hainbesteko durundia atera zuen Zaratustraren ahotsak, ezen bere piztiak izuturik erdu zitzaizkion eta haitzuloaren hurbileko leize edo gordeleku guztietatik ihes egin zuten animalia guztiek - hegaka, zafraka, arrastaka eta saltoka, bakoitzak zituen hegalek edo hanken arabera. Baina Zaratustrak hitz hauek esan zituen:

Jaiki hadi, amildegiko pentsamendua, nire barrenetik! Neu nauk hire oilarra eta goiznabarra, har lokartua: jaiki! jaiki! Nire ahotsak esnatuko hau bere kukurrukuaz! Atera itzak belarrietako zipotzak: entzun! Hiri adi egon nahi diat! Jaiki! Jaiki! Hemen baduk trumoirik aski hilobiek ere adi egoten ikas dezaten!

Eta ezaba itzak loa eta bitalaburra eta itsueria oro heure begietatik! Begiez ere entzuidak: nire ahotsa sendagai duk jaiotzatiko itsuentzat ere.

Eta esnatuz gero, esnai egon beharko duk beti. Ez diat ohiturarik berramonak lotatik esnatzeko, - atzera lo egin dezatela esateko!

Inarrosten, nagiak ateratzen, zurrungaka ari al haiz? Jaiki! Jaiki! Zurrunga ez, hitz egin behar didak -Zaratustrak deitzen dik, jainkogabeak!

Nik, Zaratustrak, biziaren aldezelek, zirkuluaren aldezelek - nik deitzen diat, nire pentsamendurik sakonekoena haizen horri!

Bejondeidala niri! Bahator - entzuten diat! Nire amildegia hitz egiten dik, bira eman zioat neure sakonuneari argiari begiratzeko!

Bejondeidala niri! Hator! Emaidak eskua - ai! Uzta! Ai, ai! - Nazka, nazka, nazka - ai ene!

## II

Zaratustra hitz hauek esan bezain laster, hildakoaren antzera amildu zen lurrera eta luzaroan hildakoa bezala egon zen. Senera itzuli zenean zurbil eta ikaraz zegoen, eta etzanik jarraitu zuen eta ez zuen luzaroan ez jan ez edan nahi izan. Zazpi egunez iraun zion egoera honek; baina bere piztiak ez zuten bertan behera utzi, ez egunez eta ez gauez, salbu, arranoak hegaz alde egiten zuela jatekoaren bila. Eta hartzen eta lapurtzen zuena Zaratustraren ohatzean uzten zuen: honela azkenerako Zaratustra ale hori eta gorrien, mahatsen eta arrosa-sagarren, belar usaintsu eta pina artean etzanik zegoen. Oinetan bi bildots zeuden, arranoak artzainei kostata harrapatu zizkienak.

Azkenik, zazpi egunen buruan, Zaratustrak ohatzean eseri, arrosa-sagar bat hartu, usnatu eta gogoko usaina aurkitu zion. Orduan piztiak uste izan zuten berarekin hitz egiteko ordua zela.

"Oi Zaratustra", esan zuten, "zazpi egun daramatzazu begiak itxita: ez al duzu berriro zangoen gainean jartzeko gogorik?"

Irten zaitez zeure haitzulotik: mundua baratze bat bezala itxaroten daukazu. Haizea zugana iritsi nahi duten urrin lodiekin jolasean ari da; eta erreka guztiek ere zure atzetik lasterka joan nahi dute.

Gauza guztiak zure irrikitan daude, zazpi egunez bakarrik geratu zarela ikusirik - irten zaitez zeure haitzulotik! gauza guztiek zure mediku izan nahi dute!

Agian etorri ote zaizu ezaguera mingots, astunen bat? Ore legamitua bezala etzan zara, arima harrotu eta muga guztien gainetik hanpatu zaizu".-

- Oi, ene piztiok, erantzun zien Zaratustrak, jarraitu berriketan eta utzidazue entzuten!

Zuen hizketak zuzpertz egiten nau: berriketa egiten den tokian, baratzea bezala hedatzen da mundua nire aurrean.

Zeinen atsegina den hitzak eta doinuak izatea: ez al dira hitzak eta doinuak beti banaturikoen artean ostadar eta lilura-zubi?

Arima bakoitzari beste mundu bat dagokio; arima bakoitzarentzat beste edozein arima atzemundu bat da.

Gauzarik antzekoenen artean esaten du gezurra ederkien lilurak; zeren leizerik txikiena baita gainditzen zailena.

Niretzat - nola izan liteke nitaz kanpikorik? Ez dago kanporik! Baina doinu guztiek ahanzarazten digute hau; bai atsegina dela ahaztea!

Ez al zaizkie gauzei izenak eta doinuak oparitzat eman, gizona gauzetan zuzper dadin? Mintzatzea, erokeria ederra da, bai: horrela gizonak dantza egiten du gauza guztien gainetik.

Zeinen atsegina den hitz egite oro eta doinuen gezur guztiak! Doinuek dantza eragiten diote gure maitasunari ostadar nabarren gainetik. -

- "Oi Zaratustra", ihardetsi zioten piztiok "guk bezala pentsatzen dutenentzat gauza guztiek dantza egiten dute: etorri eta eskua luzatu eta barre eta ihes egiten dute - eta itzuli egiten dira.

Dena joan eta dena itzultzen da; izatearen gorpila beti biraka dabil. Dena hiltzen da, dena loratzen da berriro, beti lasterka doa izatearen urtea.

Dena hausten da, dena konpontzen da berriro; beti eraikitzen da izatearen etxe bera.

Denak esaten du adio, denak esaten du agur berriro; beti leial irauten dio bere buruari izatearen itzuliak.

Aldiune bakoitzean hasten da izatea; "hemen" ororen inguruan ematen ditu birak "han" bolak. Zentrua edonon dago. Kurbatua da betierako zidorra". -

- Oi, alprojok, organilook! erantzun zuen Zaratustrak berriro irribarre eginez, zeinen ongi dakizuen zer burutu behar zen zazpi egunetan: -

- eta nola munstro hura eztarrira arrastaka sartu eta ito ninduen! Baina hortzaka burua kendu eta nigandik urrunera ttu egin nuen.

Eta zuek - horrekin organilo-kanta bat egin al duzue? Baina orain hemen nago etzanik, nekaturik oraindik hortzaka eta ttuka egin izanaz, neure buruaren berrerospenaz gaixoturik.

Eta zuek guzti honi so al zaudete? Oi ene piztiok, ankerrak ere ba al zarete? Nire saminari so egon nahi izan al duzue, gizonek egiten dutenez? Gizakia da, izan ere, piztiarik ankerrena.

Tragediak, zezenketak eta gurutziltzatzeak izan ditu gogokoen munduan orain arte; eta ifernua asmatu zuenean, hara, hauxe izan zuen bere zeru lur honetan.

Gizon handiak oihu egiten duenean: - txikiak haren alboan egiten du lasterka; eta mihia ahotik zintzilik erabiltzen du bekaitzez. Baina horri bere "erruki" deitzen dio.

Gizon txikiak, poetak batez ere - zeinen sutsuki salatzen duen bizitza hitzetan!

Entzuiozue, baina ez utzi edozein salaketatan dagoen atsegina entzuteari!

Bizitzaren salatzaile horiek: begirada bakar batez gainditzen ditu bizitzak. "Maite al nauk?" galdetzen du lotsagabeak; "itxaron apur batean, oraindik ez baitiat hiretzat denborarik".

Gizakia da bere buruarekiko piztiarik ankerrena eta beren buruak "bekatari" eta "gurutzeroale" edo "penitentzigile" deitzen dituzten guztien artean, ez utzi kexatze eta salatze horretan dagoen atsegina entzuteari!

Eta neronek ere - gizakiaren salatzaile izan nahi al dut honenbestez? Ai, ene piztiok, hauxe besterik ez dut ikasi orain arte, gizakiak bere txarrena behar duela bere hoberenerako -

- txarrik handiena duela bere indarrik hoberena eta harririk gogorrena sortzaile gorenarentzat; eta beharrezko dela gizakia hobe eta txarrago bihurtzea: -

Ni iltzaturik nindukan oinaze-habea ez zen gizakia makurra dela jakitea - baizik eta nik ordura arte beste inork ez bezala oihu egitea:

"Ai, zeinen txikiak dituen bere gauzarik txarrenak ere! Ai, zeinen txikiak dituen bere gauzarik hoberenak ere!"

Gizakiaren gogaita handiak - horrek itotzen ninduen, hori trabatu zitzaidan zintzurrean: eta hori iragartzen zuen iragarleak: "Dena berdin dio, ez du ezerk merezi, jakiteak ito egiten du".

Inular luze bat zebilen herrenka nire aurrean, tristura heriotzaraino nekatu eta horditu bat, aharrausika zioena.

"Beti itzultzen da hura, gogaiturik zauzkan gizona, gizon txikia" - honela egiten zuen aharrausi nire tristurak eta arrastatzen zituen oinak eta ezin zen lokartu.

Haitzulo bihurtu zitzaidan giza lurra: bere bularra hondoratu egin zen, bizidun oro giza usteldura, hezur eta iragan irol bihurtu zitzaidan.

Nire hasperenak giza hilobi guztien gainean eserita zeuden, eta ezin ziren zutitu; nire hasperenek eta galderek aztiapen beltzak egin eta ito eta karraskatu eta kexatu egiten ziren egunez eta gauez:

- "ai, gizona beti itzultzen da! Gizon txikia beti itzultzen da!" -

Biluzik ikusi nituen behiala biak, gizonik handiena eta gizonik txikiena: elkarren antzekoegiak dira, -gizatiarregia handiena bera ere!

Txikiegia handiena! - horixe zen gizonarekiko nire gogaita! Eta txikienaren betierako itzulera! - horixe zen izate guztiarekiko nire gogaita!

Ai, nazka, nazka, nazka! - - Honela mintzatu zen Zaratustra eta hasperen eta dardar egin zuen; zeren bere eritasunaz oroitzen baitzen. Baina bere piztiek ez zioten jarraitzen utzi.

"Ez mintza gehiago, zuzperra!" - honela erantzun zioten bere piztiek, "baizik eta irten zaitez, mundua baratze baten modura itxaroten dagokizun tokira.

Irten zaitez arrosen eta erleen eta uso-saldoetara! Eta batez ere txori kantariengana: haiengandik kantatzen ikastera!

Kantatzea ongi doakio zuzperrari; osasuntsuak nahiago du hitz egin. Eta osasuntsuak ere kantak nahi baditu, zuzperrarenaz bestelako kantak nahi ditu."

- "Oi alproja eta organiloak, isil zaitezte!" - erantzun zuen Zaratustrak eta irribarre egin zien bere piztiei. "Bai ongi ezagutzen duzuela zazpi egunetan neure buruari prestatu diodan pozkarioa!

Berriro kantatu egin behar dudala - pozkario hau eta sendaketa hau idoro diot neure buruari: nahi al duzue berehala organilo-kanta bat atera?"

- "Ez mintza gehiago", erantzun zioten berriro bere piztiek; "hobe duzu, zuzper horrek, aurrena organilo bat zeuretzat prestatzea, organilo berri bat!

Begira ezazu, oi Zaratustra! Kanta berrietarako organilo berriak behar dira.

Kanta eta estal zeure ahotsaz zaratak, oi Zaratustra, senda ezazu zeure arima kanta berriei: zeure zori handia eraman dezazun, oraindik ezein gizonek izan ez duena!

Zeren zure piztiei ongi baitakite, oi Zaratustra, nor zaren eta nor bilakatu behar duzun: hara, betierako itzuleraren maisua zara zu85 - horixe duzu zeure zoria!

Zu irakatsi hau irakasten lehena izatea - nola ez da, bada, zori hau zure arriskurik eta eritasunik handiena izango!

Hara, badakigu zer irakasten duzun: gauza guztiak beti itzultzen direla, eta baita gu ere beraiekin, eta geu ere ezin konta ahala alditan izan garela eta gauza guztiak gurekin.

Bilakaeraren urte handi bat dagoela irakasten duzu, urte-munstro handi bat: hareazko erloju baten antzera, berriz alderantzikatu behar dena iragazi eta hustutzeko: -

- urte guzti hauek elkarrekiko berdinak direlarik, handiengan eta txikiengan - gu ere urte handi bakoitzean geure buruarekiko berdinak gara, handiengan eta txikiengan.

Eta orain hil nahi izango bazenu, oi Zaratustra: hara, badakigu nola mintzatuko

zintzaizkion zeure buruari: - baina zure piztiei oraindik ez zaitezela hil eskatzen dizute!

Dardar egin gabe mintzatuko zinateke orduan, zoriontasunez arnasa hartuz: zeren pisu eta itomen handi bat kenduko bailitzaizuke gainetik, jasankorrena zaren horri! -

“Orain hil eta ezabatzeri noa”, esango zenuke, eta aldiune batean ezerez bat naiz.

Arimak gorputzak bezain hilkorak dira.

Baina maila naizeneko kausa-katea itzuliko da -berak sortuko nau berriz! Ni neu naiz betierako itzuleraren kausetako bat.

Eguzki honekin, lur honekin, arrano honekin, suge honekin itzuliko naiz - eta ez bizitza berri batera, edo bizitza hobe batera edo bizitza antzeko batera:

- beti bizitza berdin eta bera honetara itzuliko naiz, handiengan eta txikiengan, berriro gauza guztien betiko itzulera irakasteko -

- berriro lurraren eta gizonen eguerdi handiaren hitza esateko, gizonei gaingizona iragartzeko.

Esana dut neure hitza, eta hautsi egiten naiz neure hitzean: hori nahi du betierako nire zoriak - iragarle bezala jotzen dut behea!

Etorri da ordua behera doanak bere burua bedeinka dezan. Honela - amaitzen da Zaratustraren behera joatea". - -

Piztiek hitz hauek esan zituztenean, isildu eta itxaroten geratu ziren Zaratustrak zerbait esan arte: baina Zaratustrak ez zuen entzun haiek isilik zeudenik. Aitzitik isilean etzanik zegoen, begiak itxita, lotan dagoenaren antzera, nahiz eta lotan ez egon: zeren bere arimarekin solasean ari baitzen. Baina sugeak eta arranoak hain isilik aurkitzean, inguruan zeukan isiltasun handia ohoratu eta arretaz alde egin zuten bertatik.

#### JORAN HANDIAZ

Oi ene arima<sup>86</sup>, nik irakatsi diat "gaur" esaten "behiala" eta "inoiz" esaten diren bezala, eta hemen eta hor eta han guztien gainetik dantzan pasatzen.

Oi ene arima, nik salbatu haut zoko guztietatik, nik baztertu dizkiat higandik hautsa, armiarmak eta argitzala.

Oi ene arima, nik garbitu diat lotsatxoa eta zoko-bertutea higandik eta eguzkiaren begietara biluzik egotera komentzitu haut.

"Izpiritu" deritzon ekaitzaz ufa egin diat hire itsaso asaldatuaren gain; hodei guztiak bidali dizkiat ufaka bertatik eta "bekatu" deritzon itoazalea ito diat.

Oi ene arima, ekaitzak bezala ezetz esateko eskubidea eman diat, eta baietz esatekoa, zeru zabalak bai esaten duen bezala: argia bezala isilik hago eta orain ekaitz ukatzailetan barna hoa.

Oi ene arima, atzera askatasuna eman diat sortuaren eta sortugabearen gain: eta nork ezagutzen dik, hik ezagutzen duan bezala, etorkizunaren gozamina?

Oi ene arima, nik irakatsi diat arbuioa, pipiak bezala jotzen ez duena, arbuio handia, maitakorra, gehien arbuizatzen duena, gehien maitatzen duena.

Oi ene arima, nik irakatsi diat komentzitzen, halako molde, non argudioak berak komentzitzen dituan: eguzkiak bezala, itsasoa bere goieraraino igotzeko komentzitzen baitik.

Oi ene arima, nik kendu diat higandik obedientzia, belaunikatze eta "jauna" esate oro; horregatik eman dizkiat "premiaren biragune" eta "zori" izenak.

Oi ene arima, izen berriak eta jostailu nabarrak eman dizkiat, "zori" eta "inguruen inguru" eta "denboraren zilborreste" eta "ezkila urdin" izenak eman dizkiat.

Oi ene arima, nik eman zioat hire alorrari jakituria oro edateko, ardo berri oro eta baita jakituriaren ardo antzina-antzinako eta sendoak ere.

Oi ene arima, nik isuri dizkiat hire gain eguzki oro eta gau oro eta isiltze oro eta joran oro: - orduan mahatsondo bat bezala hazi haiz niretzat.

Oi ene arima, aberats okitu eta abaildu aurkitzen haiz orain, ugatz hanpatuak eta luku trinko eta urre-beltzak dituen mahatsondoa bezala: -



- hire zoriontasunak zapaldua eta zanpatua, hire gainezkari itxaroten eta hire itxaroteagatik lotsaturik.

Oi ene arima, dagoeneko ez zegok inon hi baino arima maitakorrago eta besarkatzaileago eta zabalagorik! Non elkartuko hituzke bilduago etorkizuna eta iragana higan baino?

Oi ene arima, dena eman diat, eta nire esku guztiak higan hustu dituk: - eta orain! orain irribarrez eta melankoliaz beterik esaten didak: "Gutako zeinek eman behar ditu eskerrak? -

- emailak ez al du eskertu behar hartzaileak hartzea? Ematea ez al da beharria? Hartzea ez al da - errukitzea?" -

Oi ene arima, ulertzen diat hire melankoliaren irribarrea: hire gehiegizko aberastasunak berak ere hedatzen ditu orain bere esku guraritsuak!

Hire betetasunak itsaso zatatsuen gainetik begiratzen dik eta bilatu eta itxaron egiten dik. Gehiegizko betetasunaren joranak hire zeru-begi irribarretsuetatik begiratzen dik! Eta zinez, oi ene arima! Nork ikusiko liake hire irribarrea negar-malkotan urtu gabe? Aingeruak berak ere negar-malkotan urtzen dituk hire irribarrearen gainontasunarengatik.

Hire ontasunak eta gainontasunak ditut kexatu eta negar egin nahi ez dutenak: halere, oi ene arima, hire irribarreak negar-malkoak eta hire aho dardartiak zotinak irrikatzen ditu. "Negar oro ez al da kexu eta kexu oro salakuntza?" Honela hitz egiten diok heure buruari, eta horregatik nahiago duk, oi ene arima, irribarre egin heure samina asaskatu baino

- malko-errekatan eta sufrikario guztia hustu heure betetasunagatik eta mahatsondoak mendemari eta inausleei ematen dien presarengatik!

Baina heure melankolia purpurazkoa negar egin eta asaskatu nahi ez baduk, orduan kantatu egin beharko duk, oi ene arima! - Hara, neuk ere irribarre egiten diat, hau neronek aurrez iragarria baituk:

- kanta zatatsuz kantatu harik eta itsaso guztiak isildu arte, hire jorana entzun dezaten -

- itsaso isil eta jorantsuen gainean hire txalupa kulunka dadin arte, urrezko miraria, zeinaren urrearen inguruan gauza txar miragarri guztiak jauzika ari baitira: -

- eta piztia handi eta txiki ugari ere bai, eta oin arin miragarriak dituen guztia bioleta-zidorretan barrena lasterka egiteko -

- urrezko mirarirantz, borondatezko txalupa eta haren nagusiarengantz: bere diamantezko inauskaiarekin itxaroten dagoen mendemaria baita hau -

- hire askatzaile handia, oi ene arima, izengabea -etorkizuneko kanteak soilik izena idoroko diotena! Eta zinez, dagoeneko hire hatsak badik etorkizuneko kanten usain gozoa -

- dagoeneko sugarretan eta ametsetan hago, dagoeneko ari haiz heure egarria iraungitzen hots sakoneko poz-hosinetan, dagoeneko hire melankolia etorkizuneko kanten zoriontasunean atsedena hartzen ari duk! - -

Oi ene arima, dena eman diat eta baita azkenerainokoa ere, eta nire esku guztiak higan hustu dituk: - begira nik hiri kantatzeko agintzea, horixe izan duk nire azkenekoa!

Kantatzeko agintzea, eta orain mintza hadi: gutako zeinek eman behar dizkik orain - eskerrak? - Edo hobeki oraindik: kantaidak, kanta, oi ene arima! Eta utzidak niri eskerrak ematen! -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

BESTE DANTZA-KANTA

I

"Begietara so egin diat arestian, oi bizia: urrea ikusi diat nir-nirka hire gau-begietan - nire bihotza isilik geratu duk gozamen horren aurrean:

- urrezko untzi bat ikusi diat nir-nirka gaueko uren gainean, hondoratzen, azaleratzen eta berriz keinuak egiten ari zen untzi kulunkari bat!

Dantza-egarri ziren nire oinetara bota duk begirada, barre egin, galdetu eta urtzen zuen begirada kulunkaria:

Bi aldiz soilik inarrosi dituk kriskitinak heure eskutxoez - ordurako nire oinak dantza-egarriz kulunka zeuden. -

Tentetu egin zitzaizkidan orpoak, adi jarri behatzak hi ulertzeko: dantzariak belarriak - behatzetan baitauzka!

Higana egin nian salto: ihes egin huen nire saltoaren aurrean; nigana mugitu ziren suge-miztoak bezala hire ile-mihi iheskor hegalaria!

Eta higandik eta hire sugeengandik urrundu ninduan salto batez: orduan hi gelditu egin hintzen begiak irrikaz beterik.

Begirada makurrekin - irakasten dizkidak zidor makurrak; zidor makurretan ikasten ditu nire oinak -amarruak!

Beldurra diat hurbilean, maite haut urrunean; hire ihesa erakarle diat, hire jazarketa geldiarazle: -sufritzen diat, baina zer ez ote diat higatik gogara sufritu!

Higatik, zeinaren hotzak sutzen baitu, zeinaren gorrotoak lilurutzen, zeinaren ihesak atxilotzen, zeinaren isekak - hunkitzen:

- nork ez hinduke, oi lotzaile eta biltzaile, liluratzaille, bilatzaile, aurkitzaile handi hori!

Nork ez hinduke maitatuko bekatari, errugabe, artaga, kaskarin, ume-begi hori!

Nora arrastatzen nauk orain, mirari eta malapartatu haizen horrek? Eta orain berriz ere ihes egiten didak, harrapakin gozo eta eskergabeko haizen horrek!

Dantzari jarraitzen diat, aztarna lausoen gainetik ere jarraitzen diat. Non hago? Emaidak eskua! Edo hatz bat gutxienez!

Hemen leizeak eta sasiak zeudek: galdu egingo gaituk! - Geldi! Ez mugi! Ez al dituk ikusten hegaz mozoiloak eta saguzarrak?

Hi, mozoiloa! Hi, saguzarra! Barre egiten al didak? Non gaude? Txakurrengandik ikasi duk ulu eta zaunka egiten.

Maitakor egiten didak marmuka heure hortzatxoez: hire begi gaiztoek salto egiten zidatek hire adats kizkurdunetatik!

Hau mendi-zelaitarako dantza duk: ni nauk ehiztaria - nire txakur edo orein izan nahi al duk?

Orain hator ondora! Eta bizkor, saltari makurra! Orain gora! Eta bestaldera! - Ai ene, neu ere erori egin naiz salto egitean!

Oi, begiraidak lurean, hantuste horrek, eta grazia eskatzen! Atseginez ibiliko nindukek hirekin -bidezidor atseginagoetan zehar!

- maitasun-zidorretan sasitza nabar isiletan barna! Edota laku-hegian barna urraburuak igeri eta dantza egiten duten tokian!

Dagoeneko nekatu al haiz? Han goian ardiak eta arraskorriak zeudek: ez al duk ederra artzainek txirula jotzen dutenean lo egitea?

Hain nekatu al hago? Besoetan eramango haut, utz heureei erortzen! Eta egarri bahaiz - nik baniake zertaz ase, baina hire ahoak ez du edan nahi!

- Oi, suge madarikatu, zalu, malgu eta sorgin labankorra! Nora sartu haiz? Baina aurpegian sentitzen dinat hire eskuen aztarnak, bi zaplazo gorri!

Zinez negon nekatu al hago? Beti hire artzain tentela izateaz! Sorgina, hiretzat kantatu dinat orain arte, orain hik niretzat - garrasi egin behar dun!

Nire zartailuaren konpasean dantza eta garrasi egin beharko dun niretzat! Agian ahaztu egin ote dinat zartailua? - Ez!" -

II

Orduan biziak erantzun zidan eta bitartean belarri politak estali zituen:

"Oi Zaratustra! Ez zafra zartailuaz hain beldurgarriro! Hik badakik hori ongi: zaratak hil egiten dizkik pentsamenduak - eta oraintxe bertan pentsamendu samurrak zetozkidak.

Gu biok ez ongi ez gaizki egiten ez dugun bi alfer gaituk. Ongiaz eta gaizkiaz haraindi geure uhartea eta geure belardi berdea aurkitu diagu - biok bakarrik! Horregatik izan behar diagu on elkarrekiko!

Eta barren-barrenean elkar maite ez badiagu ere -elkarri gaitzeria izan behar al zaio, elkar barren-barrenetik maite ez izateagatik?

Eta ni hiretzat ona naizela eta sarritan onegia, hori badakik: eta arrazoia duk hire jakituri azaldu nagoela. Ai, jakituria atso zahar zoro eta tuntun hori!

Baldin jakituriak inoiz ihes egingo balik, ai! orduan nire maitasunak ere laster ihes egingo liake". -

Ondoren begiratu zuen biziak gogoetatsu atzealdera eta ingurura eta ahapeka esan zuen:

"Oi Zaratustra, ez hatzait behar bezain leial!

Ez nauk inondik ere esan duan adina maite; bazekiat laster ni bertan behera uztea pentsatzen duala.

Bazegok errepika-kanpai astun-astun bat: haren errepikak gauero hire haitzuloraino iristen dituk: -

- gauerdian ordua jotzen entzuten duanean, horretan pentsatzen duk ordubetetatik hamabiak bitartean -

- horretan pentsatzen duk, Zaratustra, bazekiat, laster bertan behera utziko nauala!" -

"Bai", erantzun nion zalantzakor, "baina hik ere badakin hau - "Eta zerbait xuxurlatu nion belarrira, bere ile-xerlo nahasi, horiska eta zoroen artean.

"Badakik hori, oi Zaratustra? Hori ez zekik inork".-

Eta elkarri begiratu eta belardi berdeetara begiratu genuen, arrats hozkirri lasterka zebilen tokira, eta elkarrekin egin genuen negar. - Orduan, ordea, bizia inoiz nire jakituria guztia izan zaidan baino maitagarriago gertatu zitzaidan. -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

II

Bat!

Oi gizona! Erne!

Bi!

Zer dio gauerdi sakonak?

Hiru!

"Lotan nengoen, lotan nengoen -

Lau!

Amets sakonetik esnatu naiz: -

Bost!

Mundua sakona da.

Sei!

Egunak uste zuen baino sakonagoa.

Zazpi!

Sakona du samina -

Zortzi!

Atsegina - sakonagoa oraindik bihotz-mina baino:

Bederatzi!

Saminak dio: Pasa!

Hamar!

Baina atsegin orok betiera nahi du -  
Hamaika!

- betiera sakon-sakona!"

Hamabi!

ZAZPI ZIGILUAK

(Edo: "Bai- eta -Amen"-kanta)

I

Baldin ni igerle banaiz eta bi itsasoen arteko lepagainetik dabilen izpiritu igerle horretaz betea -

iragana eta etorkizunaren artean hodei betea bezala dabilena, - sakonune itogarrien eta nekaturik dagoen eta ez bizi eta ez hil ezinean dagoen guztiaren etsai:

oinaztarrerako prest golko ilunean eta tximistargi salbatzailerako, bai! esaten duten eta bai! barre egiten duten tximistez ernaria, tximistargi igerletarako prest: -

- zorionekoa da halere horrelako ernaritasuna duena! Eta zinez, luzaroan eralki behar du ekaitz betea bezala mendiaren gainean, egunen batean etorkizunaren argia piztuko duena! -

Oi nola ez nuen ba nik betieraren irrika sentituko eta eraztunen ezkon-eraztunarena - itzuleraren eraztunarena?

Ez nuen inoiz aurkitu, berarengandik nik haurrak izateko moduko emakumerik, maite dudan emakume hau izan ezik: zeren maite baitzaitut, oi betiera!

Zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

II

Baldin nire suminak inoiz hilobiak hautsi, mugarriak mugitu eta taula zahar hautsiak amildegira jaurtiki baditu:

Baldin nire isekak inoiz hitz irolduak aireratu eta ni erratz baten gisako izan banaiz gurutze-armiarmentzat eta haize araztailea bezalako ehortz-ganbara zahar lizunduetan:

Baldin eta inoiz eseri banaiz pozkarioz beterik jainko zaharrak lurperaturik dauden tokian, mundua bedeinkatu eta maitatuz, munduaren gaizki-esale zaharren oroigailuen ondoan: -

- zeren elizak eta jainko-hilobiak berak ere maite baitituz, baldin estalki hautsietan barna zeruaren begirada garbia sartzen bada behintzat; gogoz esertzen naiz belara eta mitxoleta gorriak bezala eliza porrokatuetan -

Oi nola ez nuen ba nik betieraren irrika sentituko, eta eraztunetan ezkon-eraztunarena - itzuleraren eraztunarena?

Ez nuen inoiz aurkitu, berarengandik nik haurrak izateko moduko emakumerik, maite dudan emakume hau izan ezik: zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

Zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

III

Baldin inoiz hats sortzailezko hatsik nigana etorri bada, eta zoriak berak izar-biribilketak dantzatzera behartzen dituen premia zerutar horrenik:

Baldin inoiz tximista sortzailearen barreaz barre egin badut, zeinaren ondotik egintzaren trumoi luzea, orroaka baina esaneko, baitarraio:

Baldin inoiz lurreko jainko-mahaian jainkoekin dadotan jolas egin badut, halako moldez, non lurrak ikara egin eta itzausi eta su-errekak zintz egin dituen: -

- zeren lurra jainko-mahaia baita, dardar egiten duena hitz berri sortzaileen eta jainkoen dado-jokoen aurrean: -

Oi nola ez nuen ba nik betieraren irrika sentituko eta eraztunetan ezkon-eraztunarena - itzuleraren eraztunarena?

Ez nuen inoiz aurkitu, berarengandik nik haurrak izateko moduko emakumerik, maite dudan emakume hau izan ezik: zeren maite baitzaitut, oi betiera!

Zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

#### IV

Baldin inoiz gurrakada handitan espezia- eta muztio-pitxer apartsu hartatik edan badut, non gauza guztiak ongi nahasturik dauden:

Baldin inoiz nire eskuak urrunenekoa hurbilenekoaren gain isuri badu, eta sua izpirituaren gain eta atsegina oinazearen gain eta makurrena onberarenaren gain:

Baldin neu ere gatz salbatzaile hartako ale banaiz, zeinak egiten baitu gauza guztiak ongi nahas daitezen pitxer hartan: -

- zeren bai baitago gatz bat, ona eta txarra lotzen dituen; eta txarrena ere ongarritarako duin da eta pitxerrari aparrez gainezka eragiteko: -

Oi nola ez nuen ba nik betieraren irrika sentituko eta eraztunetan ezkon-eraztunarena - itzuleraren eraztunarena?

Ez nuen inoiz aurkitu, berarengandik nik haurrak izateko moduko emakumerik, maite dudan emakume hau izan ezik: zeren maite baitzaitut, oi betiera!

Zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

#### V

Baldin itsasoaren zale banaiz eta itsasoaren gisako den guztiarena, eta inoiz baino zaleago amorrutik kontraesaten didanean:

Baldin eta nigan atsegin bilatzaile hura badago, ezezagunerantz haize-oihalet bultza egiten diona, nire atseginaren marinel-atsegina badago:

Baldin nire pozkarioak inoiz oihalet egin badu: "Kostaldea ezkutatu da - azken katea erori zait -

- mugagabea orroaka ari zait inguruan, han urrunean dir-dirka ari zait espazioa eta denbora, tira! aurrera! bihotz zaharra!" -

Oi nola ez nuen ba nik betieraren irrika sentituko eta eraztunetan ezkon-eraztunarena - itzuleraren eraztunarena?

Ez nuen inoiz aurkitu, berarengandik nik haurrak izateko moduko emakumerik, maite dudan emakume hau izan ezik: zeren maite baitzaitut, oi betiera!

Zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

#### VI

Baldin nire bertutea dantzariaren bertutea bada eta sarritan bi zangoz salto egin izan badut urte-esmeraldazko estasira:

Baldin nire txarkeria irribarretsua bada, arrosa-parral eta lili-hesien azpian ezkututzen dena:

- barrean biltzen baita txar guztia, baina dohatsu egina eta atsolbitua bere dohatsutasunaz: -

Eta baldin nire Alfa eta Omega bada astuna den oro arin bihurtzea, gorputz oro dantzari, izpiritu oro hegazti: eta zinez, hori da nire Alfa eta Omega! -

Oi nola ez nuen ba nik betieraren irrika sentituko eta eraztunetan ezkon-eraztunarena - itzuleraren eraztunarena?

Ez nuen inoiz aurkitu, berarengandik nik haurrak izateko moduko emakumerik, maite dudan emakume hau izan ezik: zeren maite baitzaitut, oi betiera!

Zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

#### VII

Baldin neure gainean inoiz zeru isilak hedatu baditut eta neure hegalez neure zeruetara hegaz egin badut:

Baldin jolasean argi-urruntasun sakonetan igerian egin eta nire askatasunari hegazti-jakituria etorri bazaio: -

- eta honela mintzatzen da hegazti-jakitura: "Hara, ez zegok goirik, ez beherik! Habil harat-honat, goitik behera, aurretik atzera, arin hori! Kanta ezak! Ez hadi gehiago mintza!" -

- ez al zeudek hitz guztiak astunentzat eginak? Ez al ziotek gezurra esaten arinari hitz guztiek? Kanta ezak! Ez hadi gehiago mintza!-

Oi nola ez nuen ba nik betieraren irrika sentituko eta eraztunetan ezkon-eraztunarena - itzuleraren eraztunarena?

Ez nuen inoiz aurkitu, berarengandik nik haurrak izateko moduko emakumerik, maite dudan emakume hau izan ezik: zeren maite baitzaitut, oi betiera!

Zeren maite baitzaitut nik, oi betiera!

LAUGARREN

ETA AZKEN

ATALA

Ai, eta non egin dira munduan errukitsuen artean baino tentelkeria handiagoak? Eta zerk sortu du munduan errukitsuen tentelkeriek baino pairamendu gehiago?

Ai ene, beren errukia baino goiera handiagorik ez duten maitale guztiak!

Honela mintzatu zitzaidan deabrua behinola: "Jainkoak ere badu bere ifernua: gizonenganako maitasuna du hori".

Eta arestian entzun diot hitz hau esaten: "Hil da Jainkoa; gizonenganako bere errukiagatik hil da Jainkoa".

Zaratustra

Errukitsuez ( II, 106 or.)

## EZTI-ESKAINZA

- Eta berriro hilabeteak eta urteak igaro ziren Zaratustraren arimaren gainetik eta bera ez zen ohartu; baina ilea zuritu zitzaion. Egun batez, bere haitzulo aurreko harri batean eserita zegoela, isilik urrunera begira - izan ere bertatik itsasoa ageri baitzen urrunean, amildegi bihurrien gainetik, - bere piztiak pentsakor biraka inguruan hasi eta azkenean aurrez aurre jarri zitzaizkion.

"Oi Zaratustra", esan zuten "zeure zorionaren bila al zabilta begiez?" - "Bost axola dio zorionak!" erantzun zuen berak "aspaldi da ez dudala zorionik gura, neure obra dut gura." - "Oi Zaratustra", hitz egin zuten berriro piztiek, "ondasunez gainezka bazeunde bezala diozu hori. Ez al zaude agian zorionezko laku zerua bezain urdin batean?" - "Ai, alproja halakoak!", erantzun zuen Zaratustrak barre eginez, "bai ongi hautatu duzuela irudia! Baina badakizue nire zoriona astuna dela ere eta ez iturburu jariakorra bezalakoa: zanpatu egiten nau eta ez dit alde egin nahi, eta bike urtua bezalakoa da". - Orduan piztiak berriro pentsakor biraka inguruan hasi eta gero aurrez aurre jarri zitzaizkion. "Oi Zaratustra", esan zioten, "horregatik gertatzen al zaizu gero eta horiago eta ilunago jartzea, nahiz eta zure ileak zuri eta kalamu-itxurako izan nahi duen? Hara, zeure biketan eserita zaude!" - "Zer diozue, ene piztiok", - esan zuen Zaratustrak barre eginez. "zinez, birao esan dut bikeaz mintzatu naizenean<sup>87</sup>. Niri gertatzen zaidana, heltzen diren fruitu guztiei gertatzen zaie. Nire zainetako eztiak loditzen dit odola eta isilagotzen arima". - "Hala izango da, oi Zaratustra", erantzun zuten piztiek eta arrimatu egin zitzaizkion; "baina ez al duzu gaur mendi garai batera igo nahi? Airea garbia da eta inoiz baino mundu gehiago ikusten da." - "Bai, ene piztiok", erantzun zuen, "bikain ematen didazue aholku eta nire bihotzaren gogara: gaur mendi garai batera igoko naiz! Baina ahalegin zaitezte bertan ezti eskumenean izan dezadan, aberaskako urre-ezti hori, zuri, on, izotzaren freskurakoa. Zeren jakizue, han goian ezti-eskaintza egingo baitut". -

Baina Zaratustrak, gora igo zenean, bidali egin zituen lagundu zuten piztiak eta orduan bakarrik zegoela aurkitu zuen: - eta bihotz-bihotzez barre egin, ingurura begiratu eta honela mintzatu zen:

Eskaintzaz eta ezti-eskaintzaz mintzatu izana, nire hizketaren amarru bat besterik ez da izan eta, zinez, tentelkeria baliagarria! Hemen goian librekiago hitz egin dezaket ermitauren haitzulo eta ermitauren etxabereen aurrean baino.

Zertan eskaintza egin! Oparitzen didatena xahutzen dut, mila eskutako xahutzailea naizen honek: nola lekidake zilegi oraindik gauza honi - eskaintza-egite deitzea!

Eta ezti eskatu dudanean, beita besterik ez dut eskatu, urin eta gurin gozoa, hartz orroalari eta hegazti gaizto egoskor miragarriei ahoa uretan jarriko diena:

- beitarik hoberena eskatu dut, ehiztari eta arrantzaleek behar dutena. Zeren mundua pizti oihan ilun baten gisakoa bada, basa-ehiztariantzako atsegin-baratze, oraindik areago eta gogozago deritzot itsaso aberats hondargabea,

- arrain nabar eta karramarroz beteriko itsasoa, jainkoei berei ere arrantzale bihurtu eta sareak jaurtikitzeko gogoia emateko modukoa: hain da aberatsa mundua mirari handi eta txikitan!

Eta guztiaren gainetik giza mundua, giza itsasoa: -bertara jaurtikitzen dut nik orain neure urrezko kainabera eta esaten dut: zabal hadi, giza amildegi hori!

Zabal hadi eta jaurtikizkidak heure arrain eta karramarro distiratsuak! Neure beita hoberenaz ari nauk beitatzen gaur giza arrain miragarrienak!



- neure zoriona bera jaurtikitzen dut zabalera eta urrunera guztietara, goiznabarra, eguerdia eta inularra bitartean, ea giza arrain askok ikasten duten nire zorionari tira eta kosk egiten.

Harik eta, nire amu zorrotz ezkutukoari hozka eginez, nire goierara irten beharko duten arte amildegi-zarbo nabarrenek giza arrantzalerik makurrenarenganaino.

Zeren ni hori bainaiz, hasieratik eta sorreratik, tiraka, arrastaka, gora tiraka, aurrera tiraka, tiratzailea, hezlea, hezle-maisua, zeren ez baitzen alferrik esan behiala: "Haizena izatera hel hadi!"

Beraz orain gizonak niganaino igo daitezela: zeren oraindik itxaroten bainagokie nire beheraldirako garaia dela adieraziko didaten zeinuei, baina oraindik ez noa behera, dagokidanez, gizonen artean.

Hori itxaroten nago hemen, maltzur eta isekati, mendi garaietan, ez pazientzigabe, ez pazientzitsu, aitzitik eroapena ahaztu duena bezala - zeren ez baitu ezer "eroaten" jada. Izan ere, nire zoriak astia uzten dit: ahaztu egin ote nau? Edota harritzar baten atzean eserita ote dago itzalpean euliak harrapatzen?

Eta zinez, esker oneko natzaio neure betiko zoriari zirikatzen eta bultzatzen ez nauelako eta txantxa eta gaiztakerietarako astia uzten didalako: honela igo ahal izan naiz gaur arrainak harrapatzera mendi garai honetara.

Gizonak harrapatu al du inoiz arrainik mendi garaietan? Eta nik hemen goian nahi dudana eta dihardudana zorakeria bat bada ere: hobe da hau ni han behean maiestatetsu jartzea baino itxarotez, eta berde eta hori -

- amorruez gainezka itxarotez, mendietatiko ekaitz ulukari santu bezala, ibarretara dei egiten duen pazientzigabea bezala: "Entzun, bestela Jainkoaren zartailuaz zigortuko zaituztet!"

Ez du esan nahi ni horrelako amorratuekin sumintzen naizenik: barre eragiteko balio didate! Eroapenik gabe egon behar, zarata-danboretzar horiek, gaur edo inoiz hitz egiten ez dutenak!

Baina nik eta nire zoriak - ez diogu gaurrari hitz egiten, ezta inoiz ezari ere: hitz egiteko badugu eroapena, eta astia, denbora eta sobera-astia. Zeren egunen batean etorri beharra baitu eta ez zaio zilegi izango albotik igarotzea.

Nork etorri behar du egunen batean eta ez du albotik igaro ahal izango? Gure milurte handia, gure giza erreinu urrun handia, Zaratustraren erreinu mila urtekoa<sup>88</sup> -

Zenbat bidera egon liteke "urrun" hori? Zer axola dit niri! Baina horregatik ez dago niretzat irmetasun gutxiagorekin, - bi zangoekin nago irme oinarri honen gainean, - oinarri betiko batean, jatorri-harri gogorrean, lehen-mendi garaien eta gogorren honen gainean, zeinetara etortzen baitira haize guztiak eguraldi-zuin batera bezala, non? nondik? norantz? galdezka.

Egik barre, hemen, barre, nire gaiztakeria argi eta garbia! Jaurtiki ezak mendien garaietatik heure iseka-algara dirdaitsua! Beita izkidak heure distiraz giza arrain ederrenak!

Eta itsaso guztietan nirea dena, nire nireangoa eta niretzakoa gauza guztietan - arrantzatu hori eta niganaino ekar ezak: horri itxaroten diot nik, arrain-harrapatzaile guztietan gaiztoena naizen honek.

Urrun, urrun, ene kanabera! Barnera, behera, ene zorionaren beita! Hire ihintzik gozoena dariola nire gain, ene bihotz ezta! Egik hozka, ene kanabera, nahigabe beltz ororen erraietan!

Urrun, urrun, ene begia! Oi zenbat itsaso nire inguruan, zenbat giza etorkizun goiznabartsu! Eta nire gainetik - zeinen patxada arrosa! Zeinen isiltasun hodeigabetua! LARRIDURA-GARRASIA

Biharamunean, Zaratustra berriz ere haitzuloaren sarreran eserita zegoen, piztiak munduan zehar alderrai zebiltzan bitartean, janari berriak bilatzeko -baita ezti berria ere: zeren Zaratustrak ezti zaharraren azken tantarainokoa desegin eta ezabatua baitzuen. Baina bera eserita zegoen bitartean, eskuan makila zuela, eta bere irudiaren itzala lurrean marrazten, gogoeta eginez, eta zinez! ez bere buruaz eta bere itzalaz - bapatean ikaratu eta asaldatu egin zen: zeren bere itzalaren ondoan beste itzal bat ikusi baitzuen. Eta ingurura bizkor begiratu eta jaiki zenean, hara, han zegoen igerlea, behiala bere mahaira eserarazi zuen igarle hura bera, nekadura handiaren aldarrikaria, zeinak predikatu baitzuen: "Denak berdin dio, ez du ezerk merezi, mundua zentzugabea da, jakiteak ito egiten du". Baina harrez gero aurpegia itxuraldatu egin zitzaion; eta Zaratustrak aurpegira begiratzean, ikaratu egin zen bihotzean: hainbeste aldarrikapen txar eta errauts koloreko tximista igarotzen baitzitzaion aurpegian barna. Igerleak, Zaratustraren ariman zer gertatzen ari zen atzeman zuenak, aurpegitik pasa zuen eskua, garbitu nahiz bezala; gauza bera egin zuen Zaratustrak ere. Eta biak honela baretu eta beren oneratu isilean, eskuak eman zizkioten elkarri, elkar berrezagutu nahiaren agiritzat.

"Ongi etorria nigana", esan zuen Zaratustrak, "nekadura handiaren igarle hori, ez hintzen alferrik izan behiala nire mahakide eta ostaria. Jan eta edan ezak gaur ere nirean eta barka ezak agure alai bat hirekin batera mahaira esertzea!" - "Agure alai bat?" erantzun zuen igarleak, buruari eraginez: "Nornahi haizela edo izan nahi duala ere, oi Zaratustra, luzaroan izan haiz hemen goian -hemendik gutxira hire txalupa ez duk jadanik lehorrean egongo!" - "Lehorrean al negok ba ni?" galdetu zuen Zaratustrak barrez. - "Hire mendiaren inguruko uhinak", erantzun zuen igarleak "igo eta igo ari dituk, premia eta nahigabe handiaren uhinak: hauek laster altxako ditek hire txalupa eta hi ere berekin arrastatuko haute". - Zaratustra isildu eta harritu egin zen. - "Oraindik ez al duk entzuten?" jarraitu zuen igarleak: "Ez al dituk entzuten sakonetik datozen astrapala eta orroa horiek?" - Zaratustrak berriro isildu eta adi jarraitu zuen: orduan garrasi luze-

-luze bat entzun zuen, amildegiek bata besteari jaurtikitzen eta bihurtzen ziotena, zeren ez baitzuen inork eraduki nahi: hain baitzuen txarra soinua.

"Aldarrikari makurra", mintzatu zen azkenean Zaratustra, "hori larridura-garrasi bat duk eta gizaki baten garrasia, eta agian itsaso beltzen batetik zetorrek. Baina bost axola zaidak niri gizonen larridura! Nire azken bekatuak, azkenerako gorde didatenak - ba al dakik nola duen izena?"

- "Errukia! "erantzun zuen igarleak gainezka zuen bihotzetik eta eskuak gora jaso zituen - "oi Zaratustra, heure azken bekatua egin dezaan netorrek ni!" -

Eta hitz hauek esan bezain laster, berriro entzun zen garrasiaren durundia, eta lehen baino luzeago eta larriago, baita askoz hurbilago ere. "Entzuten al duk? Entzuten al duk, oi Zaratustra?" dei egin zion igarleak, "hiregana zihoak garrasia, hiri deitzen dik: hator, hator, hator, garaia duk, garai-garaia duk!" -

Baina Zaratustra isilik zegoen, nahasturik eta galdurik; azkenik galdetu zuen, bere baitan zalantzakor dagoen norbaitek bezala: "Eta nor da, hortik deika ari zaidana?"

"Badakik dagoeneko", erantzun zion igarleak bizkor, "zergatik ezkututzen haiz? Gizon garaiagoa duk deika ari zaiana!"

"Gizon garaiagoa?" egin zuen garrasi Zaratustrak laborriak jota: "zer nahi du horrek? Zer nahi du horrek? Gizon garaiagoa! Zer nahi du horrek hemen?" - eta larruazala izerdiz estali zitzaion.

Baina igarleak ez zion Zaratustraren larridurari erantzun, baizik eta adi-adi zegoen sakanera. Baina nola luzaroan isilik zirauen, atzera begiratu eta Zaratustra ikusi zuen zutik eta dardaraz.

"Oi Zaratustra", ekin zion ahots tristeaz, "ez duzu bere zoriona jirabiraka erakusten duenaren itxurarik: dantza egin beharko duk, nire aurrean lurrera ez erortzeko!  
Baina nahiz eta nire aurrean dantza egin nahiko bazenu eta zeure zilipurdi guztiak egin: inork ezingo lidake esan: "Hara, hona hemen nola dantza egiten duen azken gizon alaiak!"

Alferrik etorriko litzateke goialde hauetara, horrelakoa hemen bilatu nahi duena: haitzuloak aurkituko lituzke eta atze-haitzuloak, ezkutatuentzako ezkutalekuak, baina ez zorion-hosinak eta altxortegiak eta zorionaren urre-mea berriak.

Zoriona - nola aurki liteke zoriona lurperatu eta ermitau hauen artean! Azken zoriona uharte zorionsuetan bilatu beharko ote dut eta urrunean, itsaso ahaztuen artean?

Baina denak berdin dio, ez du ezerk merezi, alferrik da bilatzea, ez dago jadanik uharte zorionsurik ere!" -

Honela egin zuen hasperen igerleak; baina haren azken hasperena entzutean, Zaratustra berriz ere argi eta seguru bihurtu zen, tulunbio sakon batetik argira itzuli den bat bezala. "Ez! Ez! Hirugarrenez ez!" egin zuen oihu mintzo indartsuz eta bizarra igurtzi zuen" - hori hik baino hobeto zekiat! Oraindik bazegok uharte zorionsurik! Aski duk horretaz, negarrantzi hasperengilea!

Utziok jadanik horretaz txipli-txapla aritzeari, eguerdiarteko euri-hodeia! Ez al negok dagoeneko hire nahigabeaz bustirik eta blai txakurra bezala?

Orain neure burua inarrosi eta higandik ihes egitera nihoak, berriro lehortzeko: ez daukak horretaz zertan harriturik! Ez al didak gortesau antzik hartzen? Bada nire gortea hemen zegok.

Eta hire gizon garaiagoari dagokionez: tira! laster batean nihoak oihan haietan bilatzera: handik etorri duk haren garrasia. Agian piztia txarren baten hertsaturik zeukak han.

Nire sailetan zegok: eta beraietan ez zaiok inolako kalterik gertatu beharko! Eta zinez, piztia txar ugari zegok nire sailetan". -

Hitz hauekin, Zaratustra joateko bihurtu zen. Orduan mintzatu zen igerlea: "Oi Zaratustra, alproja bat haiz!

Ondotxo zekiat: nigandik libratu nahi duk! Nahiago duk oihanetara lasterka egin eta piztia txarren zelatan ibili!

Baina zertarako balio dik horrek? Arratsean berriro hemen edukiko nauk; hire haitzulo berean egongo nauk eserita, enborra bezain eroapentsu eta astun - eta hiri itxaroten!"

"Hala bedi!" ihardetsi zuen Zaratustrak alde egitean: "eta nire haitzuloan nirea dena, hirea ere baduk, ene ostari hori!

Eta oraindik barruan eztirik aurkituko bahu, tira! mihizta ezak, hartz orroalaria, eta gozatu heure arima! Gaur gauean biok umore onean egon behar diagu,

- umore onean eta pozik egun hau amaitu delako! Eta herorrek, nire hartz dantzari bezala, nire doinuen arabera dantza egin beharko duk.

Ez al duk sinesten? Buruari eragiten al diok? Tira! Tira! Hartz zahar hori! Baina ni ere - igerlea nauk".

Honela mintzatu zen Zaratustra.

ERREGEEKIKO ELKARRIZKETA

I

Oraindik ez zen ordubete Zaratustra bere mendi eta oihanetan zebilela, eta bapatean segizio bakan bat ikusi zuen. Bidearen erditik, bi errege zetozen oinez, koroa eta purpurazko gerrikoez apaindurik eta hegazti flamenkoak bezain koloretsu: asto zamatu bat zeramaten aurretik. "Zer nahi dute errege hauek nire erresuman?" esan zion Zaratustrak harriturik bere bihotzari eta presaka sastraka baten atzean ezkutatu zen. Baina erregeak parera iritsi zirenean, bere buruari hitz egiten dionak bezala, ahapeka

esan zuen: "Bitxia! Bitxia! Nola uztartzen da hau? Bi errege ikusten ditut -eta asto bakarra!"

Orduan bi erregeak gelditu egin ziren, irribarre egin, mintzoa zetorren aldera begiratu eta gero elkarri aurpegira begiratu zioten. "Horrelakoak gure artean ere pentsatzen dira", esan zuen eskuinaldeko erregeak, "baina ez dira esaten".

Ezkerraldeko erregeak, ordea, sorbaldak uzkuritu eta erantzun zuen: "Ahuntzainen bat da. Edo ermitauren bat, luzaroegi harkaitz eta zuhaitz artean bizi izan dena. Zeren lagunarterik ezak ohitura onak alferrik galtzen baititu".

"Ohitura onak?" erantzun zuen beste erregeak suminez eta mingostasunez: "zeri iheska goaz bidean? Ez al da ohitura onei? Geure "gizarte onari"? -

Hobe da, zinez, ermitau eta ahuntzainen artean bizi izatea jendaila urreztatu, faltsu eta koloreztatuarekin baino - nahiz eta bere buruari "gizarte on" deitu,

- nahiz eta bere buruari "noblezia" deitu. Han dena faltsua eta irola da, odola bera lehenik, eritasun zahar eta txarregatik eta petrikilo txarragoengatik.

Hoherena eta gogokoena gaur egun niretzat baserritar osasuntsua da, zakar, maltzur, lepagogor eta setatia: hori da gaur motarik nobleena.

Baserritarra da gaur hoherena; eta baserritarren motak izan beharko luke jaun! Baina jendailaren erresuman bizi gara - eta ez dut onartzen inork iruzur egin diezadan.

Jendailak, ordea, nahas-mahasa esan nahi du.

Jendaila nahas-mahasa: bere baitan dena denarekin nahasturik dago, santua eta mausearia, kaparea eta judua eta Noeren Kutzako patari guztiak.

Ohitura onak! Gure artean dena faltsua da eta irol dago. Ia ez daki inork gurtzen: horretatik iheska goaz hain zuzen ere. Txakur gozoegi eta arrimatuzaleak dira, palma-hostoak urreztatzen dituztenak.

Nazkak itotzen nau, errege garenok ere faltsu bihurtu izanak, geure arbasoen arazeria zahar horiskatuaz estalirik eta mozorroturik gabiltza, leloen eta maltzurrenentzat dominoi bihurtu gara eta gaur boterearekin errekaridaritzan dabiltzan guztientzat!

Gu ez gara lehenak - eta halere itxurak egin beharra daukagu: azkenik gogaiturik geratu gara hainbeste iruzurkeriaz eta nazkaturik.

Ihes egin diogu jendailari, idazguetako karrankari kirrimarrolari horiei, dendarien kiratsei, handinahien beso-eraginketari, arnasa txarrari: - utikan, jendailaren artean bizi izatea,

- utikan, lehen itxurak egin behar izatea jendailaren artean! Ai, nazka! Nazka! Nazka!

Bost axola dio dagoeneko erregeoz!" -

"Hire eritasun zaharrak jotzen hau berriro", esan zuen ezkerraldeko erregeak, "nazkak erasotzen dik, ene anaia gaixoa. Baina kontu egik, norbait adi daukagula".

Bapatean jaiki zen Zaratustra, hitz hauetara begi-belarriak zabal-zabalik eduki zituen, bere gordelekutik, hurbildu erregeengana eta hasi zen:

"Zuei adi dagokizuenari, zuei atseginez adi dagokizuenari, erregeok, Zaratustra deritzo. Zaratustra naiz, behiala esan zuena: "Bost axola dio dagoeneko erregeez!" Barkaidazue, beraz, poztu izana elkarri esan diozuenean: "Bost axola dio dagoeneko erregeoz!"

Hemen dago ordea nire erresuma eta nire jaurerria: zeren bila zatozte nire erresumara?

Baina agian bidean aurkitua duzue, nik ere bilatzen dudana: gizon garaia goa hain zuzen!"

Erregeek hau entzutean, bular-joka<sup>89</sup> eta aho batez esan zuten: "Ezagutu egin gaitu!

Hitz hauen sorbatzaz, Zaratustra, bihotzeko iluntasunik itsuena urratu diguzu. Agerian jarri duzu gure larridura! Hara! Gizon garaia goa bilatzeko ekin diogu bideari -

- gu baino garaia goa den gizona: nahiz eta errege garen. Berarentzat dakargu asto hau. Gizon garaienak izan behar du noski lurrean jaunik garaiena ere.

Ez dago zorigaitz gogorragorik giza zori guztien artean lurreko ahaltsuak lehen gizonak ere ez izatea baino. Orduan guztia faltsu eta oker eta munstrozko bihurtzen da.

Eta azkenak badira ere eta gizaki baino piztia areago: orduan jendaila prezioz igotzen da, eta azkenik jendaila-bertutea esaten du: "Hara, neu soilik naiz bertute!" -

"Zer entzun dut arestian?" erantzun zuen Zaratustrak; "zer jakituria erregeengan!

Hunkiturik nago eta, zinez, gogoa dut honetaz bertsoa egiteko:-

- nahiz eta guztien belarrietarako egokia ez izan bertso hau. Tira! Ekin!

(Baina une hartan astoak hitza hartu zuen: eta argiro eta borondate txarrez BA-I esan zuen).

Behiala - salbamenaren lehen urtean , nik uste -

esan zuen Sibilak, baina ez ardoz horditurik:

"Ai, zeinen gaizki doazen gauzak!

Ondikoa! Ondikoa! Inoiz ez da hain behera erori mundua!

Erroma emagaldtu eta bordel da bihurtu,

Erromako Zesarra abere eta Jainkoa bera ere da - judutu!"

## II

Zaratustraren bertso honetaz asko gozatu zuten erregeek; eta eskuinaldeko erregeak esan zion: "Oi Zaratustra, bai ongi egin dugula zu ikusteko abiatu garenean!

Izan ere zure etsaiek beren ispiluan erakutsi baitigute zure irudia: han deabru baten aurpegikeraz begiratzen zenuen eta isekati barrezka: geuk ere beldurra hartu dizugu.

Baina bost axola! Behin eta berriz sartzen zinen gure belarrian eta bihotzean zeure esaerekin. Azkenean esan genuen, bost axola dio, zer itxura duen!

Entzun egin behar diogu, berak irakasten baitu "Gerra berrietarako bitarteko bezala maite izan behar duzue bakea, eta bake laburra luzea baino areago!"

Ez du inork inoiz esan hain hitz gerrazkorik: "Zer da ona? Bulartsuak izate, hori da ona! Gerra ona, berriz, gauza guztiak santutzen dituen da."

Oi Zaratustra, gure gurasoen odola irandetsi egiten zitzaigun gorputzean hitz horiek entzutean: udaberriaren hizketa ardo-upela zaharrentzat bezala zen.

Ezpatak suge orbangorriak bezala elkargurutzatzen zirenean, gure gurasoek maite zuten bizitza; bakearen eguzki orori epel eta mengel zeritzoten, bake luzeak berriz lotsa ematen zien.

Nolako hasperenak egiten zituzten gure gurasoek horman ezpata dirdaitsu idortuak ikustean! Beraien antzera gerraren egarri ziren. Zeren ezpatak odola edan nahi baitu eta dir-dir egiten du irrikaz". -

- Erregeak horrela beren gurasoen zorionaz hizketa eta berriketa bizian ari ziren bitartean, Zaratustrak beraien suharraz iseka egiteko egundoko gogoa sentitu zuen: zeren begibistan zegoen oso errege bakezaleak zirela, aurrealdean zeuzkanak, beren aurpegi antigoaleko eta finekin. Baina eutsi egin zion bere buruari. "Tira!" esan zuen, "hara darama bideak, han dago Zaratustraren haitzuloa; eta egun honek arrats luzea izan behar du! Larridura-garrasi batek dei egiten dit zuengandik presaka alde egitera.

Nire haitzuloari ohore zaio, baldin erregeak bertan eseri eta itxaron nahi badute: baina, noski, luzaroan itxaron beharko duzue!

Halere, zer axola dio! Non ikasten da gaur egun hobeki itxaroten gortean baino? Eta erregeen bertute guztien artean, geratu zaien bakarra - ez al da gaur egun: itxaroten jakitea?"

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## IZAINA

Eta Zaratustra pentsakor jarraitu zitzaion bideari, eta gero eta barrurago, oihanetan barna eta zingira-lurren albotik igaro zen; baina gauza zailez gogoetan ari direnei gertatzen zaienez, oharkabean gizaseme bat zapaldu zuen. Eta hara, eta bapatean oinaze-

oihu batek eta bi madarikaziok eta hogeï irain makurrek zipriztindu zioten aurpegia: honela bere izularrian makila jaso eta zapaldua artean ere jo egin zuen. Baina berahalaxe bere zentzura etorri zen; eta bihotzak barre egin zuen arestian egindako erokeriarengatik.

"Barkaidazu", esan zion zapalduari, haserre zutitu eta eseria baitzen, "barkaidazu eta entzuidazu aurren-aurrena parabola bat.

Nola bidaztiak, urruneko gauzetan pentsatzen ari dela, oharkabean bide bakartian zehar lotan dagoen txakurrarekin tupust egiten baitu, eguzkitan dagoen txakurrarekin:

- eta nola biak zutitu eta elkarri erasotzen baitiote, etsai amorrotuak bezala, eta biek hiltzeraino ikaraturik: hala gertatu zaigu guri.

Eta halere! Eta halere - gutxi falta izan da elkar laztantzeko txakur honek eta bakarti honek! Biak baitira - bakartiak!"

- "Nornahi zarela ere", erantzun zion haserre zapalduak, "zeure parbolekin ere zapaltzen nauzu, eta ez oinaz soilik!

Begira, bada, txakurra al naiz?" - eta hau esatean zutitu eta beso biluzia atera zuen zingiratik. Izan ere lehenik lurrean zerraldo etzanik baitzegoen, ezkutaturik eta ezagugaitz, zingira-ehizaren zelatan dagoena bezala.

"Baina zertan ari zara gero!" oihu egin zion Zaratustrak ikaraturik, zeren beso biluziari odol asko zerion - "zer gertatu zaizu? Piztia txarren batek hozka egin al dizu, dohakabe horri?"

Odoletan zegoenak barre egin zuen, artean ere sumindurik. "Bost axola dizu zuri!" esan eta jarraitu nahi izan zuen. "Etxean eta neure sailean nago hemen. Nahi duenak galde egin diezadala: baina nekez erantzungo diot kaiku bati".

"Oker zaude", esan zuen Zaratustrak errukiz eta gogor heldu zion, "oker zaude: hemen ez zaude zeure erresuman, nirean baizik, eta hemen ez zaio inori kalterik gertatu behar. Dei egidazu nahi duzun bezala - izan behar dudana naiz ni. Neure buruari Zaratustra deitzen diot.

Tira! Hor goitik barna doa Zaratustraren haitzulorako bidea: ez dago urrun - ez al duzu nahi nire etxean zauriak osatzea?

Gaizki atera zaizkizu gauzak, dohakabe halakoa, bizitza honetan: aurrena piztiak hozka egin zizun, eta gero - gizonak zapaldu zintuen!" -

Baina zapaldua, Zaratustraren izena entzun zuenean, itxuraldatu egin zen. "Zer gertatzen zait niri!" dei egin zuen "nork arduratzen nau ni bizitza honetan, gizon bakar horrek izan ezik, Zaratustrak hain zuzen eta piztia bakar horrek, odolaz bizi denak, izainak?

Izainarengatik nengoen ni hemen zingira honen hegian etzanda, arrantzale baten modura, eta ordurako hamar bider zizta eginik zegoen nire beso hedatua eta hara non oraindik izain ederrago batek hozka egiten didan odola ateratzeko, Zaratustrak berak! Oi zoriona! Oi miraria! Bedeinkatua bedi zingira honetara etorrazazi nauen eguna! Bedeinkatua bedi gaur bizi den kopadura bizi hoberena, bedeinkatua bedi kontzientzien izain handia den Zaratustra!" -

Honela mintzatu zen zapaldua; eta Zaratustra poztu egin zen haren hitzak entzutean eta haren manera kunplitu begirunezkoak ikustean. "Nor zara zu?" galdetu eta eskua luzatu zion, "gure artean gauza asko dago argitzeko eta txukuntzeko: baina uste dut laster izango dela egun argi eta garbia".

"Izpirituaren kontzientzitsua naiz ni, erantzun zuen galdetuak, "eta izpiritu-gauzetan nekez aritzen da inor ni baino zorrotzago, zehatzago eta gogorrago, ni ikasle izana nauen hura, Zaratustra, izan ezik.

Hobe da ezer ez jakitea, gauza asko erdizka jakitea baino! Hobe tentela nor bere erara izatea, jakintsu besteren iritzian baino! Ni - oinarrira noa:

- zer axola dio bat handi edo txiki izateak? Zingira edo zerua deitzeak? Arrabeteko oinarria aski dut: baldin eta benetako oinarri eta zola bada!

- Arrabete oinarri: horren gainean zutik egon daiteke. Egiatzko jakite kontzientzitsuan ez dago ezer handirik eta ezer txikirik".

"Orduan zu al zara agian izainaren ezagutzailea?" galdetu zuen Zaratustrak; "eta azkeneko oinarriraino aztertzen al duzu izaina, kontzientzitsu horrek?"

"Oi Zaratustra", erantzun zuen zapalduak, "hori munstrokeria bat litzateke, nola ausartuko nintzateke ni horrelakorik egitera!

Ni baina maisu eta ezagutzaile izan, izainaren garunarena naiz: - hori dut neure mundua! Eta hori ere mundu bat da! Baina barkatu hemen nire harrotasunak hitza hartzea, zeren hemen ez baitut parekorik. Horregatik esan dut "hemen etxean nago".

Zenbat denbora den gauza bakar hau aztertzen ari naizela, izainaren garuna, egia irristakorrak irrist egin ez diezadan! Hemen dago nire erreinua!

- horregatik jaurtiki dut kanpora gainerako guztia, horregatik bihurtu zait gainerako guztia axolakabe; eta itsu dago kanpaturik nire jakitearen ondoan nire ezjakite beltza.

Izpirituaren nire kontzientziak zera nahi du nigandik, nik gauza bakar bat jakitea eta gainerako guztia ez jakitea: nazka ematen didate izpirituaren erdipurdikeriek, lausokeria, pinpirinkeria eta ameskeria guztiek.

Nire jatortasuna amaitzen den tokian, itsu bihurtzen naiz eta itsu izan nahi dut gainera. Baina jakin nahi dudan tokian, jatorra ere izan nahi dut, hau da, gogor, zorrotz, estu, krudel, errugabea.

Behin zuk esan zenuen hark, oi Zaratustra: "Izpiritua bizia da, bizitan bere burua ebakitzen duena" horrek ekarri eta erakarri nau zure irakatsira. Eta zinez, neure odolaz gehitu dut neure jakintza!"

- "Begibistakoa denez", eten zuen Zaratustrak; zeren artean odola baitzerion kontzientzitsuaren beso biluzian behera. Izan ere hamar izain baitzituen bertan itsatsiak.

"Oi zu lagun miragarria, zenbat irakasten didan begibistakoa den honek, hau da, zerorrek! Eta agian ezingo nuke guztia zure belarri meharretan isuri!

Tira! Hementxe banandu gaitezen! Baina atseginez aurkituko zintuzket berriz ere. Hor goitik doa nire haitzulorako bidea: gaur gauean nire ostari izango zara bertan!

Gainera atseginez kitatuko nuke zure gorputzean, Zaratustrak bere oinez zapaldu izana: horretaz ari naiz gogoeta egiten. Baina orain larridura-garrasi batek dei egiten dit zuek presaka alde egitera".

Honela mintzatu zen Zaratustra.

AZTIA

I

Baina Zaratustrak harkaitz baten inguruan bira eman ondoren, beragandik hurbil samar, bide berean, gizon bat ikusi zuen, beso-zangoei eraginka, zoro amorratu baten gisara, eta azkenik ahozpez lurrera erori zen. "Geldi!" esan zion Zaratustrak bere bihotzari, "horako horrek izan behar dik gizon garaiagoa, berorregandik zetorren larridura-garrasi makur hura - ea laguntzerik dagoen ikusi nahi diat". Baina lasterka joan zenean, gizona lurrean etzanik zegoen tokira, agure bat aurkitu zuen ikaratan begi zurruneekin; eta ahaleginak egin bazituen ere, atzera zutitu eta bere zangoen gainean jar zedin, alferrik izan zen. Dohakabeak bazirudien ez zela ohartzen alboan inor zeukanik ere; aitzitik keinu hunkigarriekin ingurura begiratzen zuen, mundu guztiak bertan behera utzi eta isolaturik daukanak bezala. Azkenean, ikara, laztura eta uzkuradura ugariren ondoren, honela deitoratzeari ekin zion:

Nork berotzen nau, nork maite nau oraindik?

Emaizkidazue esku beroak!

Emaizkidazue bihotz-supazterrak!

Hedaturik, ikaraz dardarka,  
Oinak berotzen dizkioten erdi-hilaren antzera -  
Inarrosirik, ai, sukar ezezagunez,  
Hotzikararen izotz-gezi zorrotz hotzez dardarka,  
Hik jazarturik, pentsamena!  
Aipaezin, estali, lazkarri!  
Hi, hodei atzeko ehiztari!  
Hire tximistak lurreratua,  
Begi isekatia, ilunpetik begiratzen didana:  
- honela natza.  
Makurtzen, okertzen naiz, betierako  
Oinazez mindurik,  
Ehiztari krudela haizen horrek  
Zauriturik,  
Jainko - ezezaguna!  
Zauritu sakonago!  
Zauritu berriz ere!  
Zulatu, urratu bihotz hau!  
Zergatik gezi puntamotzezko  
Oinazetze hau?  
Zergatik begiratzen duk berriro,  
Giza oinazeaz aspertzeke,  
Jainkozko tximist-begiak kalteaz atseginak? -  
Ez al duk hil nahi,  
Oinazetu, oinazetu soilik?  
Zertarako - ni oinazetu,  
Jainko ezezagun kalteaz atseginak? -  
Ah, ah? Arrastaka al hator?  
Zer nahi duk gauerdia honetan  
Esan ezak!  
Hertsatzen eta zanpatzen nauk -  
Ha! hurbilegi hago!  
Ut! Ut!  
Arnasa entzuten didak,  
Bihotza zelatatzen didak,  
Zelati horrek -  
Zertaz hago zelati?  
Ut! Ut! Zertarako zurubi hori?  
Bihotzean  
Sartu nahi al duk,  
Nire pentsamendurik barnekoenetara  
Igo nahi al duk?  
Lotsagabea! Lapur - ezezaguna!  
Zer nahi didak ebatsi?  
Zer nahi didak erauzi?  
Zer nahi didak oinazez erakutsi?  
Oinazetzaile horrek!  
Jainko-borrero horrek!  
Edota, txakurraren gisa,  
Hire aurrean behar ote diat arrastatu?



Suharturik, senetik irtenda,  
Neure maiatsuna - behar ote diat entregatu?  
Alferrik! Ziztatu berriz,  
Eztenik krudelena! Ez,  
Ez nauk txakurra - hire ehize soilik,  
Ehiztari krudelena!  
Hire presorik harroena,  
Hodei atzeko lapurra!  
Mintza azkeneki!  
Zer nahi duk, mauseari, nigandik ?  
Tximistaz estalia! Ezezaguna! Mintza,  
Zer nahi duk, Jainko ezezaguna? -  
Nola! Erreskatea?  
Zenbat erreskate?  
Asko eskatu - hori esaten dik nire harroak!  
Labur mintzatu - hori esaten dik nire beste harroak!  
Haha!  
Ni - nahi al nauk? Ni?  
Ni - osorik?...  
Haha!  
Eta oinazetzen nauk, zoro horrek,  
Oinazetzen nire harroa?  
Emaidak maitasuna - nork berotzen nau oraindik?  
Nork maite nau oraindik? - eman esku beroak,  
Eman bihotz-supazterra,  
Eman niri, bakartienari,  
Izotza, ai, izotz zazpikuna  
Etsaiak berak ere,  
Etsaiak berak ere desiratzen irakasten duena,  
Eman, eskura,  
Etsairik krudelena,  
niri - heu! -  
Kito!  
Berak ere ihes egin du,  
Nire azken adiskide bakarrek,  
Ene etsai handiak,  
Ene ezezagunak,  
Ene Jainko-borreroak! -  
- Ez! Hator berriz,  
Heure oinaze guztiekin!  
Azken bakartiagana  
O hator berriro!  
Nire malko-erreka guztiak  
Higana zihoazek lasterka!  
Eta nire azken bihotz-garrak -  
Hiretzat dik bere txinparta!  
Oi hator berriro,  
Ene Jainko ezezaguna! Ene samina! Ene azken - zoriona!  
II

- Hemen ezin izan zion Zaratustrak bere buruari gehiago eutsi, hartu makila eta indar guztiez jo zuen deitoratzen ari zena: "Hago!" oihu egiten zion, barre haserrean artean, "hago, komeriantea! Sasi-txanpongilea! Gezurti alena! Ezagutzen haut! Zangoak berotu nahi dizkiat, azti makurra, ondotxo zekiat hi bezalakoak nola epeldu behar diren!"

- "Geldi!", esan zuen agureak eta lurretik salto eginez zutik jarri zen, "ez nazak gehiago jo, oi Zaratustra! Txantxeta hutsean egiten nian! Gauza hauek nire antzearen parte dituk; heu frogatu nahi izan haut, neuk hiri froga hau egitean! Eta zinez, ongi erantzun didak!

Baina heuk ere - txikia ez den froga eman didak heure aldetik: gogorra haiz, Zaratustra jakintsu hori! Gogor jotzen duk heure "egiez", hire makila koskordunak behartzen naik egia hau aitortzera!"

- "Losintxarik ez", - erantzun zion Zaratustrak, artean haserre eta kopetilun, "komeriante alena! Faltsua haiz: - zertan ari haiz hi egiaz hitz egiten! Paumen pauma haizen hori, banitatezko itsasoa haizen hori, zer antzespen ari hintzen nire aurrean egiten, azti makur hori, nori sinetsi behar nioan nik horrela deitoratzen ari hintzen bitartean?"

"Izpirituaren penitentzigilearena", esan zuen agureak - "hori ari ninduan antzesten: herorrek asmatu huen behiala hitz hori -

- poeta eta aztia, bere izpiritua azkenean bere buruaren aurka zuzentzen duena, itxuraldatua, bere zientzia eta kontzientzia txarrek izozten dutena.

Eta aitor ezak: luze joan zaik, oi Zaratustra, nire antzeaz eta gezurraz ohartzea! Nire larriduran sinetsi izan duk, nire burua heure esku artean heukala -

- entzun diat hire deitoreak "gutxiegi maitatu dute, gutxiegi maitatu!" Horrenbestearaino hiri iruzur egin izanak poztu dik barrenetik nire gaiztakeria".

"Ni baino zoliagoei iruzur egiteko modukoa haiz" esan zuen Zaratustrak gogor. "Ni ez negok iruzurtien aurka ataizean, eta arretari uko egin beharrean negok: horrela nahi dik nire zoriak.

Baina hik - iruzur egin behar duk; ez haut gutxi ezagutzen! Hik beti bi, hiru, lau, bost zentzu izan behar dituk Arestian aitortu didaana ere ez duk izan niretzat aski egia eta gezurra!

Sasi-txanpongile makurra, zer besterik egin hezake! Heure eritasuna bera ere apainduko huke, heure medikuaren aurrean biluzik agertzean.

Horrela apaindu duk nire aurrean heure gezurra, esan duanean: "Txantxeta hutsean egin diat hau!" Bazegoan horretan benetasunik ere, hi bahaiz izipirituaren penitentzigile ere nolabait!

Ongi antzematen diat: guztien sozertatzaile izatera iritsi haiz, baina heure buruaren aurka ez zaik jadanik gezurrik ez amarrurik geratu, - heure buruarentzat desozertaturik hago!

Nazkaren uzta bildu duk, heure egia bakartzat. Dagoeneko ez duk heure baitan hitz benetakorik, baina heure ahoa bai: hots, hire ahoari datxekon nazka". -

- "Nor haiz gero hi!" oihu egin zuen azti zaharrak mintzo arranditsuz, "nori zaiok zilegi niri honela hitz egitea, gaur bizi den handiena naizen honi?" - eta tximista berde bat jaurtiki zuten haren begiek Zaratustraren kontra. Baina bapatean itxuraldatu eta tristeki jarraitu zuen:

"Oi Zaratustra, nekaturik negok honetaz, nazka ematen zidatek neure arteek. Ez nauk handia, zertan itxurak egin! Baina ondotxo dakik - handitasunaren bila ibili naizela! Gizon handiarena antzestu nahi izan diat eta askori sinetsarazi zioat: baina gezur hauek nire indarrak gainditu zituztek. Beraien kontra birrindu egiten nauk.

Oi Zaratustra, dena duk gezurra nigan; baina birrintze naizela - nire birrintze hau benetakoa duk!" -

"Ohore duk", erantzun zuen Zaratustrak goibel eta albora begiratuz, "ohore duk handitasunaren bila ibili izana, baina traizio ere baduk. Ez haiz handia.

Azti zahar makurra, higan hoberena eta jatorrena, higan ohoratzen dudana, hauxe duk heure buruaz nekaturik egotea eta "Ez nauk handia" esan izana.

Horretan ohoratzen haut izpirituaren penitentzigile bezala: eta ixtanpatez izan baduk ere, aldiune bakar horretan izan haiz - benetakoa.

Baina esan ezak, zeren bila habil hemen nire oihanetan eta nire harkaitzetan? Eta nireganako bideari lotu hintzaionean, zer froga nahi huen nigandik? -

- zertan tentatu nahi ninduan ni?" -

Honela mintzatu zen Zaratustra, eta begiek txinpartaka zituen. Azti zaharra apur batean isildu egin zen eta gero esan zuen: "Tentatu egin al haut? Bila - bestetan ez nebilek.

Oi Zaratustra, benetakoa, zuzena, sotila, tolesgabearen bila nabil, jatortasun osoko gizonaren bila, jakituriatzko ontzia, ezagueraren santua, gizon handi baten bila!

Ez al dakik hori, oi Zaratustra? Zaratustraren bila nebilek".

- Eta orduan isilaldi luzea sortu zen bien artean; eta Zaratustra hainbestearino murgildu zen bere baitan, non begiak ere itxi zituen. Gero ordean, bere solaskidearengana zuzendurik, aztiaren eskuari heldu eta fineziaz eta maleziaz beterik mintzatu zitzaion:

"Tira! Hor goitik zihoak bidea, han zegok Zaratustraren haitzuloa. Bertan bila dezakek, aurkitu nahiko hukeena.

Eta eska nire piztiei aholkua, nire arranoari eta nire sugeari: hauek lagunduko diate bilatzen. Nire haitzuloa handia duk.

Nik neuk behintzat - ez diat oraindik gizon handirik ikusi. Handia denerako, begirik zorrotzena ere kamutsa gertatzen duk. Jendailaren erreinua duk.

Bat baino gehiago ikusi diat, hedatzen eta puzten eta jendailak oihu egiten zian: "Begira gizon handi horri!" Baina ez dute asko balio hauspoek! Azkenean atera egiten zaie haizea.

Azkenean leher egiten du igelak, gehiegi puzten bada: haizea atera egiten baitzaio.

Hanpatuen sabela ziztatzea, horri deitzen diot nik denborapasa bikaina. Entzun hori, mutilok!

Gaurko eguna jendailarena da: nork daki dagoeneko zer den handia, eta zer den txikia!

Nork bilatuko luke zorionarekin handitasuna! Zoroak soilik: zoroak zorionsu dira.

Gizon handiaren bila al habil, zoro miragarri hori? Nork irakatsi dik hori? Horretarako garaia al duk gaur? Oi bilatzaile makur hori, zergatik tentatzen nauk?" -

Honela mintzatu zen Zaratustra, bihotzez adoreturik, eta barrezka jarraitu zitzaion bere bideari.

#### ZERBITZUZ KANPO

Handik gutxira, Zaratustrak, aztiagandik libratu zenean, norbait ikusi zuen zihoan bidearen ertzean eserita: gizon beltz garaia zen eta aurpegi zurbil zargailekoa: Horrek ondorez sakona eragin zion. "Ai ene", esan zion bere bihotzari, "hor zegok nahigabe moztarotua, apaizen gauza-itxura hartzen zioat: zer nahi ote ditek horiek nire erreinuan? To! Arestian alde egin zioat azti hari eta hona non beste hilazti bat bidera agertzen zaidan -

- nolanahiko belagina, esku-ezarlea, Jainko-graziaren mirarigile ilun bat, munduaren gaizki-esale gantzutua, deabruak eramango al dik!

Baina deabrua ez duk inoiz bere lekuan egoten, lekuan egon beharko lukeenean: beti beranduegi etortzen duk, nano eta txankerre madarikatu halakoa!" -

Honela madarikatzen zuen Zaratustrak pazientzigabe bere bihotzean eta pentsatzen ari zen nola begirada saihesturik gizon beltzaren albotik ezkutuka igaro: baina hara, gauzak bestela gertatu ziren. Aldiune hartan bertan eserita zegoenak begiratu egin baitzion; eta ustegabeko zoriarekin topo egiten duenaren antzeratsu, salto batez zutitu eta Zaratustragana jo zuen.

"Nornahi zarela ere, alderrai hori", esan zuen, "lagundu errebelatu honi, bilatzaile honi, agure bati, hemen aisa min hartu lezakeenari!

Hemengo mundu hau arrotz eta urrun zait, basapiztien uluak ere entzunak ditut; eta babesa eskain ziezadakeena, ez dago jadanik.

Azken gizon jaieratsua bilatzen ari nintzen: santu eta ermitaua, bere oihanean bakarti, artean entzun ez zuena gaur mundu guztiak dakiena."

"Zer daki gaur mundu guztiak?" galdetu zuen Zaratustrak. "Agian ez al da bizi jadanik Jainko zaharra, behiala mundu guztiak sinesten zuena?"

"Zeuk esan duzu90, " erantzun zuen agureak nahigabeturik. "Eta Jainko zahar hori azkeneko ordura arte zerbitzatu dut nik.

Orain ordea zerbitzuz kanpo nago, nagusirik gabe, eta halere ez naiz libre, eta ordubete ere ez dut alai ematen, oroitzapenetan ez bada.

Horretarako igo naiz mendi honetara, azkenik berriro jai bat ospatzera, aitasantu eta eliz guraso zaharrari dagokionez: zeren jakizu, azken aitasantua naiz! - oroitzapen jaieratsu eta elizkizunezko jai bat.

Baina orain bera ere hilik dago, gizonik jaieratsuen, oihaneko santu hura, bere Jainkoa atergabe kantari eta marmarti goersten zuena.

Ez dut jadanik aurkitu, bere txosna aurkitu dudanean - bai ordea bi otso barruan, haren heriotzarengatik uluka - zeren piztia guztiek maite baitzuten. Eta lasterka alde egin nuen handik.

Alferrik etorri al naiz oihan eta mendi hauetara? Orduan erabaki zuen nire bihotzak, beste norbait bilatzea, Jainkoa sinesten ez dutenen artean jaieratsuen - Zaratustra bilatzea!"

Honela mintzatu zen agurea eta begi zorrotzez begiratu zion aurrean zutik zeukanari; Zaratustrak ordea aitasantu zaharraren eskuari heldu zion eta luzaroan miresmenez begietsi zion.

"Hara, agurgarri hori", esan zion gero, "zeinen esku eder eta luzea! Beti bedeinkapenak banatzea besterik egin ez duenarena bezalako eskua da hori. Baina orain bilatzen ari zarena dauka oraturik, ni, Zaratustra.

Neu naiz Zaratustra jainkogabea, berak esan baitzuen: nor da jainkogabeago, beraren irakaskuntzaz goza dezadan?" -

Honela mintzatu zen Zaratustra eta bere begiradez zulatzen zituen aitasantu zaharraren pentsamendu eta atzepentsamenduak. Azkenean honek ekin zion:

"Gehien maitatzen eta edukitzen zuenak, berak galdu du gehien ere: -

- begira, ez al naiz ni neu biotarik jainkogabeena orain? Baina nor poz liteke horretaz!"

- "Zuk azkeneraino zerbitzatu duzu", galdetu zion Zaratustrak pentsakor, isilaldi sakon baten ondoren, "ba al dakizu nola hil zen? Egia al da, diotena, errukiz itota hil zela,

- ikusi zuela nola zegoen gizona gurutzetik zintzilik, eta ezin izan zuela eraman,

gizonenganako maitasuna bere ifernu eta azkenik bere heriotza bihurtzea?" - -

Aitasantu zaharrak ez zion ordea erantzun, aitzitik herabez eta aurpegikera oinazetsu eta goibelaz albora begiratu zuen.

"Utzi joaten", esan zuen Zaratustrak gogoeta luzearen ondoren, artean agureari aurrez aurre begiratzen zion bitartean.

"Utzi joaten, alde egina da. Eta hildako horretaz ongi bakarrik hitz egiteak ohoratzen bazaitu ere, nik bezain ongi dakizu nor zen; eta bide miragarrietan barna zebilela".

"Hiru begien artean esateko", esan zuen bareturik aitasantu zaharrak (zeren begi batetik itsua baitzen), "Jainkoaren gauzetan Zaratustra bera baino ere eskolatuagoa bainaiz - eta zilegi zait.

Nire maitasunak urte luzetan zerbitzatu zuen, nire nahia guztian haren nahiari jarraiki zitzaion. Eta zerbitzari onak dena daki, eta askotan baita nagusiak bere buruari ezkututzen dizkionak ere.

Jainko ezkutukoa zen, misterioz betea. Zinez, seme bat izatera iritsi bazen zeharbidez izan zen. Haren fedearen atean ezkontzaustea dago.

Maitasunaren Jainko bezala goستن duenak, ez du iritzi jasoegirik maitasunaz beraz. Ez al zuen Jainko horrek epaile ere izan nahi? Baina maitaleak sariaz eta zigorraz haraindi maite izaten du.

Gaztea zenean, Ekialdeko jainko hori, gogorra eta mendekatia zen eta ifernua eraiki zuen bere kuttunen olgetarako.

Baina azkenean zahar, ahul, babo eta gupidatsu bihurtu zen, aita baino aitona areago zirudien; eta ezer baino gehiago amona zahar mekoa.

Han egoten zen eserita, muzin, bere supazterrean, bere zango ahulez kexatzen zen, munduaz nekaturik, nahiaz nekaturik, egun batez bere gupida gehiegizkoak ito zuen". -

"Aitasantu zaharra", esan zion Zaratustrak bitartean "hori zeure begiez ikusi al duzu? Gerta zitekeen horrela: horrela eta baita bestela ere. Jainkoak hiltzen direnean, era askotako heriotzaz hiltzen dira beti.

Baina tira! Honela edo hala, honela eta hala - alde egina da! Nire belarrien eta begien gustuaren kontra zihoan, ez nioke ezer makurrakorik egotzi nahi.

Begirada garbia eta jator hitz egiten duen guztia maite dut. Baina berak - zuk badakizu hori, apaiz zaharra, berak bazuen zure keratik zer bait bere baitan, apaiz-keratik - tolesduna zen.

Iluna ere bazen. Nola haserretzen zen gurekin, erretxin hori, gaizki ulertzen genuelako! Baina zergatik ez zen garbiago mintzatzen?

Eta belarrien gauza baldin bazen, zergatik eman zizkigun gaizki entzuten zioten belarriak? Gure belarrietan lokatza baldin bazegoen, tira! nork sartu zuen hara?

Gauza gehiegi atera zitzaion gaizki, lanbidea behar adina ikasi ez zuen buztinlari horri! Baina bere ontzi eta sorkarien lepotik mendeku hartze hori, gaizki atera zitzaizkiolako - hori gustu onaren aurkako bekatua izan zen.

Jaieran ere badago gustu ona: eta hark esan zuen azkenik: "Utikan horrelako jainkoa! Hobe da Jainkorik ez izatea, hobe da nork bere eskuz zoria egitea, hobe zoroa izatea, hobe norbera jainko izatea!"

- "Zer ari naiz entzuten!" esan zuen aitasantu zaharrak belarriak zorrozturik; "oi Zaratustra, zeuk sinetsi baino jaieratsuagoa zara zeure sinestegabea! Zure baitako Jainkoren batek bihurtu zaitu zeure jainkogabeziara.

Ez al da zure jaiera jadanik Jainkoa sinesten uzten ez dizuna? Eta zure gehiegizko jatortasunak ongiaz eta gaizkiaz haraindi eramango zaitu!

Begira, zer daukazu etorkizunean? Begiak eta eskuak eta ahoa dituzu, betieratik bedekatzera aurreizendatuak. Ez da eskuaz soilik bedekatzeten.

Zure alboan, nahiz eta jainkogabeena izan nahi duzun, bedekapen luzeen intsentsu-usain gozoa nabaritzen dut: aldi berean on eta min egiten dit.

Utzidazu zure ostari izaten, oi Zaratustra, gau bakar batez! Lurreko inon ez naiz orain zurekin baino hobeki sentitzen!" -

"Amen! Hala bedi!" mintzatu zen Zaratustra miresmen handiz, "hor goitik doa bidea, han dago Zaratustraren haitzuloa.

Benetan gogara gidatuko zintuzket neronek, agurgarri hori, zeren maite baititut gizon jaieratsuak. Baina larridura-garrasiak dei egiten dit presaka zugandik alde egitera. Nire sailetan ez du inork kalterik izan behar; nire haitzuloa portu ona da. Eta ezer baino gehiago nahiko nuke triste guztiak lehorrean eta oin irmearekin ezartzea. Baina nork kenduko lizuke zeure melankolia sorbaldeetatik? Horretarako ahulegia naiz. Luzaroan, zinez, itxaron beharko genuke, harik eta norbaitek zure Jainkoa berriro biztu arte.

Zeren Jainko zahar hori jadanik ez baita bizi: erabat hilik dago". -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### GIZONIK ITSUSIENA

- Eta berriro Zaratustraren oinak lasterka ibili ziren mendi eta oihanetan zehar, eta haren begiak bila eta bila, baina ez zuen inon ikusi nahi zuena ikusterik lortzen, larridura handia nozitzen eta garrasia egiten zuena. Baina bide guztian poztu egin zen bere bihotzean eta esker onez beterik zegoen. "Zeinen gauza onak", esaten zuen, "oparitu dizkidan egun honek gaizki hasi izanaren kitagarritzat! Zeinen solaskide bitxiak aurkitu ditudan!

Bere hitzak luzaroan mastekatuko ditut ale ona bezala; xehe mamurtu eta murtxikatuko dituzte nire haginek, harik eta esnea bezala ariman isuri arte!" -

Baina bideak harkaitz bati inguru egitean, supituki aldatu zen paisaia, eta Zaratustra herioaren erresuman sartu zen. Hemen harrimutur beltz eta gorriak ageri ziren zurrun gora begira, ez belarrik, ez zuhaitzik, ez txori-kantarik. Izan ere, piztia guztiek ihes egiten zuten harana zen, baita piztia harrapariak ere; suge-mota berde lodi itsusi bat bakarrik joaten zen bertara, zahartzean, hiltzera. Horregatik deitzen zioten artzainek haran hari: Suge-herio.

Zaratustra, ordea, oroitzapen beltzean murgildu zen, zeren noizbait haran hartan egona zela iruditzen baitzitzaion. Eta gauza astunak jarri zitzaizkion gogoan: halako moldez, non astiro, gero eta astiroago joan eta, azkenik, gelditu egin zen. Orduan ikusi zuen, begiak irekitzean, zerbait, bidean eserita zegoena, gizakiaren itxurakoa, eta ozta-ozta gizakia zirudiena, zerbait adierazezina. Eta tanpez lotsa handi bat nagusitu zen Zaratustraz, halako gauza bere begiez ikusi zuelako: bere ile zurietaraino gorrituz, begirada saihestu eta oina jaso zuen leku makur hartatik alde egiteko. Baina orduan basamortu hila ozendu egin zen: lurretik gurgurka eta zurrunka zerion, ura gauez hodi trabatuetan barna bezala gurgurka eta zurrunka; eta azkenean hartatik giza mintzoa eta giza hizketa sortu zen: - zeinek honela baitzioten:

"Zaratustra! Zaratustra! igerriok nire igerkizunari! Mintza, mintza! Zer duk lekukoaren kontrako mendekua?

Atzera itzul hadin gonbidatzen haut, hemen izotz labaina zegok! Kontuz, kontuz, hire harrotasunak ez ditzala hemen zangoak hauts!

Heure burua jakintsutzat daukak, Zaratustra harro hori! Igarriok orduan igerkizunari, intxaur-koskailu gogorra - neu naizen igerkizunari! Esan ezak beraz: nor nauk ni!"

- Baina Zaratustrak hitz hauek entzun zituenean - zer uste duzue gertatu zitzaiola ariman? Gupidak eraso zion; eta bapatean amildu zen arte bat bezala, luzaroan egurgile ugariri aurre eman ondoren - astunkiro, supituki, bota nahi zuten haiek beraiek ikaratuz. Baina laster jaiki zen berriro lurretik, eta aurpegia gogortu egin zitzaion.

"Ongi ezagutzen haut", esan zuen brontzezko mintzoz: "Jainkoaren hiltzailea haiz hi! Utzidak alde egiten.

Hik ez huen eramaten ikusten hinduena - beti eta alderen alde ikusten hinduena hura, gizonik itsusiena haizen hori! Eta mendeku hartu huen lekuko horren lepotik!"

Honela mintzatu zen Zaratustra eta alde egin nahi izan zuen handik; baina adierazezinak jantziaren mutur batetik heldu zion eta berriro gurgurka hasi zen hitzen bila. "Hago!" esan zuen azkenik -

"- hago! Ez pasa parean! Igarri diat zer aizkorak lurreratua haizen: Osasun hiri, oi Zaratustra, berriro zutik hagoelako!

Igerri duk, bazekiat ongi, zer sentitzen duen bera hil duenak - Jainkoaren erleak! Hago! Eser hadi nire ondoan, ez duk alferrik izango.

Norengana nahi nian nik, hiregana ezik? Hago, eser hadi! Baina ez zaidak begira! Ohora ezak - nire itsusitasuna!

Jazartu egiten naitek: orain hi haiz nire azken babeslekua. Ez beren gorrotoaz, ez beren txinelez: - oi, horrelako jazarpenaz iseka egingo niake eta harro eta pozik egongo!

Ez al duk arrakasta orain arte ongi jazartuentzat izan? Eta ongi jazartzen duenak aisa

ikasten dik jarraitzen<sup>91</sup>: -atzetik baitzihoak behingoz! Baina beraien gupidatik -

- beraien gupidatik egiten diat ihes eta higana ihes egin ere. Oi Zaratustra, babes nazak, hi haiz nire azken babeslekua, hi igerri didaan bakarra:

- hik igerri duk zer sentitzen duen bera hil duenak. Hago! Eta alde egin nahi baduk, pazientzigabe horrek: ez hadi joan, ni etorri naizen bidetik. Bide hori txarra duk.

Haserre al hago nirekin, aspaldian hitzak larrutzen ditudalako? Edota aholkuak ematen dizkiadalako? Baina jakin ezak, ni naizela, gizonik itsusiena,

- oinik handi astunenak dituen ere. Ni ibili naizen tokian, bide txarra zegok. Bide guztiak hondoraturik eta hondoturik uzten dizkiat.

Baina nire parean pasatzean, isilik; eta gorritzean, ongi ikusi diat: horretan ezagutu diat Zaratustra haizela.

Beste edozeinek bere limosna botako zidakean, bere gupida, begiradaz eta hitzez. Baina horretarako - ez nauk nahikoa eskale, igerri diok horri -

- horretarako aberatsegia nauk handian, beldurgarrian, itsusian, adierazezinean! Hire lotsa, oi Zaratustra, ohore zaidak!

Kostata ihes egin dio gupidatsuen hertsapenari - harik eta aurkitu dudanean arte "Gupida gogaikarria da" irakasten duen bakarra - hi, oi Zaratustra!

- dela Jainko baten gupida, dela gizonaren gupida: gupida lotsaren aurka doa. Eta lagundu nahi ez izatea prestuago izan liteke presaka laguntzen den bertute hori baino.

Baina horri deitzen zaio gaur egun bertute jende txikiaren artean ere, gupidari: - ez diote begirunerik zorigaitz handiari, itsusitasun handiari, porrot handiari.

Guzti hauen gainetik begiratzen dut nik, txakurrak artalde ugariko ardien bizkarren gainetik begiratzen duen bezala. Jende txiki arre artiletsu eta arduratsuak dira.

Koartzak urmahel-azalaren gainetik destainati begiratzen duen bezala burua ongi tenteturik: horrela begiratzen dut nik uhin eta nahi eta arima txiki arreen multzoaren gainetik.

Luzaroegi eman zaie arrazoia, jende txiki horiei: horrela eman zaie azkenik boterea ere - eta orain predikatzen dute: "Jende txikiak on deitzen diona soilik da ona".

Eta "egia" deitzen zaio gaur, beren artetik irtendako predikari hark esan zuena, santu miragarri eta jende txikiaren aldeko hark, zeinak bere buruaz testigatu baitzuen "Ni - naiz egia."

Eragabe honek lortu zuen aspaldidanik jende txikiak kukurra tenteturik ibiltzea, - berak, txikia ez den errakuntza bat irakatsi baitzuen, "Ni - naiz egia"<sup>92</sup> irakatsi zuenean.

Inoiz erantzun al zaio eragabe bati kunplimendu handiagoarekin? - Hi, oi Zaratustra, haren parean pasa hintzen, eta esan huen: "Ez! Ez! Hirugarrenez ez!"

Hi erne jarri hituen haren errakuntzaren aurrean, hik erne jarri hituen lehenak bezala gupidaren aurrean - ez guztiak, ez inor, heure burua eta heure motakoak.

Asko pairatzen ari denaren lotsaz lotsatzen haiz; eta zinez, esaten duanean “gupidatik hodei handi bat dator, adi egon, gizonok!”

- eta irakasten duanean “sortzaile guztiak gogorrek dira, maitasun handi oro bere gupidaren gainetik dago”: oi Zaratustra, uste diat oso jakitun hagoela aldien zantzuez! Baina heu - erne jar hadi heure gupidaren aurrean! Zeren asko baitatoz higana bidean, pairatzen, dudatzen, etsitzen, itotzen eta izozten ari diren asko -

Erne jartzen haut neure buruaren aurrean ere. Igerri egin didak nire igerkizunik hoberena, txarrena, nor naizen eta zer egin dudan. Ezagutzen diat hi botatzen ari den aizkora.

Baina hark - hil beharra zian: dena ikusten zuten begiez begiratzen zian - gizonaren sakonak eta hondoak ikusten zizkian, bere laido eta itsusitasun estali guztia.

Haren gupidak ez zuen lotsarik ezagutu: nire zokorik zikinenak arakatzen zizkian.

Jakiminegi, guztiz eragabe, guztiz gupidatsu horrek hil beharra zian.

Beti ikusten nintian: horrelako lekukoaren lepotik mendeku hartu beharra nian - edo neroni ez bizi.

Dena ikusten zuen Jainkoak, baita gizona ere: Jainko horrek hil beharra zian! Gizonak ez dik eramaten, honelako lekukorik bizi dadin”.

Honela mintzatu zen gizonik itsusiena. Baina Zaratustra jaiki eta bideari jarraitzekotan hasi zen: zeren erraietaraino izozturik baitzegoen.

"Hi adierazezin hori", esan zuen, "erne jarri nauk heure bidearen aurrean. Esker onez neurea gomendatuko diat. Hara, han goian zegok Zaratustraren haitzuloa.

Nire haitzuloa handia eta sakona duk, eta zoko asko dik; gordeenak aurkitzen dik bertan bere gordelekua.

Eta haren inguruan ehun zulo eta arrakala zeudek arrastaka, hegaz eta jauzika aritzen diren piztientzat.

Hi, erbesteratua, heure burua erbesteratu duana, ez al duk gizonen eta giza gupidaren artean bizi nahi? Tira, nik bezala egin ezak! Horrela ikasiko duk nigandik ere; iharduleak soilik ikasten dik.

Eta lehenik eta batipat nire piztiekin hitz egin ezak! Piztia harroena eta piztia zuhurrena horiek dituk guretzat noski aholkulari egokiak!" -

Honela mintzatu zen Zaratustra eta bere bidetik joan zen, lehen baino ere pentsakor eta astiroago: zeren gauza asko galdetzen baitzion bere buruari eta ez zekien erraz erantzuten.

"Zeinen behartsua den gizona!" pentsatzen zuen bere bihotzean, "zeinen itsusia, zeinen zurruduna, zeinen lotsa ezkutuko z betea!

Gizonak bere burua maite omen du: ai, zeinen handia izan behar duen bere buruaganako maitasun horrek! Zenbat erdeinu duen bere buruaren kontra!

Horrako horrek ere maite zuen bere burua, erdeinatzen zuen adina - maitale handi bat dago nigan eta erdeinatzaile handi bat.

Ez dut inor aurkitu orain arte, bere burua bizikiago erdeinatzen zuenik: hori ere goiera da. Ai ene, hori ote zen agian gizon garaia goa, garrasia entzun diodana?

Nik maite ditut erdeinatzaile handiak. Baina gizona gainditu beharreko zerbait da". -

#### **BERE BORONDATEZKO ESKALEA**

Zaratustra, gizonik itsusiena uztean, izozturik eta bakarti sentitu zen: izan ere gauza hotz eta bakarti ugari pasatzen zitzaion barrenetik eta honela bere beso-zangoak ere hoztu egin zitzaizkion. Bitartean ordea aurrera eta aurrera zihoan, gora, behera, zelai berdeetan barna, baina baita troka basa harritsuetan barna ere, nondik behiala erreka urduriren batek ohatzea eduki izan baitzuen: orduan bapatean berriz ere barnea berotu eta adoretu zitzaion.



"Zer gertatu zaidak gero?" galdetu zion bere buruari, "zerbait bero eta biziak adoretzen naik, eta hemen inguruan egon behar dik.

Orain ez negok hain bakarti; lagun eta senide ezezagunak dabilzkit inguruan, beraien arnasa beroak ukitzen zidak arima".

Baina ingurua barrandatu eta bere bakardadeari kontsolamendua bilatzean: hara, behiak ziren, gain batean bildurik zeudenak; haien hurbiltasun eta usainak bihotza berotu zioten. Bazirudien behi hauek arretaz hizlariren bati entzuten ari zirela, eta ez zioten jaramonik egin hurbiltzen ari zitzaienari. Zaratustrak, guztiz hurbiltzean, argiro entzun zuen behien artean giza mintzoa ari zela hitz egiten; eta nabarmenki guztiek beren buruak hizlariarengana bihurturik zeuzkaten.

Orduan Zaratustrak suharrez salto bat egin eta abereak sakabanatu zituen, zeren beldur baitzen, han norbaiti ezbeharren bat gertatuko ez ote zitzaion, zeinari behien gupidak nekez lagun ziezaiokeen. Baina horretan huts egin zuen; zeren hara, han gizon bat baitzegoen lurrean eserita eta bazirudien abereei hitz egiten ari zitzaientzela, ez ziotela beldurrik izan behar esanez, bera bezalako gizon eta mendi-predikari<sup>93</sup> baketsuari, haren begietatik ongiak berak predikatzen baitzuen. "Zeren bila habil hemen?" galdetu zion Zaratustrak harrimenez.

"Zeren bila nabilen hemen?" erantzun zion: "hi habilen beraren bila, bake-urruti! Lurreko zorionaren bila hain zuzen.

Baina horretarako behi hauengandik ikasi nahi niake. Zeren jakin behar baituk, goiz erdia daramadala berauei hitz egiten, eta oraintxe zeudean erantzuteko zorian. Zergatik eragotzi diek?

Baldin eta bihotz-berritzen ez bagara eta behiak bezalako bihurtzen, ez gara zeruetako erreinuan<sup>94</sup> sartuko. Beraiegandik gauza bat ikasi beharrean gaude: hausnarrean. Eta zinez, baldin gizonak mundu osoa irabazten badu, baina gauza bakar<sup>95</sup> hori ikasten ez badu, hausnarrean: zer balioko lioke! Ez lioke bere nahigabeari ihes egingo, - bere nahigabe handiari: gaur nazka deitzen diogunari. Nork ez dauzka gaur nazkaz bihotza, ahoa eta begiak beteak? Hik ere bai! Hik ere bai! Hik ere bai! Baina begiraiek behi hauei!" -

Honela mintzatu zen mendi-predikaria eta begirada Zaratustrarengana zuzendu zuen - zeren ordura arte maitasunez behiei atxekirik egona baitzen -: baina orduan itxuraldatu egin zen. "Norekin ari naiz hitz egiten?" oihu egin zuen izuturik eta salto batez zutik jarri zen.

"Hau da nazkarik gabeko gizona, Zaratustra bera da, nazka handiaren gainditzaila, hau da begia, hau da ahoa, hau da Zaratustra beraren bihotza".

Eta honela mintzatzen ari zen bitartean, hitz egiten ari zitzaionari eskuak musukatzen zizkion, begietatik malkoak zerizkiola, eta keinuak egiten zituen, oharkabea zerutik opari eta bitxi baliotsu erori izan balitzaizkio bezala. Behiak guzti honi begira zeuden eta miretsi egiten ziren.

"Ez hadi nitaz mintza, miragarri hori! maitagarri hori!" esan zuen Zaratustrak eta samurtasunetik babestu zuen bere burua "mintza hadi aurrena heure buruaz! Ez al haiz hi borondatezko eskalea, behiala aberastasun handia beragandik jaurtiki zuena - - bere aberastasunaz eta aberatsez lotsatu eta behartsuenengana ihes egin zuena, beren bete eta bihotza haiei oparitzeko? Baina haiek ez zioten abegi egin".

"Baina haiek ez zioten abegi egin -esan zuen borondatezko eskaleak, "hori badakik. Eta azkenik piztiengana eta behi hauengana etorri nauk".

"Horrela ikasi duk", eten zion Zaratustrak hitz egiten ari zenari "askoz zailagoa dela zuzen ematea, zuzen hartzea baino, eta ongi oparitzea artea dela eta ontasunaren azken maisu-arte trebea".

"Gaur egun bereziki", erantzun zuen borondatezko eskaleak: "gaur egun batez ere, non beheko oro erreboltari bihurtu baituk eta muker eta harro bere gisara: bere jendaila gisara.

Zeren etorria baituk ordua, badakik hori ongi, esklabu eta jendailaren errebolta handi makur luze luzakorrerakoa: hazi eta hazi ari denerakoa!

Orain asaldatu egiten dizkik behekoak ongintza eta oparitxoak emate orok; eta hobe diate aberats okituek ernai egotea!

Gaur flasko tripoilaren antzera bere lepo estuegitik tantaka ari denari: - halako flaskoari gaur gogara hausten ziotek lepoa.

Gutizia lohia, bekaitz behazuntsua, herra mingotsa, jendaila-harrotasuna: guzti honek salto egin zidak aurpegira. Ez duk jadanik egia, behartsuak zorioneko direla. Zerueta ereinua behien artean zegok<sup>96</sup>".

"Eta zergatik ez zegok aberatsen artean?" galdetu zuen Zaratustrak tentatuz, behiei baketsua usnaka aritzea eragozten zien bitartean.

"Zertan tentatzen nauk?" erantzun zion honek. "Herorrek neuk baino ere hobeki dakik. Zerk bultzatu naik behartsuen artera, oi Zaratustra? Ez al duk gure aberatsenenganako nazka izan?

- aberastasunaren bortxatu horienganakoa, begi hotzekin, pentsamendu joriekin, edozein zaborratatik beren mozkina ateratzen duten horienganakoa, zerurainoko kiratsa darion jendaila horrenganakoa,

- jende-xeheteria urreztatutako gezurreztatua, zeinaren gurasoak atzapardunak edo saiak edo txarpakariak izan baitziren, emakumeekin atoskor, lizun eta ahanzkor: -ez dituk putengandik batere urrun ibili-

Jendaila gora, jendaila behera! Zer esan nahi dik gaur "behartsu" eta "aberratsek"!

Ahaztua diat dagoeneko alde hori - horregatik egin diat ihes urrun, gero eta urrunago, behi hauenganaino etorri arte".

Honela mintzatu zen baketsua, eta hitz egitean sudurrotsa eta izerdia ateratzen zituen: halako molde, non behiak berriz ere miretsi ziren. Baina Zaratustrak aurpegian barrearekin begiratu zion, bera honela hitz egiten ari zen bitartean, eta buruari eragiten zion isilean.

"Heure buruari bortxa egiten ari hatzaio, mendi-predikaria, hain hitz gogorrak erabiltzean. Hire ahoa eta begia ez zeudek horrelako gogorkeriarako eginak.

Ezta hire urdaila ere, nik uste: zeinaren kontra baitzeudek haserre eta gorroto eta sumin oro. Hire urdailak gauza bigunagoak behar dizkik: hi ez haiz harakina.

Landare eta sustrai-gizonaren itxura areago hartzen diat. Agian aleak mamurtzen dituk. Seguraski haragizko gozamenen aurkakoa haiz eta maite duk ezia".

"Ongi igarri didak", erantzun zuen borondatezko eskaleak bihotz arinduarekin.

"Maite diat ezia, mamurtzen dizkiat aleak, zeren ahosabaiari atsegin zaiona eta arnasa garbitzen duena bilatu baitiat:

- baita denbora luzea behar duena ere, luzerako denborapasa den eta alfer eta nagientzat litxarrerria dena.

Inor baino urrunago joan dituk, noski, behi hauek: hausnarrean aritzea eta eguzkitan etzanda egotea asmatu dizkiate. Bihotza hanpatzen duten pentsamendu guztietatik urrun ere beren burua gordetzen ditek". -

- "Tira!" esan zuen Zaratustrak: "nire piztiak ere ikusi beharko hituzke hik, nire arranoa eta nire sugea - gaur ez zegok haien modukorik lurrean.

Hara, hortik zihoak nire haitzuloako bidea: izan hadi gaur gauean bere ostaria. Eta hitz egin ezak nire piztiekin piztien zorionaz -

- ni ere etxera itzuli arte. Zeren orain larritasun-garrasiak dei egiten baitzidak higandik presaka alde egitera. Ezti berria ere aurkituko duk nire baitan, abaraska izoztuetako urre-eztia: jan ezak!

Baina orain berehalakoan esaiek adio heure behiei, miragarri horrek! Maitagarri horrek! Nahiz eta hori zaila gertatuko zaian. Zeren hire adiskiderik eta maisurik beroenak baitituk!" -

"- Bakarra izan ezik, nik oraindik gehiago maite dudana", erantzun zuen bere borondatezko eskaleak. "Hi heu ere ona haiz, Zaratustra, eta behia baino ere hobe, oi Zaratustra!"

"Hoa, hoa nigandik! lausengari doilorra!" oihu egin zuen Zaratustrak gaiztakeriaz, "zergatik hondatzen nauk horrelako gorespen eta lausenguzko eztiak?"

"Hoa, hoa nigandik!" oihu egin zuen berriz ere eta eskale samurrari astindu zion bere makila: baina honek iradu alde egin zuen handik.

ITZALA

Baina bere borondatezko eskaleak alde egin orduko eta Zaratustra berriro bere buruarekin bakarrik zegoela, atzealdean mintzo berria entzun zuen: zeinak dei egiten baitzuen "Geldi! Zaratustra! Itxaroidak!, neu nauk, oi Zaratustra, neu, hire itzala!"

Baina Zaratustrak ez zuen itxaron, zeren supituki nahigabeak menperatu baitzuen bere mendietan hainbeste oste eta jendetza ikustean. "Non dago nire bakardadea?" esan zuen.

"Zinez gehiegizko zait hau; mendi honetan jendea ugari dabil, nire erreinua ez da jadanik mundu honetakoa<sup>97</sup>, mendi berriak behar ditut.

Neure itzalak dei egiten al dit? Bost axola neure itzala! Nire atzetik lasterka egin dezala! ni - beragandik ihesi noa".

Honela mintzatu zitzaion Zaratustra bere bihotzari eta ihes egin zuen. Baina bere atzean zegoena jarraitu egiten zitzaion: halako moldez, non hiru baitziren elkarren atzetik lasterka zihozenak, hau da, aurrea borondatezko eskalea, gero Zaratustra eta hirugarren eta azkena honen itzala. Ez zuten luzaroan honela lasterka egin, eta horra non jabetzen den Zaratustra bere tentelkeriaz eta kolpe bakar batez bota zituen bere baitatik nahigabe eta gogogabe guztiak.

"Eta zer!" esan zuen, ez al dira gertatu betidanik gauzarik barregarrienak gu bezalako ermitau eta santuen artean?

Zinez, nire tentelkeria mendietan asko hazi da! Eta orain sei zoro-zango zahar entzun ditut bata bestearen atzetik tipi-tapa!

Beldur izan al daiteke gero Zaratustra itzal baten aurrean. Azken finean iruditzen zait, nik baino zango luzeagoak dituela".

Honela mintzatu zen Zaratustra, begi eta erraiekin barrezka, gelditu zen eta bira bizkor bat egin zuen - eta hara, ia lurrera bota zuen bere jarraitzailea eta itzala: hain ondotik baitzerraion orpoz orpo, eta hain ahula baitzen gainera. Baina begiez aztertu zuenean, supituki agerturiko iratxo baten aurrean bezala izutu zen: hain mehe, belztu, irol eta mekoa baitzirudien jarraitzaile honek.

"Nor haiz hi?" galdetu zion Zaratustrak biziki, "zertan habil hemen? eta zergatik deritzok heure buruari nire itzal? Ez haut atsegin".

"Barkaidak", erantzun zuen itzalak "baina ni nauk; eta atsegin ez nauk, tira, oi Zaratustra! horretan hi eta hire gustu ona goستن dizkiat.

Ibiltaria nauk, aspaldidanik orpoz orpo hire atzetik etorria: beti bidean, baina helmugarik gabe, baita etxerik gabe ere: halako moldez, non gutxi falta zaidan betierako judua izateko, nahiz eta ni ez beti eta ez judu izan.

Nola? Beti bidean ibili beharko ote diat? Haize guztiek zirimolatua, alderrai, bultzatua? Oi Lur, biribilegi bihurtu haiz niretzat!

Dagoeneko gainazal guztietan egon nauk eserita, hauts nekatua bezala lo egin diat ispilu eta leiho-beiren gainean: denak hartzen dik zerbait nigandik, eman ezer ez, mehetu egiten nauk - ia itzal bihurtzeraino.

Baina hi, oi Zaratustra, segitu eta pertsegitu haut gehien, eta hire aurrean ezkutatu banauk ere, neu izan nauk hire itzalik hoberena: hi eseri haizen toki guztietan, eseri nauk ni ere.

Hirekin ibili nauk mundurik urrunen eta hotzenetan barna, iratxoaren modura, negu-teilatu eta elurretan zehar gogara lasterka eginez.

Hirekin saiatu nauk debekatu, makur, urrun oro lortzen: eta nigan inolako bertuterik baldin bazegok, ezein debekuren aurrean beldurtu ez izana duk.

Hirekin hautsi diat, inoiz nire bihotzak gurtu duena, mugarri eta irudi guztiak irauli dizkiat, gurari arriskutsuenen atzetik egin diat lasterka - zinez, noizbait hobena guztien gainetik igaroa nauk.

Hirekin desikasi diat hitz eta balio eta izen handitan sinesten. Deabruak larruazala aldatzen duenean, ez al dik bere izena ere jaulkitzen? Hori ere larruazal baituk. Deabrua bera ere agian - larruazal duk.

“Ez da ezer egia, dena zilegi da”: honela mintzatzen nintzaion neure buruari. Urik hotzenetan amildu ninduan, buruz eta bihotzez. Ai, zenbat aldiz egon ote naiz horregatik biluzik karramarro gorria bezala!

Ai, nora joan zait niri on guztia eta lotsa guztia eta fede guztia onengan! Ai, nora joan ote da errugabetasuna gezurtatu hura, behiala neukana, onen errugabetasuna eta haien gezur nobleak!

Sarriegi, zinez jarraitu izan natzaiok egiari orpoz orpo: eta berak orduan zapaltzen zidaan burua. Noiz edo noiz gezurra esan nahi izaten nian, eta hara! orduan topo egiten nian egiarekin.

Gauza gehiegi argitu zaizkidak: orain ez zaidak ezer axola, nik maite dudarik ez duk jadanik bizi - nola maita nezakek oraindik neure burua?

“Bizi, gogoak ematen didan bezala, edo ez bizi”: horrela nahi diat nik, horrela nahi dik santuenak ere. Baina ai ene! ba al diat oraindik - gogorik?

Ba al diat nik - oraindik helmugarik? Porturik bertara neure bela joateko?

Haize onik? Ai, nora doan dakienak soilik zekik zein haize den ona eta zein den bidai haizea.

Zer geratzen zaidak? Bihotz nekatu eta lotsagaldua; nahi aldabera; hegal zafrakariak; bizkarrezur hautsia.

Nire etxearen bilaketa hori: oi Zaratustra, ondotxo dakik, bilaketa hori izan duk nire atsekabea, horrek irensten naik.

“Non zegok - nire etxea?” Hori galdetzen diat eta bilatzen eta bilatu diat baina ez diat aurkitu. Oi betierako nonahia, oi betierako inoneza, oi betierako - alferrikoa!”

Honela mintzatu zen itzala, eta Zaratustraren aurpegia luzatu egin zen hitz hauek entzutean. “Hi haiz nire itzala”; esan zion azkenean, tristurarekin.

“Hire arriskua ez duk txikia, izpiritu libre eta ibiltari hori! Egun txarra izan duk: hara, ez dakiala oraindik arrats txarra etor!”

Hi bezalako alderraiak, gartzela bera ere zorionekotzat jotzen ditek. Ikusi al duk inoiz nola lo egiten duten hogenlari presoek? Lasai lo egiten diate, gozatu egiten diate beren segurtasun berriaz.

Gorde ezak heure burua azkenean fede estuak harrapa ez hazan, joran gogor, estuak!

Zeren orain liluratu eta errebelatu egiten baiheu trinko eta sendoa den guztiak.

Helburua galdu duk: ai ene, nola libra eta kita haiteke galera horretaz? Horrenbestez - bidea ere galdu duk!

Alderrai gaixoa, ameslaria, tximeleta nekatua! nahi al duk gaur gauean atsedena eta aterpea izan? Igo hadi orduan nire haitzulora!

Hor goitik zihoak nire haitzulorako bidea. Eta orain bizkor ihes egin nahi diat higandik. Itzal antzeko zerbait zeukat neure gainean.

Bakarrik egin nahi diat lasterka, berriz ere nire inguruan argi egon dadin. Horretarako oraindik luzaroan mugitu behar dizkiat alai zangoak. Baina gaur gauean nire etxean - dantza izango duk!" -

Honela mintzatu zen Zaratustra.

#### EGUERDIZ

- Eta Zaratustrak laster eta laster egin zuen, eta ez zuen inor gehiago aurkitu, eta bakarrik zegoen eta behin eta berriz bere burua aurkitzen zuen eta gozatzen eta zurrupaka edaten zuen bere bakardadea eta gauza onak pentsatzen zituen - ordu luzetan. Baina eguerdian, eguzkia Zaratustraren pare-parean zegoenean, zuhaitz bihurri adabegitsu eta zahar baten albotik igaro zen, zeina mahatsondo baten maitasun aberatsak besarkaturik eta bildurik baitzegoen, eta bere buruarengandik ere ezkutaturik: hartatik mahats horiak zeuden ugari esekirik ibiltariarentzat. Orduan egarritxo iraungi eta mahats-luku bat eteteko gogoak eman zion; baina horretarako besoa hedatzean, beste zerbait eman zion gogoak: zuhaitzaren ondoan etzan eguerdi betean eta lo egitea.

Horixe egin zuen Zaratustrak; eta lurrean etzan zen orduko, isiltasuna eta belar nabarraren abegikortasunean, bere egarri txikia ere ahaztua eta loak hartu zuen. Zeren, Zaratustraren esaerak dioenez: premia handiak kentzen baitu txikia. Halere begiak zabalik zeuzkan: - ez ziren asetzen zuhaitza eta mahatsondoaren maitasuna ikusi eta goresteaz. Eta lotan honela mintzatu zitzaion Zaratustra bere bihotzari:

"Ixo! Ixo! Ez al da mundua betegin bihurtu une honetan? Zer gertatzen zait?

Haizea xarmangarria bezala, ikusezin, itsaso kizkurtuan dantzari, arin, pinpirin: horrela egiten du dantza loak nire gainean.

Ez dit begirik ixten, ernai uzten dit arima. Arina da, zinez, pinpirina.

Menpean hartzen nau, eta ez dakit nola; barrutik ukitzen nau esku lausengariz, bortxatzen nau. Bai bortxatzen nau, arima heda dakidan: -

- nola luzatu eta nekatzen zaidan, ene arima miragarria! Zazpigarren egunaren gaua eguerdian etorri al zaio<sup>98</sup>? Luzaroegi ibili al da alderrai zoriontsu gauza on eta umoen artean?

Luzatu egiten da, luzatu - luzeagotu! Isilik dago, ene arima miragarria. Dagoeneko gauza on gehiegi dastatua da, urrezko tristura honek zapaldu egiten du, ahoa uzkuratzen dio.

- Itsasuntzia bezala, bere badiarik lasaienean sartu dena bezala: - orduan lehorrera hurbiltzen da, bidaia luzeaz eta itsaso ziurrezaz nekatutik. Ez al da lehorra leialago?

Horrelako itsasuntzia bezala hurbiltzen, arrimatzen da lehorrera: - orduan aski da armiarma batek lehorretik bertaraino bere hariak irutea. Ez da kable sendoagorik behar hemen.

Itsasuntzi nekatu horietako bat bezala badiarik isilenean: - horrela hartzen dut atsedena nik ere orain lehorretik hurbil, leial, fidakor, itxaroten, berari hari mehenez loturik.

Oi zoriona! Oi zoriona! Kantatu egin nahi al duk agian, oi ene arima? Belarretan hatza. Baina hau duk ordu misterioitsu handiosa, ezein artzainek bere xirula jotzen ez dueneko.

Habil kontuz! Eguerdi kiskalgarria lotan dago belazetan. Ez kanta! Ixo! Mundua betegina duk.

Ez kanta, belar-hegazti hori, oi ene arima! Ez xuxurlatu ere! Hara - ixo! eguerdi zaharra lotan zegok, ahoa mugitzen dik: ez al du edaten zorion-tanta bat ere -

- urrezko zorionaren tanta ilun zahar bat, urrezko ardoarena? Berarengana lerratzen zaio itzalgaizka, bere zorionak irribarre egiten dio. Horrela egiten dik irribarre jainko batek. Ixo! -

- "Zoriontsu izateko, zeinen gutxi behar den zoriontsu izateko!" Honela mintzatu ninduan behiala eta zuhurtzat neukaan neure burua. Baina biraoa huen: orain ikasi diat hori. Zoro zuhurrek hobeki hitz egiten ditek.

Gutxiena hain zuzen, isilena, arinena, sugandilaren zirriparra, ufakoa, ukitua, begi-kliska - gutxia duk zorion hoberenaren mota. Ixo!

- Zer gertatu zaidak: Ixo! Entzun! Alde egin al dik denborak? Ez al nihoak erortzera? Ez al nauk erori -entzun! betieraren hosinean?

- Zer gertatu zaidak? Ixo! Ziztada bat al diat - ai ene - bihotzean? Bihotzean! Oi urra hadi, urra hadi, bihotz, horrelako zorionaren ondoren, horrelako ziztadaren ondoren!

- Nola? Ez al zen mundua arestian betegina? Biribil eta umoa? Oi urrezko txirringa biribila - nola doa hegaz? Noan neu ere haren atzetik! Aupa!

Ixo-" (eta hemen Zaratustrak nagiak atera eta loak hartzen zuela sentitu zuen).

"Gora!" esan zion bere buruari, "lotia! Eguerdiko lotia! Tira, gora, zango zaharrok!

Garaia duk eta garai pasatua ere bai, oraindik bide-zati ona geratzen zaizue -

Lokarturik egon zarete, zenbat denboraz? Betiera erdi batez! Tira, gora orain, ene bihotz zaharra! Zenbat denbora beharko duk horrelako loaren ondoren - itzartzeko?"

(Baina orduan berriro loak hartu zuen, eta arima bere kontra mintzatu zitzaion, eta bere burua babestu eta berriro etzan zen:)

- "Utz nazak! Ixo! Ez al zen arestian mundua betegina? Oi urrezko bola biribila!" -

"Zutik", esan zuen Zaratustrak, "neskato lapur, nagia! Nola? Luzaturik, aharrausika, hasperenka, hosin sakonetara erorka jarraituko al dun?

Nor haizelakoan gero! Oi ene arima!" (eta une hartan ikaratu egin zen, zeren eguzki-izpia erori baitzitzaion zerutik behera aurpegira.)

"Oi nire gaineko zerua", esan zuen hasperenka eta eseri egin zen, "begira al hagokit? Entzun egiten al diok nire arima bitxiari?

Noiz edango duk ihintz-tanta hori, lurreko gauza guztien gainera erori dena, - noiz edango duk arima miragarri hori -

- noiz, betieraren hosina! eguerdiaren amildegi garbi ikaragarria! noiz edango duk nire arima heure baitara?"

Honela mintzatu eta zutitu egin zen Zaratustra zuhaitzaren ondoko bere etzalekutik, horditasun estrainio batetik irtenez bezala: eta hara artean eguzkia buruaren pare-parean zeukan. Hartatik gauza bat atera zitekeen, Zaratustrak egun hartan ez zuela luze lo egin. DIOSALA

Arratsalde aurreratua zen, Zaratustra, bilaketa luze eta alferren ondoren, bere haitzulora itzuli zenean. Baina beronen aurrean aurkitu zenean, hogeitaz baina gutxiagora zegoela, une hartan gutxien uste zuena gertatu zen: berriro larridura-garrasi handia entzun zuen. Eta txundigarria! oraingoan bere haitzulotik zetorren. Garrasi luze anitz estrainioa zen, eta Zaratustrak argiro bereizten zuen mintzo ugariz osatua zela: nahiz eta urrunetik entzunez gero, aho bakarretiko garrasiaren soinua zuen.

Orduan Zaratustra salto batez bere haitzulora joan zen, eta hara! zer ikuskaria zeukan itxaroten entzukari honen ondoren! Zeren bertan baitzeuden eserita elkarrekin bidean, egunean zehar topatu zituenak: eskuineko erregea eta ezkerreko erregea, azti zaharra, aitasantua, borondatezko eskalea, itzala, izpirituen kontzientzitsua, igarle tristea eta astoa; gizon itsusienak koroa bat ezarria zeukan eta purpurazko bi zerrenda - atsegin baitzuen, itsusi guztiek bezala, bere burua moztortzea eta edertzea. Gizarte nahigabetu honen erdian Zaratustraren arranoa zegoen, lazturik eta urduri, zeren galdera askori

erantzun behar baitzien, zeinentzat bere harrokeriak erantzunik ez baitzuen; eta suge zuhurra lepoan kiribildurik zeukan.

Guzti honi Zaratustrak harridura handiarekin begiratu zion; gero banan-banan aztertu zuen ostari bakoitza jakimin onberarekin, irakurri zuen haien arimetan eta berriro harritu zen. Bitartean han bilduak beren eserlekuetatik altxatu ziren eta begirunez itxaroten zeuden Zaratustrak noiz hitz egingo zuen. Eta Zaratustra honela mintzatu zen:

"Eta zuek, etsituok! Miragarriok! Zuen larridura-garrasia entzun al dut nik? Bada orain badakit, non bilatu behar den, gaur alferrik bilatu dudana: gizon garaiagoa: -  
- nire haitzuloan bertan dago eserita, gizon garaiagoa! Baina zer dela eta harritzen naiz! Ez al dut neronek neuregana deitu, ezti-eskaintzaren eta neure zorionaren tentazio makurraren bitartez?"

Baina iruditzen zait, gaizki egokitzen zaretela gizartera, elkarri bihotza goibeltzen diozuela, larridura-garrasia egiten duzuenok, hemen elkarrekin zaudetenean? Norbaitek etorri beharko luke,

- zuei berriro barre eragingo dizuen norbaitek, pailazo on alai batek, dantzari batek eta haize batek eta bihurri batek, zoro zaharren batek: - zer deritzozue?"

Barkaidazue, etsituok, zuen aurrean hain hitz kaskarrak esatea, duinezak, zinez, honelako ostariantzat! Baina ez duzue igartzen zerk betetzen duen nire bihotza hantustez: -

- zuek betetzen duzue eta zuen ikuskariak, barkaidazue! Izan ere adoretu egiten baita, etsitu bat ikusten duena. Etsitu bati bihotz emateko - horretarako edonork irizten dio nahikoa indartsu bere buruari.

Neuri ere eman didazue zuek indar hori - emari on bat, ene ostari garaiak! Benetako ostari-opari bat! Tira, ez zaitezte haserretu, nik neuretik eskaintzen badizuet.

Honako hau da nire erresuma eta nire jaurreria: eta nirea dena, arrats honetan eta gau honetan, zuena izango da. Nire piztiek zerbitzatuko zaituztete, nire haitzuloa izango duzue atsedeen-toki!

Nire etxean eta aterpean ez du inork etsi behar, neure ehiza-sailean guztiak babesten ditut basapiztietatik. Eta hori da eskaintzen dizuedan lehen gauza: segurtasuna.

Eta bigarrena zera da: nire hatz txikia. Eta behin bera hartua duzuenean, har ezazue esku osoa, tira! eta bihotza ere bai! Ongietorriak hona, ongiatorriak, ene ostariok!"

Honela mintzatu zen Zaratustra eta irribarre egin zuen maitasunez eta gaiztakeriaz.

Diosal honen ondoren, ostariak berriz ere makurtu egin ziren isilean; baina eskuineko erregeak besteen izenean erantzun zuen.

"Oi Zaratustra, eskua eta diosala zuzentzeko eran ezagutu zaitugu Zaratustra bezala.

Beheratu egin duzu zeure burua gure aurrean; ia gure begiruneari kalte egin diozu: -

- baina nork jakingo luke zuk bezala bere burua beheratzen hainbesteko harrokeriaz?"

Horrek zutitu egiten gaitu gu, ukendua da gure begi-bihotzetarako.

Hau begiesteko soilik, atseginez igoko ginatke mendi hau baino ere mendi garaiagoetara. Ikusmindurik etorri gara, begi arreak zerk argitzen dituen ikusi nahi genuen.

Eta hara, orain amaitu dira gure larridura-garrasi guztiak. Orain burua eta bihotza zabalik dauzkagu eta estasipean. Gutxi falta da: gure ustea hantuste bihurtzeko.

Ezer ez da, oi Zaratustra, lurrean adoregarriagorik hazten, nahi indartsu garai bat baino: landarerik ederrena da. Paisaia oso bat berpizten da horrelako zuhaitz batekin.

Pinuarekin alderatzen dut nik, zure modura, oi Zaratustra, hazten dena: luze, isil, gogor, bakarti, zur malguen eta hoberenez egina, nagusi -

- azkenik adar berde indartsuek bere jaurreria besarkatuz, haizeei eta ekaitzei eta goialdean etxea duen guztiari galdera gogorak galdetuz,

- gogorrago erantzunez, agintari, garaikor: nor ez litzateke, honelako landareak begiestera, mendi garaietara igoko?

Honako zure zuhaitzaz, oi Zaratustra, adoretu egiten da goibela, porroteratua, zu ikustearekin artaga beratu egiten da eta bihotza osatzen zaio.

Eta zinez, mendi eta zuhaitz honetara begi asko zuzentzen dira gaur; irrika handia sortu da eta askok ikasi dute galdetzen: nor da Zaratustra?

Eta noizbait zeure kanta eta zeure ezitia belarrira tantakatu diozunak: ezkutatu guztiek, bakartiek, bikotiek behingoz beren bihotzari esan diote:

“Oraindik bizi al da Zaratustra? Jadanik ez du balio bizitzeak, dena berdina da, dena alferrik da: edo - Zaratustrarekin bizi behar dugu!”

“Zergatik ez dator bera?” ere galdetzen dute askok; “Bakardadeak irentsi al du? Edo geuk joan beharko ote dugu berarengana?”

Orain gertatzen da bakardadea bera etsitzen eta birrintzen ari dela, birrindu eta hildakoa edukitzeko jadanik gauza ez den hilobi baten modura. Berpiztuak ageri dira nonahi.

Orain igo eta igo ari dira uhinak zure mendiaren inguruan, oi Zaratustra. Eta zure goialdea garaia bada ere, askok igo behar dute zugana; zure txalupak ez du dagoeneko lehorrean luze egon behar.

Eta gu, etsituok orain zure haitzulora etorri izana eta jadanik ez etsitzea: egi eta aurrezeinu baizik ez da, hobeak zuregana bidean datozela -

- zeren bera ere zuregana bidean baitator, Jainkoak gizonen artean duen azken hondarra, hau da: joran handiaren, nazka handiaren, ondoeza handiaren gizon guztiak,

- bizi nahi ez duten guztiek, edo bestela berriz espero izaten ikasi behar dute - edo bestela zugandik ikasi behar dute, oi Zaratustra, esperantza handia!”

Honela mintzatu zen eskuineko erregea eta eskutik heldu zion Zaratustrari, musu emateko; baina Zaratustrak babestu egin zuen bere burua haren gurketatik eta izuturik egin zuen atzerantz, isilik eta supituki urruneko alderdietara ihes eginez bezala. Handik apur batera, ordea, atzera bere ostarien artean zegoen berriz, begiratu zien begi argi arakatzaillez eta esan zien:

"Ene ostariok, gizon garaiagook, doitxeraz eta doiki hitz egin99 nahi dut zuekin. Ez nizuen zuei itxaroten mendi hauetan".

( "Doitxeraz eta doiki? Jainkoak goarda!" esan zuen orduan ezkerreko erregeak albora hitz eginez; "igertzen da, ez dituela zorioneko doixtar hauek ezagutzen, Goizerriko jakintsu honek!

Baina “doitxeraz eta dorpeki” esan izan balu - Tira! Hori ez da gaur egun gusturik makurrena!")

"Baliteke zuek oro har gizon garaiagoak izatea", jarraitu zuen Zaratustrak: "baina niretzat - ez zarete aski garai eta idartsu.

Niretzat, hau da: nigan isilik dagoen, baina beti isilik egongo ez den

ezinbestekoarentzat. Eta nireak bazarete ere, ez zarete nire eskuin besoa bezala.

Izan ere, zango gaixo eta samurren gainean dabilenak, zuek bezala, zera nahi du, jakinaren gainean edo azpian: gerizatua izatea.

Baina neure besoa eta neure zangoa ez ditut gerizatzen nik. Nik ez ditut gerizatzen neure gerrariak: nola balioko zenidakete neure gerrarako?

Zuekin garaitzapeak berak ere alferrik galduko nituzke. Eta zuetako asko erori egingo lirateke, nire danborren durundi ozena entzute hutsez.

Ez zarete aski eder eta ongi jaioak ere niretzat. Ispilu leun garbiak behar ditut neure irakatsietarako; zuen gainazalean itxurgatu egiten da nire irudia bera ere.

Zama askok, oroitzapen askok zapaltzen ditu zuen sorbaldak; nano makur bat baino gehiago dago ezkutaturik zuen zokoetan. Jendaila ezkutatua ere badago zuengan.



Eta garaiak eta mota garaiagokoak bazarete ere: gauza asko dago zuengan okerra eta gaitzeratua. Ez dago errementaririk munduan, nik nahi bezala zuzendu eta arteztuko zaituztenik.

Zubi besterik ez zarete: garaiago batzuk igaroko ahal dira zuen gainetik bestaldera! Mailak irudikatzen dituzue: ez haserretu zuen gainetik bere goierara igotzen denaren kontra!

Zuen hazitik sor dakidake niri ere egunen batean benetako semea eta oinordeko betegina: baina hori urrun dago. Zuei zeuoi ez dagozkizue nire ondarea eta izena. Ez dizuet zuei itxaroten hemengo mendi hauetan, ez naiteke zuekin azkeneko aldiz jaitsi. Aurre-zeinutzat soilik etorri zatzaizkidate, dagoeneko gizon garaiagoak niregana bidean daudela -

- ez joran handiaren, nazka handiaren, nahigabe handiaren gizonak eta Jainkoaren azken hondarra deitu duzuen hori,

- Ez! Ez! Hirugarrenez ez! Beste batzuei itxaroten diet nik mendi hauetan eta beraiek gabe ez da nire oina altxatuko,

- garaiago, indartsuago, garaitzaileago, alaiagoei itxaroten diet, gorputz eta arimaz eskuairaz eginak daudenei: lehoi irribarretsuek etorri behar dute!

Oi, ene ostarilagunok, miragarriok - ez al duzue ezer nire haurrez entzun? Eta niregana bidean datozela?

Mintza zakizkidate nire baratzez, nire uharte zoriontsuez, nire mota eder berriaz - zergatik ez zatzaizkidate horretaz mintzatzen?

Ostari-opari hori eskatzen dut zuen maitasunarengandik, nire haurrez mintza zakizkidatela. Horregatik naiz aberats, horregatik bihurtu nintzen behartsu: zer ez nuen eman nik.

- zer ez nuke emango nik, gauza bakar bat izateagatik: haur horiek, landare-mintegi bizi hori, nire nahiaren eta nire esperantza garaienaren bizi-zuhaitz horiek!"

Honela mintzatu zen Zaratustra eta supituki eten zuen hizketa: zeren joranak eraso baitzion, eta begiak eta ahoa itxi zituen bihotzaren mugimenduaren aurrean. Eta bere ostari guztiak ere isildu eta isilik eta konkorturik egon ziren: azti zaharrak egin zituen soilik zeinuak esku eta keinuez.

## AFARIA

Une hartan aztiak Zaratustraren eta haren ostarien diosala eten zuen: aurrera egin, galtzeko astirik ez duenak bezala, heldu Zaratustrari eskutik eta dei egin zuen: "Baina Zaratustra!

Gauza bat beste bat baino beharrezkoagoa da, zerorrek esaten duzunez: tira, gauza bat zait orain niri beste guztia baino beharrezkoago.

Hitz bakoitza bere garaian: ez al nauzu afarira gonbidatu? Eta hemen asko daude bide luzea egindakoak. Ez duzu hitzaldiekin guri jaten emateko asmorik izango ezta?

Guztiok pentsatu duzue gehiegi izozteaz, uretan edo aire gabe itotzeaz eta beste gorputz-premia batzuez: baina inork ez du pentsatu nire premian, nire gose izatean". -

(Honela mintzatu zen aztia; baina Zaratustraren piztiek, ordea, hitz hauek entzutean, ihes egin zuten ikaraz aidean. Zeren ikusi baitzuten egunean zehar etxera garraiatutakoaz, ez zela aski izango, azti bakar hura bera asetzeko ere.)

"Ezta egarri izatean ere", jarraitu zuen aztiak. "Eta uraren palasta hemen entzuten badut ere, jakituriaren hizketaldiak bezala jori eta nekaezin: nik - ardoa nahi dut!

Guztiak ez dira Zaratustra bezala ur-edale porrokatuak. Ura ez da egoki nekatu eta belaskatuentzat: guri ardoa komeni zaigu - berak soilik ematen baitu supituki sendaketa eta bapateko osasuna!"

Abagadune honetan, aztia ardoa eskatzen ari zela, zera gertatu zen, ezkerreko erregeak, isilak, ere halako batean hitza hartu zuela. "Ardoaz", gu arduratu gara, "ni neure

anaiarekin batera, eskuineko erregearekin: badugu nahikoa ardo - astokada bat. Beraz ogia besterik ez da falta".

"Ogia?" galdetu zuen Zaratustrak eta barre egin zuen. "Ogirik ez dute, hain zuzen, ermitauak. Baina gizona ez da ogi hutsez bizi, baita bildots100 onen haragiaz ere, eta nik baditut bi:

- bizkor lepo egin behar ditugu haiek eta salbiaz ondu: horrela gustatzen baitzaizkit. Eta sustrai eta fruituak ere ez dira falta, jatun eta milikentzat ere aski onak direnak; ezta intxaurrak eta koskatzeko beste igarkizun batzuk ere.

Egin dezagun, beraz, otordu on bat berehala. Baina jan nahi duenak, eskua ere luzatu beharra dauka, erregea bada ere. Zaratustrarenean zilegi zaio erregeari sukaldari izatea ere".

Proposamen hau bihotzez onartu zuten: borondatezko eskalea soilik jarri zen haragia eta ardoa eta belarren kontra.

"Entzuiozue Zaratustra mizke honi!" esan zuen txantxetan: "haitzuloetara eta goimendietara etortzen al da honelako afariak egitera?"

Orain bai ulertzen dudala, behiala irakatsi ziguna: "Bedeinkatua bedi pobrezia txikia!" eta baita zergatik ezabatu nahi dituen eskaleak."

"Hago aldarte onean", erantzun zion Zaratustrak, "ni nagoen bezala. Eutsi heure ohiturei, bikain horrek, eho heure garia, edan heure ura, goretsi heure sukaldea, horrek pozten bahau!

Ni neuretarrentzat soilik nauk lege, ez nauk guztientzat lege. Baina niretarra denak hezur indartsuak eta zango arinak behar dizkik -

- gerra eta jaia atseginez egiteko, ez dik goibel ez ameslari izan behar, baizik eta prest egon zailenerako jaierako bezala, oso eta salbo.

Hoberena niretarrei zegokiek eta niri; eta ematen ez badigute, hartu egiten diagu: janaririk hoberena, zerurik garbiena, pentsamendurik indartsuena, emakumerik ederrenak!"

Honela mintzatu zen Zaratustra; baina eskuineko erregeak erantzun zion: "Bitxia! Inoiz entzun al da hain gauza zuhurrik jakintsu baten ahotik?"

Eta zinez, horixe da bitxiena jakintsu batengan, edozein eratara ere zuhurra izatea eta ez astoa".

Honela mintzatu zen Zaratustra eskuineko erregearekin. Baina astoak haren hitzaldiari borondate txarrez erantzun zion BA-I batez. Hauxe izan zen afari luze haren hasiera, histori liburuetan "Afaria" deitzen diotena. Bertan ez zen ezertaz hitz egin gizon garaiagoaz izan ezik.

## GIZON GARAIAGOAZ

### I

Lehendabiziko aldiz gizonengana joan nintzenean, ermitauaren lelokeria egin nuen, lelokeria handia: merkatuan kokatu nintzen.

Eta guztiei hitz egitean, ez nion inori hitz egiten. Gauez nire lagunak txerpolari eta gorpu ziren; eta ni neu ere ia gorpu bat.

Baina goiz berriarekin egia berri bat etorri zitzaidan: orduan ikasi nuen esaten "Zer axola dit niri merkatuak eta jendailak eta jendaila-zaratak eta jendaila-belarri luzeek!"

Gizon garaiagook, ikas ezazue hau nigandik: merkatuan ez du inork gizon garaiagoan sinesten. Eta bertan hitz egin nahi baduzue, bejondeizuela! Baina jendailak begia keinatzen du: "Guztiok berdinak gara".

"Gizon garaiagook - honela keinatzen du begia jendailak - ez dago gizon garaiagorik, guztiok berdinak gara, eta gizona gizon da, Jainkoaren aurrean - guztiok berdin gara!" Jainkoaren aurrean! - Baina orain hilik dago Jainko hori. Jendailaren aurrean guk ez dugu berdinak izan nahi. Gizon garaiagook, alde egizue merkatutik!

## II

Jainkoaren aurrean! - Baina orain hilik dago Jainko hori! Gizon garaiahook, jainko hori izan da zuen arriskurik handiena.

Bera hilobian dagoenetik, berpiztu zarete zuek. Orain soilik dator eguerdi handia, orain soilik bihurtzen da gizon garaiahook - jaun!

Ulertu al duzue nire hitza, anaiok? Izuturik zaudete: zorabiatu egiten al zaizue bihotza? Itzausi egiten al zaizue hemen amildegia? Zaunka egiten al dizue hemen ifernu-txakurrak?

Tira! Aurrera! Gizon garaiahook! Oraintxe ari da erditzen giza etorkizunaren mendia. Hil da Jainkoa: orain guk - gaingizona bizi dadin nahi dugu.

## III

Kezkatuenek galdetzen dute gaur: "Nola iraunarazten zaio gizonari?" Baina Zaratustrak galdetu du, eta bakarra eta lehena izan da galdetzen: "Nola gaingiditzen da gizona?" Gaingizona daukat bihotzean, bera da nire lehena eta bakarra -eta ez gizona: ez lagun hurkoa, ez behartsuena, ez atsekabetuena, ez hoberena.-

Oi ene anaiok, gizonarengan nik maita dezakedana iraganbide eta beherabide izatea da. Eta zuengan ere gauza asko dago maitasuna eta esperantza izatera eragiten nautenak.

Zuek erdeinatu izanak, gizon garaiahook, horrek esperantza sortzen dit niri.

Erdeinatzaile handiak dira gurtzaile handiak ere.

Zuek etsitu izanak, hori ohoregarri zaizue. Zeren ez baituzue amore ematen ikasi, ez baitituzue zuhurtasun txikiak ikasi.

Gaur txikiak bihurtu dira jaun: hauek predikatzen dituzte etsipena eta eratasuna eta zuhurtasuna eta saiamena eta begiramena eta bertute txikien etabar luzea.

Emakume-motakoa dena, morroi-motatik datorrena eta jendaila nahas-mahasa batipat:

Horrek izan nahi du orain giza zoriaren jaun - oi nazka! Nazka! Nazka!

Hori galde eta galde egiten du eta ez da nekatzen: "Nola iraunarazten zaio gizonari, hobekien, luzeen eta atseginen?" Horrenbestez - gaurko jaunak dira.

Gaurko jaun hauek gaingiditu itzazue, oi anaiok - jende txiki hau: hauek dira gaingizonaren arriskurik handiena!

Gaingidizkidazue, gizon garaiahook, bertute txikiak, zuhurtasun txikiak, hondarralezko begiramenak, inurri-zirtzileriak, ongizate errukarria, "gehiengoaren zoriona" - !

Eta hobe da etsitzea amore ematea baino. Eta, zinez, horregatik maite zaituztet, ez dakizuelako gaur bizitzen, gizon garaiahook! Izan ere horrela bizi baitzarete zuek - hobekien!

## IV

Ba al duzue kemenik, oi anaiok? Bihoztun al zaudete? Ez lekukoen aurreko kemena, baizik eta ermitau eta arrano-kemena, jadanik jainko begiralerik ez duenarena?

Arima hotzek, zamariak, itsuek, hordiek niretzat ez dute bihotzik. Bihotza izan, beldurra ezagutzen eta beldurra menperatzen duenak du; amildegia ikusten duenak, baina harrotasunez.

Amildegia ikusten duenak, baina arrano-begiez -arrano-atzaparrez amildegia oratzen duenak: horrek du kemena. -

## V

"Gizona gaiztoa da" - honela mintzatu dira nire kontsolamendurako jakintsuenak. Ai, hori gaur egia balitz! Zeren gaizkia baita gizonaren indar hoberena.

"Gizonak hobetu eta gaiztotu egin behar du" - hori irakasten dut nik. Gaizkirik handiena beharrezko da gaingizonaren hoberenerako.

Ona izan liteke jende txikiaren predikari harentzat, gizonen bekatuengatik pairatzea eta nozitzea hark101. Baina ni bekatu handiaz pozten naiz neure kontsolamendu handiaz bezala. -

Baina gauza hauek ez ditut belarriluzeentzat esaten. Edozein hitz ere ez da edozein muturrentzat. Gauza fin urrunak dira hauek: ez dira ahari-apatxez oratzekoak!

## VI

Zuek, gizon garaiagook, uste al duzue, ni hemen, zuek hondatutakoa konpontzeko nagoela?

Edo pairatzen daudenei ohe erosoagoa ezartzeko? Edo zuei, alderraioi, errebelatuoi, galduoi bidezidor berri errazagoak erakutsi nahi dizkizuedala?

Ez! Ez! Hirugarrenez ez! Zuen motan gero eta gehiagok, gero eta hobeek galdu behar dute - zeren gero eta okerrago eta gogorrago igaro behar baituzue. Honela soilik -  
- honela soilik hazten da gizona goialdera, non tximistak jotzen eta birrintzen duen: tximistarentzat bezain garai!

Gutxi, luze, urrun denera doa nire gogoa eta nire jorana: bost axola niri zuen miseria txiki, ugari, laburrak!

Niretzat oraindik ez duzue nahikoa pairatzen! Zeren zeuen buruarengatik pairatzen baituzue, oraindik ez duzue gizonarengatik pairatu. Gezurra zenioke, besterik esango bazenute! Zuek ez duzue pairatzen, nik pairatu dudanarengatik. -

## VII

Ez dut aski tximistak inori kalte ez egitearekin. Ez dut desbideratu nahi: ikasi beharra dauka - niretzat lan egiten. -

Nire jakituria aspaldidanik ari da biltzen hodei baten modura, gero eta isilagozten eta ilunagozten ari da. Horrela egiten du jakituria oro noizbait tximistez erdi behar denean. - Gaurko gizon hauentzat ez dut nahi argi izan, argi dei nazaten. Horiek - itsutu egin nahi ditut: ene jakituriaren tximista! Erauzizkiek begiak!

## VIII

Ez ezazue zeuen ahalmenaz gainetik nahi izan: faltsukeria makur bat dago beren ahalmenaz gainetik nahi dutenengan.

Batez ere, gauza handiak nahi dituztenean! Zeren gauza handietarako mesfidantza ernarazten baitute, sasi-txanpongile eta komeriante fin horiek: -

- harik eta beren buruaren aurrean faltsu bihurtzen diren arte, begi-ezkel, zur pipitu eta zuritu, hitz indartsuz, bertute fazatiz, obra distirantez eta faltsuz moztortuok.

Zabiltzate oso kontuz, gizon garaiagook! Zeren ez baiteritzot ezeri baliotsuago eta bakanago jatortasunari baino gaur.

Gaurra ez al dagokio jendailari? Baina jendailak ez daki zer den handia, zer txikia, zer zuzena eta zer jatorra: errugabeki okerra da, beti gezurra dio.

## IX

Izan ezazue gaur mesfidantza on bat, gizon garaiagook, ausarditsuok, bihotzirekiok! Eta gorde itzazue zeuen arrazoiak ezkutuan! Izan ere gaur hau jendailarena baita.

Behiala jendailak arrazoirik gabe sinesten ikasi zuena nork lezake arrazoez - deusezta? Eta merkatuan keinuez komentzitzen da. Baina arrazoei fidagaitz bihurtzen dute jendaila.

Eta noizbait egia garaile ateratzen bada han, galde egiozue zeuen buruari mesfidantza onez: "Zein errakuntza indartsuk burruka egin du haren alde?"

Gorde ezazue zeuen burua jakintsuengandik ere! Gorroto zaituztete: zeren antzuak baitira! Begi hotz lehortuak dituzte, haien aurrean txori oro lumagabe dago.

Gezurrik ez esateaz ilarraintzen dira: baina gezurrerako ezintasuna ez da inondik ere egiarenganako maitasuna. Kontuz ibili!

Sukarrik eza ez da inondik ere ezaguer! Ez diet izpiritu izoztuei sinesten. Gezurra esaten ez dakienak, ez daki zer den egia.

## X

Gora igo nahi baduzue, zeuen zangoak erabil itzazue! Ez utzi inork jaso zaitzaten, ez zaitezte inoren bizkar-buruetan eser!

Hi zaldira igo al haiz? Heure jomugara al hoa presaka bere gainean? Bejondeiala, ene adiskide hori! Baina hire oin elbarria ere zaldi gainean eserita zihoak!

Heure jomugara iritsitakoan, heure zalditik salto egitean: hain zuzen han, heure goieran, gizon garaiago hori - behaztopa egingo duk!

#### XI

Zuek sortzaileok, gizon garaiagook! Norbere haurarentzat soilik egoten da ernari. Ez iezaiezue komentzitzen, sinetsarazten utz! Nor da zuen lagun hurkoa? Eta "lagun hurkoarentzat" ari bazarete ere - ez duzue berarentzat sortzen!

Ahantzidazue "inorentzat" hori, sortzaileok: zuen bertuteak hain zuzen nahi du ez dezazuela ezer "inorentzat" eta "inorengatik" eta "inoren kariaz" egin. Hitz txiki faltsu horien kontra estali behar dituzue zeuen belarriak.

"Lagun hurkoarentzat" da jende txikiaren bertutea: zera esaten da "bat halako beste" eta "eskuak garbitzen du eskua": - ez dute ez eskubiderik ez indarrik zuen norberezaletasunerako ere!

Zuen norberezaletasunean, sortzaileok, daude ernarituaren aurrikuspina eta arreta! Inork oraindik bere begiez ikusi ez duena, fruitua: hori gerizatzen eta babesten eta elikatzen du zuen maitasun guztiak.

Zuen maitasun guztia dagoen tokian, zuen haurrarengan, hantxe dago zuen bertute guztia ere! Zuen obra, zuen nahia da zuen "lagun hurkoa": inork ez zaitzatela balio faltsuez komentzi!

#### XII

Zuek sortzaileok, gizon garaiagook! Erditu behar duena gaixo dago, baina erditu dena, lohi.

Galde egiezue emakumeei: ez da erditzen, atseгина ematen duelako. Oinazeak kakaraka eragiten die oilo eta poetei.

Zuek sortzaileok, zuengan gauza lohi asko dago. Ama izan beharra zenutelako da hori. Haur berria: oi zenbat zikinkeria berri ere etorri den berarekin mundura! Albora zaitezte! Eta erditu denak, bere arima garbitu beharra dauka!

#### XIII

Ez zaitezte bertutetsu izan zeuen indarren gainetik! Eta ez ezazue ezer nahi izan zeuengandik egiantzekotasunaren kontra!

Zoazte dagoeneko zuen gurasoen bertutea ibilitako oinatzetatik! Nola igo nahiko zenukete, baldin eta zuen aitaren nahia zuekin igotzen ez bada?

Baina aurrena izan nahi duenak, kontuz dabilela azkena ere izan ez dadin!102 Eta zuen gurasoen bizioak dauden tokian, han ez duzue santu-modura ibili behar!

Emakume, ardo lodi eta basurdekiaren zaleak guraso izan dituenak: zer gertatuko litzateke bere buruari kastitatea eskatuko balio?

Tentelkeria litzateke! Askok, deritzot, zinez, horrelakoarentzat emakume bakarraren edo biren edo hiruren senar izateari.

Eta komentuak sortu eta atearen gainean idatziko balu: "Santutasunerako bidea" - nik esango nuke: zer dela eta! tentelkeria berri bat da hori!

Hezketa- eta erruki-etxea sortu ditu beretzat: on degiola! Baina nik ez dut horretan sinesten.

Bakardadean hazten da, nork bere baitan daramana, baita barne-animalia ere. Horregatik askori ez zaio bakardadea gomendatu behar.

Izan al da inoiz gaur arte lurrean basamortuko santuak baino ezer zikinagorik? Beraien inguruan ez zebilen soilik deabrua solte, - baita txerria ere.

#### XIV

Herabeti, lotsor, baldar, salto huts egin duen tigrearen antzera: honela, zuek gizon garaiagook, ikusi zaituztet sarritan albotik itzalgazka ihes egiten. Dado-jaurtikialdi batek huts egin dizue.

Baina zer axola zuei, dado-jokalariok! Ez duzue jokatzeko eta trufatzeko ikasi, jokatzeko eta trufatzeko ikasi behar den bezala! Ez al gaude beti trufa eta joko-mahai batera eseririk?

Eta gauza handitan huts egin baduzue ere, zuek zeuok huts egin al duzue horregatik? Eta zuek zeuok huts egin duzuela eta, huts egin al du horregatik - gizonak? Gizonak huts egin badu: tira! aurrera!

#### XV

Zenbat eta garaiagoa den mota, hainbat bakanago lortzen da gauza. Zuek gizon garaiagook, ez al zarete guztiok huts - eginak?

Ezazue kementa, bost axola dio! Hamaika gauza egin liteke oraindik! Ikas ezazue zeuen buruari barre egiten, barre egin behar den bezala!

Zertan harritu huts egin baduzue eta erdi-lortuak bazarete, zuek erdi-hautsiok! Ez al da hertsatu eta asaldatzen zuengan - gizonaren etorkizuna ?

Gizonaren urrunena, sakonena, izar gorena, bere indar izugarria: ez al dago bitsetan irakiten guztia zuen eltzean?

Zertan harritu, eltze asko hausten bada! Ikas ezazue zeuen buruari barre egiten, barre egin behar den bezala! Zuek gizon garaiagook, hamaika gauza egin liteke oraindik!

Eta zinez, hamaika gauza lortu dira dagoeneko! Zeinen aberatsa den lur hau gauza txiki on beteginetan, ongi lortuetan!

Ezar itzazue gauza txiki on beteginak zeuen inguruan, zuek gizon garaiagook! Beraien heldutasun urrezkoak osatu egiten du bihotza. Betegina denak esperantza izaten irakasten du.

#### XVI

Zein izan da hemen lurrean orain arte bekaturik handiena? Ez al da izan "Ai, hemen barre egiten dutenak!"<sup>103</sup> esan zuenaren hitza?"

Ez al zuen aurkitu lurrean barre egiteko arrazoirik? Gaizki bilatu zuen orduan. Haur batek ere aurkitzen ditu hemen arrazoiak.

Hark - ez zuen nahikoa maitatzen: bestela maitatuko gintuzkeen, barre egiten dugunok ere! Baina gorrotatu eta iraindu egin gintuen, ulua eta hortz-karraska hitz eman zizkigun<sup>104</sup>.

Madarikatu egin behar al da, maitatzen ez denean? Gustu txarrekoa deritzot horri. Honela egin zuen baldintzagabe hark. Jendailatik etorria zen.

Eta ez zuen nahikoa maitatzen: bestela ez zatekeen haserretuko, maite ez zutelako. Maitasun handi orok ez du maitasunik nahi: - gehiago nahi du.

Alde egizue horrelako baldintzagabeen bidetik! Mota gaixo behartsu da hori, jendaila-mota bat: gaizki begiratzen dio bizitza honi, begizkoa dute lur honentzat.

Alde egizue horrelako baldintzagabeen bidetik! Oin astunduak eta bihotz hanpatuak dituzte: - ez dakite dantza egiten. Bai arina izan behar duela lurak horrelakoentzat!

#### XVII

Gauza on guztiak bide bihurrietatik etortzen dira beren jomugara. Katuek bezala, bizkarra konkortu eta murru-murru egiten dute zorion hurbilaren aurrean - gauza on guztiak barre egiten dute.

Ibilerak salatzen du, nor bere arrastotik doan: begira nola nabilen ni! Baina bere jomugara hurbiltzen denak, dantza egiten du.

Eta zinez, ez naiz estatua bihurtu, ez nago zurrin, kamuts, harrizko, koloma bezala; bizkor lasterka egitearen zale naiz.

Eta nahiz lurrean zingirak eta nahigabe trinkoa egon: oin arinak dituenak lokatzaren gainean ere lasterka egiten du, eta izotz leunduaren gainean bezala dantza.

Jaso itzazue bihotzak, anaiok, gora! gorago! Eta ez itzazue zangoak ere ahantz, dantzari on horiek, eta hobeki oraindik: zaudete buruaren gainean ere!

#### XVIII

Barre egiten duenaren koroa hau, arrosazko koroa hau: neronek jarri diot neure buruari koroa hau, neronek aldarrikatu dut santu neure barrea. Besterik ez dut gaur aurkitu horretarako nahikoa indartsu denik.

Zaratustra dantzaria, Zaratustra arina, hegalei eragiten diena, hegaz egiteko prest, txori guztiei keinuka, prest eta gertu, zorioneko bere arinean: -

Zaratustra egiaren zalea, Zaratustra egi irriduna, ez pazientzigabe, ez baldintzagabe, bai zilipurdi eta saltoen zale; neronek jarri diot neure buruari koroa hau!

#### XIX

Jaso itzazue bihotzak, ene anaiok, gora! gorago! Eta ez itzazue zangoak ere ahantz, dantzari on horiek, eta hobeki oraindik: zaudete buruaren gainean ere!

Zorionean ere badira piztia astunak, jaiotzatiko txankerreak. Miragarriro ahalegintzen dira, buruaren gainean egoteko ahalegintzen den elefantearen modura.

Baina hobe da zorionez zoraturik egotea zorigaitzez zoraturik egotea baino, hobe da baldar dantza egitea herrenka ibiltzea baino. Beraz, ikas ezazue nigandik jakituria: gauzarik makurrenak ere bi ahur on ditu -

- gauzarik makurrenak ere bi zango ditu dantzarako. Ikas ezazue nigandik, gizon garaiagook, zeuen bi zangoen gainean egoten!

Ahantz itzazue melankolia eta jendaila-tristura guztiak! Oi zeinen tristeak iruditzen zaikidan gaur jendailaren pailazoak! Baina gaur hau jendailarena da.

#### XX

Egizue haizeak bezala, mendiko haitzuloetatik ihes egiten duenean: bere txistuaren arabera dantza egin nahi du, itsasoek ikara eta jauzi egiten dute haren urraspean.

Astoei hegalak eman eta lehoiameak jezten dituen, goretsia bedi izpiritu on lokabe hau, gaur ororentzat eta jendaila ororentzat ekaitz-haize bat bezala datorrena -

- gardu eta dilinda-buru guztien etsia dena, baita orbel eta hiraka guztiena ere: goretsia bedi ekaitz-izpiritu libre on basa hau, zingira eta nahigabeen gainean belardietan bezala dantza egiten duena!

Jendaila-txakur hetikatsuak gorroto dituen eta enda goibel hutsegin guztiak: goretsia bedi izpiritu libre guztien izpiritu hau, ekaitz barregilea, begirada beltzeko eta zornejario guztiei begietara hautsa putz egiten diena!

Zuek gizon garaiagook, zuengan makurrena da inork ez duzuela ikasi dantza egiten, dantza egin behar den bezala - zeuen buruen gainetik dantza egiten! Zer axola dio, zuek huts egin izana!

Hamaika gauza egin liteke oraindik! Ikas ezazue bada zeuen buruaren gainetik barre egiten! Jaso itzazue bihotzak, dantzari onok! gora! gorago! Eta ez ezazue barre ona ere ahantz!

Barre egiten duenaren koroa hau, arrosa-koroa hau: zuei, ene anaioi, jaurtikitzen dizuet! Santu aldarrikatu dut barrea; gizon garaiagook, ikas iezadazue - barre egiten!

## MELANKOLIAREN KANTUA

### I

Zaratustra hitzaldi hau egiten ari zela, bere haitzuloko ate ondoan zegoen; baina azken hitzekin batera itzalgaizka alde egin bere ostariei eta apur batean kanpora ihes egin zuen.

"Oi inguratzen nauten usain garbiak", dei egin zuen, "oi inguratzen nauen isiltasun santua! Baina non dira nire piztiak? Hona, hona, ene arranoa eta ene sugea!

Esaidazue, ene piztiok: gizon garaiago guztiok oro har - agian ez al dariote usain ona ? Oi inguratzen nauen usain garbia! Orain soilik dakit eta sentitzen dut zenbat, ene piztiok, maite zaituztedan".

- Eta Zaratustrak esan zuen berriz ere: "Maite zaituztet, ene piztiok!" Arranoa eta sugea, ordea, ondora bildu zitzaizkion hitz hauek esaten ari zen bitartean, eta begiak jaso zituzten harengana. Era honetara hirurak elkarrekin isilik aire ona arnastu eta irentsi zuten batera. Zeren han kanpoko airea gizon garaiagoak zeudenekoa baino hobea baitzen.

### II

Zaratustra bere haitzulotik irten orduko, jaiki zen azti zaharra, begiratu maltzurki ingurura eta esan zuen: "Irtten da!

Eta jadanik, gizon garaiagook - gorespen eta lausengu-izen beraz balakatuz, berak bezala - jadanik nitaz jabetu da nire gezur- eta azti-izpiritu makurra, nire deabru melankoliatia,

- zeina barrenean Zaratustra honen arerio menderagaitza baita: barkaiozue! Orain zuen aurrean bere aztilanak egin nahi ditu, hauxe du bere ordua; alferrik ari naiz izpiritu gaizto honen aurka burrukan.

Zuei guztioi, zernahi ohore hitzez zeuen buruei ematen diezuelarik ere, eta nahiz "izpiritu libre" deitu zeuen buruei edo "egiati" edo "izpirituaren penitentzigile" edo "kategabetu" edo "joran handiko",

- zuei guztioi, nik bezala nazka handia pairatzen duzuenoi, zeinentzat jainko zaharra hila baita eta oraindik jainko berririk ez baitatza sehaskan eta oihaletan<sup>105</sup> - zuei guztioi nire izpiritu gaiztoa eta azti-deabrua aldeko zaizue.

Ezagutzen zaituztet, gizon garaiagook, ezagutzen dut hura, - nik ezagutzen dut txerren hori ere, neure borondateaz kontra maite dudana, Zaratustra hori: sarritan santu-larba eder deritzot,

- maskara berri miragarri bat balitz bezala, non nire izpiritu gaiztoak, deabru melankoliatiak hartzen baitu atsegina: - maite dut Zaratustra, ala iruditzen zait sarritan, neure izpiritu gaiztoarengatik. -

Baina orain nitaz jabetu da eta menperatu egiten nau, melankoliaren izpiritu honek, arrats-inularreko deabru honek: eta, zinez, gizon garaiagook, gogoak ematen dio -

- ireki itzazue begiak! - gogoak ematen dio, biluzik etortzea, zein gizonezko bezala, zein emakumezko bezala, oraindik ez dakit: baina badator eta menperatzen nau, ai ene! ohar zaitezte ongi!

Eguna iraungitzen ari da, gauza guztiei datorkie dagoeneko arratsa, baita gauza hoberenei ere; entzun eta ikus ezazue, gizon garaiagook, zein deabru den, gizonezko bada ala emakumezko bada, arrats-melankoliaren izpiritu hau!"

Honela mintzatu zen azti zaharra, begiratu zuen maltzurki ingurura eta gero bere harpari heldu zion.

### III

Aire argigabetuan,

Ihintzaren pozkarioa

Tantaka lurreratzean,



Ez ikusgai eta ez entzungai ere -  
Zeren oinetako biguinak baitarabiltza  
Ihintz pozemaileak pozemaile samur guztiek bezala: -  
Gogoratzen duk hik, gogoratzen, bihotz beroa,  
Behiala egarri hintzenez,  
Zeru-malkoen eta ihintz-tanten egarri,  
Kiskalirik eta nekaturik egarri  
Bitartean belar-zidor horietan  
Arratseko eguzki-begirada gaiztoak  
Zuhaitz beltzen artetik lasterka zetozkian,  
Eguzki-begirada gartsu itsutzaileak gaitz  
egitearekin pozik?  
"Egiaren senargai? Hi" - honela iseka egiten zuten -  
"Ez! Poeta soilik!  
Piztia maltzur, harrapari, itzalgaizkaria,  
Gezurra esan behar duena,  
Baina ohartuki, nahita gezurra esan behar duena:  
Orakinaren irrikitan,  
Nabar mozorrotua,  
Orakina bere buruarentzat -  
Hori - egiaren senargai?  
Ez! Zorua! Poeta soilik!  
Hiztun nabarra soilik,  
Zoro-mozorropean garrasi nabarrean ari dena,  
Hitz-zubi gezurrezkoen gainean harat-honat dabilena,  
Ortzadar nabarren gainean,  
Zeru faltsuen  
Eta lur faltsuen gainean,  
Jira-biraka erromeska, zabuka -  
Zoro bat soilik ! Poeta bat soilik!  
Hori - egiaren senargai?  
Ez isil, zurrin, leun, hotz,  
Irudi bihurturik,  
Jainko-pilare,  
Tenplo aurrean ezarri gabea,  
Jainko baten atarizain:  
Ez! Egi imajina guzti horien etsai,  
Tenplozale baino areago oihanzale,  
Katu-hantustez betea,  
Leiho guztietatik saltoka  
Ixo! Zori guztietara,  
Oihan guztietan usnaka,  
Irrikaz eta irritsez,  
Oihanetan  
Piztia harrapari izpil nabartuen artean  
Bekatua bezain osasuntsu eta nabar eta eder lasterka,  
Ezpain lizunekin,  
Dohatsuki trufati, dohatsuki ifernutiar, dohatsuki odolzale,  
Lapurretan, ataizean, gezurretan lasterka: -  
Edo arranoa bezala, zeinak luze,

Luze amildegietan begirada josten baitu,  
Bere amildegietan: - -  
Oi nola egiten duen hegaz goitik,  
Beherantz, barrurantz,  
Gero eta sakonera sakonagoetarantz biraka! -  
Gero,  
Supituki, zuzenik,  
Hegalak tolesturik,  
Bildotsetara amiltzen dira,  
Gose amorratuarekin,  
Bildotsen irrikitan,  
Bildots-arima ororen higuinetan,  
Amorru-higuinetan, bildots-begirada  
Artile kizkurra, arkume-begia,  
Grisa, ardi- eta arkume-onginahia duen orogana!  
Honela  
Arrano-gurariak, pantera-gurariak  
Dira poetaren gurariak,  
Hire gurariak mila mozorroren pean,  
Zoro hori! Poeta hori!  
Hi, gizonagan  
Nola Jainkoa hala bildotsa: -  
Ikusi huena,  
Nola Jainkoa gizonagan urratzen,  
Hala bildotsa gizonagan,  
Eta urratzean barre egiten -  
Hori, hori duk zoriontasuna!  
Panteraren eta arranoaren dohatasuna!  
Poetaren eta zoroaren dohatasuna!" - -  
Aire argigabetuan,  
Ilargiaren igitaia  
Purpura gorritan berde  
Eta bekaizti lerratzean:  
- egunaren etsai,  
Urrats bakoitzeko ezkutuka  
Arrosa-parralak igitaitzen  
Ikusi arte murgiltzen,  
Gau alderantz zurbil erortzen: -  
Honela murgildu nintzen neu ere behin  
Neure egiaren eromenetik,  
Neure egunaren gurarietatik,  
Egunaz nekaturik, argiaz gaixoturik,  
-Murgildu beherantz, arratserantz, itzalerantz:  
Egia batez  
Kiskalirik, egarriturik:  
-Gogoratzen al duk, gogoratzen al duk, bihotz beroa,  
Nolako egarria huen orduan? -  
Erbestera nazatela  
Egia orotik,  
Zoroa soilik!

Poeta soilik!  
ZIENTZIAZ

Honela kantatu zuen aztiak; eta han, elkarrekin zeuden guztiak, txoriak bezala oharkabea gozamen maltzur eta melankoliatiaaren sarean erori ziren. Izpirituaren kontzientzitsua soilik ez zuen harrapatu: kendu aidean aztiari harpa eta oihu egin zion "Airea! Utzi aire onari sartzen! Utzi Zaratuistrari sartzen! Haitzulo hau zerrepeldu eta pozoitzen ari haiz, azti zahar makur hori!

Errebelatu egiten duk, faltsu, fin horrek, irrits eta baso ezezagunetara. Eta ai ene, hik bezalakoek egiaz hitz egin eta garrantzia ematen baziotek!

Ai ene izpiritu libre guztiak, horrelako aztien aurrean ataizean jartzen ez badira! Kito haien askatasuna: hire irakatsi eta deiak gartzelara itzultzekoak dituk -

- deabru zahar melankoliatia, hire kexuari apeu erakargarria zeriok, kastitatearentzako beren gorespenez ezkutuki gozamenerako deia egiten duten horien antzekoa haiz!"

Honela mintzatu zen kontzientzitsua; baina azti zaharrak ingurura begiratu zuen, gozatu zuen bere garaitiaz eta horrenbestez kontzientzitsuak sortutako nahigabea irentsi zuen.

"Hago isilik!" esan zuen mintzo eratsuz "kanta onek oihartzun onak nahi zituztek; kanta onen ondoren luzaroan isilik egon behar izaten duk.

Hori egiten ditek guzti hauek, gizon garaiagook. Baina hik hain gutxi ulertu al duk nire kantaz? Ez zegok azti-izpiritu handirik higan".

"Goretsi egiten nauk" erantzun zion kontzientzitsuak, "heuregandik banatzen nauanean, bejondeiala! Baina zuei, zer ikusten dizuet? Oraindik hor zaudete begi lizunez begira: -

Arima libreok, nora joan da zuen askatasuna! Ia, iruditzen zait, luzaroan makurki dantzan aritu diren neskatala biluziei begira egon direnen antza duzuela: zuen arimak bere kasa ari dira dantzan!

Zuengan, gizon garaiagook, aztiak bere azti- eta gezur-izpiritu deitzen duen horretarik zerbait gehiago egon behar du: - erabat ezberdinak izan behar dugu.

Eta zinez, nahikoa mintzatu gara eta pentsatu dugu elkarrekin, Zaratustra bere haitzulora itzuli aurretik, nik ez jakiteko ezberdinak garela.

Gauza ezberdinen bila gabiltza hemen goian, zuek eta ni. Ni neu segurtasun gehiagoren bila nabil, horregatik etorri naiz Zaratustragana. Bera baita dorre eta nahirik finkoena -  
- gaur, dena koloka dagoenean, lur osoa ikara dabilenean. Baina zuek jartzen dituzuen begiak ikustean, ia iruditzen zait, segurtasun eza gehiagoren bila zabiltzatela.

- dardara gehiago, arrisku gehiago, lurrikara gehiago. Atsegin zaizue, hala iruditzen zait, barkaidazue aierua, gizon garaiagook -

- atsegin zaizue bizitzarik arriskutsuen eta makurrena, niri beldurrik handiena ematen didana, basapiztien bizitza, oihan, haitzulo eta mendi malkar eta laberintoetako.

Eta ez zaizkizue arriskutik ateratzen zaituzteten gidariak atseginen, baizik eta bide guztietatik errebelatzen zaituztenak, errebelatzaileak. Baina atsegin horiek egiazko iruditzen bazaizkit ere zuengan, ezinezkotzat jotzen ditut.

Beldurra - baita izan ere gizonaren ondare eta oinarri-sentimendua; beldurretik argitzen da guztia, jatorrizko bekatua eta jatorrizko bertutea. Beldurretik hazi zen nire bertutea, jakintza deritzona.

Zeren basapiztiei dien beldurra - beldur hori sentitu zuen gizonak luzaroen, baita bere baitan gorderik duen eta beldurra ematen dion piztiari ere: - Zaratuistrak "barne-aberea" deitzen dio horri.

Beldur luzatu eta zahar horri, azkenik fin, izpirituak eta intelektual bihurtu horri - gaur, nik uste, Zientzia deitzen zaiola". -

Honela mintzatu zen kontzientzitsua; baina Zaratuistrak, bere haitzulora itzuli eta azkeneko hitzaldiaren azken partea entzun eta igarri zuelarik, arrosa-eskutada bat

jaurtiki zion kontzientzitsuari eta barre egin zien haren "egiei". "Zer gero!" dei egin zuen, "zer entzun diat oraintxe bertan? Zinez, iruditzen zaidak, zoro bat haizela edo neu naiz: eta hire "egia" buruz behera jartzen diat behingoan.

Beldurra - baita izan ere gure salbuespena. Baina kemena eta abentura eta ziurrezaren gozamena eta ausartu ezarena - kemena iruditzen zait gizonaren historiaurre osoa.

Piztia uzuenen eta kementsuenean bertute guztien bekaitza izan eta lapurtu egin zituen: horrela soilik gizondu zen.

Kemen hori, azkenik fin, izpiritual, intelektual bihurtu hori, giza kemen hau arrano-hegalekin eta suge-maltzurtasunarekin: hori, iruditzen zait, gaur"-

"Zaratustra!" oihi egin zuten guztiek, elkarrekin eserita zeudenek, aho batez bezala eta barre-algara handi bat egin zuten; eta hodei astun moduko bat igo zen beraiengandik. Aztiak ere barre egin zuen eta zuhurtasunez mintzatu zen: "Tira, alde egin du nire izpiritu gaiztoak!

Eta ez al zintuztedan neronek erne jarri, esan nizuenean, engainatzaile bat dela, gezur eta iruzur-izpiritu bat?

Batez ere bere burua biluzik erakusten duenean. Baina zer egin nezake nik bere amarruen kontra! Nik sortu al ditut bera eta mundua?

Tira! Berrirori onak eta umoretsuak izan gaitezen! Eta Zaratustrak begirada gaiztoa badu ere - begiraiozue! berriz ere haserretu zait: -

- gaua etortzerako ikasiko du berriz ere ni maitatzen eta goستن, zeren ez baita gai tentelkeria horiek egin gabe luzaroan bizitzeko.

Berak - maite ditu etsaiak<sup>106</sup>: berak daki ongien antze hori nik ikusitakoen artean.

Baina horretaz mendeku hartzen du - bere adiskideen lepotik!"

Honela mintzatu zen azti zaharra, eta gizon garaiagoek omen egin zioten: halako molde, non Zaratustra jirabiraka hasi zen eta gaiztakeriaz eta maitasunez eskua estutu zien adiskideei - guztiengan zerbait kitatu eta barkamena eskatu beharra daukanak bezala. Eta honetan ari zela haitzuloaren atera iritsi zenean, hara, berriz ere kanpoko aire garbiaren eta bere piztien gogoa sentitu zuen - eta itzalgaizka irten nahi izan zuen.

BASAMORTUKO ALABEN ARTEAN

I

"Ez alde egin!" esan zion orduan ibiltariak, Zaratustraren Itzala zeritzonak - gera zaitez gurekin<sup>107</sup> - bestela nahigabe motel zaharrak eraso liezaguke.

Dagoeneko eman digu azti zahar horrek bere makurrenetik hoberena, eta begira, aitasantu on jaineratsuak horra non dituen malkoak begietan eta berrirori melankoliaren itsasoan untziratu da.

Halere uste dut errege hauek aurpegi ona jar diezaguketela: izan ere gure artean gaur berek ikasi baitute ongien hori! Lekukorik ez balute, jokatu nuke, berauek ere hasiko liratekeela berrirori joko gaiztoan-

- arrastaka doazen hodeien joko gaiztoan, melankolia heze, zerua estali, eguzki lapurtu, udazken-haize ulukariarenean,

- geure ulu eta larridura-garrasien joko gaiztoan: zaude gurekin, oi Zaratustra! Miseria ezkutatu asko dago hemen, hitz egin nahian, arrats asko, hodei asko, aire lizun asko!

Gizonezko-jaki sendoz eta esaera indartsuz elikatu gaituzu: ez utzi, mahaioستتatzat berrirori emakumezko-izpiritu makalak erasotzen!

Zuk soilik dakizu inguruko airea argi eta garbi uzten! Inoiz aurkitu al dut lurtean zure haitzuloko airea bezain onik?

Hamaika herrialde ikusia naiz, hamaika aire aztertu eta baliotzen ikasitakoa da nire sudurra: baina zure alboan soilik gozatu dute nire surtziloek beren atseginik handiena!

Izan dadila - izan dadila, - oi barkaidazu oroitzapen zahar bat! Barkaidazu mahaioستeko kanta zahar bat, behiala basamortuko alaben artean ondu nuena: -

izan ere haien artean ere aire garbi on goizerritarra baitzegoen; bertan nengoen urrunen Europa Zahar melankoliati heze hodeitsutik!

Orduan maite izan nituen goizerriko neskatala horiek eta zero urdineko beste herrialde batzuetakoak, zeinen gainean ez baita zintzilik jartzen, ez hodeirik ez pentsamendurik. Ezin zenezakete sinets zeinen txairo esertzen ziren, dantza egiten ez zutenean, sakon, baina pentsamendurik gabe, misterio txikiak, igarkizun xingolaztatuak, mahaiosteko intxaurrak bezala -

nabar eta estrainio noski! baina hodeirik gabe: igertzen uzten duten igerkizunak bezala: honelako neskatalen maitasunez ondu nuen behiala mahaiosteko salmu bat".

Honela mintzatu zen ibiltari eta itzala; eta inork erantzun baino lehen, hartua zuen harpa azti zaharrak, eta zangoak gurutzatu eta ingurura begiratu zuen, patxadaz eta jakintsu: - astiro eta itaunkor barneratu zuen airea surtziloez, herrialde berrietan aire estrainio berria dastatzen duenak bezala. Gero marruma gisako batez kantatzeari ekin zion.

### III

Basamortua hazten ari da: ai ene, basamortuak bere baitan gordetzen dituen!

- Ha! Handiosa,

Benetan handiosa!

Hasiera duina!

Afrikarki handiosa!

Lehoiaren duina

Edo ulutximino moralarena -

- baina ez da zuentzat,

Neskalagun kuttunok,

Zuen oinetan

Lehendabizikoz,

Europar batek palmondopean,

Esertzeko baitu aukera. Sela.

Zoragarri benetan!

Hor eseririk nago,

Basamortua hurbil, eta halere

Basamortutik hain urrun,

Baina ezertan mortutu gabe:

Oasirik txikiena den honek

Irentsita: -

- aharrausika ireki baitu arestian

Bere ahotxo polita,

Ahotxorik lurrintsuena:

Eta ni barrura erori naiz,

Behera eta zeharka - zuen artera,

Neskalagun kuttunok! Sela.

Aintza, aintza balea hari,

Bere ostaria honela zaindu badu!

- ulertzen nire aieru ikasia?

Gora haren sabela,

Baldin bera ere

Honelako oasi-sabela atsegina bazen

Baina zalantzan nago

- zeren Europatik bainator,

Adineko emaztetxoa baino

Zalantzakorra denetik.

Jainkoak on beza!  
Amen!  
Hona orain eserita,  
Oasirik txikienan,  
Datilaren modura,  
Ilun, ezti, urrejario  
Neskatil aho biribilaren irrikitan,  
Areago oraindik ebakortz birjina  
Izoztu, elurtxuri, zorrotzenean  
Zeinen lera baitago  
Datil bero guztien bihotza. Sela.  
Hego-fruitu deitu horren  
Antzera, antzeraegi  
Natza hemen, zomorro  
Hegaldun txiki dantzari-jostariz  
Inguraturik  
Eta baita ideia eta joran,  
Txikiagoz oraindik  
Zoroagoz, bekatuzkoagoz ere-  
Zuen artean nago  
Neska-katu  
Mutu eta aierutsuen artean,  
Dudu eta Suleika,  
- esfinxeztaturik<sup>108</sup>, hitz batean  
sentimendu asko sartuz:  
(Jainkoak barka biezat  
Hizkuntz bekatu hau!)  
- hemen nago eserita, aire hoberena arnasten,  
Paradisu-aire zinez,  
Aire argi mehe, urreztatua,  
Noizbait ilargitik eroritako  
Aire on guztia -  
Zoriz gertau zen hau,  
Ala hantustez gertatu ote zen?  
Poeta zaharrek diotenez.  
Nik, zalantzakor honek  
Zalantzan daukat, horregatik bainator  
Europatik,  
Adineko emaztetxoak baino  
Zalantzakorragoa baita.  
Jainkoak on beza!  
Amen!  
Aire ederren hau edanez,  
Surtziloak ontziak bezala hanpaturik,  
Etorkizun gabe, oroitzapen gabe,  
Horrela nago hemen eserita  
Neskalagun kuttunok,  
Eta palmari begiratzen diot,  
Nola dantzarisa baten gisara,  
Okertzen, malgutzen eta kulunkatzen den mehaken gainean,

- berdin egiten da, luze begiratuz gero!  
Dantzarisa baten gisara, nire iritzian,  
Luzaro, arriskutsuki luzaro  
Beti, beti zango bakarraren gainean?  
- horregatik ahaztu da, nire iritzian,  
Beste zangoaz?  
Alferrik behintzat  
Bilatu dut falta zen  
Bitxi-bikia  
- hots, beste zangoa -  
Abanikua bezain uhintsua duen  
Bere gonatxo pinpirinduaren  
Ingurune santu  
Poxpolin eta xarmangarrian.  
Bai, zuek, neskalgun ederrok,  
Sinetsi nahi badidazue:  
Galduta du!  
Alde egin da,  
Beste zangoa!  
Oi tamala beste zangotxo polita!  
Non - ote dago bere bakardadea dolutzen?  
Zango bakartia?  
Beldurrez agian  
Urre-adatsezko  
Lehoitzar uzuaren aurrean? Edota jada  
Karraskatua, koskatua -  
Errukarriro, ai! ai! koskatua! Sela.  
Oi, ez negar egin,  
Bihotz biguinok!  
Ez negar egin  
Datil-bihotzok, esne-bularrok!  
Bihotz  
Errekalez-zizkuok!  
Ez negar egin,  
Dudu zurbila!  
Izan gizona, Suleika! Aupa! Aupa!  
- Edo beharrezko ote da  
Azkargarria, bihotz-sendagailua  
Ematea hemen?  
Ukenduazko eskeraren bat?  
Arren handiosen bat? -  
Ha! Zutik, duintasun!  
Bertute-duintasun! Europar-duintasun!  
Ufa, ufa berriro,  
Bertutearen hauspo!  
Ha!  
Berriro orroa egin,  
Moralki orroa egin!  
Lehoi moral gisa  
Basamortuko alaben aurrean orroa egin!

- Zeren bertute-ulua,  
Neskatila kuttunok,  
Gehiago baita  
Europarren irritsa, europarren gosegarria baino!  
Eta hor nago ni jadanik,  
Europar gisa,  
Ezin dut besterik, Jainkoak gorde nazala!  
Amen!  
Basamortua hazten ari da: ai ene, basamortuak bere baitan gordetzen dituen!



## IRATZARTZEA

### I

Ibiltaria eta itzalaren kantaren ondoren, bapatean haitzuloa zarata eta barrez bete zen; eta ostari bilduek denek batera hitz egiten zutenez gero, astoa bera ere, halako iskanbilan, ezin zen isilik egon, jabetu zen Zaratustraz sumindura eta iseka txiki bat bere bisitarien kontra: nahiz eta aldi berean beren pozkarioaz alaitu. Zeren sendatze-zantzua baitzeritzon. Beraz kanpora ihes egin zuen eta bere piztiei mintzatu zitzairen.

"Nora alde egin die orain nahigabeak?" esan zien eta bere atsekabe txikitik arindu egin zen, - nire alboan, iruditzen zait, ahaztu egin zaiela larridura-garrasia!

- nahiz eta zorigaitzez, garrasi egiten ahaztu ez badute ere". Eta Zaratustrak belarriak estali zituen, zeren artean nahastu egiten baitziren astoaren arrantzak miragarriro gizon garaia goiaren pozkario-zaratarekin.

"Gogara daude", ekin zion berriro, "eta nork daki? agian ostariaren kontura; eta nigandik barre egiten ikasi badute ere, ez da nire barrea ikasia duten hori.

Baina bost axola dio! Jende zaharra da: beren gisara sendatzen dira, beren gisara barre egiten dute; nire belarriek dagoeneko jasan dute makurragorik eta ez dira umoretxartu. Egun hau garaitia bat da: jadanik amore ematen ari da, ihesi doa, astuntasunaren izpiritua, nire etsai zaharra porrokatu! Zeinen ongi amaitu nahi duen, hain makur eta astun hasi zen egunak!

Eta amaitu egin nahi du. Gainean da arratsa: itsasoaren gainetik dator zaldiz zaldun ona!

Nola kulunkatzen den, dohatsua, etxera datorrena, bere purpurazko zeletan!

Zeruak garden begiratzen dio, mundua sakon datza: oi miragarriok, nigana etorri zaretenok, merezi du bai, nire ondoan bizitzeak!"

Honela mintzatu zen Zaratustra. Eta berriro irten ziren haitzulotik gizon garaia goiaren oihu eta barrekin: Zaratustrak beste behin ekin zion.

"Kosk egiten ari dira, nire beita badihardu, beraiengan ere amore ematen ari da etsaia, astuntasunaren izpiritua. Jadanik ari dira beren buruari barre egiten: ongi entzuten al dut?"

Nire giza jakiak badihardu, nire esaera zukutsu eta indartsuek: eta zinez, ez ditut uzkerlekariz elikatu! Baizik gerrari-jakiz, konkistatzaile-jakiz: gurari berriak ernarazi dizkiet. Esperantza berriak dituzte beso-zangoetan, bihotza hedatu egin zaie. Hitz berriak aurkitzen dituzte, laster arnastuko die izpirituak hantustea.

Honelako jakia ezin liteke noski haurrentzat izan, ezta emakume nakar zahar eta gazteentzat ere. Holakoen erraiak komentitzeko bestelakorik behar da; ni ez naiz horrelakoen mediku eta maisua.

Nazkak amore ematen du gizon garaia goiaren: tira! hori da nire garaitia. Nire erreinuan seguru sentitzen dira, lotsa inozo orok alde egiten die, lasai sentitzen dira. Asaskatzen dute bihotza, itzultzen zaizkie ordu onak, jaia eta hausnarra egiten dute berriro - esker oneko bihurtzen dira.

Hori hartzen dut seinale hoberentzat: esker oneko bihurtzen dira. Berandu baino lehen, festak asmatuko eta oroitarriak eraikiko dizkiete bere aintzinako pozkarioei.

Zuzperrak dira!" Honela mintzatu zen Zaratustra bere bihotzean poztuz eta urrunera begiratu zuen; piztiak arrimatu egin zitzaizkion eta zoriona eta isiltasuna ohoratu zitzaizkion.

### II

Supituki, Zaratustraren belarria izutu egin zen: haitzulok, ordura arte zarataz eta barrez beterik zegoen tokian, bapatean herio-isiltasuna sortu zen; -bere sudurra usain ona zerion kea eta intsentsua usnatu zituen, pinaburuak erretzen ari bailiren.

"Zer gertatzen da? Zertan ari dira?" galdetu zion bere buruari itzalgaizka sarrera hurbilduz, bere ostariak oharkabea ikusi ahal izateko! baina miraririk mirariena! A zer gauza begiek ikusi zutena!

"Guztiak berriro jaieratsu bihurtu dira, berriro otoitz egiten ari dira, eroturik daude!" - esan zuen harrimenaren harrimenez. Eta noski!, gizon garaiago guzti haiek, bi erregeak, zerbitzuz kanpoko aitasantua, azti makurra, bere borondatezko eskalea, ibiltaria eta itzala, igarle zaharra, izpirituaren kontzientzitsua eta gizon itsusiena: guztiak zeuden haurrak bezala eta atso zaharren gisara belauniko, astoa adoratzeko. Eta gizonik itsusiena gurgurka eta zurrunga hasi zen, zerbait esanezinak barrutik irten nahi balio bezala; eta benetan hitz egitea lortu zuenean, letania bitxi jaieratsu bat izan zen asto adonatu eta intsentsuztatuaren gorespenetan. Letania hau honela zen:

Amen! Gorespen eta ohore eta jakituria eta esker ona eta laudorioa eta indarra gure Jainkoari betieratik betierara!

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A109.

Berak daruma gure zama110, berak hartu du morroi-itxura111 bihotzez eroapentsua112 da eta inoiz ez du ezetzik esaten113; eta bere Jainkoa maite duenak, zigortu egiten du114.

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A

Ez du hitz egiten, berak sortutako munduari baietz esateko izan ezik: honela goratzen du bere mundua115. Bere maltzurtasuna ez hitz egitea da: horrela nekez huts egiten du.

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A

Ez da nabarmentzen munduan zehar. Grisa du gorputzaren kolorea, eta bertan dauka gordea bertutea. Izpiritua baldin badu, gorde egiten du; baina guztiek sinesten dituzte bere belarri luzeak.

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A

Zenbat jakituria ezkutatu dagoen belarri luzeak izan eta beti baietz eta inoiz ezetzik ez esatean! Ez al du sortu mundua bere buruaren irudira116, hots, ahal bezain inozo?

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A.

Bide zuzen eta okerretan barrena ibiltzen zara, gutxi kezkatzen zaitu gizonei zer iruditzen zaien zuzena edo okerra jakiteak. Ongiaz eta gaizkiaz haraindi dago zure erresuma. Zure errugabetasuna errugabetasuna zer den ez jakitean datza.

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A.

Begira, nola ez duzu zeugandik inor baztertzeko, ez eskalerik, ez erregerik. Haurtxoari zeugana etortzen uzten diozu117, eta mutiko gaiztoek deitzen badizute118 BA-I soilik erantzuten diezu;

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A.

Maite dituzu astemeak eta piku gordinak, ez zara mizkea. Garduak kili-kili egiten dizu barrenean, gose zarenean. Horretan dago jainkoaren jakituria.

- Eta astoak honi erantzun egin zion arrantzaka: I-A.

ASTO-FESTA

I

Letaniaren puntu honetan Zaratustrak ezin izan zuen gehiago bere buruaren jabe izan, berak ere I-A arrantza egin zuen, astoak berak baino ere ozenago eta salto batez bere ostari erotuen erdian jarri zen. "Baina zertan ari zarete, gizasemeok?" oihi egin zuen belauniko zeudenak altzaraziz. "Ai ene, Zaratustraz beste norbaitek ikusiko bazintuzte: Guztiek sinetsiko lukete, zeuen fede berriarekin jainkoaren aurkako biraolaririk zantarrenak edo atso zahar guztietan zoroenak bihurtu zaretela!

Eta hi heu ere, aitasantu zaharra, nola dagokik hiri honela asto bat adonatzeko hemen Jainkoa balitz bezala?" -

"Oi Zaratustra", erantzun zuen aitasantuak "barkaidak, baina Jainkoaren gauzetan hi baino adituagoa nauk. Eta hori bidezkoa duk.

Hobe duk beraz Jainkoa itxura honetan adoratzeari, inolako itxuratan ez adoratzeari baino! Esaera honetan pentsa ezak, ene adiskide garaia: laster igarriko diok, jakituria daukala gordeta esaera honek.

"Jainkoa izpiritu da" esan zuenak - horrek eman zuen lurrean urratsik eta saltorik handiena fedegabeziarako: hitz horrek lurrean egindako kaltea ez da erraz kitatzekoa! Nire bihotz zaharrak salto eta brinko egiten dik, oraindik adoratzeko zerbait munduan badagoela ikustean. Barkaiok hau, oi Zaratustra, aitasantu-bihotz zahar jaieratsu bati!" -  
- "Eta hik", esan zion Zaratustrak ibiltariari eta itzalari, "heure buruari izpiritu libre deitzen al diok eta uste hori al duk? Eta horrelako sasi-jainko eta abade-zerbitzutan aritzen al haiz?"

Makurrago, zinez, jokatzen duk hemen heure neskatila beltzaran makurren artean baino, fededun berri makurra!"

"Aski makur", erantzun zuen ibiltari eta itzalak" arrazoia duk: halere, zer egin zezakeat nik! Jainko zaharra berriz bizi duk, oi Zaratustra, nahi duana hitz egin dezakek.

Gizonik itsusiena duk erruduna: berak berpiztu dik. Eta behiala hil egin zuela dioen arren: heriotza jainkoen artean aurreritzi bat besterik ez duk".

- "Eta hik", esan zuen Zaratustrak "azti zahar makurra, zer egin duk hik! Nork sinetsiko dik aurrerantzean higan, garai libreotan, hik honelako jainko-astakeriatan sinesten baduk?"

Inozokeria bat du hik egindakoa; nola egin ahal izan duk, zuhur horrek, horrelako inozokeria bat!"

"Oi Zaratustra", erantzun zuen azti zuhurak, "arrazoia duzu, inozokeria bat izan da - eta nahikoa garesti atera zait gainera".

- "Eta hik batez ere", esan zion Zaratustrak izpirituaren kontzientzitsuari, "ongi gogoeta egin eta ezar ezak hatza sudurrean! Ez al zegok hemen zerbait hire kontzientziaren kontra? Ez al duk hire izpiritua garbiegia otoitz honetarako eta senide santujale hauen kiratserako?"

"Badago zerbait horretan" erantzuen zuen izpirituaren kontzientzitsuak eta hatza ezarri zuen sudurrean, "badago zerbait ikuskari honetan nire kontzientziari ongi egiten diona. Agian ez zait zilegi Jainkoagan sinestea: baina egia zera da, jainkoa itxura honen azpian iruditzen zaidala sinesgarrien.

Jainkoak betikoa izan behar du, jaieratsuen testigantzen arabera 19: hainbeste denbora duenak, denbora hartzen du. Ahal bezain astiro eta inozo: horrela irits daiteke norbait oso urrunera.

Eta izpiritu gehiegi duenak, pozik erotuko litzateke inozokeria eta eromenaz beraz.

Pentsa ezazu, oi Zaratustra, zeure buruagan!

Zu zeu - zinez! bihur zintezke asto aberastasun eta jakituriaren gainezkatzez.

Agian ez al zaizkio jakintsu beteginari biderik okerrenak atsegin? Begibistakotasunak erakusten du, oi Zaratustra - zure begibistakotasunak!"

- "Eta hik heuk, azkenik", esan zuen Zaratustrak eta gizon itsusienarengana zuzendu zen, zeinak lurrean jarraitzen baitzuen besoak astoaren antz jaso (ardoa ematen zion edateko). Mintza hadi, esanezin hori, zer egin duk hik!

Itxuraldaturik hagoela iruditzen zaidak, hire begiakugarretan zeudek, eta gurenaren mantupearan zegok hire itsusitasuna: zer egin duk hik?

Egia al duk, hauek diotena, hik berpiztu duala berriro? Eta zertarako? Ez al zegoen arrazoiz hilik eta zendurik?

Hi heu ere berbiztua iruditzen hatzait: zer egin duk? zergatik aldatu haiz? Zergatik konbertitu haiz? Mintza hadi, esanezin hori!"

"Oi Zaratustra", erantzun zuen gizon itsusienak "alproja bat zara!

Ea oraindik bera bizi den edo berriro bizi den edo erabat hilik dagoen - gu biotatik zeinek daki ongien? Galde egiten dizut.

Gauza bat dakit ordea - zuregandik ikasi nuen behiala, Zaratustra: barrenenetik hil nahi duenak, barre egiten du.

"Ez amorruez, barreaz hiltzen da baizik" - esan zenuen behiala. Oi Zaratustra, ezkutuko hori, amorru gabeko deuseztatzaile hori, santu arriskutsu hori - alproja bat zara!"

## II

Eta orduan gertatu zen, Zaratustrak, halako alproja-hitzez harriturik, salto batez atzera egin haitzuloaren sarrerara eta bere ostari guztiengana zuzendurik, mintzo indartsuz oihu egin zuen:

"Oi zuek guztiok, bihurriok, pailazook! Zergatik zabilzate ezkututzen eta itxurak egiten nire aurrean!

Nola salto egiten dion zuetako bakoitzari bihotzak atseginez eta gaiztakeriaz, zeren azkenik haurtxoen moduko bihurtu baitzarete, hau da, jaieratsu -

- zeren azkenik haurrek bezala egin baituzue berriro, hau da, erreztatu, eskuak tolestu eta "Jainko maitea" esan baituzue!

Baina orain irten zaitezte hargela honetatik, nire haitzulotik, non gaur haurkeria guzti horiek etxean bezala aurkitzen diren. Hoztu hor kanpoan zeuen haur-suhar beroak eta bihotz-zaratak!

Benetan: haurtxo bezalako bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinu hartan<sup>120</sup>. (Eta Zaratustrak eskuez goialdea seinalatu zuen.)

Baina guk ez dugu zeru-erreinuan inola ere sartu nahi: gizon izatera iritsi gara - horregatik nahi dugu lurreko erreinua".

## III

Eta berriro hitz egiten hasi zen Zaratustra. "Oi ene adiskide berriok", esan zuen -

"miragarriok, gizon garaiaook, bai atsegin zatzaizkidatela orain -

- berriro alai zaudetenetik! Badirudi zinez guztiok loratu egin zaretela: eta iruditzen zait, zuek bezalako loreek festa berriak behar dituztela,

- aldrebeskeria txiki ausart bat, elizkizunen bat eta asto-festaren bat, Zaratustra, zoro zahar alai bat, galerna bat bere ufadaz zuen arimak argituko dituen.

Ez ezazue ahantz gau hau eta asto-festa hau, gizon garaiaook! Hau nire etxean idoro duzue, eta hori presagio ontzat hartzen dut - zuzperrek soilik idorotzen dituzte horrelako gauzak!

Eta asto-festa hau berriro ospatzen baduzue, zeuekiko maitasunez egizue, nirekiko maitasunez ere egizue! Eta nire oroitzapenez<sup>121</sup>!"

Honela mintzatu zen Zaratustra.

## KANTA HORDIA

### I

Bitartean, ordea, bata bestearen atzetik guztiak kanpora eta gau hotz isilera irtenda zeuden; Zaratustrak berak gidatu zuen eskutik gizonik itsusiena bere gau-mundua eta ilargi biribil handia eta haitzuloaren inguruko zilarrezko ur jauziak erakusteko.

Azkenean, han gelditu ziren haiek elkarren ondoan, adineko jende guztia, baina bihotz kontsolatu eta kementsuaren jabe, eta beren baitan harriturik lurrean hain ongi sentitzen zirelako; gauaren patxada barrenago sartzen zitzairen bihotzean. Eta Zaratustrak berriro pentsatu zuen bere barrurako: "Oi zeinen atsegin zaizkidan orain gizon garaiago hauek" - baina ez zuen esan, zeren begirunea baitzien haien zorion eta isiltasunari. -

Eta orduan gertatu zen, egun luze eta harrigarri hartako harrigarriena: gizon itsusiena beste behin eta azkenekoz gurgurka eta zurrunga hasi zen, eta hitz egitea lortu zuenean,

hara, galdera batek salto egin zion zinki eta finki ahotik, galdera on sakon garbi batek, entzule guztiei bihotza gorputzean mugitu zien batek.

"Ene adiskide guztiok", esan zuen gizonik itsusienak, "zer iruditzen zaizue? Egun honengatik - lehendabizikoz nago ni bizitza osoa bizi izanez pozik.

Eta hau aitortzeaz ez dut aski. Merezi du lurrian bizi izateak: egun bakar batek, Zaratustrarekin festa bakar bat irakatsi dit lurra maitatzen.

"Hori al zen - bizitza?" esango diot heriotzari. "Tira! Berriz ere bai!"

Ene adiskideok, zer iruditzen zaizue? Ez al diozue nik bezala heriotzari esan nahi: Hori al zen - bizitza? Zaratustrarengatik, tira! Berriz ere bai!" - -

Honela mintzatu zen gizonik itsusiena; gauerdia igaro berri samarra zen. Eta zer uste duzue gertatu zela gero? Gizon garaia goak galdera entzun ziotenean, bapatean bere itxuraldaketa eta sendaketaz jabetu ziren eta nori zor zioten: orduan Zaratustrarengana oldartu ziren eskerrak emanez, gurka, laztanka, eskuei muinka, nor bere erara: honela batzuek barre egiten zuten, eta beste batzuek negar. Azti zaharrak, berriz, atseginez dantza egiten zuen; eta nahiz eta kontalari askok diotenez, orduan ardo gozoz beterik zegoen<sup>122</sup>, oraindik askoz beteagoa zegoen bizitza gozoaz eta baztertuta zeukan nekadura oro. Badira batzuk orduan astoak dantza egin zuela kontatzen dutenak ere, izan ere ez baitzion alferrik gizonik itsusienak honi aurretiaz ardoa eman edateko. Hau honela gerta zitekeen edo baita bestela ere; eta baldin arrats hartan astoak egitan dantza egin ez baldin bazuen, mirari handiago eta bitxiagorik gertatu zen, ordea, astoak dantza egitea baino. Labur esateko, Zaratustraren esaerak dioenez: "Bost axola!"

## II

Baina Zaratustra, gizon itsusienarekin hau gertatzean, mozkorturik bezala zegoen: begirada iraungitzen, mihia toteltzen, oinak kordokatzen ari zitzaizkion. Eta nork igarri zer pentsamendu zebiltzan orduan Zaratustraren ariman zehar? Baina aidanez izpirituak alde eta aurrera egin zion hegaz, eta bazterrik urrunenetan zebilen, eta aldi berean, "muino garai batean", idatzirik dagoenez, "bi itsasoren artean, - iragana eta etorkizunaren artean, hodei astun bat bezala ibiliz". Guztiarekin ere, ordea, gizon garaia goek besoetan zeukaten bitartean, pixka bat senera etorri zen eta eskuez babesten zuen burua ohoratzaile eta arduratuen oldarretik; baina ez zuen hitz egin. Bapatean bizkor zuzendu zuen burua, zeren zerbait entzun zuela baitzeritzon: gero atzamarra ahoan ezarri eta esan zuen: "Zatozte!"

Eta berehala sortu ziren haren inguruan isiltasuna eta patxada; sakoneratik ezkilaren durundia igo zen astiro. Zaratustra adi jarri zitzaion, baita gizon garaia goak ere; gero, ordea, berriz ere atzamarra ahoan ezarri eta berresan zuen: "Zatozte! Zatozte! Gauerdia hurbil da!" - eta mintzoa aldatu zitzaion. Baina ez zuen leku hartatik zirkinik egiten: orduan oraindik isiltasun eta patxada handiagoak sortu ziren, eta denak adi jarri ziren, baita astoa ere, baita Zaratustraren armari-piztiak ere, arranoa eta sugea, baita Zaratustraren haitzuloa eta ilargi hotz handia eta gaua bera ere. Zaratustrak hirugarren aldiz eskua ahoan ezarri eta esan zuen:

Zatozte! Zatozte! Zatozte! Gabiltzan orain! Ordua da: gabiltzan gauean!

## III

Gizon garaia gook, gauerdia hurbil da: orain gauza bat esan nahi dizuet belarrira, ezkila zahar horrek niri belarrira esan didan modura -

- hain patxadaz, hain beldurgarri, hain bihozkor, gauerdi-ezkila horrek, gizon bakarra baino gehiago bizi izan den horrek esan didan modura:

- zeinak zenbatu baitzituen jadanik zuen gurasoen bihotzeko min-taupadak - ai! ai! nola egiten duen hasperen, nola egiten duen barren ametsetan! gauerdi zahar sakon sakonak! Ixo! Ixo! Orain gauza asko entzuten da, egunez ozentzea zilegi ez dena; orain, ordea, aire freskotan, gure bihotzetako zarata ere isildu delarik -

- orain gauzek hitz egiten dute, orain entzun egiten zaie, orain lerratu egiten dira gaueko arima ernaietan: ai! ai! nola egiten duen hasperen! nola egiten duen barre ametsetan!  
- ez al duk entzuten zeinen patxadaz, zeinen beldurgarri, zeinen bihozkor hitz egiten dian hiri, gauerdi zahar sakon sakonak?

Oi gizona, hago adi!

#### IV

Ai ene! Nora joan da denbora? Ez al da hosin sakonetan murgildu? Mundua lotan dago -  
Ai! Ai! Txakurra uluka ari da, ilargiak dir-dir egiten du. Nahiago dut hil, hil, nire gauerdiko bihotza zer pentsatzen ari den zuei esan baino.

Ni dagoeneko hilik nago. Nireak egin du. Armiarma, zergatik ari haiz nire inguruan sarea ehotzen? Odola nahi al duk? Ai! Ai! Erortzen ari da ihintza, badator ordua -  
- ordua, ni hotzez dardarka eta izozten nagoena, galde eta galde eta galde egiten duena:  
"Nork du honetarako nahikoa bihotz?

- nork izan behar du lurraren jaun? Hau esan nahi duenak: honela egin behar duzue lasterka, erreka handi eta txikiok!"

- ordua badator: oi gizona, gizon garaiago hori, hago adi! Hizketa hau belarri finentzat duk, hire belarrientzat - zer dio gauerdi sakonak?

#### V

Banarama zerbaitek, nire arimak dantza egiten du. Eguneroko lana! Eguneroko lana!  
Nork izan behar du lurraren jaun?

Ilargia hotz dago, haizea isilik. Ai! Ai! Nahikoa gora egin al duzue hegaz? Egin duzue dantza: baina zangoa ez da hegala.

Dantzari onok, orain atsegin guztiak alde egin du: Ardoa ozpindu egin da, edalontzi guztiak alferrik galdu dira, hilobiak hitz-totelka ari dira.

Ez duzue aski gora hegaz egin: orain hilobiak hitz-totelka ari dira: "berreros itzazue hildakoak! Zergatik da hain luzea gaua? Ez al gaitu horditzen ilargiak?"

Gizon garaiagook, berreros itzazue hilobiak, iratzar itzazue gorpuak! Ai, zer karraskatzen du oraindik harrak? Hurbil da, hurbil da ordua -

- burrunba egiten du ezkilak, arnasestuka ari da bihotza, zur-harra, bihotz-harra karraska ari da oraindik. Ai! Ai! Mundua sakona da!

#### VI

Lira gozoa! Lira gozoa! Maite diat hire doinua, igel hordiaren doinu hori! - zeinen urrunetik, zeinen urrunetik datorren hire doinua, maitasunaren urmaheletatik!

Ezkila zaharra, lira gozoa! Min orok bihotza urratu dik: aitaren minak, aitona-amonen minak, arbasoen minak; hire hizketa heldu egin duk

- heldu egin duk, urrezko udazken eta eguerdia bezala, nire ermitau-bihotza bezala -  
orain hitz egiten duk: mundua bera ere heldu egin duk, mahatsa heldu egin duk,

- orain hil egin nahi dik, zorionez hil. Gizon garaiagook, ez al duzue usnatzen? Usain bat dario misterioitsuki gorantz,

- betiera-lurrin eta usain bat, zorion zaharrezko urrezko ardo-

-usain ilun arrosakara bat,

- gauerdiko herio-zorion hordizkoa, zeinak kantatzen duen: mundua sakona duk, eta egunak pentsatu baino sakonagoa!

#### VII

Utz nazak! Utz nazak! Garbiegia nauk ni hiretzat. Ez nazak uki! Ez duk nire mundua betegin bihurtu une honetan?

Nire larrua garbiegi duk hire eskuentzat. Utz nazak, egun lizun baldar inozo horrek! Ez al duk gauerdia argiago?

Garbienek izan behar dute lurraren jaun, ezezagunek, indartsuenek, gauerdi-arimek, egun oro baino argi eta sakonago direnek.

Oi eguna, nire atzetik haztamuka al habil? Itsumustuka al habil nire zorionaren bila?  
Aberats, bakarti, altxor-hobi, urre-ganbara al nauk hiretzat?

Oi mundua, nahi al didak? Mundutiar al nauk hiretzat? Izpirituzko? Jainkotiar al nauk hiretzat? Baina zuek eguna eta mundua, baldarregiak zarete -

- eduki itzazue esku zuhurragoak, oratu zorion sakonagoa, zorigaitz sakonagoa, oratu edozein jainko, ez oratu ni:

- nire zorigaitza, nire zorigaitza sakona da, egun miragarria, baina ni ez naiz jainko, ezta jainko-ifernu ere: sakona du bere samina.

## VIII

Jainkoaren samina sakonagoa da, mundu miragarria! Oratu jainkoaren samina, ez ni!

Zer naiz ni! Lira hordi gozoa -

- gauerdiko lira, ezkila-igela, inork ulertzen ez duena, baina gorren aurrean hitz egin behar duena, gizon garaiagook! Zeren zuek ez bainauzue ulertzen!

Kito! Kito! Oi gaztaroa! Oi eguerdia! Oi arratsaldea! Orain etorri da arratsa eta gaua eta gauerdia - txakurra uluka ari da, haizea:

- ez al da haizea txakur? Intziri, zaunka, ulu egiten du. Ai! Ai! nola egiten duen hasperen! nola egiten duen barre, nola egiten duen hatsanka eta arnaska gauerdian!

Nola mintzatzen den orain mozkgabe, poeteme hordi hori! Bere horditasuna gehiago edanez ito al du? logura galdu al du? hausnarrean ari al da?

- bere samina ari da hausnartzen, ametsetan, gauerdi zahar sakona, eta areago oraindik bere atsegin. Zeren atsegin, samina sakona bada ere: atsegin oraindik bihotz-dolorea baino sakonagoa da.

## IX

Hi mahatsondoa! Zergatik goستن nauk? Neuk inausi ez hindudan, bada! Krudela nauk, odola dariok: - zer nahi dik hire laudorioak nire krudelkeria hordientzat?

"Betegin bihurtu denak, heldu orok - hil egin nahi du!" honela hitzegiten duk.

Bedeinkatua, bedeinkatua bedi inauskaia! Baina heldugabe dagoen orok bizi egin nahi dik: ai ene!

Samina mintzo da: "Pasa! Alde, samina!" Baina pairatzen duen guztia biziko da, heldu eta alai eta jorantsu bihur dadin,

- urrunen, goren, argienaren jorantsu. "Oinordekoak nahi ditut", honela mintzo da pairatzen duen oro, "haurrak nahi ditut, ez dut neure burua nahi" -

Baina atseginak ez du oinordekorik nahi, ez haurrik -atseginak bere burua nahi du, betiera nahi du, itzulera nahi du, dena-bere-buruarekiko-beti-berdin nahi du.

Samina mintzo da: "Hautsi, odoluts hadi, bihotza! Habi, zangoa! Hegaz egin, hegala!

Gora! Aurrera! Ene mina! Tira! Aurrera! Oi ene bihotz zaharra: Samina mintzo da:

"Pasa hadi!"

## X

Gizon garaiagook, zer deritzozue? Aztia al naiz ni? Ameslaria? Hordia? Amets-adierazlea? Gauerdi-ezkila?

Ihantz-tanta? Betieraren lurrin eta usain gozoa? Ez al duzue entzuten? Ez al duzue usnatzen? Une honetan nire mundua betegin bihurtu da, gauerdia eguerdi ere bada -

Mina atsegin ere bada, madarikazioa bedeinkazio ere bada, gaua eguzki ere bada - alde egizue bestela ikasiko baituzue jakintsua zoro ere badela.

Baietzik eman al diozue inoiz atsegin bakar bati? Oi ene adiskideok, orduan samin guztiari ere baietza eman diozue. Gauza guztiak kateaturik, gibizaturik, maitemindurik daude -

- inoiz nahi izan al duzue birritan behin, inoiz esan al duzue "Atsegin haut, zoriona!

Gora, una!" orduan dena itzultzea nahi izan duzue!

- Dena berriro, dena betiera, dena kateaturik, gibztaturik, maitemindurik, oi honela maitatu duzue zuek mundua -  
- zuek, betierakook, maita ezazue beti eta aldioro: eta saminari ere esaiozue: pasa, baina itzul hadi! Zeren atsegin orok nahi baitu - betiera!

## XI

Atsegin orok betiera nahi du gauza guztietan, ezia nahi du, gorotza nahi du, gauerdi hordia nahi du, hilobiak nahi ditu, hilobi-malkoen kontsolamendua nahi du, arraskorri urreztatua nahi du -  
- zer ez du nahi atseginak! samin oro baino egarriago, bihozkorrago, goseago, beldurgarriago, ezkutuago da, bere burua nahi du eta bere buruari egiten dio kosk, eraztun-nahiak egiten du burruka bere baitan-  
maitasuna nahi du, gorrotoa nahi du aberatsegi da, oparitu eta xahutu egiten du, eskean egiten du batek har dezan, eskerrak ematen dizkio hartzaileari, gogoz nahi luke gorrota dezaten -  
- hain aberatsa da atsegina, non saminaren egarri den, ifernuaren, gorrotoaren, lotsaren, elbarrituaren, munduaren egarri, - zeren mundu hau jadanik ezaguna baituzue!  
Gizon garaiahook, zuen jorana du atseginak, hezikaitz, dohatsu horrek - zuen saminarena, oi porroteginok! Porroteginaren jorana du betierako atsegin orok.  
Zeren atsegin orok bere burua nahi baitu, horregatik nahi du bihotz-dolorea ere! Oi zoriona, oi mina! Oi leher hadi, bihotz! Gizon garaiahook, ikas ezazue, bada, atseginak betiera nahi duela,  
- Atseginak gauza guztien betiera nahi du, betiera sakon, sakona nahi du!

## XII

Ikasi al duzue orain nire kanta? Igarri al diozue zer nahi duen? Tira! Gora! Gizon garaiahook, kanta ezazue orduan nire erronda-kanta!  
Kantaidazue orain zeuek "Berriz ere" izeneko kanta, zeinaren zentzua "Betiera guztian" baita - kanta ezazue, gizon garaiahook, Zaratustraren erronda-kanta!  
Oi gizona! Hago adi!  
Gauerdi sakonak zer ziok?  
"Lo egin diat, lo egin diat -  
Amets sakonetik esnatu nauk: -  
Mundua sakona duk,  
Eta egunak pentsatu baino sakonagoa.  
Sakona dik bere samina -  
Atsegina - bihotz-dolorea baino ere sakonagoa:  
Samina mintzo duk: Pasa!  
Baina atsegin orok nahi du betiera -  
- betiera sakon, sakona!"

## ZEINUA

Gau honen ondoko goizean Zaratustrak salto egin zuen bere ohatzetik, uhala gerriratu eta haitzulotik irten zen, suhar eta indartsu, mendi ilunetatik ateratzen den goiz-eguzkia bezala.

"Hi, izar handi hori", esan zuen, behiala bezala "zorion-begi sakon hori. Zer izango huke hire zorion guztiaz, argitzen dituan guzti horiek ez bahitu!  
Eta haiek beren ganbaretan egongo balira, hi itzarririk eta ematera eta banatzera hatorren bitartean: nola haserretuko litzatekeen horregatik hire lotsa harroa!  
Tira! gizon garaiahook hauek, oraindik lotan zeudek, ni itzarririk nagoen bitartean: ez dituk horiek nire benetako lagunak! Ez negok horiei itxaroten hemen neure mendiotan. Neure lanera joan nahi diat, neure egunera: baina horiek ez dizkiate ulertzen zeintzuk diren nire goizaren zeinuak. Nire oinotsak - ez dituk horientzat iratzar-dei.



Oraindik lotan zeudek nire haitzuloan: horien ametsa oraindik nire kanta horditik edaten ari duk. Niri adi dagoen belarria - belarri entzulea falta zaiek beren ataletan".

- Honela mintzatu zitzaion Zaratustra bere bihotzari, eguzkia ateratzen ari zela: gero galdetzaile begiratu zuen goialderantz, zeren gainetik bere arranoaren dei zorrotza entzun baitzuen. "Tira!" egin zuen gorantz oihu "horrela atsegin eta komeni zaidak. Nire piztiak itzarririk zeudek, neu ere itzarririk nagoelako.

Nire arranoa itzarririk zegok, eta nik bezala, berak ere eguzkia ohoratzen dik. Arrano-atzaparrez oratzen dik argi berria. Zuek zarete nire benetako piztiak; maite zaituztet. Baina oraindik benetako gizonak falta zaizkidak" -

Honela mintzatu zen Zaratustra; baina orduan gertatu zen supituki ezin zenbatu ahala txori-saldo eta hega-zafraz inguratua bezala aurkitu zela - hainbeste hegaleen firri-farra eta buru-gaineko trumilkatzea hain handia zen, ezen begiak itxi zituen. Eta zinez, hodei moduko zerbait erori zitzaion gainera, gezizko hodei moduko bat, zeinak etsai berri bati jaurtikitzen zaizkion. Baina hara, maitasun-hodeia zen eta adiskide berri baten gainera zetorren.

"Zer gertatzen zaidak?" pentsatu zuen Zaratustrak bere bihotz harratuan eta haitzuloaren sarreran zegoen harri handiaren gainean amildu zen astiro. Baina, eskuak bere inguruan, gainetik eta azpitik zerabiltzan bitartean eta txori samurrengandik bere burua babesten ari zela, hara, oraindik zerbait bitxiagoa gertatu zitzaion: oharkabea ile-adats sarri eta bero batean sartu zuen eskua; eta berehala bere aurrean lehoi baten orroa biguin luzeak egin zuen durundi.

"Zeinua badator", esan zuen Zaratustrak, eta bihotza aldatu egin zitzaion. Eta egiatan, aurrealdea argitzean, han zeukan piztia ahaltsu horia, oinetan etzanik eta burua bere belaunen artean estutzen zuen eta maitasunez ez zuen harengandik aldendu nahi eta bere nagusi zaharra berriz aurkitu duen txakurrak bezala egiten zuen. Baina usoak ez ziren beren maitasunean lehoia baino suhar gutxiagokoak; eta usoa lehoiaren sudurraren gainetik igarotzean, lehoiak burua astindu eta harritu eta barre egiten zion.

Hauei guztiei Zaratustrak hitz bakar bat besterik ez zien esan: "Nire haurrak hurbil daude, nire haurrak" - gero erabat mututu zen. Baina bihotza asaskatu egin zitzaion eta begietatik negar-malkoak zerizkion eta eskuraino erortzen zitzaizkion. Eta ez zion ezeri jaramonik egiten eta han zegoen eserita, zirkinik egiteke, bere burua piztiengandik babesteke. Orduan usoak harat-honat hegaz hasi ziren, eta sorbaldetan kokatu zitzaizkion eta ile zuria lastandu zioten eta ez ziren nekatzen beren samurtasun eta pozkarioan. Lehoi indartsuak, ordea, atergabe milikatzen zituen Zaratustraren eskuetara eroritako malkoak eta orroa eta intziri herabetia egiten zuen. Honela ziharduten piztia haiek. -

Guzti honek denboraldi luzea iraun zuen edo laburra, zeren, gauzak diren bezala esateko, honelakoetarako ez baitago denborarik lurrian. - Baina bitartean gizon garaiagoak itzartu egin ziren Zaratustraren haitzuloan eta segizioan antolatzen ari ziren beren artean, Zaratustraren bila irten eta goizeko diosala eskaintzeko: zeren, itzartzean, jadanik beren artean ez zeukatela aurkitu baitzuten. Baina haitzuloaren atera hurbiltzean, urratsen zarata aurretik zutela, orduan lehoiak indartsu oinarri hartu, bapatean Zaratustragandik aldendu eta salto egin zuen, orroa basatiak eginez, haitzulora; gizon garaiagoak, ordea, haren orroak entzutean, aho batez bezala oihuka hasi ziren, eta atzera lasterka egin zuten eta une batean ezabatu egin ziren.

Zaratustra, gorturik eta barreiaturik, jaiki zen bere eserlekutik, begiratu zuen ingurura, egon zen zutik harriturik han, galdetu zion bere bihotzari, itzuli zen senara eta bakarrik aurkitu zen. "Zer entzun dut?" esan zuen azkenik astiro, "zer gertatu berri zait niri?" Eta ordurako oroitzapenak etorri, eta begirada bakar batez ulertu zuen guztia, atzokoa eta gaurkoaren bitartean gertaturikoa. "Hemen dago harria", esan eta bizarra igurtzi

zuen "beronen gainean eserita egon naiz goizean; eta hona etorri zitzaidan aztia, eta hemen entzun nuen aurrenekoz arestian entzundako garrasia, larridura-garrasi handia. Oi gizon garaiaagook, zuen larridura hori aztiatu zidan atzo goizean azti zahar hark -  
- zuen larridura errebelatu eta erakarri nahi izan nau: oi Zaratustra, esan zidan, hi heure azken bekatura zirikatzero netorrek.

Nire azken bekatura?" eta Zaratustrak amorruez barre egin zuen bere hitzez: "Zer daukat gorderik niretzat neure azken bekatutzat?"

- Eta berriro murgildu zen Zaratustra bere baitan eta berriro eseri zen harri handiaren gainean eta gogoeta egin zuen. Supituki jaiki egin zen, -

"Errukia! Gizon garaiaogenganako errukia!" oihu egin zuen, eta aurpegia brontze bihurtu zitzaion. Tira! Horrek - bere garaia izan zuen!

Nire errua eta nire errukia - bost axola dio! Zorionaren bila ote nabil agian? Neure obraren bila nabil ni!

Tira! Etorri da lehoia, nire haurrak hurbil dira, heldu da Zaratustra, etorri da nire ordua:

-

Hau da nire goiza, nire eguna hasi da: gora, bada, gora, eguerdi handi hori!" -

Honela mintzatu zen Zaratustra eta alde egin zuen haitzulotik, suhar eta indartsu, mendi ilunetatik datorren goiz-eguzkia bezala.